



EUSKO LEGEBILTZARRARI
TXOSTENA
1994

ARARTEKOAREN TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRARI
1994. URTEA

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Paper erreziklatua.
I.S.B.N.: 84-87122-61-2. Liburu osoa.
D.L.: BI-736-95



EUSKO LEGBILTZARRARI
TXOSTENA
1994

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| HITZAURREA | 13 |
| I. ATALA. AURKEZPENA | 17 |
| II ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK | 23 |
| 2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN | 25 |
| 2.2. 1994-1995 BITARTEKO LANKIDETZA-BEKAK | 31 |
| 2.3. "PADRE FRANCISCO DE VITORIA" GIZA ESKUBIDEEN SAILA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK | 32 |
| 2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK | 33 |
| 2.5. OMBUDSMANAREN INSTITUTO EUROPARRAREN URTE- ROKO BILERA ETA ARARTEKOA INSTITUTO HORRETA- KO LEHENDAKARI IZENDATU IZANA | 42 |
| 2.6. OMBUDSMANAREN IV. HITZALDI EUROPARRA | 42 |
| 2.7. HERRI DEFENDATZAILEEN ARTEKO KOORDINAZIOARI BURUZKO IX. JARDUNALDIAK | 43 |
| III. ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL | 77 |
| 3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURIS- MOA | 79 |
| A) Sarrera | 79 |
| B) Kexa aukeratuak | 80 |
| 3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA | 82 |
| A) Sarrera | 82 |
| B) Kexa aukeratuak | 82 |
| 3.3. HEZKUNTZA | 84 |
| A) Sarrera | 84 |
| B) Kexa aukeratuak | 85 |

| | |
|--|------------|
| 3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTO-LAKUNTZA..... | 95 |
| A) Sarrera..... | 95 |
| B) Kexa aukeratuak | 96 |
| 3.5. OGASUNA..... | 109 |
| A) Sarrera..... | 109 |
| B) Kexa aukeratuak | 110 |
| 3.6. HERRIZAINGOA | 116 |
| A) Sarrera..... | 116 |
| B) Kexa aukeratuak | 118 |
| 3.7. JUSTIZIA | 121 |
| A) Sarrera..... | 121 |
| B) Kexa aukeratuak | 121 |
| 3.8. INGURUGIROA..... | 122 |
| A) Sarrera..... | 122 |
| B) Kexa aukeratuak | 123 |
| 3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK..... | 129 |
| A) Sarrera..... | 129 |
| B) Kexa aukeratuak | 129 |
| 3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA | 134 |
| A) Sarrera..... | 134 |
| B) Kexa aukeratuak | 134 |
| 3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA | 140 |
| A) Sarrera..... | 140 |
| B) Kexa aukeratuak | 141 |
| 3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA | 144 |
| A) Sarrera..... | 144 |
| B) Kexa aukeratuak | 144 |
| 3.13. BESTE GESTIO BATZUK..... | 152 |
| A) Sarrera..... | 152 |
| B) Kexa aukeratuak | 152 |
| IV. ATALA. ESTADISTIKA..... | 155 |
| 4.1. OHAR OROKORRAK..... | 157 |
| 4.2. ESTADISTIKA SAILEZ SAIL..... | 160 |

| | | |
|------|--|-----|
| 4.3. | ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKA | 162 |
| 4.4. | LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA | 170 |
| 4.5. | PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA | 172 |
| 4.6. | ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA | 175 |
| 4.7. | HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA | 176 |
| 4.8. | DIAGRAMAK | 183 |

V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA 215

| | | |
|------|--|-----|
| 5.1. | ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK | 218 |
| | A) Eusko Jurlaritzza | 218 |
| | B) Foru diputazioak | 219 |
| | C) Udalak | 220 |
| 5.2. | ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA <i>BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN</i> BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK | 224 |
| | A) Eusko Jurlaritzza | 224 |
| | B) Foru diputazioak | 225 |
| | C) Udalak | 226 |
| 5.3. | ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK | 227 |
| | Udalak | 227 |

VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEA 229

| | | |
|--|----------------------------|-----|
| | A) Eusko Jurlaritzza | 232 |
| | B) Foru diputazioak | 235 |
| | C) Udalak | 237 |

| | |
|--|------------|
| VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK .. | 249 |
| 7.1. EHKA-KO LURRALDEA EGOKI EGITURATZEKO, LURRAL- DE ANTOLAMENDURAKO GIDABIDEAK (LAG) ONARTU BEHARRA | 251 |
| 7.2. ZENBAIT GOGOETA EGITASMO OROKORRETAKO ORDEZKO ARAUAK IDAZTEAREN INGURUAN | 253 |
| 7.3. HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA ETA BEREN ZERGA BETEBEHARRAK ONDO BETETZEA..... | 256 |
| 7.4. UR EDANGARRIAREN HORNIDURAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ETA FAMILIAREN BABESA | 262 |
| 7.5. ESPEZIALITATEAREN IRIZPIDEA HAUTAPEN-SAIL TEKNI- KOAK OSATZEAN..... | 263 |
| 7.6. EDIKTU BIDEZKO JAKINARAZPENAREN ERABILERA ADMINISTRAZIOAREN ZIGORBIDEAN, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN LEGE-JAURBIDERAKO ETA ADMINISTRAZIOA- REN JARDUNBIDE ARRUNTERAKO AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAN FINKATUTAKOAREN BABESEAN..... | 268 |
| 7.7. IRISGARRITASUNAREN ARAZOA INGURUNE FISIKOAN.... | 274 |
| VIII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK | 291 |

HITZAURREA

Poz handia ematen diit 1994. urteari dagokion Arartekoaren Txostenaren atea nire aurrekoari, Juan San Martin Ortiz de Zarate jaun txit gorenari, esker-rrak emanez irekitzea, erakundearen jarduera trebetasunez zuzendu zuelako, horren islada garbia baita Txostena, eta baita Ondokoari, Jesus Maria Arteaga Izagirre jaun txit argiari, eta posible egin duten gainerako guztiei ere.

Erakundeburuaren aldaketa martxoaren 10ean egin zenez gero, Txostena Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran aurkezteko ohorea izan nuen. Horrek garbi uzten du Arartekoak baduela, momentuan buru nor den axola gabe, erakunde guztien ezaugarri den egonkortasun eta jarraipena.

Txostenaren lehenengo orrialde honetan honelako erantzukizuna onartzean nork bere buruari egiten dion galderaren inguruan gogoeta egin nahi dut. Unibertsitatean egin zidaten talde-elkarrizketa batean gordin-gordin botá zidan Informazio Zientzien Fakultateko ikasle batek: "Eta Ararteko horrek, zer-baitetarako balio al du?"

Galdera horren erantzun zintzoa ezinbestekoa da niretzat eta ahaleginak erakunde honi eskaintzen dizkioten guztientzat, eta baita kexak jartzera etortzen diren hiritar guztientzat. Baina gainera, nire ustez, gizarte osoari eta beronen ordezkari den Legebiltzarrari dagokien galdera da, demokrazian komenigarria baita dauzkagun erakundeenganako konfidantza etengabe aztertu eta indartzea.

Arartekoaren erabilgarritasuna aztertzeko, batetik legeak aipatzen dituen zereginetara jo dezakegu, eta bestetik dagoeneko gauzatuta dagoen hondar doktrinalera, erabilgarri eta aberasgarri baita. Baina, gainera, Txosten honek isladatzen duen jarduera etorkizunean gogoeta eta iradokizunak egiteko iturri izan daiteke.

Txosten hau irakurri edo kontsultatzen duenak Arartekoan arazoei aurrea hartzeko zeregina betetzen ari dela ikustea espero dut. Administrazioaileei iristen ari zaizkie Arartekoaren bitartez hiritarren kexa zehatzak, ekintza zehatzei eta hauek arrazoitzen dituzten irizpideei buruzko informazio eskaerak, eta bestela jokatzeko iradokizun eta gomendio arrazoituak; gainera elkarrizketa sortzen da arazoei irtenbideak bilatzeko, e.a. Horrek guztiak, sustapen eta kontrolerako gainerako mekanismoekin batera, administrazioaileen gehiegikeria eta zabarkeria aukerak uxatzen laguntzen du.

Arazoei aurre hartzeko zeregin horri, osagarria baina ez ordezkoa, gomendio orokorrak eta araudia aldatzeko gomendioak gehitu behar zaizkio, horien helburua ere aurrea hartzea baita, baina jatorrian, alegia, interpretazio kaltegarriak sortaraz ditzaketan akats, hutsune eta espresio nahasiei aurrea hartzea.

Aurrea hartzea helburu duten bi bideak eta kexadunarentzat emaitza positiboa duten ekintza zehatzak direla eta, nire ustez Administrazioarekiko auzietara jo beharra arintzen ari da. Ararteko erakundeak jardunbide azkarra,

doakoa eta adiskidetzaila eskaintzen du, eta hori oso baliagarria gertatu da interes nahasiei, gizarte-eskubideei dagozkien kexak konpontzeko, hasieran bide juridikzionala ez baitzegoen arazo horietarako pentsatuta.

Txostenean azaltzen den eta Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ikusi zen beste erabilera bat da gure administrazioen patologiarene kanpoko diagnostikoa egitea, eskubideak zapaltzean gizarteak min hartu duen gunetako radiografia egitea. Diagnostiko hori administraitzeentzat beraienez izango da, kontraste eta iradokizun elementu gisa erabil dezaten. Eta baita Legebiltzarrentzat ere, sustapen, kontrol eta lege-ekimenetarako. Gai horretan ahalik eta etekin handiena lortzeko, Txostenean jasotako kasuak ikuspuntu zabaletik begiratzea proposatzen dut. Horrela, datu zehatzetatik behar-beharrezko galdarak egin ditzakegu: zein da eskubideen egoera? Herritarrak pozik al daude hezkuntza, osasunaren prebentzioa eta zainketa, eta ingurugiroa babesteko zerbitzuekin? Ba al dago etxebizitzarik gazteentzako? Ematen al zaio arreta adineko jendeari? E.a.

Azkenik, gauza jakina den arren, Txostenaren atal zabalena aipatu nahi dut: erabilera zuzena, hiritarren kexak konpontzea, hain zuzen. Bai kexak oinarria duela aitortzen denean, eta ondorioz, Administrazioak herritarrari eskubidea bereganatzea edo kaltea konpontzea lortzen denean, eta bai eskubiderik ez dela zapaldu, gehiegikeriarik ez dela izan, zabarkeriarik edo irregularitasunik ez dela izan eta herritarrari arrazoiak azaltzen zaizkionean. Arazo zehatzak konpontzeko zeregin hau nire ustez bide garrantzitsua da benetako bizitzan, egunerokoan, bakea lortzeko, eta benetan merezi duena.

Izan dadila, beraz, gure jarduna eta Txosten hau, hiritarra ondo defendatzeko eta berak hala jasotzeko.

Xabier Markiegi Candina

ARARTEKOA

I. ATALA
AURKEZPENA

Virtus non consistit proprie in desiderio, sed in executione actus.

(Birtutea ez dago gogo hutsean, egin-tza gauzatzean baizik)

Aita Frantzisko Vitoriakoa

1994. urteari hasiera emateko, Ararteko Erakundearen jardunaren lehen-biziko zikloa amaitzearekin batera, aurreko urtealdiari zegokion Urteko Txostena aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean, eta aldi berean, Arartekoaren lehen bost urteak laburtzen zituen txosten berezia ere eman zitzaion Legebiltzarrari.

Martxoaren zortiaz geroztik bitartekotzat har dezakegun aldian sartu ginen, nolabaiteko zalantza-egoeran murgilduz, batetik, behin-behinekotasun luze batek hain berria den erakunde honetan zer eragin izan zezakeen ez genekielako, eta bestetik, ezin ukatuko dugu, egun horretatik aurrera behin-behineko jardunean aritu beharrak erosotasunik eza zekarkiolako titularrari.

Dena dela, erakundeen bereizgarrietako bat denboran zehar duten iraunkortasuna da, gerta daitezkeen gorabehera zein aldaketen gainetik, eta ondorioz, biziki pozten nau lan-erritmoak normaltasun osoz jarraitu duela ikusteak, aurkeztu dizkiguten kexak konpondu direlarik eta ahal izan diren bezanbat ofiziozko jarduerari hasiera eman zaielarik, eskuartean duzun txosten honetan egiaztatuko duzunez.

Urtea aurrera joan ahala, izan zen langile-taldea utzi zuenik, eta horien artean aipatu nahi genuke Jesus Maria Arteaga, hasiera-hasieratik Erakundearen zuzendaritzan leialtasunez parte hartu eta beharrezko izan zenean titularra ordezkatu zuena.

Lerro hauen bidez bihotz-bihotzez eskertu nahi diot erakunde honen antolakuntza eta garapenean lagundu izana. Halaber, nire esker ona luzatu nahi diet aruten Arartekoaren jarduna normaltasun osoz burutu zedin ondoan izan ditudan lan-taldeko gainerakoei, eta baita norberaren arrazoiak zirela medio Erakundea utzi behar izan zutenei ere: idazkari izan dudan Miren Kerejetari; izan ere, urteotan lana gogoz eta eraginkortasunez eginez izugarri lagundu dit, eta aldi baterako lan-uztea bukatu zitzaionean aurretik zuen lan-postura itzuli behar izan zuen. Eskerrak eman nahi nizkioke, bestalde, erakunde honek argitaratu zuen ingurugiroari buruzko lan monografiko bikaina idatzi

zuen Eduardo Ruiz Vieytez aholkulariari, zeinak Unibertsitatean giza eskubideen alde lanean jarraituko duen.

Arestian bitarteko aldia deitu diot urtealdi horri, baina hala ere, esan beharra dago normaltasun eta erakundearen sendotze garaia ere izan dela, eta argi azaldu nahi dut herri-administrazioen erantzunak nabarmen egin duela hobera, nahiz eta zenbaitetan, txosten honetako kapitulu batean adierazten denez, ezinbestekoa izan den informazio-eskaerei ez erantzuteagatik errekerimenduak egitea.

Baina bereziki nabarmendu nahi nuke zein ondo hartu dituen Administrazioak erakunde honek egin dizkion gomendioak.

Nolanahi ere, eta aipatu den normaltasunaren erakusgarri, aurtan inoiz baino kexa-espedito gehiago argitu da, ez bakarrik 1994 urteari zegozkionak, baita aurreko urteetan ebatzi gabe geratutako beste batzuk ere.

Bestalde, ofiziozko beste lan monografiko bati ere ekin zaio, hain zuzen eguneko zentruetan eta adinekoei etxera bidaltzen zaien laguntzari buruzkoa, eta horrek, lehenago egin genuen zaharren egoitzei buruzkoarekin batera, egoitzetan zein egoitzetatik kanpo bizi diren adinekoek jasotzen duten laguntzaren ikuspegi orokorra eman ahal izango digu.

Nahiko aurreraturik dagoen ikerketa-lan hau laster aurkeztuko dugu Legebiltzar honetan.

Osasunerako, ingurugirorako eta funtzio publikoan sartzeko aukera berberak izateko eskubideak zaintzeko zenbait ofiziozko jarduera egiteaz gain, erakunde hau atxiloketa-zentru eta psikiatrikoei buruzko txostenetan eman zituen gomendioak bete daitezten arduratu da.

Eta berriro ere gogorarazi nahi dut Ararteko honek berebiziko garrantzia ematen diola gomendio eta iradokizun orokorren kapituluari, izenburuak berak adierazten duenez, oro har tratatzen baititu aztertzen diren gaiak, bai arauetan bai herri-administrazioen jokabidean aldaketak egon daitezten saiatzen delarik.

Honako txosten honetan herritarrarentzat hain garrantzizko diren gaiok jorratu ditugu: ediktu bidezko jakinarazpenaren erabilera Administrazioaren zigorbidean; irisgarritasunaren arazoa ingurune fisikoan; EHKako lurraldea egoki egituratzeko, Lurralde Antolamendurako Gidabideak onartu beharra; zenbait gogoeta egitasmo orokorretako ordezkotako arauak idaztearen inguruan; herritarrentzako informazioa eta beren zerga betebeharrak ondo betetzea; ur edangarriaren horniduragatik ordaindu beharreko prezio publikoak eta familieren babesa; espezialitatearen irizpidea hautapen-sail teknikoak osatzean.

Erabat pozgarria izan zait "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Saileko lehen hiru liburuak argitaratu izana, hain zuzen, erakunde honek emandako hiru bekaren emaitzak izan baitira. Honako izenburu hauek dituzte: *El derecho al ambiente como derecho de participación*, *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)* eta *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*.

Ekimen hauek giza eskubideei ikuspegi teoriko nahiz akademikotik zor zaien begirunean sakontzen lagunduko dutelakoan nago.

Bestalde, 1994. urtea oparoa izan da beste ombudsmanekin izandako harremanei dagokionez, Ararteko Erakundeak parte hartu duen topaguneetan behinik behin.

Gogorazi nahi dut, 1993ko urrian, Espainiako Defensor del Pueblo-k eta Estatuko gainontzeko komunitate autonomoetako ordezkariak hala proposatuta, Ararteko hau aho batez Ombudsmanaren Instituto Europarreko Lehendakariorde izendatu zutela.

Lan horrek zuzendaritza-batzordearen bileretan parte hartzera behartu nau, eta Institutoaren antolaketan berrikuntza garrantzitsu askori ekin zaio bertan. Aldi honetako lorpenen artean aipatzeko modukoa da aurrerantzean gaztelera izango dela erakunde horrek bere lanetan erabili beharreko hizkuntzeta-ko bat.

Azpmarratu behar da, orobat, ekainaren hiruan Berlinen egindako urteko batzar nagusian, Arartekoa Ombudsmanaren Instituto Europarreko Lehendakari izendatu zutela, eta horrek, noski, pozez bete gaitu, ez neuretzat den ohoreagatik, Legebiltzar ordezkari den euskal erakunde batentzat duen esanahiagatik baizik.

Urriaren 6 eta 8 bitartean egin ziren Herri Defendatzaileen IX. Jardunaldietan, koordinazio gaiez gain, zenbait gai monografiko ere landu ziren, horien artean Arartekoak "Emakumea lan munduan" izeneko txostena aurkeztu zuelarik.

Ombudsmana Espainian zein mundu osoan hartzen ari den indarra adierazten dute hala Gaztela eta Leongo Procurador del Común Erakundearen sorrerak eta ondoren bere titularra izendatzeak, nola Argentina Errepublikako Herri Defendatzailea sortu izanak, lehen titular gisa hain harreman estua dugun Dr. Jorge Luis Maiorano Argentinako Justizi Ministrari ohia izan zelarik.

Ombudsmanen arteko harreman horien eraginez, Iberoamerikako Elkar-teen idazkari nagusi, eta aldi berean, Boliviako Herri Defendatzaile den Rosario Chacón andreak Euskal Herria bisitatu zuen, gure elkartea elebiduna delako.

Boliviako Konstituzioan egindako aldaketa baten bidez hizkuntza indige-noak gaztelaniarekin batera ofizialtzat jo dituztenez gero, Arartekoak hizkuntz arazoak nola bideratzen dituen eta Elkarte Autonomoko egoera nolakoa den jakin nahi zuen Boliviako Herri Defendatzaileak.

Esan ere esan behar dut Defensor del Pueblo berriak, Fernando Alvarez de Miranda jaun txit gorenak, kargua hartu zuenean bertan egon nintzela, kargu horretan aurretik egondakoarekin bezalaxe oso harreman estua dudalarik berarekin ere.

Bukatzeko, azaldu nahi dut Ararteko Erakundea sortu zela sei urte badira ere, oraingoz ez duela behin-betiko egoitzarik, eta horrek ez diola inola ere laguntzen Legebiltzarreko goi ordezkari den aldetik dituen eginbeharrak betetzen.

Honako txosten hau aurkezteak duen garrantzia ere azpmarratu beharko dugu, Aratekoak Legebiltzarrari, eta bide batez jendeari, bere lanaren berri ematen baitio.

Jakina den bezala, ezarrita dagoen jardunbidearen arabera, lehen agerraldia legebiltzar-batzordean izaten da, eta bertan legebiltzar-talde guztiek har dezakete parte, egoki deritzen azalpenak eskatuz edo beren iritzia agertuz eta Arartekoak egiten dizkioten galdera guztiak erantzun ahal izaten ditu. Agerraldi hori txostenaren edukiaren inguruan eta, bereziki, gomendio eta iradokizun orokorrek bezalaxe, araua aldatzeko proposamenak egiten dituzten kapituluek eztabaida sortzeko aprobeztatu beharko litzateke, izan ere, Arartekoak Osoko Bilkuran hitz egin ondoren aretotik irten beharra dauka, legebiltzar-talde guztiek txostenaren balorazioa egin dezaten, eta orduan Arartekoak ezin dezake eratzunik eman.

Azkenik, txosten honek erakutsi egin beharko luke Ararteko Erakundearen buru egin dudan azken sei urteotan gure jarduerak legezkotasun-irizpideari zor zaion begiruneaz joratu direla beti, nahiz eta jarduera horiei gizalegez ekin zaien, ez baita ahaztu behar gizakiei dagozkien arazoak bideratzen direla.

Amaitzeko, haxe adierazi nahiko nuke: Erakundeak behin-behineko aldi honetan normaltasunez jardun izana erakundearen sendotzearen adierazgarri da, eta bere baitan dakar bigarren aldi honetan heldutasuna lortuko duen itxaropena ere.

Juan San Martin Ortiz de Zarate

II ATALA
**ARARTEKOAREN
JARDUERA NAGUSIAK**

2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN

Txostenaren atal honetan, aurreko urteetan bezala, Arartekoaren harreman-ekintzak isladatzen saiatuko gara, komunikabideekin izandako harremanak kanpoan utziz. Ekintzak erakunde mailakoak dira batik bat, eta horiek gauzatzeko hartu den irizpidea komunikatu eta gerturatzea izan da, bai gizartean eragina duten taldeei eta bai Komunitate Autonomoko eta komunitateaz kanpoko erakunde ezberdinei dagokienez.

Aurreko urteetan bezala, joan den urtealdian ere ahaleginak egin ditugu gizarte zibilarekin -askotan berorren talde aktiboenen bitartez- harreman-bide guztiak eta, aldi berean, Ararteko Erakundearen helburuak lortzeko beharrezko diren erakunde-harremanak mantendu eta sustatzeko.

Aipatzekoa da Estatu eta nazioarte mailako bileretan izandako parteharitzea, bai giza eskubideen inguruan aztertutako gaien interesagatik eta baita Ararteko Erakundeari gordetzen zaion toki nagusiagatik ere, Europako Ombudsmanak biltzen dituen institutoaren lehendakari izateko ohorea baitu.

Ondoren bildutako ekintza laburpenetan, 1994. urtealdian zehar erakundearen artean burututako ekintza ezberdinak jasotzen dira egunez egun, bai EHKA eta Estatuan, eta bai nazioarteko esparruan, azken horiek gehienbat Ombudsmanaren Instituto Europarreko lehendakari kargua dela eta sortuak. Ekintzak bereziki aberasgarriak dira, bileretan legebiltzar-ordezkarri bakoitzak bere jarduera-eremuan izan duen esperientzia jakinarazi eta besteenaren berri izaten duelako.

- **Urtarrilak 20.** Vitoria/Gasteiz. Ephiale, Ikasketa Ikonografikoetarako Udal Erakundearen zabaltze-ekitaldia.

- **Urtarrilak 28.** Vitoria/Gasteiz. Hiru lurralde historikoetako Gizarte Ongizate diputatuekin bilera Eusko Legebiltzarrean, Euskal Elkarte Autonomoko zaharren egoitzei buruz egindako lana emateko.

- **Urtarrilak 29.** Donostia/San Sebastián. Arartekoa Probintzi Auzitegiak antolaturiko epailaritza-urtearen hasiera-ekitaldira joan zen.

- **Otsailak 1.** Vitoria/Gasteiz. Erakundeburuak intsumisoen gurasoak hartu zituen Erakundearen egoitzan, eta haien kezkei buruzko informazioa jaso zuen.

- **Otsailak 2.** Bilbao. Ercilla Hotela. Euskadiko Elkarlanerako Kooperatiben Federazioak antolatua, Arartekoak *La desprotección relativa por desempleo de los socios de Cooperativas de Trabajo Asociado: una discriminación normativa no razonable* liburuaren aurkezpen-ekitaldian buru egin zuen.

- **Otsailak 5.** Donostia/San Sebastián. Arartekoak Euskal Herriko Gesto por la Paz elkarteak antolatutako manifestazioan parte hartu zuen.
- **Otsailak 8.** Vitoria/Gasteiz. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuarekin, José Antonio Maturana jaun txit argiarekin, bilera.
Arratsaldean, Arartekoa Eusko Legebiltzarraren egoitzan izan zen; *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)* liburua-
ren aurkezpenean.
- **Otsailak 9.** Vitoria/Gasteiz. Hiru lurralde historikoetako Auzitegiko Fiskal Nagusiekin aldiko koordinazio-bilera.
- **Otsailak 16.** Donostia/San Sebastián. Arartekoak Euskara Batuaren sorrera, garapen eta egoerari buruzko hitzaldia eman zuen EUTGko egoitzaren Paraninfoan.
- **Otsailak 17.** Vitoria/Gasteiz. *Adinekoen egoitzak Euskal Elkarte Autonomoan* deituriko txosten bereziaren aurkezpena zela eta, Erakundeko burua Giza Eskubideen Batzordearen aurrean agertu zen.
Eibar. Arratsaldean, udaletxeko Batzar Nagusien Aretoan *Antzinako Eibar* liburua aurkeztu zen, Arartekoak idatzia eta herri horretako Udalak argitaratua.
- **Otsailak 19.** Donostia/San Sebastián. Hiri horretako Udalak gonbidatua, Arartekoa Ruiz Balerdi margolariari Loretopen egindako omenaldira joan zen.
- **Otsailak 21.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak bere egoitzan David Bidarte eta Eugene Robinson jaunak hartu zituen, berriki osatu den Asociación Afrovasca delakoaren ordezkariak.
- **Otsailak 22.** Vitoria/Gasteiz. Ijito taldearen ordezkariekin bilera, talde hori erroldatzeari buruzko arazoaz jarduteko.
- **Otsailak 24.** Tolosa. Herri horretako Galtzaundi Forum-ak gonbidatuta, Arartekoak hitzaldia eman zuen "Ararteko Erakundea, orainarteko nire esperientzia" gaiaren inguruan.
- **Martxoak 2.** Donostia/San Sebastián. Gipuzkoako Ospitaleko kudeaketa-zuzendari eta mediku-zuzendariekin bilera, garbiketa greba zela eta. Bilera horretan, ospitalean dauden gaisoenganako arretari dagokionez zentruaren jarduera egokia eragingo duten irizpideak zehaztu ziren.
- **Martxoak 3.** Madril. Defensor del Pueblo izandako Alvaro Gil-Robles Gil-Delgado jaun txit gorenari Raimundo de Peñafort Deunaren Gurutze Handia ezarri zion Justizia Ministroak. Arartekoa ekitaldian izan zen.
- **Martxoak 7.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak Legebiltzarburuari, Joseba Leizaola jaun txit gorenari, *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1993 eta Ararteko Erakundearen lehen bost urteak 1989-1994* liburuak aurkeztu zizkion.
- **Martxoak 12.** Donostia/San Sebastián. Erakundeko burua Espainiako Eri Psikiko eta Senide Elkarten Federazioak "Eri psikikoentzat egoitza eta elkarbizitza aukerak" deiturapean antolatutako V. Jardunaldien amaiera-ekitaldira joan zen, Miramar jauregira.
- **Martxoak 21.** Vitoria/Gasteiz. Hiriko Alkatea den José Angel Cuerda jaun txit argiarekin elkarrizketa.

- **Martxoak 28.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak "Saharar Errepublikaren Lagunen Elkarte"ko ordezkaria hartu zuen Erakundearen egoitzan.

- **Apirilak 5, 6, 7 eta 8.** Viena. Ombudsmanaren Instituto Europarraren lehendakariorde modura, Arartekoa Austriako Wölksanwalt-ek (Ombudsmana) antolatutako zenbait ekintzatarako joan zen, honako egitarauari jarraituz:

Apirilak 6. Viena. Ombudsmana Espainian, autonomietako ordezkari ezberdinen arteko harremanak, eta bereziki Ararteko Erakundearen antolamendua gai hartuta, Arartekoak hitzaldia eman zuen Austriako Ombudsmanaren egoitzan. Espainiako Enbaxadore jauna bertan izan zen.

Apirilak 7. Viena. Erakundeburuak Austriako Legebiltzarrerara bisita egin zuen. Bertan, Lehendakariordeak eta Legebiltzarreko Mahaiko zenbait kidek hartu zuten.

Apirilak 8. Innsbruck. Ombudsmanaren Instituto Europarraren egoitzan bilera, berorren jardunari dagozkien gai ezberdinei buruz aritzeko. Bilera berean, Espainian dagoen legebiltzar ordezkari kopuru handia dela eta, zera proposatu zen: Ombudsmanaren Instituto Europarrak antolatzen dituen jardunaldietan gaztelera ere bat-batean itzultzen diren hizkuntzen artean sartzea. Proposamena onartu egin zen.

- **Apirilak 14.** Donostia/San Sebastián. Probintzi Auzitegiko Fiskal Nagusiarekin, Luis Manuel Navajas jaun txit argiarekin, bilera.

- **Apirilak 18.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak Europar Legebiltzarreko Torturaren Aurkako Batzordekideak hartu zituen Erakundearen egoitzan eta bere jarduera azaldu zien.

- **Apirilak 20.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak Ondarroako Alkatea eta Senideak elkartearen herri horretako ordezkariak hartu zituen Legebiltzarraren egoitzan.

- **Apirilak 21.** Vitoria/Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Lehen Lehendakariordeak, Patxi Ormazabal jaun txit argiak, Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

- **Maiatzak 6.** Gernika. Arartekoa Europako Mugimendurako Euskal Kontseilua berpizteko ekitaldian izan zen, Gernikako Batzar-Etxean.

- **Maiatzak 9.** Bartzelona. Kataluniako Síndic de Greuges-ek gonbidatua, Arartekoa Austriako Ombudsman den Dr. Herbert Kohlmaier-ek "Ombudsmanaren egitekoa demokrazia sistemen krisian" izenburupean emandako hitzaldian egon zen, La Caixa Fundazioaren aretoan.

- **Maiatzak 16.** Vitoria/Gasteiz. "EHKako lehen Arartekoaren bost urteko jarduera" gai harturik Erakundeko buruak hitzaldia eman zuen, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak antolatua.

- **Maiatzak 18.** Vitoria/Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1993* aurkeztu zitzaion Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari.

- **Maiatzak 25.** Getxo. Arartekoa Jon Bilbao bibliografilaria ospetsuaren hiletara joan zen.

- **Maiatzak 27.** Vitoria/Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1993* liburuaren aurkezpena Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

- **Ekainak 1, 2 eta 3.** Berlin. Egun horietan Ombudsmanaren Laugarren Hitzaldi Europarra egin zen, Ombudsmanaren Instituto Europarrak Berlingo Diputatuen Ganbararen laguntzaz antolatua. Biltzarraren deitura "Hiritarren defentsarako erakunde europarren finkatzea" izan zen.

Egun horietan Europako Ombudsman eredu ezberdinak ikusi ziren (Suediakoa, Frantziakoa, Poloniakoa, eta bestelako erakunde bermatzaileak, Alemaniako Eskaera Batzordeak bezalakoak). Ombudsman Europarraren gaiari ere heldu zitzaion, Maastricht-eko Hitzarmenean jasoa baitago.

- **Ekainak 3.** Berlin. Ombudsmanaren Instituto Europarraren Urteroko Batzar Orokorra. Bilera honetan Juan San Martin jaun txit gorena Ombudsmanaren Instituto Europarreko (OIE) lehendakari aukeratu zuten.

- **Ekainak 14.** Vitoria/Gasteiz. Torturaren Aurkako Taldearekin (TAT) bilera Eusko Legebiltzarrean.

- **Ekainak 16, 17 eta 18.** Lisboa. Arartekoa Europako Ombudsmanen IV. Mahai ingurura joan zen, Europar Kontseiluko Idazkaritza Orokorra Portugalgo Provedor de Justiça-ren laguntzarekin antolatua.

Europar Elkarteko Ombudsmanek elkarren artean, Europar Kontseiluarekin eta Europako erdialde nahiz ekialdeko herrialdeetako Ombudsmanekin dituzten elkarlaguntza harremanak aztertu ziren batik bat egun horietan zehar.

- **Ekainak 23.** Vitoria/Gasteiz. Elkarrizketa Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuarekin, Joseba Zubia jaun txit gorenarekin, eta Jaurlaritzako Idazkaritzaren eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariarekin, Enrique Lucas jaun txit argiarekin.

- **Ekainak 24.** Donostia/San Sebastián. Arartekoa, 25 urtez Asilo Fundación Matía-ko zuzendari izan zen Jesús Ferro jaunaren omenaldira joan zen.

- **Ekainak 30.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoa Ciudad de Vitoria Hotelean egin zen ekitaldira joan zen "Gazteen kotxe-istripuen inguruan ardura hartzea" gaiaz aritzeko, Euskadiko Kutxak Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta hiriko Udalaren laguntzaz antolatu zuena.

- **Uztailak 1.** Vitoria/Gasteiz. Erakundeko burua Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Ajuria-Enea Jauregian Arabako gizarte-esparru ezberdinetako ordezkariak egin zien harrerara joan zen.

- **Uztailak 4.** Xabier Markiegi parlamentari jaun txit argiarekin bilera, Erakundearen barne-jarduerari eta kontzeptuzko zenbait xehetasuni buruzko informazioa emateko.

- **Uztailak 8 eta 9.** Viena. Arartekoa Lehendakari duen Ombudsmanaren Instituto Europarraren Zuzendaritza Batzordea bildu zen, ordurarteko lana ikuskatzeko eta etorkizuneko zeregina koordinatu asmoz, jarraibideak zehaztu eta ezartzeko.

- **Uztailak 13.** Vitoria/Gasteiz. Ertzaintzak Arkauten dituen kalabozoetara bisita.

- **Uztailak 20.** Usurbil. Arartekoak Usurbilgo Eritetxe Psikiatrikoa bisitatu zuen.

- **Abuztuak 29.** Donostia/San Sebastián. Arartekoa Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Miramar jauregian eskainitako harrerara joan zen.

- **Irailak 8 eta 9.** Bilbao. Erakundearen Lege Aholkularitzako burua, zenbait aholkularirekin batera, Nazioarteko Erakustazokako Arantzazu Aretoan egin zen Giza Eskubideei eta Poliziari buruzko hitzaldira joan zen.

- **Irailak 12.** Vera de Bidasoa. Arartekoak, Miguel Ortega Spottorno jaunak lagundua, Julio Caro Baroja jaunari bisita egin zion haren udako Itzea etxera.

- **Irailak 19.** Madril. Euskaltzaindiko ordezkariekin batera Espainiako Errege-Erregiñei protokolozko bisita, erakunde horren sorreraren 75. urtemuga zela eta.

- **Irailak 24.** Donostia. Arartekoak, José Ignacio Tellechea Idígoras Doktoarearekin batera, buru egin zuen "Gizatasuna erizaintzan" Kongresu Nazionalaren amaiera- ekitaldian.

- **Urriak 6, 7, eta 8.** Alicante. Herri Defendatzaileen IX. Jardunaldiak. Topaketa hauek urtero eta txandaka antolatzen dituzte Herri Defendatzaileek, eta erreferentzia-gune nagusi dira gure lan eta ekintza egutegian. 1994. urtean Valentziar Komunitateko Síndic de Greuges-ek izan du gertakari hau antolatu eta koordinatzeko ardura. Aztertutako gai monografikoen artean, Arartekoak "Emakumea lan munduan" izeneko ponentzia aurkeztu zuen.

- **Urriak 15.** Buenos Aires. Arartekoa, Eusko Legebiltzarreko Ararteko eta Ombudsmanaren Instituto Europarraren Lehendakari den aldetik, Iberoamerikako zenbait defendatzaileekin batera, Jorge Luis Maiorano Doktoareak Argentinako Errepublikako Herri Defendatzaile izendatu zuten egunaren bezperan Zavalía-ko bere etxean eskainitako harrerara joan zen.

- **Urriak 16.** Buenos Aires. Arartekoa Ombudsmanaren Elkarte Iberoamerikarraren (OEI) Lehen Biltzarrean izan zen, El Conquistador hotelean, elkarte horren sortzaileetarikoa bat den aldetik.

- **Urriak 17.** Buenos Aires. Nazioko Diputatuen Ganbaran, Arartekoa Argentinako Nazioko lehenengo Herri Defendatzailearen, hau da, Jorge Luis Maiorano Doktoarearen kargu-hartze ekitaldian izan zen. Aurkezpen hitzaldia Nazioko Senatu Ohoretsuaren Behin-behineko Lehendakariak eta Nazioko Diputatuen Ganbarako Lehendakariak egin zuten.

Ondoren, Arartekoa Espainiako Enbaxadoreak Enbaxadan bertan eskainitako afarira joan zen, Argentinako Herri Defendatzailearekin, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutoko zuzendaritzaren ordezkariekin, Espainiako behin-behineko Defensor del Pueblo-rekin, eta Kataluniako Síndic de Greuges-ekin batera.

- **Urriak 19.** Buenos Aires. Euskal Ikasketen Instituto Amerikarrak antolatuta, Buenos Airesko Laurak Bat egoitzan Arartekoak hitzaldia eman zuen "Argentinako euskaldunen historiarako oharra" izenburupean.

- **Urriak 20.** Buenos Aires. Herri Defendatzaileak, Jorge Luis Maiorano Doktoareak, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutoaren eta Ombudsmanaren Elkarte Iberoamerikarraren ordezkariak eskainitako agur-afaria. Arartekoa Ombudsmanaren Instituto Europarraren Lehendakari den aldetik gonbidatu zuten.

- **Urriak 23 eta 24.** Innsbruck. Arartekoak, Ombudsmanaren Instituto Europarraren Lehendakari gisa, buru egin zuen instituto horren zuzendaritza batzordean, hurrengo urterako ekitaldi-egitaraua zehazteko.

- **Urriak 26 eta 27.** Valladolid. Erakundeburuak "Herri Defendatzailea eta Elkarte Autonomoak" izenburupean egin zen mahai inguruan parte hartu zuen. Mahai ingurua Valladolideko Unibertsitatearen Paraninfoan egin zen, Gaztela eta Leongo Elkartean Procurador del Común delakoa ezartzeari buruzko azterketa-jardunaldiak zirela eta.

- **Azaroak 11.** Vitoria/Gasteiz. ANAR Fundazioko lehendakari den Silvia Moroder andrearekin elkarrizketa. Fundazio hori Haurren Ongizateko Nazioarteko Forum-ari atxikia dago. Amaitutakoan Eusko Legebiltzarra bisitatu zuten, eta ondoren Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko diputatuarekin, Jesús Loza jaun txit argiarekin, bildu ziren.

- **Azaroak 21.** Bartzelona. Kataluniako Sindic de Greuges arautzen duen legea aldarrikatu zeneko X. urteurrenaren ospakizuna zela eta, Arartekoa, Kataluniako Goi-Ordezkariek gonbidatua, ekitaldi horretara joan zen. Ondoren, Finlandiako legebiltzar-Ombudsmanak, Jacob Söderman Doktoreak, "Ombudsmanaren zeregina gizarte-inguru aldakorrean" izenburupean emandako hitzaldian izan zen.

- **Azaroak 24.** Vitoria/Gasteiz. "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Sailaren aurkezpena Legebiltzarrean. Orain arte hiru monografiak osatua dagoen saila, erakunde honek emandako ikerketa beken azken emaitza modura jasotako lanei dagokie, eta gaiak zalantzarik gabe interesgarriak direnez gero, egoki iritzi zaio beroriek argitaratzeari.

Lehenengoa *El derecho al ambiente como derecho de participación* lana da, Eduardo Ruiz Vieytes irakasleak egina. Bigarren lana, *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*, Miguel Angel Encinas-ek egindakoa da, eta hirugarrenak *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos* du izenburutzat, eta Gema Varona Martínez-ek egina da.

- **Azaroak 25.** Bilbao. Goizean egin zen Euskaltzaindiaren akademia saioan, Arartekoak hil berria zen eta Euskaltzaindiaren ohorezko kide zen Justo Garate doktorearen biografiari buruzko txostena irakurri zuen.

Arratsaldean Arartekoa Xabier Kintana jaunak euskaltzain oso aukeratu zutelako eman zuen sarrera-hitzaldira joan zen.

- **Azaroak 30.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoa Parlamentu berriaren osaera, haren Mahaiaren aukeraketa eta Legebiltzarren lehendakari berriaren izendapen ekitaldian izan zen Legebiltzarren egoitzan.

- **Abenduak 1.** Madril. Defensor del Pueblo erakundeak gonbidatua, Arartekoa Defensor del Pueblo berriaren, Fernando Alvarez de Miranda jaun txit gorenaren, kargu-hartzera joan zen.

- **Abenduak 13.** Madril. Erakundeburua, Ombudsmanaren Instituto Europarraren Lehendakari den aldetik, Latinoamerikako herri-defendatzaile, prokuradore eta giza eskubideen ordezkari buruz San Josen egindako Adierazpenaren jarraipenerako taldearen bilerara joan zen. Ekitaldia Giza

Eskubideen Amerikarteko Institutoak eta Espainiako Herri Defendatzaileak antolatu zuten. Bileraren helburua herrialde latinoamerikarretan Ombudsmanaren erakundeen sustapena aztertzea izan zen.

- **Abenduak 14.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoak gonbidatua, Boliviako Herri Defendatzailea eta aldi berean Ombudsmanaren Iberoamerikar Elkartearen idazkari nagusi den Rosario Chacón Salamanca andrea heldu zen Gasteiza, Ararteko Erakundearen antolamendu eredia eta batez ere elebitasunaren trataera aztertzeko asmoz, Estatu boliviarrak Konstituzioa aldatu berri duenez berebiziko interesa baitu gai horrek. Izan ere, aipatu aldaketaren ondorioz, Boliviako Konstituzioak hizkuntza indiarrei ofizialtasuna ematen die gaztelera-rekin batera.

Vitoria/Gasteiz. Arratsaldean, Arartekoa eta Boliviako Herri Defendatzailea Emakunde 1994 sariaren banaketara joan ziren, eta Lehendakariarekin elkarriketa izan zuten.

- **Abenduak 15.** Vitoria/Gasteiz. Arartekoa eta Rosario Chacón andrea Legebiltzarrean izan ziren, eta bertan hartu zituen Legebiltzarreko Lehendakariak, Joseba Leizaola jaun txit gorenak.

- **Abenduak 19.** Zaldibar eta Bermeoko psikiatrikoetara ofiziozko bisita.

- **Abenduak 20.** Madril. Madrilgo Euskal Etxeak eskatuta eta ikasturteari hasiera emateko, Erakunde buruak "Ararteko Erakunde, urteotako nire esperientzia" gaiaren inguruan hitzaldia eman zuen, eta baita Euskaltzaindiari buruzko hizketaldi laburra ere, erakunde horren 75. urteurrena zela eta.

- **Abenduak 21.** Madril. Madrilen zegoela eta, Boliviako Herri Defendatzaileak gonbidatua, Arartekoa Bartolomé de Las Casas sariaren banaketara joan zen. Saria Boliviako Lehendakariordeari eman zitzaion, Víctor Hugo Cárdenas jaunari, maila horretako kargua duen lehen indigena izateagatik. Arartekoak Aita Francisco de Vitoriaren *De Indis insularis. De iure belli* liburuaren ale bat eman zion.

- **Abenduak 26 eta 27.** Bermeo, Beasain eta Gasteizko Udaltzaingoko kalabojoetara bitak.

- **Abenduak 29.** Arartekoa Lehendakariaren Izendapenerako Osoko Bilkuran izan zen, Legebiltzarreko bilera aretoan.

2.2. 1994-1995 BITARTEKO LANKIDETZA-BEKAK

1994. urtealdian, aurreko urteetan bezala, Ararteko Erakundeak lankidetzabekak sustatu ditu.

Deialdia 1993ko urriaren 8ko erabakiaren bidez (EHAA, 199. zk., urriaren 19a) egin zen, eta ahozko zein idatzizko hautaketa-frogen ondoren, 1993ko abenduaren 16ko erabakiaren bitartez (EHAA, 14. zk., 1994ko urriaren 21a) eman zitzaizkien Juan Carlos Gómez Marín eta Ander Vergara Saatuari.

Beka hauen helburua Euskal Elkarte Autonomoan giza eskubideen babesarekin zerikusia duten azterketa monografikoa egitea da. Oraingoan Erakundeak

eta bekadunek azterketarako aukeratu dituzten gaiak hauek izan dira: "Erakunde publikoetan sartu nahi duten langileei merezimendu eta gaitasun irizpidea ezartzea" eta "Hezkuntza eta hizkuntz eskubideak lege araubidean".

Aipatu beharra dago aurten, lehenengo aldiz, bekei dagozkien lanetako bat euskaraz egin dela, horrek dakarren zailtasunaz. Lan horretan Elkarteko hizkuntzei onartzen zaien ofizialkidetasuna aztertzen da, bai eta onarpen horrek dakartzan eskubideek hezkuntzarako eskubideari begira izan dezaketen hedadura ere. Lanaren helburuetako bat hau da: euskaraz hezia izateko eskubideak izan dezakeen eragina aztertzea.

1994an egindako beste lanari dagokionez, hau da bere edukia: bai Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun eskubideak eta bai administrazio Zuzenbideko irizpide orokorrek (publizitate-eskubidea, esaterako) enpresa publikoetako lanpostuak lortzeko hautaketa-sistemetan duten eragina, lan-harremanez ari garela kontuan hartuz, eta ez funtzionari-harremanez.

Jakina denez, erakunde honek gutxienezko kalitate nahiz interes maila duten beka-lanak argitaratzen ditu, Erakundeak berak sustatzen duen giza eskubideen inguruko bildumaren barruan.

Ohi denez, hurrengo urteko, hau da, 1995eko, bekentzat hautaketa-espeditentea ere bideratu da. Horrela, deialdia 1994ko urriaren 3ko erabakiaren bidez egin zen, eta oinarri-arauekin batera argitaratu zen urriaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 196. zenbakian.

1995eko bi lankidetzak emateari dagokionez, Arartekoaren 1994ko abenduaren 26ko erabakiaren bidez (EHAA, 11. zk., 1995eko urtarrilaren 17a) onartu zen, eta hautagai hauek aukeratu ziren: M^a José Fernández de Landa Montoya eta Alvaro Bilbao Ubillos.

2.3. "PADRE FRANCISCO DE VITORIA" GIZA ESKUBIDEEN SAILA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK

Giza eskubideak defendatzeak, Ararteko Erakundea helburu horrekin sortu baitzen, trataera osotua behar du, eta hori kexen biderapen hutsa baino gehiago da. Horregatik, oso garrantzizkotzat jo dugu Euskal Elkarte Autonomoan giza eskubideen errespeturako kultura sortzea.

Horrela, helburu hori lortzeko bide emango duen argitalpen-bilduma sortu dugu.

Bildumak "P. Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Saila du izena, euskaldun ospetsuaren oroimenean, eta joan den urtean hasi zen *El derecho al ambiente como derecho de participación* lanarekin.

Urtean zehar, Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaion 1993. urtealdiko txostenaz eta horren separatuz gain (*Gomendio eta iradokizun orokorrak*), beste argitalpen batzuk ere egin dira.

Horrela, Erakundeak sustatutako bekei dagozkien lan hauek argitaratu dira: *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*, Miguel Angel Encinas Cañón-ek egina; eta *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*, Gema Varona Martínez-ena.

Erakundeak ofizioz egindako lan monografikoa ere argitaratu da, *Adinekoen egoitzak* izenburupean Eusko Legebiltzarrean aurkeztua.

2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legeak 17. artikuluan dioenez, Ararteko Erakundeak "bere berenezko bidez arazuz-kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean, bere arioz ekin ahal izango dio argipideketari".

Arartekoaren zereginen alor nagusia hiritarrek aurkeztutako kexen ebazpenek betetzen dute, Arartekoak ezin baitie iruzur egin administratuek beregan jarritako itxaropenei; halere, ofiziozko jarduerak garrantzi handikoak izaten dira, herri-ekintzaren alor batzuetan era planifikatu eta orokorrean jarduteko aukera ematen baitute; aldiz, alderdi batek kexa egiten duenean ezin izaten da era horretan jardun.

Erakunde honek urtean gutxienez ikerketa sakon bat ofizioz burutzeko erabakia hartua du; ikerketa horrek euskal gizartean gutxien babestuta dauden taldeen egoera sakonki aztertzen du, eta txosten monografiko berezi gisa jaso eta aurkezten zaio Eusko Legebiltzarrari.

Udaltzaingoen nahiz Ertzaintzaren atxiloketa zentru edo kalabozoen egoera, zentru psikiatrikoetako gaisoen egoera eta Euskal Elkarte Autonomoko zaharren egoitza izan dira orain arteko azterketetan jaso direnak.

Adinekoentzako egoitzei buruz egin zen azterketaren bidez jakin genuen, egoitza horiek eskaintzen zituzten postuen arabera, euskal aiton-amonen %3,4 bakarrik sar zitezkeela berorietan. Horregatik, Ararteko honen iritziz, derrigor jakin behar zen zein egoeratan zeuden gainontzeko aiton-amonak eta herri-egintariak nolako erantzuna ematen dieten pertsona horien beharrei.

Horrela, Euskal Herriko adinekoen egoerari buruzko ikerketa erabat bukatzeko, egoitzetatik kanpo zeuden eskaintzak aztertu behar ziren, bereziki beren etxeetan ematen zaizkien zerbitzuak eta baita EHKAn zenbat eta nolako eguneko zentruak dauden.

Ikerketa hori burutzeko SIIS Fundazioaren laguntza eta aholkularitza dauka Arartekoak.

Lanerako jarraibidea eratzeko lehen aldian mahai inguru batzuk antolatu ziren, eta horietan adinekoen egoitzetatik kanpo eskaintzen zaizkien zerbitzuen zerikusia daukaten gizarte-talde ezberdinen iritzia jaso genituen.

Lehen mahai inguruan Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalek eta mankomunitateek hartu zuten parte, eta honako gaiok jorratu ziren: aiton-amonen etxera bidaltzen zaien laguntzaren oinarriak; gai juridiko-administratibo orokorrak, batez ere aginpide-esparruari dagozkionak; zerbitzua emateko dirubideak; laguntza-urritasuna neurtzea; antolaketa eta kudeaketa; zerbitzuen koordinazioa; boluntarioen zeregina, etabar.

Bigarren mahai inguruan honako hauek izan ziren: egoitzetatik kanpoko zerbitzu horietako langileen ordezkariak (ELA-STV, UGT, CCOO, LAB eta ESK-CUIS) eta enpresen ordezkariak (ASAD, Arabako Laguntza,...) eta baita Cáritas bezalako elkarte eta erakunde batzuetako kideak ere.

Une hauetan azterketa-lana oso aurreratuta dago. eguneko egoitza batzuk bisitatu ditugu eta etxebizitzetan laguntza eskaintzeko zerbitzuak dauzkaten udal eta mankomunitate guztiek bete dute azterketarako bidali zaien galdeketa.

Era berean, erabiltzaileei inkesta egin zaie, zerbitzuen kalitatearekin gustora dauden jakiteko.

Jarduera monografiko hori ez ezik, ofiziozko beste hogeit hamar jarduera ere burutu dira.

Herrizaingoa

Ofiziozko jarduera horien artean Euskal Herriko polizien, alegia, Ertzaintzaren eta udaltzainen egoera ezagutzeko egindakoa azpimarratu behar da. Gure erakundeak gai horri buruz zeukan ardura zela eta, esan dugun bezala, txosten bat osatu eta ezagutarazi genuen 1991. urtean, eta bertan, gure inguruko herrietako kalabozo eta atxiloketa-zentruetara buruzko araudiak eta jardunbidea erkatu genituen, baita ikuskaturiko kalabozoetan aurkitu genituen akatsak adierazi ere. Horren ondorioz, zenbait gomendio luzatu genituen atxiloketa-zentruetara bete behar zituzten baldintzetara buruz, atxilotuei eman beharreko tratua eta atxilotuen errolda-liburuaz.

Arartekoak, Ordiziako eta Bermeoko udalen eskumeneko kalabozoen egoera aztertzeko ikusketa-bisita egin zuen horietara, aipatu den txostenean arreta berezia eskaini zitzaielako.

Bisita hartan ikusi zenez, Ordiziako kalabozoan ia ez zen aldaketarik egin eta, beraz, ezin onartuzko egoeran jarraitzen zuen. Alabaina, udaltzainek adierazi ziguten txosten berezian adierazitakoa aintzat hartuz, ikuskatu zen kalabozoa ordurako ez zela atxiloketa-zentru gisa erabiltzen. Ordiziako udaltzainek atxilotzen dituzten pertsonak Beasainen Ertzaintzak duen Komisaldegiko kalabozoetara eramaten dituzte. Ikusketaren ondorioz jasotako berriak kontuan izanik, Arartekoak erabaki horri eusteko eskatu zion Ordiziako Udalari, kalabozoak eskaturiko baldintzetara egokitzen ez zituen bitartean.

Bermeoko udal kalabozoetan egindako ikusketaren bidez egiaztatu genuen Udalak beharrezko obrak egin zituela kalabozoak Udaltzaingoaren egoitza berriz kokatzeko. Udal administrazioaren jarduera hori ontzat jotzen dugu, ikuskatutako kalabozoak duinak eta aski egokiak baitira, bai eraikuntza aldetik, bai horien kontserbazio-egoera aldetik. Hala ere, Udalari beste zenbait gauza hobetzeko gomendioa egin zaio, egitura mailako zenbait elementu ez baitituzte betetzen Arartekoak txosten berezian emandako gomendioak. Beste ikuspegi batetik, atxilotuek zentru horietan bizi duten egoerari begira, atxilotuen errolda-liburuan dilijentzia berriak sartzeko premia adierazi zitzaizen, bai eta errolda-liburua nahiz atxilotuei beren eskubideez egiten zaizkien adierazpenak euskaraz eta gazteleraz jaso behar direla ere.

Kalabozoen egoera aztertzeko ikusketa-bisiten barruan, Ertzaintzaren Irungo Komisaldegia eta Gasteizko Udaltzaingoaren egoitza bisitatu genituen. Kasu horietan, ordea, bisitek ez zeukaten zerikusirik aurrez aurkitutako akatsekin.

Ertzaintzaren Irungo komisaldegian ikusketa egin ondoren, ontzat eman genuen bertan ikusia, nahiz eta atxilotuen liburua ohi ez bezalakoa zela ikusi genuen. Eskuarki liburu horien orriak josita egoten dira, baina komisaldegi horretakoak, josi gabe zeuden eta eraztunetan sartuak. Halaz guztiz, edukia behar bezalakoa zen.

Hori zela eta, Arartekoak jarduera bati ekin nahi izan zion, Ertzaintzak atxilotuentzat erabiltzen dituen errolda-liburuaren ezaugarriak oro har aztertzeko eta beroriek kalabozoei buruzko txostenean ezarritako parametroen arabera neurtzeko.

Beraz, argibideak eskatu genizkion Herrizaingo Sailari, eta honek txosten luze-zehatza igorri zigun; txostenean adierazitako ideia eta jokaera-proposamenak bat zetozen erakunde honen irizpideekin. Ikuspegi teknikotik begiratu-ta, edukiari buruzko proposamenak funtsean Arartekoaren txostenean jasotakoak dira, eta lehenago adierazi den bezala, ordurako behar bezalako arreta eskaintzen ari ginen alderdi horiei. Horregatik, Arartekoak gomendatuta, Herrizaingo Sailak errolda-liburuaren formatoa bateratzeko beharra adierazi zuen; hori kontuan harturik, ontzat jo genuen Administrazioaren sail horren jokaera.

Gasteizko Udaltzaingoaren kalabozoetara egindako ikusketa-bisitan ikusitakoari ere egoki iritzi genion, instalazioak eta haien kontserbazio-egoera duinak eta onargarria baitira. Dena den, egitura mailako zenbait gauza zuzentzeko neurriak hartu behar dira, lehen aipatutako txosten berezian egin ziren gomendioen edukiari egokitzearren. Errolda-liburuari dagokionez, bertan idatz-ohar berri bat sar dezaten eskatu diogu Udalari, eta testuak bi hizkuntzetan jartzea ere bai.

Osasuna

Iaz ospitale psikiatriko batzuk ere bisitatu ziren, 1991n Euskal Elkarte Autonomoko ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoerari buruz txosten monografikoa egiten ari ginenean antzemandako akatsak zuzendu ziren jakiteko; alegia, berritze eta hobetze lanik edo inbertsiorik egin zen jakin nahi genuen.

Zehazki, ondoko ospitale psikiatrikoak bisitatu genituen:

- Usurbil Eritetxea
- Santa Maria de las Nieves Ospitale Psikiatrikoa
- Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa
- Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa

Usurbil Eritetxean psikogeriatria eta asaldatuen unitatea bisitatu eta berori egokitzeko obrak ongi egin zirela ikusi genuen. Lorategiaren ondoko galeria konpondu berria ere ikuskatu genuen, hots, gaisoen egonleku eta aisialekua.

Hurrengo bisita berezia zen, Santa Maria de las Nieves Ospitale Psikiatriko zabaldu berria ikusteko asmoa baikeguen. Eraikinaren barruko egiturak atentzioa eman zigun: barruko patioen inguruan alde ezberdinak daude,

bakoitzak kolore ezberdin bereziko materialeak dauzka, gaisoek errazago antzeman ditzaten eta bidea errazago aurki dezaten.

Pozgarria izan zen han ikusitakoa, batez ere ospitale psikiatriko zaharren egoera penagarria gogora ekartzean. Hala ere, esan behar da, konpontzeko asmoa dagoen arren, zentruak ez daukala lorategi edo berdegunerik gaisoak paseatzera irteteko edo eguraldi ona egiten duenean bertan egoteko.

Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoan birgaitzeko unitatea bisitatu genuen. Lehen eta bigarren solairuak erabat berritu dituztela ikusi genuen, baina artean azken solairuko obrak hasi gabe zeuden. Sukaldeak dauden aldean ere berritze-lanak egiteko premia dagoela konturatu ginen.

Bermeoko Ospitale Psikiatrikoako zerbitzu orokorren pabilioia berritzeko lanak amaitzeaz zeuden zentrua bisitatu genuen egunean; beraz, jadanik Izaro pabilioia zaharberritzea baino ez da geratzen arkitektura aldetik eraikin oso berrituta uzteko.

Ararteko erakunde honek bereziki nabarmendu nahi du eraikinak zaindu eta berritzeko premia, gure ustez ospitale psikiatrikoetan kalitatezko arreta eskaintzeko behar-beharrezko baldintza da eta.

Osasun alor honi dagokionez, Arartekoak ofizizko beste jarduera batzuk ere bideratu ditu, baina ez dugu hemen zer-nolakoak izan diren zehaztuko, gehiegi ez luzatzearren. Halere, burututako jarduera bat aipatuko dugu, lan-arazo batzuk gertutik aztertzeari buruzkoa hain zuzen. Arazo horietako bat Gipuzkoako Ospitalean gertatu zen garbitasun zerbitzuarekin, Arartekoak esku hartzeko izan zituen arazoak zerbitzu publikoetan oro har esku hartzeko izan ditzakeen berberak direlarik.

Zerbitzu publikoen (oraingo honetan osasun alorrekoa) jarduna bermatzeko premiak alor honetan sortzen diren lan-auziei izaera berezia atxikitzen die, eta hori kontuan izanik burutu zuen Arartekoak aipatu jarduera.

Bestalde, zerbitzu publiko batzuek duten izaera berezia dela eta, osasun alorrarena esate baterako, badirudi zerbitzu horren funtsezko edukia errespetatzen dadin arreta handiagoa jarri behar dela.

Funtzio Publikoa

Ararteko honek komunikabideei esker jakin zuen auziak zeudela Zigoitiako Udalean Gopegiko Bengolarra kiroldegiko atezain posturako proposatu ziren "kontratazio baremoak" zirela eta.

Erakunde honek ez zekien zein eratako langileentzat gordetzen zen lanpostu hori, alegia, funtzionarietzat ala lan-legepeko kontratua zutenentzat, ez zein hautapen prozesuren arabera egingo zen aukeraketa, ez eta aukeraketa horren ondorioz ezarriko ziren lan-harremanak aldi baterakoak ala behin-betikoak izango ziren.

Horregatik guztiagatik, Ararteko honek ezin zuen auzi horri buruzko ebazpen finkorik eman, baina Zigoitiako Udalari gomendatu zion behin-betiko onarpena atzera zezala, proposamen haren ondorioz auzitan zeuden puntuak zehaztu eta argitu arte.

Horrela, ez genuen bidezko jo hautaketan merezimendutzat honako hauek hartzea: herrian bertan jaioa izatea eta "bikotekidea edukitzea".

Izan ere, enplegu publikoan sartzeko aukera guztietan nagusitu behar duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideek arras mugatzen dute administrazio publikoen diskrezionalitatea hautaketa-prozesuetan eska ditzaketen merezimenduei dagokienez. Diskrezionalitate hori bete nahj diren lanpostuetako eginkizunei loturik dauden merezimendu objektiboak finkatzerakoan bakarrik erabili behar da, eta auzitan zeuden bi merezimendu horiek eskatzean ez zen baldintza hori betetzen.

Azkenean Arartekoak proposatutakoa aintzat hartuz, udal horrek baremoa aldatzea erabaki zuen, alegia, bikotekidea edukitzea eta herrikoa izatea ez zirela kontuan hartuko merezimenduak balioztatzean.

Ingurugiroa

Ararteko hau bere agintaldian zehar gehien kezkatu duen gaietako bat ingurugiro egokia izateko hiritarrek daukaten eskubidea izan da, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 17.1. artikuluan xedatutakoaren bidetik. Horregatik, komunikabideei esker Donostiako Bidebieta auzoan sortutako arazo baten berri jakin genuenean, hots, kontadoreen lantegi zaharrean gai pozointsuak zeudela eta horren ondorioz hiritarrak asaldatu zirela, Arartekoak bidezko iritzi zion egoera hura aztertzeke ofiziozko ikerketa bat hasteari.

Horrela, Ingurugiro Sailburuordetzak eskuratu zigun informazioari esker honako hau jakin genuen: 1994ko abuztuan edukinontziak zigitatzeko agindua eman zen, lantegi jabeak behin eta berriz uko egiten ziolako hondakin pozointsuak handik kentzeko emandako agindua betetzeari.

Halere, komunikabideek ematen zituzten berrietatik ondorio hau atera zitekeen: sarritan etxerik gabeko drogazaleak han babesten zirenez gero, udaltzainek eraikinaren barruan norbait ote zegoen jakiteko egin zuten ikusketa batean aurkitu zituztela aipatu gai pozointsuak.

Donostiako Udalak burutu zituen jardueren berri eman zion erakunde honi, eta egiaztatu ahal izan genuen, alde batetik, udaltzainek leku hura behatu eta ikuskatu zutela, eta bestetik, Udalak bilerak egin zituela Ingurugiro gaitarako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzarekin, arazoa konpontzeko burutu behar ziren ekintzak bateratu asmoz.

Ildo horretatik, eraikinaren jabe zen enpresari eskatu zitzaion, baimendutako kudeatzaile baten bidez, arriskutsuentzat jotako hondakinak handik kentzea zitzala.

Gai pozointsu horiek handik eraman zituela egiaztatu ondoren, Donostiako Udalak eraikina zigitatu zuen, barruan berriro norbait sartzen zela jakin zelako.

Jarduera horien berri izan ondoren, Arartekoak arazo honetan zuen egitekoa amaitutzat jo zuen.

Ogasuna

Arlo fiskalean ere burutu ditugu ofiziozko jarduerak, eta, berez dagokien kexa-laburpenen atalean jasota badaude ere, bereziki azpimarratu nahi ditugu bi arazo, beren garrantziagatik gomendio bana egin behar izan dugulako.

Salneurria aurrez finkatua duten etxebizitzak Ondare Eskualdaketagatiko Zerga ordaintzetik libre uztea

Ondare Eskualdaketagatiko Zerga (OEZ) ezartzerakoan "salneurria aurrez finkatua" duten etxebizitzaren erosleak zerga hori ordaintzetik libre geratzea dela eta, kexa ugari jaso genuen erakunde honetan, guztiak Gipuzkoa Lurralde Historikotik bidaliak, eta azaltzen zen arazoa Araban eta Bizkaian ere gertatzen zela ikusirik, ofiziozko espedienteak ireki ziren, 10/94 eta 11/94 zenbakiekin bideratuak.

Lurralde historikoetako foru arauak, OEZ ordaintzetik libre uzten dute:

"...babes ofizialeko etxebizitzaren <<inter vivos>> lehen domeinu transmisioa, beti ere behin-betirako kalifikapen datatik sei urteren buruan gertatzen bada;"

Xedapen horren arabera, kexagileek aitorten-autokitapenean OEZ ordaintzetik libre uzteko eskatzen dute, hots, etxebizitza alorreko dirubide-neurriak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 103/92 Dekretuan jasotako etxebizitzaren erosketari dagokion OEZ ordaindu beharrik ez izatea.

Haatik, foru ogasunek, beraiekin egindako bileretan eta kexadunek aurkezturiko administrazio-errekurtsoen ebazpenean kasu hori zergaren menpe dagoela diote, eta honako arrazoioak ematen dituzte:

"Salneurria aurrez finkatua duten etxebizitzak erostean, ezin daiteke esan *behin-betiko kalifikazioa* egiten denik bete-betean, izendapen hori bakar-bakarrik eraiki berriak diren BOEetan erabil baitaiteke, beharrezko kalifikazio-agiria luzatu ondoren" (Gipuzkoako Ogasun Saileko Zuzendari Nagusiaren txostena)

Erakunde honek bestelako iritzia zeukanek, eta adituen iritzia jakin nahian, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Etxebizitza Zuzendariari kalifikazio horri buruzko txosten bat eskatu genion. Etxebizitza eta Arkitektura Sailburuordetzako Zerbitzu Juridiko Administratiboko Buruak erantzun zion eskari horri.

Txosten horretatik funtsezko ondorio hauek atera daitezke:

1) Autonomi Estatutuko 10.31. artikulua eta eskualdaketei buruzko 3.006/81 eta 325/87 Erret Dekretuen arabera, Euskal Elkarte Autonomoak etxebizitzari buruzko bere politika berezia dauka, Estatuko gainontzeko lekue-tan dagoen politika orokorra eta gutxienezkoa osatzen duena.

2) Politika horren helburu nagusia hau da: hiritar guztiei etxebizitza duin eta bere beharren arabera eskuratzeko aukera ematea, eta horretarako,

etxebizitza eraiki berrien erosketa babesteaz gain, baldintza batzuk betetzen dituzten etxebizitza erabilien erosketa ere babesten da.

3) Etxebizitza alorreko dirubide-neurriei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 103/92 Dekretuak hauxe dio bere 6.8. artikuluan:

"...Babestutako dirubideak onartzeak, tasatutako prezioko etxebizitzak babes ofizialerako araubideari atxikitzea eta *babes ofizialeko etxebizitza* jotzea ekarriko du berekin erosi ta ondorengo 20 urteko epean, epe honetan araubide horren Eusko Legebiltzarraren apirilaren 15eko 7/1988 Legearen eta osagarrizko arauen mende egonen direla. Horretarako babes ofizialeko etxebizitza jo dela eskribau-agiriz eta errol-delaritzan erasota geratuko da."

4) Horrela, ez dago babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazio "arindurik", Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako interpretaziotik ustez ondorioztatzen den bezala; aldiz, 1978 ezkeroztik babes ofizialeko etxebizitza mota bat besterik ez dago, eta mota horretan sartzen diren etxebizitza guztiei ezartzen zaizkie aipatu erregimeneko baldintzak, ondorio guztietarako.

Eztabaidatzen ari zen gaiaren azterketari helduz, lehen esan bezala, OEZ eta Agiri bidezko Ekintza Juridikoei (AEJ) buruz hiru lurralde historikoetako foru arauak diotenez, ondorengo kasuan geratuko litzateke norbait ordaintzetik libre:

"...babes ofizialeko etxebizitzen <<inter vivos>> lehen domeinu transmisioa, beti ere behin-betirako kalifikapen datatik sei urteren buruan gertatzen bada;"

Babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazioa bakarra dela, eta berorren behin-behineko edo behin-betiko izaera prozedura bakar bateko bi fase ezberdin direla kontuan harturik, esan behar da "salneurria aurrez finkatua" duten etxebizitzak ondorio guztietarako babes ofizialekoak direla, dirubidezko eta zerga mailako ondorioak barne, eta beraz, horien kalifikazioaren ondoren egiten den eskualdaketa, *babes ofizialeko etxebizitzen <<inter vivos>> lehen eskualdaketa da* eta, beraz, kasu hori foru arauetan jasotzen direnetako bat bezala hartzeak ez du esan nahi ordaintzetik libre uzteko kasuak analogiaz beste kasu batzuetara zabaldu direnik, hori debekatu egiten baitute zerga mailako foru-arau orokorrek, baizik eta berezko eskubideari dagokiola.

Gai honi dagokionez, Auzitegi Gorenak (3. sala, 2. saila) 1994ko martxoaren 25ean emandako Epaiak (Aranzadi 1.961), bosgarren zuzenbidezko arrazoa ematerakoan, eta babes ofizialeko eraikinetan kokaturik dauden negozio-lokalak ordaintzetik libre uzteaz ari bada ere, gauza asko argitzen du eztabaidagai honen inguruan, hauxe baitio:

"Babes ofizialeko etxebizitzei buruzko legediak garbi adierazten du tratu berbera emango zaiela etxebizitzei nahiz negozio-lokalei, horixe adierazten baitu 1976ko azaroaren 12an indarrean jarri zen Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko Testu Bateratuak bere 27. artikuluan. Artikulu horretan xedatzen dena testu bereko 2. artikuluekin erkatuz gero, ikus daiteke onurak jasotzerakoan parekotzat jotzen dituela etxebizitzak eta negozio-lokalak..."

Eta beste pasarte batean hauxe dio:

"...beraz, hemen ez da eskubide hori eztabaidatzen, berorren interpretazioa baizik, edo zehatzago esanda, 'babes ofizialeko erregimena daukaten eraikinak' esaldia nola ulertu eta ezarri behar den, eta horretarako, berez arau fiskala ez denez, normala da etxebizitza horiei buruzko legedi berezira jotzea, eta hor garbi ikusten da babes ofizialeko eraikinetan etxebizitzak eta negozio-lokalak sartzan direla..." (ildo horretatik beretik, 92-02-29ko Auzitegi Gorenaren Epaia).

Beraz, *ordaintzetik libre uztea norainokoa den jakiteko babes ofizialeko etxebizitzari buruzko legedira jo beharko da*, eta gaur egun horiei buruz dagoen araudiak garbi adierazten du zein diren babes ofizialeko etxebizitzak, hizkera arruntan "salneurria aurrez finkatua duten" etxebizitzak deitu izan direnak.

Azaldutako guztiaren arabera, eta erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 11. b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Arartekoak hiru foru ogasunei eskatu zien "salneurria aurrez finkatua duten" etxebizitzaren eskualdaketak zerga ordaintzetik libre uzteko, Ondare Eskualdaketengatik Zergari buruzko Foru Arauaren 46.1. b) artikuluko 13. zatia jarraituz.

Hiru administrazioetako batek ere ez du onetsi gomendioa, eta gainera, hori erabakitzeke ematen diren argudioetan kontraesanak daude.

Gure ustez, neurri horrek itzuli beharreko diruetan eta jaso gabekoetan edukiko lituzkeen ondorio ekonomikoek badute zerikusirik hartutako erabaki horretan.

Zerga-kenketak NUIZen familiaren ardurapean pertsona zaharrak edo elbarriak edukitzeagatik

Beste alde batetik, 1995erako Aurrekontuei buruzko Foru Arauak prestatzen ari ziren bitartean, Ararteko honek NUIZ edo Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergari buruzko bi puntu azaldu nahi izan zizkien foru ogasunei, hain zuzen erakunde honetan bideratutako hainbat kexatan agerian jarritakoak.

NUIZ arautzen duen Foru Arauaren 78.1. d) artikulua arabera, 50.000 pezetako kenketa egiten da zergadunaren ardurapean dagoen pertsona bakoitzeko eta, kasuak kasu, *haren ardurapean dauden ondorengo ezkongabe edo aurreko bakoitzeko*, edozein delarik haien adina, baldin eta azken horiek ez badute 18 urtez goragokoentzat bermatuta dagoen lanbidearteko gutxienezko soldata baino errenta handiagorik urtean, dagokion zerga-urteari dagokionez, eta, orobat, *elbarri edo ezinduak, fisiko zein psikikoak, jaiotzezkoak edo geroagokoak*, baldin badira, arauen bidez ezarritako mailan. Era berean, pertsona elbarria zergadunaren zainpean edota ordaindu gabeko harrerapean egonez gero ere badago eskubiderik zerga-kenketa egiteko.

Baina badago arazo bat: hots, zergadunarekin bizi den pertsona elbarria ez denean haren ondorengo, ez eta aurrekoa ere, eta ez dagoenean haren

zainpean edo ordaindu gabeko harrerapean. Izan ere, hainbat eta hainbat kasutan, zergadun baten senide, osaba-izeba edo bestelako senitarteko elbarriak bizi izaten dira haren etxean, inolako zainpe edo harrerapean egon gabe, eta horrek ahalegin ekonomiko handiak eskatzen dizkie zergadunei.

Horri dagokionez, NUIZen araudiko 31. artikulua arabera, kasu hauetan zerga-kenketa egin ahal izateko, pertsona horren elbarritasun mailak %33koa edo handiagoa izan behar du; aldiz, Kode Zibileko 200. artikulua ezgaitasun-ziotzat jotzen ditu pertsonari bere burua gobernatzea eragozten dioten gaisotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak nahiz psikikoak, eta, hortaz, zainpean jartzen ditu gaisotasun horiek dituzten pertsonak.

Bestela esanda, kasu askotan neurritz gainekoa eta, gainera, alferrikakoa izango litzateke elbarritasunagatikako ezgaitasun prozedura bat bideratzea, baldin eta elbarritasun horrek ondorio fiskaletarako eragina eduki bai, baina pertsona bati bere burua gobernatzea galeratzen ez badio.

Baina Ararteko honen iritziz badago beste arrazoi bat, garrantzitsuagoa, zerga-kenketa hori beste kasu batzuetara ere zabaltzeko: hots, eskatutako elbarritasun-mailaz aparte, pertsona hori zergadunarekin bizi bada; arrazoi hori Konstituzioan jasotako zergak ordaintzeko gaitasunaren irizpidea da, izan ere, bestela jokatzuz gero, irizpide hori hautsi egingo litzateke, kontuan izan behar baitugu zergadun horiek ahalegin ekonomiko handia egiten ari direla, baina ahalegin hori ez dagoela ezertarako ere islatuta jasotzen duten tratu fiskalean.

Arazo horixe bera agertzen zaigu aipatu dugun artikuluko b) zatia dagokionez, hor esaten den bezala, zerga-kenketa egingo baita, orobat, zergadunarekin bizi den aurreko bakoitzeko, baldin eta horrek lanbidearteko gutxienezko soldata baino errenta handiagorik ez badu.

Bestalde, adinekoen alorrera etorritik, ezin ditugu ahaztu 1993ko "Euskadiko Plangintza Gerontologikoa" delakoan azaltzen ziren jarraibideak; izan ere, haietan, egin beharrekoen artean esaten zen, helburu bezala, lagundu egin behar zitzaie 65 urte baino gehiagoko pertsonak mantentzen dituzten familiei; berriaz aipatzen dira hor, laguntza gisa, "pertsona zaharrek bizi diren familientzako zerga-kenketak, etxerako laguntzaren edo zahar-egoitzen pareko arreta ematen baitiete".

Kontuan izan behar dugu familien ardurapean bizi diren pertsona horietako asko ez direla izaten ez zergadunaren ondorengo, ez eta aurrekoak ere, baizik eta bere albokoak (osaba-izebak, senideak...), eta zergadun horrek legeria zibilak elikadurari buruz diotenaren arabera derrigor bere gain hartu behar ez dituen zeregin batzuk hartzen dituela, edo, bestela esanda, berak betetzen duen gizarte-zeregina beteko ez balu, Administrazioak hartu beharko lukeela bere gain, zerga-kenketaren ondorioz gerta daitekeen baino askoz ere dirukostu handiagoarekin.

Esandako arrazoiengatik, Ararteko honek hiru foru ogasunei eskatu zien aintzat har zezatela ondorengo aukera hau: alegia, NUIZen barruan, aurrekoengatik eta elbarriengatik egiten diren zerga-kenketak hemen esandako kasuetara ere zabaltzea; izan ere, nahiz eta Itun Ekonomikoak familientzako zerga-kenketei lurralde amankomuneko arauak ezartzea eskatu, inolako

oztoporik ez dago horiek norberaren gastuen artean sartzeko, horrelako esku-bideaz baliatzeko aukera ematen duten pertsonak zorrozki zergadunaren aurrekoak ez direnean.

Gipuzkoako ogasunak, Biltzar Nagusiek honi buruz hartuko duten erabakiaz kanpo, 1995eko urtarrilean aditzera eman zuen bazuela era honetako zerga-kenketak egiteko asmoa beren ardurapean ezgaitasun handiko pertsona zaharrak zeuzkaten zergadunei, hauek haien ondorengoak izan ala ez izan.

Araban, ordea, ez dute egokitzen jo orain dauden zerga-kenketa aukerak zabaltzea, esanez "...zergadunen gastu guztiek ez daukate zertan eduki zerga mailako ezarpena".

Azkenik, Bizkaiko ogasunak, Foru Diputatuaren 1995eko otsailaren 27ko idazki baten bidez, eskerrak eman zizkigun gure gomendioagatik, eta aditzera eman digu aztertu egingo duela, berez dagokion lege-garapena izan dezan.

Beste arlo batzuk

Beste alde batetik, oso bereziak diren zenbait ekintza ere burutu ditugu ondare historiko-artistikoaren arloan, bide-segurantza arloan, etab., baina, gehiegi ez luzatzearren, ez ditugu hona ekarriko.

2.5. OMBUDSMANAREN INSTITUTO EUROPARRAREN URTEROKO BILERA ETA ARARTEKOA INSTITUTO HORRETAKO LEHENDAKARI IZENDATU IZANA

1994ko ekainaren 3an Ombudsmanaren Instituto Europarraren urteroko Bilera egin zen Berlinen.

Bilera horretan Institutoaren ohiko jardunari buruzko gaiak aztertu ziren, hala nola kontu ematea, aurreko Zuzendaritza Batzordearen gestioa onartzea, karguak berritzea, e.a. Gainera, erakunde horren Estatutuen hainbat atal aldatzea erabaki zen bertan, besteak beste, Institutoko Lehendakari karguaren denbora-iraupena.

Halaber, Herri Defendatzaileen V. Hitzaldi Europarra Kanarietako Irletan egitea erabaki zen, 1995eko apirilaren 9 eta 16 bitartean, Síndico del Común-ek eta Ombudsmanaren Instituto Europarrak elkar hartuta antolatuko dutena.

Azkenik, Institutoko Lehendakari berria izendatzea erabaki zen aurrekoak utzi zuen lekua betetzeko, eta aho batez Juan San Martín Arartekoa hautatu zuten kargu horretarako, hau da, ordurarte Lehendakariorde izan zena.

2.6. OMBUDSMANAREN IV. HITZALDI EUROPARRA

1994ko maiatzaren 31 eta ekainaren 4a bitartean Ombudsmanaren IV. Hitzaldi Europarra egin zen Berlinen. Arartekoa bertan izan zen, Europako

gainerako herrialde eta lurraldeetako herri-defendatzaileekin batera. Hitzaldia-
ren gaia hau izan zen: hiritarren eskubideak gordetzeko erakundeak sendotzea
Europan.

Aurkezpenerako lan-saioaren helburua herrialde eta Europa mailan hiritar-
ren eskubideak babesten dituzten erakundeen arteko lankidetzaz aztertu eta
eztabaidatzea izan zen, eta bertan Alemaniako Bundestag-eko Eskaera Batzor-
deko Lehendakariak egin zuen buru.

Lehenengo saio ofiziala bi zatitan egin zen. Lehenengoan Europako
Herri Defendatzailea aztertu zen, eta bigarrenean, berriz, Ombudsmanaren
eredu sueziarra.

Hurrengo eguneko saioan, Irlandako Ombudsmana buru zuela, Ombuds-
manaren eredu frantsesa (Médiateur) eta poloniarra azaldu ziren.

Hirugarren lan-saioan oro har eredu alemaniarra aztertu zen, eta zehazki
Berlingo sistema, Legebiltzarraren Eskaera Batzordean oinarritua, Ombudsma-
naren antzeko egitekoak baititu.

Azkenik, jardunaldiari amaiera emateko saioan, ordurarteko guztia labur-
biltzeaz gain, hitzaldi osoan zehar aztertu eta azaldutako ideien ondorioak
atera ziren.

Ombudsmanaren Hitzaldi Europarraren kide guztiek onartutako azken
ondorioak puntu hauetan zehazten dira:

- Ombudsmanari buruz hitzégitean, epailaritzaz bidetik jo gabe, hiritarrak
administrazio-agintarien nagusikeria eta araugabetasunetatik defendatzeko hel-
burua duten erakundeez mintzo gara.

- Europako Ombudsman eredu ezberdinak daude, eta horren ondorioz,
Europako Elkartean ezarriko den eredu erabakitzean, bitako sistema aukeratu
da, Ombudsman europarra Legebiltzarraren Eskaera Batzorde batekin batera
sortuko baita.

- Sueziako eredu, Europako zaharrena, ahalmen-eremu zabalena duena
da.

- Ombudsmanaren erakundea ekialdeko Europa eramatea ere garran-
tzitsua da, agintekeriaz jokatzeko eta amore ez emateko joeren aurrean,
demokrazia-lorpenak bermatzeko.

- Alemaniako eredu Eskaera Batzordean oinarritzen da, Ombudsmanaren
zereginak betetzen baititu. Batzordearen funtsa, diputatuak hiritarren adminis-
trazatzaile direnaren ideia demokratikoa da. Hala ere, politikaz kutsatzeko eta
burujabetasuna galtzeko arriskua du, diputatuak talde politikoetako kide baitira.

- Atzeritarrak Ombudsmanarekin harremanetan jartzeko bidea erraztea
komeni da, eta gauza bera gertatzen da eskubideak babesten dituen epailari-
tza-sistema hau erabiltzeko ohitura ez duten gutxiengoekin.

2.7. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIOARI BURUZKO IX. JARDUNALDIAK

Jakina den bezala, Herri Defendatzailearen eta lurralde autonomoetako
ordezkarien arteko harremanen ardatz nagusiak koordinazioa eta elkarlana dira.

Horrela, eta erakundeen arteko ohiko harremanez gain, koordinazio-jardunaldi batzuk antolatzen dira urtero. Jardunaldi horien helburua, irizpide bateratsuak ezarri eta erakunde hauek guztiek batera dituzten arazoei buruzko iritziak elkarri adierazteaz gain, eztabaida eta ikerketarako topaleku bilakatzea da, bertan Estatu osoko hiritarren eskubideei dagozkien gaiak aztertu asmoz.

Valentziako Komunitate Autonomoko Síndic de Greuges-ek antolatutako zituena IX. Jardunaldi hauetan, ondorengo gaiak aztertu ziren: krisi ekonomikoak buru-osasunean daukan eragina eta erreforma psikiatrikoa, bai eta emakumearen egoera lan munduan. Orobat, hirietako ingurugiroa ere (zaratak eta jarduera gogaikarriak) aztertu zen.

2.7.1. EMAKUMEA LAN MUNDUAN

2.7.1.A. PONENTZIA

Bilera horretan, Juan Bautista Monserrat Aragoiko Justicia jaun txit gorena aritu zen moderatzaile lanetan, eta hitzaldia Juan San Martín Ararteko jaun txit gorenak eman zuen.

Era berean, gai berari buruzko beste txosten bana aurkeztu zuten Kanarietako Diputado del Común-en Ondokoa den Pilar Herrera andreak eta Valentziako Síndic de Greugesen Bigarren Ondokoa den Julia Sevilla andreak.

Arartekoak jarraian osorik eskaintzen den ponentzia azaldu zuen gainontzeko herri-defendatzaileen aurrean.

0- SARRERA

80. hamarraldian zehar emakumea lan merkatuan geroz eta gehiago sartzeak berebiziko garrantzia izan du sexu bien arteko ezberdintasunak gainditzeko.

Heziketa maila altuagoa, jaiotzen gutxitzea, lana geroz eta gehiago zerbitzuen inguruan biltzea eta emakumeak egungo gizartean duen lekuari buruzko pentsamolde aldaketa dira joera hau argitzen duten gertakari nagusiak.

Hala ere, emakumea lan merkatuan sartzeko ez da gertakari orokorra, eta ez da leku guztietan berdin gertatu; emakumeen gutxiengoak soilik izan du lan merkatuan sartzeko aukera.

Halaber, kontuan hartu behar da emakumeen jarduera tasaren handitzea krisi sakonaren garaian gertatu dela, eta lanpostu netoak galtzeko joera dagoenez, emakume askok ez duela lanpostu bat aurkitzeko aukerarik izan gure herriko lanik eza dela eta.

Bestalde, emakumeek lanbide bat izateak ez du ezberdintasunen gainditzea ekarri. Lan merkatuak berak eratu ditu berriro bereizteko mekanismoak, eta horien ondorioz emakume gehienek lanbide maila baxueneko eta gutxien ordaindutako lanpostuak izaten dituzte oro har.

Egoera horixe da eskuartean dugun ponentzia hau egiteko funtsezko arrazoia. Bertan emakumeen jarduera tasaren benetako egoera zein den aztertzen saiatuko gara, eta baita emakumeak lan merkatuan geroz eta gehiago sartzeak izan ditzakeen ondorioak zehazten ere.

Ondoren, bigarren azpiatalean, sexu bereizkeriaren inguruko Konstituzio-debekuak izan ditzakeen ondorio juridikoen azalpen laburra egingo dugu. Horretarako Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia aztertuko dugu eta bereizkeria modu ezberdinak azalduko ditugu, horiei aurre egiteko dauden babes-bideekin batera.

Hirugarren azpiatalean Emakundek 1991-94 bitarteko egin zuen Euskal Elkarte Autonomoko Emakumeentzako Ekintza Positiboaren Plangintza azalduko dugu herri-agintariek egin beharrekoaren eredu modura, horiek baitute emakume eta gizonen artean benetako aukera-berdintasuna bultzatzearen ardura.

Azkenik, laugarren azpiatalean, lehen aipaturiko Ekintza Positiboaren Plangintza gauzatzeko ardura dutenek berori zein neurritan bete duten aztertuko dugu eta, aldi berean, zenbait iritzi agertuko ditugu bai herri-agintarien jardueran aurrerantzean nagusitu behar duten irizpideei buruzkoak, bai gai horren inguruan zenbait erakundek, hala nola herri-defendatzaileak eta emakumeen erakundeek duten zereginazkoak.

1- EMAKUMEEK EUSKADIKO LAN MERKATUAN IZAN DUTEN PARTAIDETZAREN AZALPENA

Azpiatal honetako estatistika-azterketa Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, aurkeztutako txostenetan oinarrituta egin dugu. Emakunde otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bitartez sortu zen erakunde autonomoa da, eta Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizartearen alor guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea du helburu.

Azalduko datuak Euskal Herriko Elkarte Autonomokoak soilik badira ere, gure ustez gainerako elkarteentzat ere balio dute, Estatu osoan bizi den gizarte-egoera oso antzekoa baita, zehaztasun batzuk salbu.

Euskal Herriko Elkarte Autonomoan emakumeen jarduera tasa %36,9 ingurukoa da, gizonen jarduera tasaren oso azpitik, azken horiena %67,7koa baita; beraz, euskal emakumeek lan merkatuan duten partehartzea oraindik baxua da. Gainera, biztanlego aktiboaren %36,2a bakarrik dago emakumez osatua. Datu horietatik atera dezakegun lehen ondorioa hauxe da: gizon batek lan merkatuan parte hartzeko duen aukera emakume batena baino bi aldiz handiagoa dela.

Euskadiko tasak Europako herri aurreratuenekin alderatuz gero, euskal emakumeen partehartzea Europako batez-bestekoa baino baxuagoa dela esan dezakegu, azken hura %41,6 ingurukoa baitzen 1987. urtean, baina Espainia eta Irlandakoa baino altuagoa da eta Italia, Herbehereak, Luxenburgo eta Greziakoaren oso antzekoa. Hala ere, Frantzia eta Erresuma Batua bezalako

herrialdeetatik oso urrun dago, horietan emakumeen jarduera tasa %50 ingurukoa baita, eta batez ere Danimarkatik, horrek %63ko tasa baitu.

Bestalde, Estatuko gainerako elkarte autonomoein erkatuz, emakumezkoen jarduera tasa Katalunian, Galizan eta Baleare Uharteetan bakarrik da Euskadin baino altuagoa.

Hala ere, zehaztu beharra dago emakume talde guztiak ez direla neurri berean sartzen lan merkatuan. Adinak, egoera zibilak, eta ikasketa mailak baldintzatzen dute partehartzea.

Beraz, lehendabizi esan dezakegu jarduera tasen banaketak aldaketa handiak dituela adinaren arabera. Gizonezkoentzat %44,4koa da 25 urtetik behera; %93az gorakoa 25 eta 54 urte bitartean, proportziorik altuena %98,2koa da, 35 eta 45 urte bitartean, eta behera egiten du 55 eta 64 urte bitartean, %54,7koa baita. Emakumezkoen kasuan, jarduera tasa gizonezkoena baino zertxobait altuagoa da 25 urtetik beherako multzoan, %46,2koa hain zuzen; tasarik altuena %75,4koa da, 25 eta 34 urte bitartean, eta izugarri jaisten da adin horretatik aurrera, %45,9koa baita 35 eta 44 urte bitartean, %28,9koa 45 eta 54 urte bitartean eta %13,7koa 55 eta 64 urte bitartean.

Datu horiek aztertuz, adina gutxitu ahala gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera mailak berdinduz doazela ikus daiteke. Lan munduan dagoen benetako partehartze ezberdintasunak eragin nabarmena du 35 urte edo gehiagoko emakumeengan, eta horregatik esan dezakegu ezberdintasunek bi joera adierazten dituztela: belaunaldi gazteenetako emakumeen partaidetza handiagoa lan merkatuan, eta, horrekin batera, 35 urtetik aurrera lana uzteko joera.

Lan merkatuan emakumearen partaidetza aztertzean faktore erabakiorra da, oraindik ere, egoera zibila. Ezkongabeen jarduera tasa altua da, %57,7a, ezkongabe ez direnen tasa baino bi aldiz altuagoa. Zehaztu beharra dago 45 urtetik beherako emakumeen artean ezkongabeek, dirudienez, partehartze handiena lortu dutela, %91 hain zuzen, ezkongabeak ez direnena, berriz, %50a baino zertxobait altuagoa den bitartean.

Beraz, emakumeak lan merkatuan parte hartzeari dagokionez, belaunaldi aldaketak ezkongabeei eta ezkonduerik ez diren modu berean eragin esan dezakegu. 45 urtetik beherako emakume ezkongabeen partaidetza-maila gizonaren antzekoa den bitartean, ezkonduen kasuan, aurreko belaunaldiekin alderatuz partaidetza arras handitu bada ere, gizonena baino askoz ere baxuagoa da oraindik.

Laneko partaidetzan nagusia den eta eragin handia duen beste faktore bat ikasketa maila da. Horrela, Emakunderen txostenean azaltzen diren datuei begira zera egiazta dezakegu, gizonen partaidetza ikasketa mailaren arabera oso gutxi aldatzen bada ere, emakumezkoen partaidetza heziketaren oso menpe dagoela.

Bigarren edo unibertsitate mailako ikasketak dituzten emakumeen jarduera maila altua da, %58,7a lehenengoentzat eta %67,6a bigarrenentzat, eta gizonezkoen mailatik hurbil dago, baina %19rarte jaisten da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean. Gainera, oso adierazgarria den zerbait gertatzen dela azaldu beharra dugu, emakume aktiboek batez-besteko ikasketa

maila gizon aktiboena baino altuagoa dela hain zuzen. Batez ere emakumezkoek osatzen duten biztanle-multzoa gizonezkoena baino dexente gazteagoa izateak sortu du egoera hori.

Langabezia da oraindik ere Euskal Herriak eta Estatu osoak duen arazo nagusietakoa.

Euskal Herriari buruzko datuetara mugatuz, emakumeak lanik gabeko taldearen erdia direla adieraz dezakegu, eta gainera, lanik ezaren tasa aztertuz esan daiteke emakumeek lanik gabe egoteko duten aukera, gizonena baino bi aldiz handiagoa dela. Beraz, lanik ezaren tasetan, biztanlego aktiboan lanik ez duten emakumeen proportzioak adierazten du lan egin nahi baina aukerarik ez duten emakumeak %26,9 direla, gizonezkoen proportzioa %11,4a besterik ez den bitartean.

Lanik ez duten baina noizbait lanean aritu izan diren emakumeen kopurua gizonenaren antzekoa da, baina lanik ez duten eta lehenbiziko lanpostuaren bila dabilzan emakumeen kopurua gizonena baino bi aldiz handiagoa da, hau da, emakumeen kasuan askoz ere zailagoa da lehenengo lanpostua aurkitzea.

Euskadiko biztanlego aktiboari dagokion lanik ezaren tasari buruzko datuak Europakoekin alderatzen baditugu, Europako altuenetakoa dela ikus dezakegu, %17 hain zuzen, Europako batez-bestekoa %10,6 den bitartean. Hala ere, Euskadiko gizonen tasa Europako gizonena baino bi puntu soilik altuagoa den bitartean, %11,4koa, %9koaren aldean, Euskadiko emakumeen tasa Europakoena baino bi aldiz altuagoa da, %26,9koa %13,2koaren ondoan.

Herrialdeka, Euskadiko emakumeen lanik ezaren tasa Europako Elkarte-ko altuena da, ondoren Espainia dator, %24,8rekin, eta atzerago Irlanda, Belgika eta Italia daude, %18 inguruko tasekin.

Azken urteotako ekonomia bultzadak emakumeen arteko lanik ezaren gutxitzea ekarri badu ere, orobat egia da emakumeen eta gizonen lanik ezaren arteko ezberdintasuna handitu egin dela.

Lanik eza batez ere emakume gazteengan eragina duen gertakaria da, lanik ez duten emakumeen %80a 35 urtetik beherakoa da, baina batez ere 25 urtetik beherakoengan eragiten du, horien artean lanik ezaren tasa %50era gerturatzen baita.

Euskal Herriko emakumeen lanik ezaren tasa adinaren arabera banatuz gero Espainiako tasaren antzekoa da, Europako Elkartearen tasa hori erdira gutxitzen den bitartean, 25 urtetik beherakoen artean maila nabarmena iristen badu ere.

Lanik ezak ez du egoera zibilarekin zerikusirik, eta ezkongabeengan eragin handiagoa du bakar-bakarrik gazteagoak direlako, horien artean lanik ezaren maila altuagoa delako. Eta azkenik zera esan dezakegu, lanik eza handiagoa dela bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen artean lehenengo edo unibertsitate mailako ikasketak dituztenen artean baino. Emakumeen lanik ezaren tasa oro har gutxitu egin da hiru ikasketak mailetan, bilakaerak gorabeherak izan baditu ere, eta bigarren nahiz unibertsitate mailako ikasketak dituzten emakumeen aldekoa izan da.

Lanik ezak irauten duen batez-besteko epea 27,5 hilabetekoa da emakumeentzat, gizonentzat baino zertxobait luzeagoa, horiena 25,2 hilabetekoa baita.

Noizbait lanean aritu diren emakumeen gehiengoak zerbitzu alorrean egin zuen lan, %72,4ak hain zuzen, eta gainerakoek, ia guztiek, industria alorrean.

Ildo horretatik, beharrezko irizten diogu haxe zehazteari: Euskadin izandako industria berregituratze sakonak eragin handiagoa izan duela emakumeengan gizonengan baino, eta aztertutako datuen arabera esan daiteke emakumea berriz ere industria alorrean sartzea, ekonomia hobetzen ari den une honetan, gizonen kasuan baino motelago gertatzen ari dela.

Lanean ari diren emakumezkoen lanbide-ezaugarri nabarmenetako bat lanbide talde gutxi batzuen inguruan biltzea da. Horrela, lanean ari diren emakumeen gehiengoak, %77,7a, lau lanbide-talderen inguruan biltzen da: %29,4ak norbanakoari ematen zaizkion zerbitzuekin, etxeko lanekin eta ostalaritzarekin zerikusia duten lanbideak ditu; %19,5a administrari laguntzailea da; %15,5a merkatari eta saltzailea, eta %13,3a teknikari eta erdi mailako profesionala, OHOko irakasle eta erizain, batez ere. Sexuaren arabera lanbide banaketa horrek eragin zuzena du lan merkatuaren dinamikan, batez ere emakume soldatadunen artean, horietako gehienek lanbide-maila baxueneko lanak baitituzte, eta ondorioz, soldata baxuenak jasotzen baitituzte.

Industria alorrean emakumeen lan tasa oso baxua da, %14,7a, eta ehungintzan, jantzigintzan eta oinetakogintzan du eraginik handiena. Eraikuntzan lan egiten duten emakumeen proportzioa ia hutsaren parekoa da, %1,7 hain zuzen.

Nekazaritzan lan egiten duten emakumeen proportzioa, %2,9a, gizonzkoen antzekoa da, %3,3a, baina gehiengoak 45 urtetik gora duenez, proportzio horrek gutxitzeko joera izango du etorkizunean.

Ekonomia estalia edo arauzkanpoko enplegua, bere lanbide-egoera dela eta gizarte segurantzaren sartuta egon beharko luketen eta ez dauden pertsonak osatzen dute. Egoera horrek emakumeengan du eraginik handiena: lanean ari diren emakumeen %5,8a dago egoera horretan, eta gizonzkoen %1,1a. Emakume horietako gehienak etxeko lanetan aritzen dira, eta gainerakoak merkataritzaren eta ostalaritzaren inguruan biltzen dira.

Herri-Administraritzan lan egiten duen emakume kopurua nahiko handia da, soldatadun emakumeen %25,1a, eta, kopuru osoak hartuz, gizonzkoena gainditzen du.

Soldata jasotzen duten emakumezko eta gizonzkoen arteko soldata ezberdintasunari dagokienez zera esan dezakegu, tradizioz sexuaren arabera soldaten arteko ezberdintasuna nahiko handia izan den arren, gaur egun garrantzi mugatua duela, izan ere, lehen gizonak eta emakumeak egindako lan beretatik emakumeei soldata baxuagoa ematen bazitzaie ere, gaur egun ezberdintasun hori lan merkatuan gertatzen den lanbide eta zeregin bereizketaren ondorio da.

Hala ere, eta Emakundek horretarako egindako inkestetan azaldutako datuei begira, lanean ari diren emakumeen soldata gordina orduko 799 pezetakoa dela ikus dezakegu eta gizonena, berriz, 1.019 pezetakoa. Beraz, emakumeen batez-besteکو soldata gizonena baino %21,6 baxuagoa da.

Ekonomia estalian ari diren edo lan egoera berezia duten pertsonak (%35,9) alde batera utziz gero, emakumeen soldata 799 pezetatik 889 pezetara igotzen da, gizonena ia aldatzen ez den bitartean, 1.034 pezetakoa baita, eta soldaten arteko aldea % 21,6tik %14ra gutxitzen da.

Administraritzan, sexuen araberrako soldata ezberdintasuna (%10,5) enpresa pribatuan (%24,2) baino askoz ere baxuagoa da, eta zerbitzuen alorrean (%17,5), berriz, industria alorrean baino zertxobait baxuagoa da (%22,4).

Lanbide-mailen arabera, soldaten arteko aldea ia hutsa da administrari laguntzaileentzat eta goi mailako teknikarientzat; txikia da, %6 ingurukoa, zuzendari eta erdi mailako teknikarientzat; %10 ingurukoa da administrarien, kategoriarik gabeko langileen eta peoi eta ofizio-ikasleen kasuan, eta gorakada nabarmena du ofizial eta espezialisten artean (%17,8) eta arduradunen artean (%23,4).

Azkenik, adierazi beharra dugu lanean ari diren ezkonduetako emakume gehienek, etxetik kanpoko lanaz gain, etxekoa ere egin behar dutela, batez ere umeak dituzten emakume ezkonduak, egunero gutxienez lau ordu ematen baitute etxeko lanetan.

Emakume ezkongabeen egoera bestelakoa da, oro har behintzat, erdiak baino gehiagok ez baitu bere etxeko lanetan egunero ordu bete baino gehiago ematen, eta, ezkongabeak lanean ari diren emakumeen %45a direnez, jarduerara bikoitz horrek emakume langile talde handi bati ez diola eragiten esan dezakegu.

Gizonezkoen %57ak eguneko ordu erdi baino gutxiago ematen du etxeko lanetan, baina proportzio hori %74ra iristen da ezkondu dauden eta 12 urtetik gorako seme-alabak dituztenen artean, eta 40 urtetik beherako ezkondu gutxi batzuek soilik hartzen dute parte beren etxeko lanak egiten nolabaiteko arduraz. Laburbilduz, gizonezkoek etxeko lanak bere egin gabe jarraitzen dutela baieztatu dezakegu.

2- SEXUAGATIK BEREIZKETA EGITEKO DEBEKU KONSTITUZIONALAREN ONDORIO JURIDIKOAK

Gure herrialdean sexuagatik bereizketa egiteko debekua Espainiako Konstituzioak bermatzen du, berdintasun irizpidea finkatzearekin batera (14. art.), eta horren ondorioz agertzen dira, Carmen Sáez Lara-k bere "Emakumeak eta lan merkatua" ikerketan adierazten duenez, bi irizpideen arteko loturari buruzko interpretazio arazoak.

Intenbide edo interpretazio posibleen artean, nabarmenak dira, batetik (1) bereizkeriaren debekua berdintasunaren alderdi negatiboarekin lotzen duena, ondorioz berdintasunak pertsonen arteko tratu berdintasuna soilik lortuko

lukeelarik, eta bestetik (2) berizkeria-ezaren irizpideari balio autonomoa ematen diona, benetako aukera berdintasuna bultzatuz.

Bereizkeria berdintasunaren alderdi negatiboarekin lotzen duen interpretazioa, zenbait autoreren esanetan (M. Rodríguez Piñeiro eta M. F. Fernández López), eduki autonomorik gabeko bereizkeria kontzeptua da. Ez du gogoan hartzen jokabide bereiztaileak eragiten dituzten baldintzei aurre egiteko, bereizkeriaren aurkako babesak zentzu kritiko eta zuzentzailea izan behar duela, eta interpretazio hori tratu berdintasunarekin nahastu eta haren barnean geratzen da. Azken finean bereizkeria galerazteko batere egokia ez den bereizkeriaren aurkako babes ereduā da, aukera berdintasunen babesean aurrerapenik ekarzen ez duenez.

Arrazoi zehatzengatik egiten den bereizkeriaren debekuari balio autonomoa ematen dion interpretazioak, gure artean lehen aipaturiko autoreek aurkeztua, hauxe dio, ordea: Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua jasotzen duen debekua bereizkeriaren aurkako borrokan diharduten nazioarteko medioen ondorio zuzena dela, bereizkeria gizarte ezberdintasun eta bazterkeria fenomenoā den heinean.

Horrexegatik ezin da bereizkeria berdintasun arazo soil modura ulertu, indar gutxiago duten edo baztertuago dauden gizarte-taldeetako norbanakoen askatasunaren babesean izan behar baitu benetako hedadura, aukera berdintasun arazo bihurtuz.

Azken interpretazio horrek, bereizkeria egungo Estatu demokratikoen gizarte errealitatean azaltzen den moduan aztertu nahi duen kontzeptua izateaz gain, tratu berdintasunarekin batera, berdintasun benetakoa eta eraginkorra ziurtatzen duen berdintasun kontzeptua dakar berekin. Horrela, bereizkeria debekua gizakien duintasunari eta gizabanakoen askatasunari lotzen zaio.

Sexuagatiko lan bereizkeria arazoetan, Konstituzio Epaitegiaren jurisprudentzia, hasieran behintzat, bereizkeria debekua berdintasunaren alde negatiboarekin lotzen duen interpretazioaren barnean sartzen da.

Beraz, gure Konstituzio Auzitegiaren ustez, ezberdintasun guztiak ez dira derrigor bereizkeriak, baizik eta bakar-bakarrik hartutako neurriaren helburu eta eraginei jarraiki, justifikazio arrazoizkoa eta objetiboa ez dutenak, eta oreka egokia lortu behar da erabilitako bideen eta lortu nahi den helburuaren artean (Konstituzio Auzitegiaren 22/1981 Epaia).

Sexuaren araberako berdintasun iritzien inguruan onartzen den bereiztasun bakarra hauxe da: eztabaidan jartzen den ezberdintasuna objetiboa eta arrazoizkoa dela zorrotzasun handigoz frogā dadin eskatzea; izan ere, 14. artikulua zehazten dituen faktoreetako bat ezberdintzeko faktorea da, hori oinarritzat harturik ezberdintasunak egin daitezten galerazteko (81/1982 KAE).

Ikuspegi horretatik, sexuagatiko bereizkeriak berdintasun-iritzia adierazten du azken finean, indar eta zorrotzasun handigoz bada ere.

Rodríguez Piñeirok adierazi bezala, aurreko horren ondorioā bereizkeria ezaren eta sexuen arteko berdintasunaren aldebitako ikuspegi neutroa da. Ikuspegi horrek, bitxia bada ere, eztabaida konstituzionala sortzen du, emakumeekiko diskriminatuak sentitzen diren gizonek sortua.

Ikuspegi neutro horren adibide modura Konstituzio Auzitegiaren 81/1982 Epaia ekarriko dugu gogora, bertan esaten baita "emakumea babes-tea ez dela berez ezberdintasuna zuritzeko arrazoia, eta aldi berean ez da nahi-koa emakume izateagatik besterik gabe babesa emakumeak jasotzea". Zoritxa-rrerez, ez dira kontuan izaten gizartean emakumea baztertzen duten giza jokabi-deak eta aukerak.

1987. urtetik aurrera Konstituzio Auzitegiak bazterkeriaren ulerkera osoa-go eta balioztatzaileagoa egin du, eta azken finean, arazo horrekin aritu diren nazioarteko erakundeei gehiago gerturatzen zaiena (Lanaren Nazioarteko Era-kundearen, LNE, 98 eta 111. hitzarmenak).

Espainiako Konstituzioaren 14. aurtikuluko bereizkeria debekua hasiera-ko aldebitako ikuspegi neutrotik urruntzen da, eta parekotasuna gizarteko talde baztertuenen babes tresna bezala azaltzen da, talde horietako gizabana-koen benetako berdintasuna ziurtatzeko helburuz.

Emakumearen bereizkeria debekua testuinguru berri horretan sartzen da orain, sindikazioa bezalako beste eskubide batzuetan oinarriturik egina, eta aldi berean Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoak berezko duen berdinta-sun benetako eta eraginkorraren oinarri dena.

Aldaketa esanguratsu hori 128/1987 KAEren ondoren gertatu zen, epaiaren arabera sexu bereizkeriaren debekua "historian zehar gizartean eta lege-mailan emakumeak gizonen mailaren azpitik egoteari amaiera emateko asmoan" oinarrituta dago, eta egoera historiko-hori ezin da alde batera utzi "emakumearen bereizkeriaren aurkako konstituzio aginduak edukirik gabe utzi nahi ez badira".

Bestela esanda, egitezko kasuak berekin dakarren gizartearen jokabide bereiztailea nabarmena denean, hura zuzentzeko neurria -tratu ezberdintasu-na- Konstituzioak behartuta dator Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokrati-koan, berdintasuna beteko dela ziurtatzearren.

Rodríguez Piñeirok dioen bezala, lanean emakumeak gizonak baino egoe-ra okerragoan egon ez daitezen herri-agintariak egiten duten lana onesten du Konstituzioak. Hala ere, ezin esan daiteke horrek berdintasun irizpidea haus-ten duenik, tratu mesedegarrienak ere kontuan hartzen baitu egoera desberdi-na, lehendik dauden bereizkeria egoerak eraztea duelako helburu.

Sexuagatik bereizketa egitearen inguruko Konstituzio Auzitegiaren jarrera berri horrek emakumeen aldeko jarduera positiboaren bultzada eta zuzpertzeta ekarriko du berekin, eta baita ere bereizkeriaren aurkako babesa nabarmen hedatzea. Aldi berean aurrerapen nabaria izango da *strictu sensu* zuzeneko bereizkeria gertatzen denean, zuzeneko bereizkeria estalien kasuan, eta zehar-kako bereizkerietan.

Zuzeneko bereizkeriak

Konstituzio Auzitegiak zuzeneko bereizkeria esaten dio "sexuagatik tratae-ra ezberdin eta kaltegarria emateari, sexua zuzeneko arrazoia denean" (145/1991 KAE).

Zuzeneko bereizkeria kontzeptuaren barruan sartu behar dira honako kasuok: sexuarekin zuzenean lotuta dauden egoerak direla eta -haurdunaldia edo erditzea- edo pertsonaren egoera zibil edo familiakoagatik tratu ezberdin eta kaltegarria ematen denean.

Hainbat arrazoi batera gertatzen direnean, sexu arrazoiak erabakiorra izan beharko du. Horri buruz, 104/1987 KAE.

Baliteke zuzeneko bereizkeriaren trataera nahikoa ez izatea tratu berdintasun soilaren ikuspegitik aztertzen bada, tradiziozko interpretazioaren arabera ikuspegi horrek bereizkeria debekua berdintasunaren perfil ezkorrearekin lotzen baitu, eta gainera, lehen esan bezala, sexuaren arteko berdintasunaren aldebatiko ikuspegi neutroan baitu oinarria. Ikuspegi horretan garrantzirik gabekoak dira bai ezberdintasun biologikoak, bai emakumeak gizartean betetzen duen leku ezberdin eta ahulagoa.

Halaber, interpretazio horrek zuzeneko bereizkeriaren ikuspegian eragin handia izan dezake sexu ezberdintasuna aldaezina den eta konparazio bururik ez dagoen kasuetan, hau da, gizonezkoak egoera berean egotea ezinezkoa denean, haurdunaldian esate baterako.

Hala ere, sexuagatik bereizketa egiteko debekuaren interpretazio berriak emakumeen biologian eta gizartean oinarria duten ezberdintasunak arazorik gabe aurkezteko aukera ematen du, lan merkatuan emakumeentzat berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko asmoz.

Izan ere, bereizkeria debekua historian zehar emakumeak jasan duen ezberdintasun sozial eta juridikoarekin lotzean, "oreka lortzeko efektu edo kolpearen froga" izenaz ezagutzen dena sartzen da. Horren arabera, tratu ezberdintasuna bidezkoa da "aurretik zegoen benetako ezberdintasuna deuseztatze-ko hartu den neurria bada" (19/1989 KAE), eta Konstituzioari jarraiki legezkanpokoak dira, aldiz, emakumea langile bezala berdintzat ematen duten tratu ezberdintasunak (28/1992 KAE).

Ikuspegi berri horrekin lotuta, hiru dira normalean onartzen diren tratu berdintasunaren salbuespenak, emakumeen eta gizonen arteko tratu berdintasunari buruzko Europako 76/207 Arteztarauak guztiak jasotzen dituelarik.

- 1) emakumea zenbait lanbidetatik baztertzea jarduera bera edo jardueraren baldintzak direla arrazoi.
- 2) emakumea babestea, batez ere haurdunaldiarekin eta ama izatearekin zerikusia duten arazoetan.
- 3) emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzea.

Zuzeneko bereizkeria estaliak

Sexua tratu ezberdintasuna azaltzean zehazki emandako arrazoiak ez bada ere, bereizkeria sortu duen jokabidearen benetako arrazoiak denean gertatzen dira zuzeneko bereizkeria estaliak.

Bereizkeria mota honen inguruan sortzen den oztopo nagusia froga lortzearen zailtasuna da.

Horren aurrean, epailaritzako agintari ezberdinek (Komunitatean bertan zein Europa mailan), aurretik oinarritzko eskubideen babeserako eman zen irtenbidea hedatu dute sexu bereizkeriaren alorrera. Ondorioz, enpresariaren gain uzten da bere jarduera, ustez sexuagatik bereiztailea, bereizkeria asmorik gabea dela frogatzea (166/1988 KAE).

Zeharkako bereizkeriak

Zeharkako bereizkerien barruan daude, 145/1991 KAEn jasotako definizioaren arabera, "formalki bereiztaileak ez diren trataerak baina, sexu ezberdinetako langileen artean dauden egitezko ezberdintasunak direla eta, (...) sexu bietako langileei sexuagatik ondorio ezberdin eta kaltegarriak ekartzen dizkietenak".

Bazterkeriaren aurkako babes zeharkako jarduera horietara hedatzeak muga berriak jartzen dizkio enpresa ekimenari. Izan ere enpresaren erabaki batek izan dezakeen berizkeriazko ondorioa kontuan hartu beharra dago, baita enpresaren ekoizpen beharren gainetik ere. Horrela, neurri kaltegarri hori sexua ez beste arrazoi batengatik eta enpresarentzat beharrezkoa delako hartu dela egiaztatzen denean bakarrik desagertzen da bereizkeria-akatsa.

3- EKINTZA POSITIBOAREN PLANGINTZA

Lehen azpiatalean egindako estatistika datuen azalpenean, emakumeak aurrez aurre dituen arazoak ikusi ditugu, bai lan merkatuan sartzeko, eta baita lan harremanetan ere.

Aztertutako datuen arabera lan merkatuan emakumeen parte hartzea pixkanaka goruntz doala esan badaiteke ere, lan merkatuan sartzekoan gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna handia da oraindik ere, bai ekonomia jardueran parte hartzeari dagokionez, bai enplegu egitura mailan, soldata mailan, eta batez ere familiarenganako arduraren banatzeari eta etxeko lanari dagokionez, horren ondorio baita lanean ari diren emakumeek lanegun luzeagoa izatea. Egoera horren aurrean, herri-agintariek hartu behar dute bere gain horrelako oztopoak pixkanaka baztertzeko erantzukizuna, emakumeek ekonomia jardueran sartzeko gizonen aukera berak izan ditzaten, eta berdintasun hori benetakoa izan dadin.

Hala ere, berdintasuna bultzatzeko joera duen politika egin eta gauzatzerakoan garrantzizkotzat jotzen da, herri-agintaritzaren eskuhartzeaz gain, berorren eta gizartearen arteko oreka bilatzea. Horretarako ezinbestekoa da gizartean eragina duten talde ezberdinek eskuhartze publikoen egituraketan, ezarpenean eta ikuskapenean parte hartzea.

Ikuspuntu horretatik, Emakundek (EEE) 1991-1994 bitarteko Ekintza Positiboaren Plangintza egin du. Egitasmo hori emakumeak Euskadin duen egoera zehatzari buruz egin diren ikerketa eta azterlanen arabera egin da, eta

kontuan izan dira gure elkarteak bere burua gobernatzeko duen aginpide mailaren arabera burutu daitezkeen ekintzak. Aldi berean beste autonomietan, Estatuan eta Europan garatutako berdintasun egitasmoak ere aztertu dira.

Lan merkatuan emakumearen berdintasuna lortzeko lehentasuna zein ekintzari eman behar zaion azaltzerakoan bikoiztasunik ez sortzeko, azpialdian honetan Emakundek egindako Ekintza Positiboaren Plangintza azalduko dugu soilik, proposatzen diren ekintzak Estatuako ekintza positiborako egitasmoetan agertutakoen antzekoak baitira oinarrian, eta aukera berdintasunerako Europar Elkartearen egin diren egitasmoen hildoari jarraitzen baitaie.

Egitasmo horrek emakumearen berdintasuna gizarteko maila guztietan bultzatzeko joera duten helburu eta ekintzak jasotzen baditu ere, ponentzia honetan lan merkatuan bereizkeria egoerak sorrarazten dituztenak azaltzen saiatuko gara, eta enplegu, heziketa, lan harreman eta gizarte segurantzaren inguruan proposatutako neurriak aztertuko ditugu batez ere.

Ildo horretatik, helburu nagusitzat hartu dugu emakumeen gizarte-egoeraren ezagutza areagotzea, lanari dagokionez beti ere. Ezinbestekotzat jotzen dugu azterlanak burutzea, erakuskariak egitea, eta estatistika iturriak egokitztea. Hartara, emakume euskaldunen lan egitura ezagutu ahal izango dugu, bai lan merkatuari, bai etxeko lanari dagokionez, eta aldi berean orain arteko ezberdintasunak antzemango ditugu, haien sorrera eta ugaltze-bideekin batera. Horrela, adierazitako ekintzetatik honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Sexu aldagaia honako estatistika hauetan beti sartzea: langabezia, aurkitutako lan, eta langabeziagatiko babesari buruzko estatistika guztietan; soldatei buruzko estatistiketan, emakumeen eta gizonen arteko soldata ezberdintasunak ezagutzeko; enplegua sortzeko hartzen diren erabakien neurketa erakuskarietan.

- Ekonomia alorrean egiten diren inkestetan langileei buruzko estatistika guztiak banatu eta sexuen arabera aztertzea.

- Estatistika argitalpenetan eta jarduerari buruzko biztanlego inkestetan "sus labores" izendapenaren ordez "trabaja en el hogar" erabiltzea.

- Ekonomia estaliak emakumeen lanean duen eragina aztertzea eta bere bilakaera gertutik ikertzeko beharrezkoak diren erakuskariak sortzea.

- Umeenganako edo beste edozein senitarterenganako ardura zentzualak den eta emakumeen jarduerari profesionalari zein ondorio dakartzkion aztertzea, bai eta etxeko lanetan partehartze mailak duen eragina ere.

- LNEk jarritako bideari jarraituz, etxeko lana eta horrek Euskal Elkarte Autonomoaren Barne Produktu Gordinari (BPGd) egiten dion ekarpena neurtzeko bideak sortu eta erabiltzea, eta emaitzak estatistika argitalpenetan sartzea.

Ekintza horiek bultzatzeko honako erakunde hauek esku hartu behar dute: Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila, Ekonomia eta Planifikazio Saila, EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea) eta Emakunde.

Bestalde, aurreko atalean adierazi dugun bezala, emakumea lan merkatuan sartzea teknologia aldaketa eta lehia handia dagoen unean gertatzen ari da, eta horrexegatik beharrezkoa da lanbide informazio eta biderapen sendoa

izatea, lan merkaturako sarrera aukera berdintasunean gerta dadin. Halaber, biderapen berezia behar da langabezia dauden emakumeentzat, zenbait urtez lana utzi ondoren lanera itzultzen direnentzat, edo lehenengo aldiz esperientziarik gabe lanean hasten direnentzat.

Horregatik proposatzen da ondorengo helburuei ekitea:

1. Euskal Elkarte Autonomoan eragina duten taldeei lanbide alorrean aukera-berdintasuna lortzeko bidean aurrera egin behar dela oharraraztea. Hauek dira horren inguruan proposatutako ekintzak:

- Herri-erakundeei, sindikatu eta enpresari elkarteei, eta oro har jendeari zuzendutako informazio kanpainak eta lan-jardunaldiak sustatzea, emakumeek gizartearen eta lanean bizi duten egoera zabaldu eta ekintzapide eginkorrak (talde negoziazioa, ekintza positiborako neurriak, eta abar) proposatuko dituztenak.
- Informatika-sare publikoan emakumeentzako heziketa eta bideratze eskaintza sartzeta.

2. Lan merkaturatu sartu edo lanbidean mailaz igo nahi duten emakumeentzat informazio eta biderapen profesionala. Helburu hori iristeko bidean aurrera egiteko ondoko ekintzak proposatzen dira:

- Lanbidezko informazio eta bideratze ereduak egin eta ezartzea, emakume talde ezberdinen bereizgarriak kontuan hartzen dituen eta oinarria aipatu irizpideetan duena.
- Aurreko ekintzan proposatutako ereduaren arabera informazio eta bideratze zentruetan lanean ari den langilegoa trebatzea.
- Lanbide alorrean bideratze eta informazio ekintzak ezartzea zailtasunak dituzten emakumeentzat (ama ezkongabeak, tratu txarrak jaso dituztenak,...) gizarte-zerbitzuetarako zentruetan jasotzen duten laguntza ekin-tzekin batera.

3. Emakumeengan lanbide bat izateko nahia sustatzea beren ahalmen eta trebetasuna garatuz. Hauek dira adierazitako ekintzak:

- Baliabide ugari erabiliz, lan jardueran integrazioa bultzatzeko emakumeen nahia eta kezka sustatuko duen eredu erabilgarri, ireki, baliozko eta frogatua egitea.
- Sustatze ekintza gehiago egitea aspaldian lanik gabe dauden emakumeek hartzen dituzten trebakuntza ikastaroetan, edota ohituraz gizonentzat diren lanpostuak betetzeko prestakuntza ematen duten ikastaroetan; emakumeen aldetik lanpostuan edo trebakuntza prozesuan sartzeko zailtasunak somatzen diren lanbide bideraketa prozesuetan; lanik eza, ekonomia estali, edo azpi-enpleguaren menpe dauden emakume taldeetan.

Hauek liriateke ekintza horien garapen eta sustapenean zerikusirik duten erakundeak: Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila; Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila; foru aldundiak; udalak eta Emakunde.

Heziketa mailak eta lanbide birziklaketak enplegua lortzerakoan eragina dutenez gero, honako helburu hauek zehazten dira:

1. Trebakuntza eskaintzaren egitamua egitea, emakumeek Euskal Elkarte Autonomoko heziketa baliabideak erabili ahal izateko. Horren garapenerako ondoko ekintzak hartuko dira kontuan:

- Trebakuntza egitamua eratzeko prozesuan parte hartzen duten taldeei hauxe ulertaraztea: eskualdearen edo herriaren garapenerako ezinbestekoa dela emakumeak ahalik eta gehien lan merkatuan sartzea.
- Emakume elkarte eta sindikatuen baitan trebakuntza ekintzak bultzatzea, alor horietako ekonomia garapenari, trebakuntzari, eta ekintza positiiboaren neurriei lotuta.
- Atzerrian ekintzak burutzea Europar Elkarteko beste herrialdetako trebakuntza erakundeekin elkarlanean, esperientzia, metodologia, ikasle eta irakasleak hartu-emanenez, dauden birziklaketa eta lanbide trebakuntza egitasmoetan aurrera egin eta hobetu ahal izateko.

2. Lanean ari diren zein langabezia dauden emakumeen maila profesionalaren hobetzea ekarriko duten ekintzapideak sustatzea.

Ekintzapide horren barruan ondoko jarduerak proposatzen dira, besteak beste:

- Emakumeen lanbide trebakuntza eta birziklaketa profesionala sustatzea talde nahasietan zein zehatzetan, horien edukia lan merkatuaren eskariarekin bat etorriko delarik.
- Lan-orduen barruan trebakuntza-ikastaroen egitamuak egitea.
- Honako emakume talde hauek lan merkatuan sartzea erraztuko duten prestakuntza ekintzak: ekonomia egoera txarrean daudenak, bakarrik zein beste norbaitekin batera familia ardurak dituztenak, eta ezintasun fisikoren bat dutenak.
- Trebakuntza aurreko moduluak egitea, beharrezko pausoa baita heziketa eta lanbide maila baxua duten emakume-taldeen trebakuntza prozesuetan.
- Nekazal inguruko emakumeentzat trebakuntza ekintzak sustatzea, enpresa eta merkataritza teknikan prestakuntza hobea izateko eta aldi beretan ekoizpen teknika berriak hobetu eta garatzeko.
- Administraritzak lagundutako enpresen trebakuntza egitamuetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa somatu eta galeraztea. Heziketa eskaintzan, ikasleagoa aukeratzean, garatutako edukietan, laguntzarako materialeetan eta abarretan bereizkeria dagoela egiaztatuz gero, dirulaguntzak itzuli beharko dira.
- Eraldatzen ari diren eta trebakuntza maila baxukoak diren lanpostuetako emakumeen birziklatzea sustatzen duten enpresei laguntzak ematea.

3. Teknologiaren erronkari emakumeek berdintasunean aurpegi ematen lagunduko duten trebakuntza ekintzak eratu eta ezartzea. Horrela, zera proposatzen zaie horrekin zerikusia duten erakundeei:

- Emakumeek lan merkatuan duten partehartzea bermatu eta areagotzearen, ardura harrarazteko kanpainak egitea, teknologia berrien erabilera eta ezarpenaren inguruko trebakuntza sustatuko dutenak.

- Enpresei laguntzak ematea, teknologia berrien inguruko trebakuntza ikastaroetan emakumeen partehartzea orekatua izan dadin langileen artean dagoen emakume-kopuruarekiko.

4. Aholkularien trebakuntza sustatzea, enplegu, trebakuntza eta lan-harremanen alorrean ekintza positiboak garatu ahal izateko. Neurri horrekin lanbide berri bat sortu nahi da, eta helburutzat izango du, batetik, enpleguzko estatistika profesioetan emakumezkoen esku-lana hobeto eta gehiago erabiltzearen aldeko proiektu eta ekimenak bultzatzea, eta bestetik, gizartean eragina duten taldeei informazioa eta aholkuak ematea, Europako zenbait herrialdeetan garatzen ari diren talde-negoziatio prozesuen bidez berdintasuna nola tratatzen den jakin dezaten. Horretarako ekintza hau proposatzen da: aholkularientzat eduki tekniko eta praktikoa duten berdintasunerako ikastaroak eratu eta ematea, horren bitartez lortuko baita ekintza-eremuaren arabera lanbide berri hori gauzatzeko behar den perfilari egokitzen zaizkion profesionalak edukitzea.

Azkenik, emakumeen trebakuntza bermatzen duten ekintza horien ondorioak ezagutzeko, ezinbestekoa da hasitako trebakuntza prozesuak urtero neurtzea.

Ekintza horiek sustatzean zerikusia duten erakundeak lirateke Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila; Lehendakari-tza, Lege Araubide eta Autonomi Garpenerako Saila; Nekazaritza eta Arrantza Saila; HAEE (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea); foru aldundiak; udalak eta Emakunde.

Emakumeen enplegua sustatzeko politikari dagokionez, honako helburu hauek zehazten dira:

1. Emakumeak lan merkatuan sartzeko bideak erraztea, industriara eta zenbait lanbide eta kategoriatara iristeko dauden oztopoak ezabatuz.

Herri-agintariak enplegua sustatu eta emakumeen kontratazioa erraztuko duten programak egin beharko dituzte. Horrela emakumeen partehartzea areagotu ahal izango da kontratu mota ezberdinetan. Hauek dira neurri nagusiak:

- a) 30 urtetik gorako emakumeen kontratazioa bultzatzea.
- b) Familia ardurak dituzten emakumeak kontratatzearen alde egitea, laguntza edo pentsioa jaso arren; beren dirusarrerara lanbidearteko gutxienezko soldata baino %150 baxuagoa denean.
- c) Guraso bakarreko familietakoak diren emakumeen kontratazioa sustatzea, laguntzarekin zein gabe familia arduraren dutenean eta beren dirusarrerara indarrean dagoen lanbidearteko gutxienezko soldata baino %150 baxuagoa denean.
- d) Emakumeek partehartze gutxi duten lanbide eta kategorietan emakumezkoak kontrata daitezela laguntza ematea.

Esperientzia denboraldi zehatzak kontuan hartzen diren kontratazio moduei dagokienez, kontratua gauzatzeko emakumei urtebete kenduko zaie ama izateagatik, izan bada behintzat, gizonen zozadutza edo zerbitzu zibila betetzean gertatzen den bezalaxe.

Administraritzatik dirulaguntza jasotzen duten kontratu eskaintzek berariaz aipatu beharko dute emakumeentzako aukera berdintasun irizpidea betezen dutela.

2. Autoenplegu ekimenak eta emakumeek bultzatutako enpresa, kooperatiba, eta lankide elkarre anonimoen laguntza ematea, egoera txarrera iritsi ez daitezela. Helburu hori lortzeko honako ekintzak sustatu behar dira:

- Europako zenbait herrialdetan emakume enpresariak sustatu, lagundu eta trebatzeko erakundeak sortuz egin diren frogak aztertu eta ezartzea, emakumeek sustatutako autoenplegu eta enpresa-sorrera proiektuentzat informazioa, laguntza teknikoa, eta finantziarioa areagotuz.

- Enpleguzko herri-ekimenen egitamueta eragingarriak sortzea, emakumeen enplegu nahiz autoenplegua, baita enpresa kudeaketan parte hartzea ere, sustatuko dutenak.

3. Euskal Administrazio publikoak politika eginkorra eratzea, bere langilegoaren kontratazio, trebakuntza eta promozioan aukera berdintasuna bultzatzera bideratua.

Emakumeentzako Aukera Berdintasunerako 1986-1990 Europar Elkarrearen Egitasmoan haxe gomendatzen zaio Elkarteko herrialde bakoitzari: alor publikoak, enplegu emailea den aldetik, eredu izan behar duela emakumeen kontratazioa sustatuko duten eta enpleguaren bitariko izaera gorai patuko duten neurriak hartzea.

Horretarako neurri hauek proposatzen dira:

Enplegu-eskaintza publikoetatik hizkera bereiztailea ezabatzea; aukera berdintasunaren irizpidea bermatzen duen egitura sortuz, Administrazio publikoan egiten diren kontratazio eta aukeraketa moduak zaintzea, elementu bereiztaileak izan ez dezaten; emakumeek, Administrazio publikoko langile modura, beren lana egiteko edo mailaz igotzeko aurkitzen dituzten oztopoak ikertzea, laneko harreman eta baldintzetatik jokaera eta osagai bereiztaileak ezabatzeko; eta azkenik, Administrazio publikoan trebakuntza maila eta erantzukizun handiagoa behar duten zeregin eta mailatan emakumeen parte-hartzea sustatuko duten programak egitea, langile guztiak eredutzat har dezaten.

Gai horrekin zerikusia duten erakundeak dira: Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila; Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila; HAAE; foru aldundiak; udalak eta Emakunde.

Lan-harremanen dagokienez, sarritan gertatzen da itxuraz neutroak diren enpleguzko politika eta jokabideek, emakumeentzat ondorio bereiztaileak izatea. Lanpostuak lortzeko bete behar diren baldintzetan maiz erabiltzen dira eredu gisa finkaturik dauden eta sexuaren arabera bereizketa adierazten duten ideiak. Ideia horiek bazter uzten dute emakumea, eta ondorioz argi eta garbi bereiztailea den banaketa gertatzen da alorretan eta lanbideetan.

Lan-harremanen eremuan gertatzen diren ezberdintasun horiek galarazteko, honako helburuak zehaztu dira:

1. Emakumeen lan-eskubideak hedatu eta defendatzea, aldian-aldian eguneratuko den lan-eskubideen gidaliburua eginez; Ekintza Positiboaren Plangintza betetzeari dagokionean Lan Ikuskaritzak esku hartzea, lan-harremanen eremuan gertatzen diren sexu bereizkerien aurkako lan-egitasmoa gauzatzuz; laguntza eta informazioaren bitartez, sexu bereizkeria kasuak gertatzen direnean Lan Ikuskaritza edo gizarte gaietarako auzitegietarako bidea erraztea.

2. Ekintza positiborako neurriak har ditzaten, gizartean eragina duten taldeen artean ardura sorraraztea eta aldi berean talde horiek sustatzea. Hartutako neurriek lanean mailaz igotzeko aukerak edo lan-harremanak direla eta sor daitekeen bereizkeria desagertarazi behar dute. Horretarako, herri-agintariei hauxe proposatzen zaie: eragingarrien bitartez, talde-negoiazioaren barruan enpresa eta sindikatuak egiten dituzten ekintza positiborako egitasmoen egituraketa eta ezarpena bultzatu eta sustatzea; Lan-Harremanetarako Batzordearen barruan dauden erakundeei zera eskatzea, beren Lehendakariaren bitartez, alor berezi bat sor dezaten aukera berdintasunaz arduratzeko, eta gai hori talde-negoiazioan sar dezaten. Aldi berean gomendio-gidaliburua egitea proposatzen da, talde-negoiazioa oinarri ez-bereiztaileen arabera egiteko lagun-garri gerta dadin.

3. Lan-harremanen esparruan emakumeen partehartzea areagotzea, sindikatu eta enpresa sarean haien ordezkariak sustatuz. Horretarako, ekintza positiborako egitasmoen garapena bultzatu behar da sindikatu eta enpresa egituretan.

4. Trebakuntzarik eza eta bereizkeria galeraziz, emakumeen lan-baldintzak hobetzea. Helburu hori lortzeko, honako ekintzak proposatzen dira: barne promozioei dagokienez, lehen ordezkariak-maila baxua zuten sail, ofizio edo mailatan emakumeen partehartzea igo dela erakusten duten enpresentzat eragingarriak sortzea; lanari buruzko talde-hitzarmenetan lanbideen sailkapena berriro azter dadin sustatzea, mailaren arabera; gehienetan emakumeek betetzen dituzten lanpostu eta lanbide kategoriei balio handiagoa emanez, lansarian berdintasun irizpidea bermatzearen; eta, azkenik, Lan Ikuskaritzaren zaingo lana areagotzea, emakumeek betetzen dituzten lanpostuen sailkapena egindako lanarekin bat etor dadin.

5. Lantokietako sexu jazarpenari aurka egitea, honako neurriak hartuz: txostenak eginez, sexu jazarpenaren maiztasuna, zein eratan gertatzen den, kaltetunari dakartzkion ondorioak, eta gizarte-gertakari hori desagerrarazteko jakin behar diren datu guztiak jasotzen direlarik; sexu jazarpen egoeren aurrean emakumeei salaketa egiteko aukera eta komenigarritasunari buruzko informazioa emanez eta gai horren inguruan ardura sorraraziz; gizartean eragina duten taldeei lanean gertatutako sexu jazarpenak aztertu, salatu eta argitzeko bideak susta duten ditzaten eskatuz; salaketa egiten duen pertsonaren aurkako neurriak galeraziz; eta, azkenik, enpresetan langileen ordezkarien artean ardura sorraraztea eta informazioa zabaltzea eskatzen da, sexu jazarpenaren kalte-dunentzat laguntza eraginkor izan daitezen.

6. Besterentzat etxeko lanetan aritzen diren langileen lan-harremanetan lan-baldintzak eta gizarte-babesa gainerako langileen parekoa izan dadin

ahaleginak egitea. Helburu hori lortzeko honako neurriak proposatzen dira: batetik, kontrol eta salaketa bideak sortzea, etxeko lanei buruz egun dagoen araudia betetzea bermatuko dutenak, indarrean dagoen araudia berraztertu eta etxeko lanetan ari diren langileen lan-baldintzak gainerakoekin parekatuko dituen proiektu berri bat egingo den ala ez aztertzen den bitartean; eta bestetik, besterentzat etxeko lanetan aritzen diren emakumeen lan-baldintzen, diru-sariaren eta gizarte-babesaren maila aztertuko dituen ikerketa sakona egitea.

7. Emakume langileentzat lan-osasunerako badaezpadako programak egitea. Horrela, hauek dira gai horri buruzko asmoak: erabateko ongizateari kalte egiten dioten lan-baldintza batzuk aztertzearen, emakume langileen eta gizartean eragina duten taldeen ekimenak sustatzea, eta halaber, haurdun eta arrisku egoeran dauden emakumeen lanpostuetan segurtasun neurriak sustatzea.

Honako erakunde hauek esku hartu behar dute: Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Lan Harremanetarako Kontseilua, Lan Ikuskaritza eta Emakunde.

Emakumea lan merkatuan benetako berdintasun egoeran sar dadin, ezinbestekoa da lanbide eta familiari dagozkien arduren banaketa sustatzea. Beharrezkoa da, batetik, familiaren ardura banaketa orekatuagoa lortzeko helburua duten herri-politika gehiago izatea, eta bestetik, gizartean eragina duten taldeek familia ardurak dituztenei arreta handiagoa egitea. Horixe da Europako Elkarrean Batzordeak 90. hamarraldirako azaldu zituen helburu nagusietako bat.

Eta, horri dagokionez, Euskal Elkarte Autonomoko Emakumeentzako Ekintza Positiboaren Plangintzak proposatzen du emakume eta gizonen artean familia arduren banaketa orekatua bultzatzea, hori baita lanean aukera berdintasuna bultzatuko duen politika modu eraginkorrean garatzeko oinarrizko baldintza. Horregatik eskatzen zaie herri-agintariei: (1) familia erantzukizun eta betebeharrei dagokienez, emakumeak eta gizonak, biek dutela horien ardura jendeari oharrarazteko kanpainak egitea; (2) ama edo aita izateak berekin dakartzan zereginak betetzeko baimenak, lizentziak edo lana aldi baterako uztea arautzen duten arauak hedatzea; (3) ama izateagatik lana uzteko baime-na duen emakumearen kasuan, beste emakume langile batekin behin-behineko kontratua sinatuz haren lanpostua aldi baterako betetzen duten enpresak saritzea; (4) gizartean eragina duten taldeei zera eskatzea, talde-negoziazioaren bitartez, familia ardurak dituzten langileen baimenak, lizentziak edo aldi baterako lan uzteak arautzea, banaketa orekatuagoa egin ahal izateko; (5) langileari bere lana familia ardurekin batera betetzen lagunduko dioten lan-baldintzak bultzatzea (lan-orduen malgutasuna, epe luzean banatutako denbora-kredituak,...); (6) komunitate zerbitzuak sustatu eta hobetzea, biztanlegoaren familia eta lanbide erantzukizunak elkarri hobeto egokitzeko: garraioak, eskoletako jangelak, pertsona adintsuei arreta ematea, lan erantzukizunekin bateragarria izango den zerbitzu ordutegia; (7) Lanaren Nazioarteko Erakundeak familia ardurak dituzten langileentzako aukera eta tratu berdintasunari buruz egin zuen 156. hitzarmena oso-osorik ezartzea.

Honako erakunde hauek hartu behar dute esku neurri horien sustatze eta hedatzean: Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, foru aldundiak, udalak, eta Emakunde.

Azkenik, Gizarte Segurantzaren legedi eta áraudian azaltzen diren bereizkeria egoerak gaintzeko bete behar diren helburu eta ekintzak finkatzen dira egitasmo honetan. Zuzeneko bereizkeria kasuak gertatzen dira familia zaintzeaz beste ezer egiten ez duten alaba, emazte edo alargunen artean, ez baitituzte Gizarte Segurantzak ematen dituen laguntza edo diru-kopuruen onuraduntzat hartzen. Eta gainera, gizonekiko ere zeharkako bereizkeria kasuak gertatzen dira, emakumeen egoera sozioekonomikoaren ondorioz dirulaguntza txikiagoak ematen baitzaizkie emakumeei.

Horrela, hauxe hartzen da helburu nagusizat: aukera berdintasunaren irizpidea erabiltzen hasteko Gizarte Segurantzaren sistema piskanaka egokitzeak zenbaiterainoko eta nolako eragina izan duen aztertzea. Herri-agintariei zera eskatzen zaie: (1) lege-jaurbidean alargun, umezurtz, edo senitartekoen pentsioak aldatzearen eragina aztertzea, Europar Elkarteko araudiak proposatutakoari jarraiki; (2) etxeko lanetan aritzen diren langileen erregimenaren bereiztasuna aztertzea, Erregimen Orokorren arabera berdintzeko asmoz; (3) alargun, umezurtz, eta senitartekoen pentsioen aldatetek euskal Administarratza publikoaren langileen gizarte-babeserako erregimenetan zein ondorio duten aztertzea.

Neurri horiek sustatzeko Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Emakundek hartu behar dute esku.

4- EKINTZA POSITIBOAREN PLANGINTZA ETA JARDUERA PROPOSAMEN BERRIAK ZENBATERAINO BETE DIREN NEURTZEA

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen urteko txostenetan, sexu bien arteko berdintasuna eragotzi edo zailtzen duten oztopoak kentzeko asmoz onartu zen egitasmoaren inguruan agintariak nola jokatu duten aztertzen da. Txosten horiek baliozko iturri dira helburuak zenbateraino bete diren aztertu eta lehen ondorioak ateratzeko.

1993. urteko txostenaren arabera, sustatu ziren 295 ekintzetatik %40,6 ponentzia honi dagozkion alorretan gertatu ziren. Zehatz azalduta, prestakuntza eta enplegu alorrak %23a hartzen du, eta komunitateko gizarte-zerbitzuen alorrak, berriz, guztiaren %17,6a.

Emakunderen ustetan, prestakuntza eta enplegu alorrean egindako ekintza kopuru altu hori ez da administrazio ezberdinek Euskadiko egoera sozioekonomikoaz duten arduraren ondorio bakarrik; Europako egitura-fondoen eragina ere erakusten du, lan merkatuan emakumeen sarrera sustatzeko egin direnak.

Komunitateko gizarte-zerbitzuei buruz zera adierazi beharra dago, datu gehienak baliabideak eta horien erabileraren inguruko aholkularitza eta informazio ekintzei dagozkiela, eta ez horrenbeste zerbitzu berrien sorrerari.

Jarduerak eskatzen duten eskuhartze motaren arabera (informazioa, ardurara sorraraztea, prestakuntza, zuzeneko ekimena, e.a.) kategoriatan sailkatuz

gero, prestakuntzara bideratuak dauden jarduerak dira portzentaia altuena dutenak (%31,2).

Jarduera kategoria horretan prestakuntza modu guztiak daudela zehaztu beharra dago, baina guk nabarmendu nahi duguna -lanbide prestakuntza- alor nagusia da, guztiaren %13a hain zuzen.

Ildo horretatik, lehentasuna izan dute emakumeek mende bukaerako teknologia eta kultura aldaketa nabarmenei berdintasun egoeran aurre egin ahal izateko egin diren ahaleginek. Gainera, onartu beharra dago ahalegin horiei esker eskuhartze modu horretaz egindako ekintzek garrantzi handiagoa lortu dutela.

Zuzeneko ekintza, eskuhartze moduetan hirugarren lekuan badago ere (%14), laguntza eta aholkularitza jardueren inguruan biltzen da batik bat. Horregatik kontuan izan behar da bakar-bakarrik zailtasun handiena duten emakumeen aldeko ekintza zuzena dugula, eta ez dela oraindik gizarte osora zabaldu.

Egitasmoa gauzatzeko erantzukizuna duten erakunde ezberdinen parte-hartze mailari eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeei dagokienez, nabarmena da Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren partehartzea, lehen tokian baitago %8ko jarduera zenbatekoarekin.

Foru aldundien eta udalen eskuhartzea ere nahiko altua da (%25,1 lehenengoena eta %43,5 bigarrenena), eta bat dator lehen aipaturiko joerarekin, urtealdi honetan lehentasuna izan duten ahaleginei dagokienarekin alegia, hain zuzen zailtasunak dituzten emakume-taldeentzat egindako jarduerak (laguntza eta aholkularitzaren inguruan ardura sorrarazi, trebatu eta zuzeneko ekintzak egitea), administrazio horien konpetentzia mailekin bat datozelako.

Emakunderen ustetan, aurreko datuek zera adierazten dute, txostenean aipatu joerak egitasmoaren oinarrizko helburuei soilik egokitzen zaizkiela: batik bat euskal herritarrei gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna beharrezko dela oharraraztea, eta zailtasun gehien dituzten emakume-taldeei laguntza ematea, prestakuntzan batez ere, bai oro har, bai lanbide prestakuntzan.

Hala ere, bi akats nagusi ikusten dira eskuhartzeetan. Egiaz, birbanaketazko eskuhartzea lortzera bideratutako ekintza zuzenak falta dira, batez ere komunitateko gizarte-zerbitzuetan. Bestalde, Administaritzak ekintza positiboen politikan partehartzaile aktiboa izateko duen zailtasuna somatzen da, eta horren ondorioz ez dago zuzeneko ekintza sakonik.

Alabaina, behin eta berriz esaten da egoera hori, Europako Elkarrearen esparruko beste hainbat ekimenetan gertatzen den bezala, aukera berdintasunerako politika publikoaren lehen faseari dagokiola, eta beharrezkoa dela euskal Administaritzak benetako ekintza positibora bideratutako bigarren fase bat bere gain hartzea.

Egungo gizarte-egoeraren arabera herri-agintariek onartu dituzten lehen ekimenen berehalako emaitzen haserako azterketa orokorra egin ondoren, ezin dugu ponentzia hau amaitutzat eman gizarteko alor guztietan, eta zehazki guri dagokigun lan-alorrean, sexu bien benetako berdintasuna lortzeko "borroka"

etengabe honetan administrazio zerbitzu ezberdinek jarraitu beharreko bideei buruz zenbait zehazpen edo gogoeta egin gabe, gogoeta horiek etorkizunean elkar hartuta egin daitezkeen proposamenen oinarri izango direlakoan.

Hori lortzeko, gure azalpenari erabatasun eta zorroztasun sistematikoa ematearren, Europako Elkartearen egungo esparruan emakume eta gizonen arteko tratu berdintasun irizpideari oro har ezartzen zaizkion salbuespenak (76/207 Arteztaraua) erreferentziatzat hartzea erabaki dugu. Gogoratuko duzue, hauek dira salbuespenak: (1) zenbait lanbide baztertzea, (2) emakumea babesteko neurriak, eta azkenik, (3) aukera berdintasuna sustatzeko neurriak.

1- Baztertutako lanbideak

Emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunari buruzko Europar Elkarteko Arteztarauak, 2.2. artikuluan hain zuzen, Estatuari aginpidea ematen die sexua baldintza erabakiorra duten lanbideak -bere izaera edo gauzatzeko baldintzak direla eta- arteztarau horren eraginetik kanpo uzteko.

Era berean, 9.2. artikulua haxe dio, Elkarteko Estatuak aldian-aldian aztertu behar dituztela baztertutako lanbideak, gizartearen aurrerabidea kontuan hartuz, baztertzeari eusteko arrazoirik ba ote dagoen jakiteko.

Emakumea lan merkatuan sartzearen salbuespen horren oinarri teorikoa da, hain zuzen, oreka puntua aurkitu beharra dagoela bereizkeria- ezaren irizpidearen eta enpresa askatasunaren irizpidearen artean, biak babesten baititu Konstituzioak. Horrela, sexua ezingo da faktore bereiztailea izan enpresa barruan, enpresa jarduerarentzat erabat beharrezkoa den egoera zehatzetan izan ezik.

Spainiaiko Estatuaren araudian nabarmena da gai horien inguruan dagoen hutsunea. Horren aurrean, zenbait adierazpenen bidez (meatzei buruzkoa adibidez) Konstituzio Auzitegiak berak esku hartu behar izan du gai horietan, eta konstituzionalki onartutzat eman ditu enplegua lortzerakoan eta laneko baldintzetan ezberdintasunak egotea, beroriek bidezko irizpide arrazoituetan oinarritzen direnean, hots, biologia eta naturazko irizpideetan, kasu horietan sexua ez baita garrantzirik gabeko arrazoia (229/1992 KAE).

Hala ere, komenigarria izango litzateke bereizkeriaren aurkako araudi egokia (edo ad hoc) egin eta onartzea, eta berori etengabe ikuskatzea. Araudi horrek emakumeentzat baztertuta dauden lanbide zerrenda zehaztu beharko luke, sexu ezberdintasunen arabera beti ere, eta ez emakumearen "babesa" kontuan izanik. "Babes" hori beharrezkoa izanez gero (haurdunaldian edo ama izatean, adibidez), jarraian azalduko ditugun babeserako neurrien atalaren barruan tratatu behar dira, haien benetako izaeraren arabera.

2- Emakumearen babeserako neurriak

Europar Elkarteko 76/207 Arteztarauaren 2.3. artikulua zehazki adierazten du tratu berdintasunaren irizpideak "ez dituela emakumearen babesari

buruzko xedapenak oztopatuko, batez ere haurdunaldi edo ama izateari dagokionean".

Horren inguruan ezinbestekoa da, modu objetibo eta neutroan, neurri horiek hartuko luketen amatasun kontzeptuaren mugak zehaztea, batez ere neurriek berekin dakarten arrisku larria galerazteko, inoiz adierazi den bezala, zenbaitetan emakumeen kalterako izan baitaitezke.

Erabilitako amatasun kontzeptuari zenbait eredu soziokulturalei dagozkien erabardurak atxikitzen bazaizkio (emakumearen zeregin nagusia dela seme-alaben hazkuntza eta hezkuntza, eta, azken finean, jaidura eta betebeharrak gehiago duela familia eta etxeko zereginetan), emakumeari gizarteko unitate nagusia, hau da, familian, oinarritzeko lekua ematen dion kultura eredu gorde eta finkatuko da. Modu horretara, lan merkatuan emakumea gizonaren azpitik izan duten gizarte-pentsamoldeak sendotzen dira.

Hala eta guztiz ere, zorionez, gaur egun aurrean dugun gizarte-errealitatea oso ezberdina da, familia erantzukizunak ez baitira dagoeneko emakumeen eta ez beste inoren ardura.

Are gehiago, umeak lagundu eta zaintzea sexua alde batera utzi eta guraso bien eskubide eta betebeharrak dela esaten duten araudi-agindu garrantzitsuak ditugu. Horién artean aipagarriak dira LANEren 1981eko 156. Hitzarmena, eta EKren 39. artikulua bera.

Aurreko guztiak agerian uzten du izenez ama izatea babesten duten, baina ama erantzule bakarra ez duten ondasunez bestelako ondasun juridikoak babesten dituzten neurriak berriz ere aztertzearen beharra. "Familia erantzukizun" kontzeptu berria sartzeko unea iritsi da, umeak zaindu eta etxeaz arduratzearen zama gehigarria emakumei soilik egozteko ahaleginek amaiera izan dezaten.

Horrela, emakumeen babeserako arauak emakumearen ohiko ezberdintasun biologiko zehatzei erantzun behar diete soilik, hau da, haurdunaldiari eta ama izateari. Beste hitzetan esanda, arau horiek, haurdunaldiak eta ama izateak amaren osasun fisiko eta psikikoan eragiten dituzten ondorioei aurre egiteko erabiltzen direnean soilik izango dira bidezkoak.

Neurri babesle horiei buruz egin daitekeen gogoeta, etorkizunean gai honen inguruan burutuko diren ekintzen gida modura, hauxe da: emakumeen kontratatazioari ekar diezazkiokeen ondorio txarreatatik, emakumezkoen lanaren ustezko gastu handiagora gutxitzen saiatu beharra dago, eta, aitzitik gizarte-babeserako neurritzat hartu behar dira.

Horrela, adierazgarriago izan dadin, gogora ekar dezakegu Emakumearen Erakundeak egindako Emakumeentzako Aukera Berdintasunaren II. Egitasmoak (1993-95) zehaztutako ekintza bat, emakumeen aukera berdintasuna posible egingo duten lege-aldaketak gauzatzeko helburuaz. Ekintza hori zera da, ama izateagatiko baja, baja berezizat hartzea, lanerako behin-behineko ezintasun baja ez bezalakotzat.

Bi egoerek izaera, eduki eta helburu ezberdinak izatea da hori egiteko ematen den arrazoi.

Modu horretan trataera ezberdindu bidera liteke, ama izatearen babesaren kostua gizartearen gain jarriko lukeena, eta ez amaren gain. Horretarako laguntza publiko horren babes muga kotizazio oinarriaren ehuneko ehunera igo beharko litzateke, zenbait ekimenek proposatzen duten modura.

Familia eta lanbide erantzukizunen bateratzea helburu duten neurri positiboek dagokienez (berriz ere diogu ez direla inolaz ere emakumeak sustatzeko neurri zehatzak, eragin bera baitute emakume eta gizonengan, azken horien betebeharra ere badelako seme-alabak zaindu eta hezteak), ama izatearen babeserako neurrien kasuan azaldu den iritzi berari jarraitu behar zaio, familiari emandako laguntza gizarte-babesaren eremuan sartuz, Zuzenbidezko Estatu sozialari dagokion moduan.

Puntu horretan, oso nabarmena da adingutxikoen arazoei irtenbidea aurkituko dieten komunitateko gizarte-zerbitzuen eskaria.

Europako NOW (New Opportunities for Women) emakumeen sustatze eta lanbide prestakuntzarako ekimena bera ere, elkarte autonomoko eta Estatu-tuko zenbait egitasmoren oinarri, oso lagungarria da bai industria asko dauden lekuetan haurtzaindegiak sortu eta mantentzeko, eta bai enpresa, enpresatalde edo lanbide heziketa zentruetan lan egiten duten emakumeentzat. Are gehiago, egitasmo horrek haurren alorrean aritzen diren langileentzat lanbide trebakuntza programak aurrikusten ditu, horien ahalmena eta, azken finean, zerbitzu-kalitatea hobetzeko asmoz, gizarte-babeserako neurriok ezinbestekotzat jotzen baitira langileen (gizon edo emakume) famili eta lanbide erantzukizunak bateratzeko.

Hala ere, puntu horretan, adingutxikoen babesak gaur egun ezartzen ari den hezkuntza sistemaren ereduarekin duen lotura estuaz oharraraztea komeni da.

Horri buruz, hezkuntza politikaren arduradunek bere gain hartu dituzte zenbait konpromezu. Beroriek, umeen hezkuntzarako eskubidea (gizarte izaera duen eskubidea den heinean) eraginkor egingo duten ekintza positiboek behar eragindakoak badira ere, posible egiten dute adingutxikoak, zero urtetik hasita, hezkuntza sisteman erabat sartzea.

Horrela, urriaren 3ko 1/1990 Heziketa Sistemaren Berrantolaketarako Lege Organikoaren (LOGSE) 7.2 eta 7.3. artikuluek hau adierazten dute: hezkuntza agintariak, hala eskatzen duten biztanleen eskolaratzea ziurtatzeko nahikoa plaza izatea bermatu behar dute. Horretarako administraritza publiko ezberdinek haur-heziketarako eskoletan dituzten plaza-eskaintzak koordinatu beharko dituzte.

Bestalde, hezkuntza agintariak haurren hezkuntza garatuko dutela dio 11.2. artikulua. Horretarako udalekin, beste herri-administraritza batzuekin, eta aberasteko helbururik ez duten erakunde pribatuekin hitzarmenak egiteko behar diren baldintzak ere zehaztuko dituzte hezkuntza agintariak.

Gauza garbia dirudi hezkuntza agintariak zuzendu behar dutela haurren heziketarako zentru sarearen zabalkunde gero eta handiagoa eta, aldi berean, beroriek modu eraginkorrean ezartzea. Horrela gutxienezko kalitatea ziurtatzen

da mota horietako heziketetan, nahiz pribatuak izan, eta horiek baimenen arauzko jaurbidearen menpe jartzen dira.

Langileek familia eta lanbidean dituzten erantzukizunak bateratu beharri dagokionez, izaera fiskala duten familiaren laguntzarako beste zenbait proposamen ere nabarmenak dira. Hauek dira helburuak, besteak beste: haurtzaindegia direla eta, zergak kentzeko gastu-muga areagotzea; adingutxikoen heziketa zergak kentzeko kontuan hartzea; kide ugariako familiazat jotzea hiru seme-alaba dituen familia, e.a.

Proposamen mota horien asmo ona haseratik atzera botatzea zaila da. Hala ere, batetik edozein finantza sistema publikok dituen ezinbesteko mugak, eta bestetik ongizate Estatuaren krisiari buruzko eztabaida irekia direla arrazo, mota horretako proposamenak, berorien bideragarritasunari begira, arreta eman nahi zaien zerbitzu-talde eta gizarte-beharren arabera neurtu behar dira. Horretarako zehaztasunez aztertu behar dira proposamenek, onartuak izanez gero, izan dezaketen eragina eta segidan bata bestearen atzetik ekar ditzaketen ondorioak, sistema publiko osoko finantzetan berriz ere oreka lotzeko asmoz.

Azkenik, familiaren babeserako neurriei dagokienez, zenbait alor zehatzetatik beste proposamen batzuk egin dira, esate baterako seme-alabak zaintzeko eszedentzia epeak luzatzea.

Horrelako edo antzeko ekimenak modu egokian bideratzeak, gizon eta emakumeen artean benetako aukera berdintasuna ziurtatzeko ahaleginetan, hauxe eskatzen du, iparraldeko herrialdeetan gauzatzen ari diren zenbait esperientzian azaltzen denez: ekimeneak nahitaezko osagai bat izatea, hau da, baimena edo eszedentzia eskatzen duten gurasoen artean berori modu orekatuan banatzeko beharra ezartzea, aldi berean administrazio zigorra jaso dezaketela oharraraziz, gizarte-laguntzak galtzea esate baterako.

Horrela, emakumeak historian zehar jasan duen ezberdintasuna -familia arduren erantzule bakar modura- finkatu beharrean, Administrazioaren ekimena bera bihurtuko da gizartearen aldaketaren sustatzaile nagusi, egundaino emakumeek gizonetik benetako berdintasuna lortzeko izan dituzten oztupoak ezabatzen lagunduko duelarik.

Hala ere kontuan izan behar da, mota horretako neurriak Europako iparraldearen moduko eremuotan eraginkorrak badira ere -horietan gizarte-babesa ezagutzen den mailarik altuenera iritsi baita-, ezin direla beste eremu batzuetara erraz eramanez, eremuotan nahitaezko jokabideari lotuta dagoen administrazio zigorra (lortu nahi den gizarte aldaketa horren menpe dago) baliogabea izan baitaiteke gizarte-laguntzarik egon ez edo garrantzi gutxikoak direlako, gure herrialdean gertatzen den legez.

3- Aukera berdintasuna sustatzeko neurriak

Tratu berdintasunaren irizpidearen barruan egin daitekeen hirugarren indargabetze edo salbuespena, 76/207 Arzteztarauak aurrikusia, gizon eta

emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeari dagokiona da, lan-alorrean emakumeen aldeko ekintza positibo edo baiezkoa lortzeko bide ematen baitu.

Azken urteotan bizi dugun ekonomia krisi egoera berezia dela eta, ekintza positiboak bereziki indartu dira alor horretan. Horren froga dira aukera berdintasunerako egitasmoak, aurreko ataletan aipatu ditugun emakumeen erakundeek eginak.

Ekintza horiei buruz, neurrizko eskuhartzearen lehenengo mailari dagozkiola esan da, izan ere, gizarte aldaketaren eragile bihurtu beharrean, zailtasunak dituzten emakume taldeen prestakuntzarako eta kontratazio laguntzarako lehen ekimenari erantzuten baitiote, emakume talde horien egoerak okerrera jo baitu ekonomia krisiaren ondorioz.

Horri dagokionez, herri-administraritzaz ezberdinen ahalegina, laguntza publikoen jaurbidea onartu eta arautzen duten araudi-erabakietan isladatzen da.

Horrela, Euskal Herriko Elkartearen esparruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 1982. urtean enplegua sortzeko zenbait programa hasi zituen, familia erantzukizunak dituzten lanik gabeko emakumeei berariaz zuzenduak.

Hauexek dira emandako laguntzak: familia erantzukizunak dituzten lanik gabeko emakumeak egun erdiz zein egun osoz, eta behin-behineko zein behinbetiko kontratatatu dituzten baltzu, erakunde, elkarte edo enpresentzako dirulaguntzak.

Ildo horretatik, familia erantzukizunak dituen lanik gabeko emakumetzat jotzen da odolkidetasuna edo bestelako lotura (hirugarren maila ere barne) edo adopzioa dela bide, bere ardurapean senarra, haurrak, guraso edo aitona-amonak eta bestelako senitartekoak dituenak, beti ere laguntza edo pentsiorik jasotzen ez badu, edo jasoz gero, laguntza hori bermatutako gutxienezko lanbidearteko soldata baino baxuagoa bada.

Gaur egun kontrataziorako laguntzak denbora luzez lanik gabe egon diren pertsonen zuzenduak daude. Horrek esan nahi du neurri horiek gazteengan eta emakumezko biztanleengan dutela eragina gehienbat.

Dekretu berrietan, dirulaguntzak sartzearaz gain (kontrataziorako dirulaguntza), enplegu eta prestakuntza egitasmoak ere sartzen dira, denbora luzez lanik gabe egon diren pertsonen honako hauek eskaini asmoz: informazio eta bideratze zerbitzuak; egun erdiko lana, lanbide kualifikazioa hobetuko duten prestakuntza ekintzekin batera; eta ondoren, lan merkatuan sartzean, jarraipena eta laguntza.

Denbora luzez lanik gabe egon diren pertsonen kontrataziorako ematen diren laguntzen artean, beharrezkoa iruditzen zaigu emakumearen kontratazioaren alde ematen diren dirulaguntzak nabarmentzea.

Horrela, kontratazioa bultzatzeko neurriak antolatzen dituen martxoaren 15eko 131/94 Dekretuaren 13. artikuluan, hau aurrikusten da:

"Denbora oso luzez lanik gabe egon den pertsona baten kontrataziorako, epe mugagabez eta lanaldi osorako, urteko lansari gordinaren %60ko dirulaguntza emango da; kopuru hori, beti ere, ezingo da 1.000.000 pezeta baino gehiagokoa izan. Emakumeen kontratazioari dagokionez, dirulaguntzaren zenbatekoa %10 altuagoa izango da."

Emakumeen kontrataziorako dirulaguntza kopurua handitzea, epe mugaturako kontratuei ere ezartzen zaie.

Halaber, adierazi beharra dugu Eusko Jaurlaritzak onartutako dekretu horietan aurrekoen bestelakoak diren laguntza bereziak ere kontuan hartzen direla, familia erantzukizunak dituzten emakumeen kontrataziorakoak hain zuzen.

Bestalde, gizarte-zerbitzuen inguruko laguntza eta subentzioetarako deialdi publikoetan, foru aldundiek kontuan hartzen dituzte gizarte-egoera larriarri dauden emakumeentzako laguntzak. Horrekin dirusarrerarik ez duten eta bakarrik dauden emakumeen beharrak asetzea lortu nahi da (seme-alabekin batera famili-unitatea osatzen dutenak), bai eta banaketa, dibortzio, edo ezkontzaren baliogabetzea lortzeko bidean dauden premiazko beharrak asetzea ere.

Neurrizko eskuhartze horrekin batera, enpleguan bereizkeria debekua lehenengo maila gainditzeko ahalegina egin behar da. Lehenengo maila horrek honako puntuak hartzen ditu:

Lehenengo, enpresariak ezin duela sexua hautapen irizpidetzat hartu, emakumeak kanpoan uzten dituen lanbideetan izan ezik, tratu berdintasunaren inguruan Europako 76/207 Arteztauraren 2.2. artikulua horretarako eskaintzen duen babesaren pean.

Bigarren, aukeraketan enpresariak ezin dituela irizpide, betebeharrak, edo baldintza ezberdinak erabili gizon eta emakumeentzat, pertsonaren fisikoan nagusi den sexu ezberdintasunik ez badago behintzat.

Azkenik, enpresariak ezin duela erabili, oro har, emakume gehiago kanpoan uzten duen hautapen-prozedurarik, enpresarentzat beharrezkoa eta aproposa izateagatik bidezko denean izan ezik (horren inguruan, indar fisiko edo abiaturazko frogak gainditzea, eskakizun objektiboak -garaiera, adina- eta subjektiboak -konfidantza, erantzukizuna edo buruzagi izateko gaitasuna-).

Lehen maila hori gainditu ondoren, eskuhartze handiagoa proposatzen da, politika ordezkartzaren esparruan izandakoaren antzekoa.

Egia esan, gai horretan aurreratuagoak diren herrialdeetatik, iparraldekoetatik hain zuzen, datozen proposamen berri horiek bereizketa positiborako sistema aktiboagoa eskatzen dute. Horretarako haxe defendatzen da: batetik, enplegua lortzeko lehentasun sistema ezartzea, horren arabera beharrezkoa baita lehentasuna beti emakumeari ematea, ez bakarrik prestakuntza berdina edo ia berdina denean, baizik eta prestakuntza baxuagoa izanik, nahikoa denean ere bai; bestetik, emakumeen mesedetan, lanpostuen ehuneko kopuru jakin bat haientzat erreserbatzearen alde egiten da.

Proposamen mota horien egokitasuna neurtzea zaila gertatzen da benetan. Hasieran behintzat, bide eraginkor bihurtzeko emakumeak historian zehar ordezkari gutxi izan dituen lan alorretan sartzeko posible egiteko. Hala ere, alor horietan hautagaiaren prestakuntza hautaketarako elementu nagusia edo erabakiorra denean, emakumezko hautagaiari mesedezko tratua emateak ondorio txarrak izan litzake emakumeen irudian eta jendeak beraiez duen irizian.

Hori dela eta, zuhurtasunez jokatzeko, iparraldeko ekimen horien lehengo ondorioak ikusi arte itxoitea komeni da, bidezko iritziz gero, horien antzeko sistemak ezarri ahal izan daitezen, gure herrialdearen gizarte errealitateari egokituak, beti ere.

Azkenik, zenbait gogoeta egin beharra dago herritarren eskubideak bermatzen dituzten erakundeei, gurea barne, sexuaren araberako bereizkeriaren debekuan eman behar zaien egitekoaren inguruan.

Nabarmena da lehen urteotan Onbudsmanen jarduera kexa-espeditente gutxi batzuk bideratzera mugatu dela, eta ez da ezagutzen gai honen inguruko ekintza garrantzitsurik.

Hori, gai honen inguruan ardura hartu eta informatzeari dagokionez, herri-agintarien jardura lehen fasean dagoelako izan daiteke.

Alabaina, ardura hartze maila egokia lortzen denean eta ekintza positibo zorrotzagoetan sakontzen denean, bideratzen diren kexen kopurua handitzea espero da, lan edo jardura publikoa areagotzearekin batera.

Halaber, eta egoera txarrean dauden gizarteko beste talde batzuk zenbait lanetan, ofiziozko jardura eta ikerketen ondorioz, gure arreta izan dutenez (adinekoak, adingutxikoak, psikiatrikoetan dauden gaisoak,...), berehalako etorkizunean emakumea lan merkatuan sustatzeari lotuta dauden zenbait alderdiren ikerketa monografikoa egitea gustatuko litzaiguke; ezen ponentzia honetan, luzera mugatua dela eta, ez baitira alderdi horiek aipatu besterik egin, hala nola adingutxikoen babeserako komunitateko gizarte-zerbitzuak edo familiari laguntzeko neurri fiskalak.

Jarduteko modu berri horrek erakunde bakoitzaren barne antolamenduan ekarriko dituen ondorioak, zalantzarik gabe, erakunde bakoitzak bere antolaketarako duen esparruan erabaki beharrekoa da.

Horrela, zuzenean edo zeharka emakumeekin zerikusia duten kexak eta jarduerak sail zehatz batean biltzea erabaki daiteke, adingutxikoak bezalako gaietan gertatu den bezala. Beste aukera bat ere badago, hain zuzen ere, jardura horiek, zein gairi dagozkion kontuan hartuz, erakunde bakoitzaren zerbitzu juridikoetan egon daitekeen atal bakoitzaren barruan sartzea.

Hala ere, emakumea sustatzeko gaietan gure eskuhartzea areagotzeko asmoak gai sakonagoak uzten ditu agerian, esate baterako, defentsore eta emakumeen erakunde ezberdinen arteko harremanak bideratuko dituzten irizpideak, eta baita emakumea lan merkatuan sustatzearen alorrean gure babes-ekintzak izan dezakeen eragina ere.

Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen atal-sailak honako eginkizunak ematen dizkio, besteak beste, Euskal Emakumearen Erakundeari:

- "Erakundeak sexuaren araberako bereizkeria, jazarpen edo emakumearen eskubideak haustea dela eta egindako salapenak bideratzeko balioko du, eta behar diren ekintzetarako bideak jarriko ditu."
- "Harremanak eta esku hartzeko bideak finkatuko ditu beren helburu eta eginkizunengatik Erakundearen helburua lortzen laguntzen duten elkarre, fundazio eta bestelako erakunde eta enteekin, eta baita Estatuko zein nazioarteko beste elkarte autonomo batzuetako antzeko instituzio eta erakundeekin ere."

Hori ikusita, badirudi finka daitezkeen harremanak lankidetzara irizpideari jarraiki araupetu behar direla, erakunde biek ahaleginak batu eta eraginkortasun handiagoa lor dezaten, bai benetako berdintasuna sustatzeko neurrietan, bai bereizkeriatik agian egingo diren salapenen jarraipen zorrotzari dagokionez.

Gurea bezalako erakundeen eskuhartze aukerak direla eta, ez da zalantzarik agertzen lehen ekintza fasearen inguruan, alegia, laguntza publikoen erregimenaren gauzatzea ikuskatzera bideratua dagoena. Izan ere, laguntza publiko horiek azken urteotan garrantzi handia hartu dute ekintza positiborako neurri modura.

Halaber, Administrazio publiko bat enplegu emailea den lan-harreman guztietan esku hartzeko aukera garbia dago.

Hori dela eta, erabateko adostasuna dago gai honi buruz: Administrazioak egile erabakior izan behar du berorren langileen kontratazio, prestakuntza eta promozioan aukera berdintasuna lortzeko politika aktiboa garatzerakoan.

Horrek ez gaitu harritu behar, kontuan izanik enplegu publikoaren barruan emakumezkoek hartzen duten kopuru handi horretatik %54ra iristen da Euskal Herriko Elkarte Autonomoan-, askok eta askok (%75) erantzukizun baxuko maileri dagozkien lanpostuak betetzen dituela. Horregatik, etorkizunean Administrazioak izango duen jokoera, gurea bezalako erakundeek behar bezala ikuskatua, alde batetik orain azaldutako ezberdintasuna gainditzera bideratu beharko da, eta bestetik, esparru pribatua jarraituko den lan-harreman eredu finkatzera.

Esparru pribatuko lan-harremanetan esku hartzeko aukera baliteke horren baketsua ez izatea, hasiera-hasieratik eman diguten aginpide-esparrutik kanpo dauden harremanak baitira.

Haatik, ikusketa-zerbitzuen bitartez, sexuagatik lanean gertatzen den bereizkeriari buruzko gaian lan-agintarien ekintza areagotuko balitz, aldi berean posible izango litzateke, administrazio-erakunde baten bitartekaritza medio, bereizkeria kasu horiek zeharka ikuskatzea, guk bereizgarri dugun ikusketa-jarduera bezalako bati esker.

Amaitzeko, emakumeen eskubideekin lotura duten ekintza kopurua nabarmen gehitzea nahiko genuke, horrela erakutsiko baikenuke ongien azkenean herri-agintariak ekintza sendoa aurrera eramateko erabakia hartu dutela, emakumearen berdintasuna eskubide benetako eta eraginkorra izateko gaur egun dauden zailtasunak ezabatzeko asmoz.

2.7.1.B. ONDORIOAK

Ponentzian eta gai berari buruzko txostenetan egin ziren proposamenak eztabaidatu eta aztertu ondoren, herri-defendatzaileak jarraian jasotzen diren ondorioetara iritsi ziren:

"Azken urteotan gora egin dute lan munduan sartu diren emakumeei buruzko zifrek; halere, emakumea lan munduan egiazko berdintasun baldintzetan

sartzeko traba ugari dago oraindik. Ildo horretatik, ondorengo puntuak dira aipagarriak: emakumeen jarduera-tasak gizonetzkoenen oso azpitik daude; guxtiago ordaintzen zaie; emakumeen lanik eza asko igo da, ia lautik bat lanik gabe baitago eta emakumeari, gainera, zenbait lanbidetan bakarrik aritzeko aukera ematen baitzaio.

Emakumea poliki-poliki lan munduan sartuz doan arren, horrek ez du balio bi sexuen arteko ezberdintasunak gainditzeko; alderantziz, lan merkatuak berak ugaldtu egin ditu emakumea baztertzeko bideak, gizonaren parean nabarmen ezberdina izatera behartuz; dauden datu estatistikoek frogatzen dute hori.

Oro har, alde orotan onartzen da familia babesteko edozein neurri emakumearen onerako dela, eta horregatik komenigarria litzateke zuzenean edo zeharka emakumeei dagokien legedia berriro aztertzea. Eta hori ikuspegi orokor batetik egin beharko litzateke, legediak derrigorrez behar duen espezializazioak kontraesanik sor ez dezan helburuak aldatzean.

Konstituzioaren 14. artikulua sexuarengatik inor baztertzeko galerazten duenez, agintari publikoek ekintza positiboak garatuko dituen politika sustatu behar dute, bi sexuen arteko berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izan dadin; hori guztia Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoaren oinarri diren helburuen ildotik garatu behar da.

Puntu horiei buruz izandako eztabaiden emaitza gisa, ondorio hauetara iritsi ginen:

1) Beharrezkotzat jotzen dugu gogoeta egitea "Lan munduan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko Legea" indarrean sartzearen komenigarritasunari buruz; lege horrek gure legedi osoan aitortzen diren berdintasun baldintzak betetzen direla bermatu beharko du, bai eta zehaztu ere zer den zuzeneko edo zeharkako bereizkeria, Konstituzio Auzitegiak finkatutako interpretazio irizpideen arabera; horretaz gainera, berdintasun irizpidetik kanpo geratzen diren salbuespen-neurriak ere zehaztu beharko litzateke, horiek beti ere sexuen arteko ezberdintasun biologikoetan (ama izatea eta haurdunaldia) bakarrik oinarritu daitezkeelarik.

2) Komeni litzateke ama izateagatik har daitekeen baja behin-betiko baja berezitzat jotzea, alegia, lanerako behin-behineko ezintasuna ez bezalakotzat; izan ere, bi egoerak ezberdinak dira izaera, eduki eta helburuei begira, eta horrela, laguntza publiko horren aplikazio-muga zabaldu ahal izango litzateke.

3) Emakumeari familiaren barruan oinarritzeko zeregina ezartzen dieten eta, ondorioz, lan mundutik baztertuta dauzkaten gizarte-balioak betirakotu ez daitezkeen, eta Espainiako Konstituzioaren 39. artikuluan xedatutakoaren bidetik, familia barruko arduren kontzeptu berri bat sartu beharra dago, ardura horiek gizon eta emakumeen artean berdinduz banatzen lagunduko duena, lan munduan sartzeko aukeretan berdintasuna bermatuko duen politika egokia garatzeko.

Babes-neurri horiek kostu sozial bati aurre egin beharko diete, eta horiek ezongo dira emakumearen kalterako izan.

4) Ildo horretatik, eta adibide gisa, gaur egun indarrean jartzen ari den heziketa-eredu berrian (LOGSE) iragarri bezala, haurtzaindegi sare bat

finkatzeko ahalegina egin beharko litzateke, bai eta aiton-amonak, elbarrituak, etabar... beren etxeetan zaintzeko sarea bultzatu ere.

5) Neurri fiskalak ezarri beharko lirateke, besteak beste, haurtzaindegien erabileragatik zerga-arintzeko dagoen muga zabaltzeko, adingutxikoen heziketak eragindako gastuengatik zerga-arintzeko, kide ugariko familiaren erregimena hiru seme-alabatatik aurrera ezartzeko, etabarretarako.

6) Ekintza positibozko neurriak hartu beharko lirateke, alor publikoan nahiz pribatuan, eta eragingarriak ezarri horrelako neurriak har daitezen laguntzeko, Estatuaren dirulaguntza egokia lortuz, edo onura fiskalen zein Gizarte Segurantzaren esparruko onuren bidez.

7) Administrazio publikoak lanpostuak sortzen dituenegian egile erabakior izan behar du, alor pribatuan eredu bezala har daitekeen lan harremanetarako eredia ezarriz, eta aldi berean gai honetan zerikusia duten gizarte-taldeetan (sindikatuak, enpresariak, etabar...) ardura sorraziz eta haiek akuilatuz.

8) Era berean, komenigarria litzateke aholkularitza-sailetan eta bereziki Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan edo pareko erakunde autonomoetan emakumeen eskubideak defendatuko dituen emakume bikain bat egotea, Emakumearen Erakundeak edo lurralde autonomoetako antzeko erakundeek proposatua.

9) Emakumeen taldeak ekintza positiboak behar dituela kontuan izanik, hiritarren eskubideak bermatzen dituzten gureak bezalako erakundeek arreta handiagoa eman behar diote. Horretarako, komenigarria litzateke erakunde bakoitzak bere barne-antolaketan hiritarren talde honi tratu berezia eskaintzeko beharrezko neurriak hartzea.

10) Eta azkenik, herri-defendatzaileok emakumeen eskubideak zabaltu eta sustatu behar ditugu lan horretan diharduten administrazioen (Hezkuntza, Kultura, Emakumearen Erakundeak) koordinazioaren bidez, eta baita hitzaldi, elkarrizketa, etabarren bidez ere, emakumeak beren eskubideen jabe eraginkor izan daitezen lana egiteko."

2.7.2. HIRIETAKO INGURUGIROA (ZARATAK ETA JARDUERA GOGAIKARRIAK). ONDORIOAK

Galizako Valedor do Pobo den José Cora jaun txit gorenak moderatzaile lanak egin zituen beste bilera honetan, eta ponentzia Valentziako Komunitateko Síndic de Greugesek, Arturo Lizón jaun txit gorenak azaldu zuen. Gaiari buruzko txostenak, berriz, Andaluziako Herri Defentzailearen Lehen Ondokoak eta Valedor do Pobo-ren 2. Ondokoak aurkeztu zituzten.

Aipatu saioetan egin ziren proposamenei buruzko eztabaida orokor bat burutu ondoren, ondokoa proposatu zen:

"Oraindik denbora luzea ez dela hasi da sartzan Espainiako gizartea aisiarren zibilizazioa deritzan horretan. Horregatik, oraindik ez daukagu eskarmentu handirik zaratak eragindako arazoengatik inguruko eskubide eta interesak bateragarri egiten. Batzuek aisiarako eta jolaserako eskubidea daukate; beste batzuek beharrezko lasaitasunerako eta atsedenerako eskubidea; astialdirako zerbitzuak

eskaintzen dituzten jarduera ekonomikoek aurrera egiteko eskubidea daukate, etabar...

Horrenbestez, gizarte zibila eta administrazio publikoak, guztiek ohartu behar dute arazo berezi horretaz, eta bakoitzak bere mailan eman behar dio irtenbidea.

Hori horrela dela ikusita, herri-defendatzaileon ustez:

1) Zarataren arazoak araudi berezi bat behar du lehenbailehen; horrela, lege bat osatu behar da, Konstituzioak aitortzen duena gauzatzeko, alegia, hiritarrek zaraten erasorik jasan gabe bizitzeko daukaten eskubidea. Arau horiek hiritarren berezko eskubidetzat jo behar dute isiltasunerako eta lasaitasunerako eskubidea, ezertan ere gutxietsi gabe administrazioek zaratak sortzen diren lekuetan horiek desagertarazteko edo murrizteko indarrean dauzkaten edo jarriko dituzten neurriak. Lege horrek, lehentasunez eta ahalik eta azkarren, hiritarren eskubidea ziurtatzeko beharrezkoak diren berme-neurriak hartuko dituen sail eskuduna -judiziala nahiz administratiboa- sortzeko bidea eman beharko luke.

Araudiak agintari publiko ezberdinek eduki ditzaketan ahalmenen araberrako erantzun egokia eman beharko du, beti ere aintzat hartuz Estatuak eta lurralde autonomoek lege-araudiak eta udalek ordenantzak indarrean jartzeko daukaten ahalmena.

2) Gai honi buruzko eskumenak dauzkaten lurralde autonomoen kasuan, gure ustez arau bereziak ezarri behar dituzte horiek Jarduera Sailkatuetarako, Aisiarako Jardueretarako, Establezimendu Publikoetarako eta zaratek eragindako kutsadura mailetarako.

3) Gure ustez, toki jaurbidearen alorreko legedian nahiz sektoreetakoan udalek ahalegin berezia egin behar dute, eta behar bezala erabili zaratek eragindako kutsadura murrizteko eta horren kontra aurrez neurriak hartzeko duten ahalmena. Horretarako pausoak hauek izango lirateke: ingurugiroari buruzko udal-ordenantza bereziak eta arautzaileak onartzea, establezimenduen irekiera eta jardunerako udal-baimenak eskatzea eta hiri-antolaketa.

4) Zaratak eragindako arazoak konpontzeko udalek duten betebeharrari begira, garrantzi berezia dauka hiri-antolaketa egokia eratzeak; antolaketa horrek funtsean bi helburu izan beharko lituzke:

- Lurraren tipologiaren arabera hiri-erabilerak eta horien maiztasun-mailak arautzea. Horrela, hiri-erabilera ezberdinak eta oinarrizko bizitexetarako erabilera modu egokian bateratu beharko lirateke.

- Hirigintza alorreko ekintzei euskarri bat ematea. Jarduera gogaiarriek jendea bizitzeko eginda dauden etxeen erabilerari kalte egin diezaioketenez gero, legedi bereziaren pean dauden jarduera horiek non kokatu ebatzi beharko da, hiriko gune txikietan edo jende asko bizi den lekuetan pila ez daitezen.

5) Indarrean dauden arauak behar bezala bete daitezen beharrezko iruditzen zaigu:

- Baimenak emateko prozedura bideratzeko epeak laburtzea.

- Prozedura horietan hiritarrek parte hartu ahal izateko bideak modu eraginkorrean bultzatzea.

- Halako jarduera bati ekiteko baimena eman aurretik arazoei aurre-hartzeko frogak egitea, eta noizean behin ikusketak egitea, hasieratik bertatik jardunerako ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

- Zorrotz jokatzeari ezar daitezkeen zigorrak bideratu, ebatzi eta betearazteko, bai berme-neurriak hartzerakoan ere.

- Ibilgailuek hirietako kaleetan egiten duten zarata ikuskatzeko bideak ugaltzea.

- Gai honetan eskudunak diren udal-ordezkaritza ezberdinen artean (hiri-gintza, ingurugiroa, udaltzaingoa) administrazio-lankidetzari handiagoa finkatzea; udal-zerbitzuen eta lurralde autonomoko nahiz Estatuko zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.

- Komunitate Autonomoko eta probintziako administrazioek gestiorako gaitasun gutxi daukaten udalei laguntza tekniko eta material eraginkorra ematea, ingurugiro kontuetan dauden oinarriko eskumenak berma daitezen.

6) Gai honetan beharrezkoa iruditzen zaigu Ministeritza Fiskalaren zereginari indartzea, zaratak eragindako kutsaduraren arduradunek agintari eskudunen bidezko aginduak larriki betetzen ez dituztenean beharrezko neurriak har daitezen."

2.7.3. BURU-OSASUNA: PSIKIATRI ALORRA BERRITZEA, KONPONDU BEHARREKO GAIA. ONDORIOAK

Andaluziako Herri Defendatzaileak, Manuel Condé Pumpido jaun txit gorenak, moderatzaile lanak egin zituen bilera honetan, eta behin-behineko Defensor del Pueblo-k, Margarita Retuerto andre txit gorenak aurkeztu zuen ponentzia. Gaiari buruzko txostenak Kataluniako Síndic de Greugesen Ondokoak eta Valentziako Komunitateko Síndic de Greugesen Lehen Ondokoak aurkeztu zituzten.

Ondorio hauek atera ziren:

"Buru-gaisoek gure gizarteko talderik ahulen eta kaltetuenetakoa osatzen dute, eta horregatik gizarteak arreta berezia eman behar die. Beraz, gaiso horiei beharrezko gizarte- eta osasun-laguntza bermatzeko nahikoa baliabide jarri beharko lituzkete agintari publikoek. Legebiltzar ordezkariek bere egin dituzte Espainiako Defensor del Pueblo-k eta Euskal Herriko Arartekoak buru-gaisoen egoera juridiko eta laguntza-egoerari buruz egin dituzten txosten berezietako ondorioak, eta horietan jasotzen diren gomendioak betetzeko eskatzen diete agintari publikoei.

Aurrekontu-murrizketen ondorioz ezin daitezke murrizpenak egin, Osasunerako Lege Orokorrekin bat etorritik, psikiatri alorreko berrikuntzek ezartzen dituzten egitasmoetan.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 103. artikuluan ospitaleratze ez-kirurgikoa kanpo uzteagatik dituen hutsuneak direla eta, buru-gaisoak ezin dira laguntzarik utzi etengabeko zaintza behar dutenean, eta beraz, osasunaz arduratzen den Administrazioaren jarduerari jurisprudentzia ulertzeko moduari

egokitu behar zaio. Horrela, osasun sistema publikoko sendagileek gaiso psiki-koak ospitaleratzea erabakitzen dutenean, Gizarte Segurantzak hartu behar du bere gain ospitaleratzearen kostua.

Orobat, haiek azaldu zuten, buru-gaisoa instituzioetatik kanpo uzteari-kin batera, ospitale psikiatrikoetan oheak gutxitu dira eta, aldi berean, ez dira eskaini beste era bateko nahikoa baliabide; horren ondorioz, izatez gaiso asko dago laguntzarik gabe.

Era berean aditzera eman zuten beharrezkoa dela herri-administrazioek bide eraginkorrak erabiltzea, hiritar-talde horri arreta osoa bermatzeko dauden gizarte- eta osasun-baliabideak zuzen antolatzeko.

Legebiltzar ordezkariak berriro azpimarratu dute Ministeritza Fiskalak buru-gaisoekiko duen funtsezko zeregina, eta, horrela, ministeritza horrek ospitaleratze-prozeduretan maizago esku hartzea eta arazo horretaz arduratzea ezinbesteko dela diote.

Ezinduta dauden hiritarrak babesteko bideak sustatzeko premia ere nabari-ritu da, batez ere zokoratuta edo alde batera utzita egoteaz gain, beraiek zain- tzeaz arduratuko den familiartekorik ez daukatenean.

Azkenik, gaiso psikikoen familiartekoez dauzkaten arazoei buruzko azter- keta egitea erabaki dute herri-defendatzaileek, eta azterketa horren ondorioak beste koordinazio-bileran batean emango dira ezagutzera".

III. ATALA

KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL

3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

A) Sarrera

Alor honetan 18 kexa jaso dira, gure erakundearen aurkeztu diren guztien %3,2.

Kexa horiek eragin dituzten administrazioei begiraturaz, honelaxe banatu dira:

| | |
|--------------------------|----|
| - Eusko Jaurlaritza..... | 10 |
| - Diputazioak..... | 4 |
| - Udalak..... | 4 |

Kexen edukiaren arabera, honela bana ditzakegu aurkeztutako erreklamazioak:

| | |
|---------------------|---|
| - Merkataritza..... | 9 |
| - Nekazaritza..... | 7 |
| - Industria..... | 1 |
| - Turismoa..... | 1 |

Urtealdi honetan nekazaritza azpisailari dagozkion kexak gutxi izan dira, eta hori, nabarmen, alor honetan sartzen diren gaien ezaugarriengatik gertatu da. Azpimarratzekoak dira etxebizitzetatik gertu dauden belar-hobien eta zuhaitz landaketen kokapenagatik gertatzen diren arazoei buruzko salaketak.

Industria azpisailari dagokionez, gas instalazioetan dauden akatsen ondorioz aurkeztutako kexak jaso dira berriro. Era berean, ibilgailuen derrigorrezko azterketa teknikoetan jazotzen diren gertakari zehatz batzuei buruzko kexak ere iritsi zaizkigu; azken horiek, dagoen eskariari aurre egiteko Administrazioak bitartekorik ez daukalako sortu dira batez ere.

Azkenik, merkataritza azpisailari begira, egunkariak okindegietan saltzeagatik berriro kexak jaso ditugula esan behar dugu. Horri dagokionez, aurreko urtealdian adierazi genuen bezala, indarrean dagoen araudiaren arabera, legez ezin da egunkaririk saldu ogia egin edo saltzen duten dendetan, "okindegiak" deituetan alegia; janari dendetan ere egunkariak legez saltzeko baldintza batzuk bete behar dira.

Bestalde, udal batzuetan kalez kaleko salmentarako dagoen debekuarekin zerikusia duten kexak ere azpimarra ditzakegu. Zehazki, janariak kalean saltzeko debekuari buruzkoak dira. Horrela, udal ordenantza bidez kalez kaleko salmenta araututa daukaten herrietan berariaz debekatzen da janariak kalean saltzea.

Halere, ikusi dugu herri horietan produktu horiek legez kontra saltzen direla, batik bat Udalak salmenta era hori ikuskatzen ez duelako.

Kalez kaleko salmentari buruzko araudirik ez daukaten udaletan oso irizpide ezberdinak erabiltzen dituzte baimenak emateko orduan: zozketa bidez esleitzen dira salmentarako postuak, edo eskaria egiten dutenek herrian kalez kaleko salmenta egiten daramaten denbora hartzen da irizpide nagusi. Erakunde honetan aurkeztu diren kexak bideratu ditugunean, garbi ikusi dugu azaldutako kasu batzuetan bereizkeria garbia egon dela aipatu antolamendu ezagatik. Hori dela eta, dagokien udalei eskañu diegu gai horri buruzko udal ordenantza osa dezatela, postuak esleitzerakoan irizpide objetiboagoekin jokatzeko, interesdunek zer gerta daitekeen jakin dezaten.

Ilido horretatik, Ararteko honek oraindik kalez kaleko salmenta arautu gabe daukaten Euskal Elkarte Autonomoko udalei jakinarazi nahi die ondoko hau dioela Merkataritza Jardueretarako maiatzaren 27ko 7/1994 Lege onartu berriak, bere lehen xedapen iragankorrean: "Beharrezko araudirik gabe kalez kaleko salmenta baimentzen duten udalek, Legea indarrean sartu ondoren sei hilabeteke epea daukate araudi hori ezartzeko".

Arau hori, 1994ko ekainaren 13ko Euskal Herriko Agintaritza Aldizkari-ko 38. zenbakian argitaratu zen eta, beraz, 1995eko urtarrilaren 3tik aurrera araudia egin gabe daukaten udaletan kalez kaleko salmenta debekatuta egongo da, esandako legearen 16. artikulua araber.

B) Kexa aukeratuak

Kalez kaleko salmenta egiteko baimena ukatu izana (162/94)

Irungo herritar batek bidalitako kexa-identzi bat jaso genuen erakunde honetan; bertan salatzen zuenez, Getariako Udalak herri horretako jaietan kalez kaleko salmenta egiteko baimena ukatu zion.

Getariako Udalari galde egin genuen ea bazeukan kalez kaleko salmenta arautzeko ordenantzarik, eta hala izanez gero, ea zein irizpide eta prozedura erabiltzen zuten kalez kaleko salmentarako baimena ematerakoan, hain zuzen herriko jaietan jatekoak saltzeko baimena ematerakoan.

Udalak erantzun zigunez, ez zeukan jarduera hori arautzen zuen ordenantzarik, eta kontuan izanda eskari asko egon zirela eta hainbeste eskarirentzako behar adina leku ez zeukatela, eskatzaile guztien artean zozketa egitea erabaki zuten. Zozketa hori udaletxeko batzar aretoan egin zen, eta bertan izan ziren zozketaren berri eman ahal izan zitzaizen eskarigileak.

Bestalde, salatutako kasu zehatzari dagokionez, Udalak aditzera eman zigun zergatik ez zen zozketan sartu: izan ere, kexagilearen izena ez zegoen

zozketa egin zuen zinegotziari eskuratu zitzaion zerrendan; hori bai, geroago, kaltetuak erreklamazioa aurkeztu ondoren, sarreren errolda-liburuan ikusi ahal izan zuten eskaria egina zela.

Jasotako informazio hori kontuan izanik, Arartekoak gomendio bat egin zion Getariako Udalari: alegia, aurrerantzean kalez kaleko salmentarako postuak izendatzeko egiten diren deialdi eta prozeduretan, arreta handiagoaz joka zezatela horrelako bereizkeria kasurik ez gertatzeko; horretarako, udal ordenantza bat egiteko iradoki genion, postu horiek esleitzerakoan jarraitu beharreko prozeduran irizpide objetiboagoekin joka zezaten, horrela, interesdunek zer gerta zitekeen jakin zezaten.

Zuhaitz landaketa batean ustez gertatutako araugabetasunak (250/94)

Busturiko biztanle batek salaketa hau aurkeztu zion erakunde honi: bere etxetik gertu eta bere lur batzuekin muga egiten zuten lur batzuetan, zuhaitz landaketa egin zela horretarako beharrezkoa zen udal baimenik gabe eta, beraz, Busturian indarrean dagoen Landaketa eta Zuhaitz Birlanaketaren Ordenantza Arauemailea hautsi zela. Kexadunak adierazten zuenez, landaketa horrek ondorengo arrazoiengatik hausten zuen aipatutako araudia: batetik, babes bereziko lurretan zuhaitz landaketak debekatuta zeudelako; eta, bestetik, ez zuelako errespetatzen distantzietan buruzko arau bat, alegia, urbanizatu ezineko lurretan, biztanleak dituzten edo eduki ditzaketen nekazal instalazio edo eraikuntzetatik gutxienez 100 metroko tartea eta mugetatik 20 metrokoa utzi beharra.

Horrela, Busturiko Udalean aurkeztu zituzten erreklamazioak, baina horiek ez ziren ontzat hartu.

Horregatik, 1988ko abenduaren 30ean Busturiko Udal Batzarrak onartutako Landaketa eta Zuhaitz Birlanaketari buruzko Ordenantza Arauemailea ezartzeko eskatzen zuen kexagileak.

Busturiko Udalak adierazi zigunez, landatutako mendia betidanik zuhaitzak landatzeko erabili izan delako ez zizkioten onartu interesdunari bere arrazoiak. Bestalde, salatutako biztanleek aurkeztu zuten txosten teknikoan adierazten zenez, salatzailearen etxebizitzari kalterik ez zekarkion egindako zuhaitz landaketak, zuhaitzetatik etxebizitzara zegoen tartea landatutako zuhaitzen goiera baino bi bider handiagoa zelako, eta horregatik ere Udalak ez zituen onartu erreklamatzailaren arrazoiak. Halere, zuhaitz landaketaren eta ondoko belardi eta herri-bide baten arteko tartea ez zen araudiak eskatzen zuena bezain handia, eta horregatik landatutako zuhaitz batzuk atera egin behar ziren.

Horrela, zuhaitz horiek ateratzeko eskatu zion Udalak landatu zituztenei.

Udalak, era berean, hauxe zioen: udal-ordenantza osotara indarrean bazegoen ere, horrek ez zuela esan nahi kasu batzuen berezitasunagatik ordenantza bezalako xedapen orokor batean jaso ezin ziren arrazoiak kontuan eduki ezin zirenik.

Erakunde hau ez zegoen erabat ados irizpide horrekin, kexagileak ordenantza hori errespetatzeko eskatu zuenean indarrean zegoelako eta, beraz,

hori bete beharra zuten ez herritarrek bakarrik, baita udalak ere, herri-agintarien ekintza guztiak bermatu behar duten legezkoatasun irizpidearen bidetik.

Hori horrela izan arren, Arartekoak ezin zion Busturiko Udalarari Ordenantza hori betetzeko gomendatu; izan ere Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak 1994ko otsailaren 14an emandako 75/94 Epaiaren bidez lege-antolamenduaren kontrakotzat jo zen ordenantza hori, erabat indarririk gabe utziz. Horretarako ematen ziren arrazoiak bat aipatu jarduerarako alde aurretik udal-baimena lortu beharra zen.

3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

A) Sarrera

Sail honetan azaltzen den gai batetan sentimenduek eragina duten arren, gizartean nahiz baino gehiagotan ematen zaio trataera sutsua. Sentimendu hori, modu batean edo bestean, nabaria izan da elebitasun arazoengatik jasotako kexetan.

Esan beharrik ez dago kexa horiek lege-irizpidetik aztertu direla, Arartekoaren erabakiak legezkoatasun-irizpidearen menpe jartzearen ondorio besterik ez baita hori. Hala ere, aipamena ez da harrizkoa, trataera horrek arazoak objektibotasunez ikustea eta jarrerak leuntzea posible egin baitu.

Sail hau kultura alorrarekin osatu da. Alor horretan kirol-jarduerei lotutako zenbait kexa jasotzen dira, eta baita kultur-ondarea sustatu eta mantentzeko zereginarekin lotutakoak ere.

B) Kexa aukeratuak

Herritarrak aukeraturako hizkuntza ofiziala erabiltzea hark Administrazioarekin dituen harremanetan (579/93)

Herritar batek kexa aurkeztu zuen bere ustez ez zelako errespetatzen Administrazioarekiko harremanak berak hautaturiko hizkuntza ofizialean izateko zuen eskubidea.

Administrazio-errekurtso bati erantzunez, Udalak erabaki bat jakinarazi zion, eta horretarako agiri elebidunaz baliatu zen. Halere, kexadunaren iritziz, erantzuna berak erabilgaitako hizkuntzan bakarrik jasotzeko eskubidea zuen.

Arartekoaren aburuz, jakinarazpen elebidunak ez dira euskararen erabilera arautzen duen legean jasotako aurrikuspenen kontrakoak; horregatik, nahiz eta herritarrak, ohi denez, hizkuntza ofizialeko bat bakarrik erabili, erantzuna elebietan bidaltzea ez da berez oker jotzea.

Alabaina, agiri elebidunen bidez egiten diren jakinarazpen askotan, agiri horiek prozeduran esku hartu ahal izan duen herritarrak aukeraturiko hizkuntza aintzat hartu gabe betetzeko joera nabaritzen da batzuetan.

Horixe gertatu zen hain zuzen kexa sorrarazi zuen kasuan eta, beraz, onartu egin genuen kexa.

Arartekoak jakinarazpen elebidunak osatzerakoan herritarrak hautatu hizkuntza kontuan har zedin gomendatu zion Udalari, eta Udalak gomendioa onartu zuenez gero, kexa artxibatu zen.

Herri-agintarien jardueran bi hizkuntza ofizialak erabiltzea (42/94, 43/94)

Atal honetan ohizko denez, Administraritzak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabili zuela salatzen zen kexa-espeditente hauetan.

Halere, kexa-arrazoia ezin zen aztertu, askotan egiten den bezalaxe, bi hizkuntzen erabilera ofiziala pixkanaka ezarri behar dela dioen irizpidez baliatuz.

Kasu horietako batean, herritarra kexu zen, Eusko Jaurlaritzako sail baten erakunde-publizitate jakin bat egitean, hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabili zelako.

Euskararen erabilera dela eta Ararteko Erakundeak jasotzen diren kexetako batzu-batzuek badute zerikusirik. Administrazioarekiko harremanetan euskara erabili nahi duten herritarrei modu berdinean arreta egiteko giza baliabiderik ez edukitzearekin.

Azaldu ditugun kasu horiek, haatik, euskararen erabileraren inguruan herri-agintariei ezarritako betebeharrak maiz ahaztu egiten direla erakusten zuten bi adibide ziren, antza.

Kasu horietan -publizitate ofiziala egiteko kanpainak, herritarrei informazioa emateko telefono erantzungailu automatikoak edota, salatu den legez, iragarki-tauletan jarritako oharrak- bi hizkuntza ofizialak ez erabiltzeak, ez zirudien giza baliabiderik ez edukitzearen ondorio; hala izan balitz, euskara ezarizarian erabiltzeko irizpideari jarraituz zenbait tratu desberdin zuritu ahal izango ziratekeen. Baina hori gertatu ez zenez gero, Ararteko Erakundeak arazoizkotzat jo zituen kexak eta, beraz, Administrazioari jakinarazi zizkion.

Administrazioak bidali zigun txostenean hauxe adierazten zen: eskura zeuden baliabideei egokitzeak sortu zituen hainbat gorabehera alde batera utzita, ez-betetze horietako asko eta asko euskarari aitortzen zaion maila ofiziala kontuan hartu gabe lan egiteko joeraren ondorio zirela.

Zenbait gorabehera euskara erabiltzeko eskubidea gauzatzean (360/94)

Komunitate autonomo honetan atxilotua izan ondoren epailearen menpe jarritako herritar batek kexa aurkeztu zuen, euskara erabili nahi izanagatik bereizkeriaz tratatu zutela uste zuelako.

Kexaren funtsa ezagutzeko egin zen ikerketatik honako ondorio hau ateratu genuen: epailearen aurrean egin beharreko deklarazioan sortu zen arazoak, ohi den bezala, ez zeukala zerikusirik eskubide hori formalki aitortzearekin, baizik eta euskararen erabilera bermatzeko baliabide gutxi edukitzearekin. Kasu honetan, epaitegiak zuen itzultzailea beste epaile-ekintza batean ematen ari zen bere laguntza, eta horrek atzeratu egiten zuen herritarra epailearen aurrean agertzea.

Pertsona honek telefonoz azaldu zuen bere kexa, deklarazioa egiteko zain epaitegian zegoen bitartean, eta gero idatziz gauzatu zuen kexa.

Kexa-idazkian, lehen aipatutako gertakariak berriro azaltzeaz gain, komisaldetan arrazoi beragatik izan zituen arazoak ere azaltzen zituen.

Egiaztatu ahal izan genuenez, ez lehen kasuan ez bigarrenean ez zitzaion atxilotuak euskara erabiltzeko zuen eskubidea aitortzeari uko egin. Horrek ez zuen esan nahi, ordea, Arartekoaren ustez, kexa arrazoizkoa ez zenik, izan ere, euskara erabiltzeko eskubidearen gauzatzea eskura dauden baliabideei egokitu beharrik ezin ditzake funts gabe utzi euskara erabiltzeko egiten diren eskariak.

Kexa biderapenerako onartu zen eta, justizi Administaritzari zegokionez, Justizi Ministeritzari bidali genion. Halaber, Ertzaintzaren lanpostuen euskalduntzea berariaz arautzen hasi beharra zegoela oharrarazi genion.

3.3. HEZKUNTZA

A) Sarrera

Sail honetan, 41 kexa jaso ditugu, hau da, guztien artetik %7,3.

Joan den 1994ko urtean bideratu ditugun kexek ondo asko erakusten dute kezka handia dagoela gizartean irakaskuntzaren kalitatea hobetzeaz, hezkuntzaren erreforma ezartzeko lehen garaia igaro eta gero.

Izan ere, jaso ditugun kexen artean, batzuek oraingo hezkuntza egitarauak zabaltzeko eta, heziketa-behar berezien alorrean batez ere, erabil daitezkeen laguntzak indartzeko eskatzen zuten.

Dena dela, orobat, badira orain arteko txostenetan azaldu ditugunen antzeko kexak ere; adibidez, heziketa-hitzarmenen izenpeari buruzkoak, ikasteko beka edo laguntzei buruzkoak, ikasleen onarpenari buruzkoak, etab.

Era honetako kexak oraindik ere jasotzea ez da ezkortasunez hartu beharreko gauza. Aitzitik, guztiz gauza normala da, kexa horiek hezkuntza alorreko zerbitzu publikoaren gestioan ohikoak diren arazoei dagozkielako.

Nolanahi ere, sail honetan badago kexa bat nahikoa larria eta, beraz, aipatu beharrekoa; izan ere, irakaskuntzako funtzio publikoaren esparruan sartuta egon litekeen arren, eskola-unitateen oraingo programazioak dituen gora-behera batzuk agertzen ditu.

Programazio hori batzuetan ez dator bat eskoletxeen benetako jardun-moduarekin (alor honetan Administrazioaren edozein ekintza jardun-modu horri egokitu behar zaion arren), eta badirudi ikasgelak bertan behera uztean gertatu ohi diren langilego-gestioko arazoak konpontzeko helburua duela; baina kontua da helburu hori ere ez dela lortzen, ez behintzat honelako prozesuetan eskatu beharko litzatekeen segurtasun juridikoarekin.

Errealitate materialaren eta formalaren arteko desberdintasun horregatik, beste zenbait kexa ere jaso ditugu, heziketarako eskubidearen beste alderdi bati eragiten diotenak.

Horrela, ikastetxe batzuek ez dute baimen formalik jaso ordurarte jardunean zeuzkaten ikasgela batzuk hitzartzeko, aurreko ikasturteetan hitzartuta eduki arren.

B) Kexa aukeratuak

Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko eskatzen den puntuazioa ehunenetan edo milarenetan kalkulatzea (639/93)

Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten hasi nahi zuen neska bat ez zen onartua izan berak nahi zuen zentruan, horretarako eskatzen zioten gutxienezko puntuazioa lortu ez zuelako. Hala ere, ikasle horrek uste zuen kontu hori ez zegoela behar bezain garbi, eta erakunde honetara jo zuen.

Arazoa hauxe zen: EHUk kexagileari eskuratu zion agirian eta, beraz, Unibertsitatean ikasten hasi nahi duten guztiek jasotzen dituzten agirietan, Unibertsitatean sartzeko gaitasun- proben behin-behineko kalifikazioa ehunenetan adierazita zegoen (6,49), eta Unibertsitateak aplikatzen zuen gutxienezko nota, aldiz, milarenetan (6,496).

Neska ikasle honek bere erreklamazioa aurkeztu zion Errektoregoari, eta bertan aditzera eman zioten bere behin-betiko nota 6,492 puntukoa zela, hau da, eskatu baino txikiagoa. Neskak, ordea, milaren hori nondik sortua zen ez zekiela zioen.

Erakunde honen iritziz, egia izanez gero kexagileak zioena, berori lege-segurtasunik eta babesik gabe geratzen zen, nekez aurpegi eman ahal izango baitzuen ezagutzen ez zituen irizpide batzuk aplikatzen zitzaizkionean. Horregatik, EHUri informazioa eskatu genion, gertatutakoari buruzko haren bertsioa ezagutzeko.

Bere erantzunean, Unibertsitateak esan zigun hauta-irizpide zehatzagoak erabili behar zituela, eskari ugari zeudelako Euskal Herriko Unibertsitatearen zentru desberdinetan sartzeko eta, bestetik, hartarako postuak gutxi zirelako; horregatik, haren arabera, ikaslegaiaren behin-betiko kalifikazioa milarenetan adierazten da. Baina, halaber, horrekin batera esaten zen Unibertsitateak horren berri jakinarazten diola ikasleari, etxera idazki bat bidaliz; idazki horretan, besteak beste, ikaslearen behin-betiko nota ematen da, milarenetan adierazia, bai eta adierazten ere eskatutako zentruetan zenbat postu dauden, eta ikasleagaia haietako bakoitzean sartzeko zerrendan zein postutan dagoen. Erantzunean inprimaki-eredu bat bidali ziguten.

Hortaz, kexagileak azaldutako arazoan inolako araugabetasunik ez zegoela ikusi genuen; izan ere, aplikatu zitzaion nota -milarenetan adierazia- berrazaldu zen zeukana eta jakinarazi ziotena bera zen. Nolanahi ere, Ararteko honek gomendio bat bidali zien EHUren arduradunei: alegia, etorkizunean gaitasun-probetako notak milarenetan adierazita eman daitezela, prozesua argitzeko eta hemen adierazitakoaren antzeko arazorik ez gertatzeko. Unibertsitateak onartu egin zuen gure proposamena.

Unibertsitatean ikasteko osabidezko laguntzak (776/93)

Unibertsitatean ikasteko osabidezko laguntza bat eskatu zuen pertsona bat erakunde honetara etorri zen laguntza hori ukatu ziotelako, nahiz eta berak egiaztatutako famili-errenta 1992-93 ikasturtean ikasteko beka edo laguntza deialdiaren baldintzetan ezarritako mugen artean egon.

Salaketa hori ikusirik, Arartekoak informazioa eskatu zuen berehala, uka-pen horren arrazoiak zeintzuk ziren jakiteko.

Idatziz bidali zigun erantzunean, Unibertsitate Saileko zuzendariak adierazi zigun eskatutako laguntza hori ez zela onartu eskatzaileak aurkeztutako errenta-aitorpenak beharbada ez zuelako ondo islatzen familiaren egoera ekonomikoa. Hona hemen haren erantzuneko argudioak, zehatz-mehatz:

"1.- Aitortzen den soldata ez da iristen lanbidearteko gutxienezko soldata-
ra ere, aitorlea inoren kontuko langilea izanik.

2.- Aitorpen hori 1992ko irailaren 1ean aurkeztu zen Ogasun eta Finantza Sailean.

3.- Aurreko urtean aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren lan-diru-sarrerak 1.208.408.- pèzeta dira.

4.- Egongo dira lanik ezagatik jasotako beste dirusarrera batzuk, edota pentsioren bat; bestela, eskatzaileak bere egoera ekonomiko berria zein den zuritu edo, behintzat, azaldu beharko zukeen, bai eta haren arrazoiak ere."

Erakunde honen ustez, egia da deialdiko 35.3. baldintzaren arabera hautaketaz arduratzen den epaimahaiak askatasun osoa duela eskatzailearen egoera ekonomikoa izandako aldaketa handiak kontuan hartzeko; baina, egia da, orobat, irizpiderako askatasun horrek ezin diola froga-baliarik kendu azaldu den dokumentazioari, nola eta epaileen erabakiarekin batera halako froga argigarri bat ematen ez den; izan ere, hala jokatz gero, irizpiderako askatasun hori arbitrariotzat jo beharko genuke, ondo frogatutako argudio garbietan oinarritzen ez bada.

Gauzak horrela, orain dagokigun kasuan, gure ustez epaimahaiak erabilitako argudioek ez zioten kentzen froga-baliarik eskatzaileak agertutako dokumentazioari; izan ere, berau aldi baterako kontratupean edota denbora-zatikako kontratupean egon liteke.

Horregatik guztiagatik, kexagileak bere kexan eskatutako laguntza berraztertze eta, egokia bazen, laguntza hori ematea bidezkoa zela erabakitze gomendatu genuen.

Unibertsitate Saileko zuzendariak gomendioa onartu eta adierazi zigun esandako eskaria berraztertuko zutela, horri buruzko informazio osagarria bilduz, eta zegokion erabakia hartuko zutela.

Erabakia berandu gabe hartu zen. Bertan, berriro ukatzen dute eskatutako osabidezko laguntza; izan ere, heziketa-arduradunen iritziz, egon daitezke kasu honetan beste dirusarrera publiko batzuk, eskarian azaldu gabekoak, lanik ezagatik jasotakoak adibidez, eta laguntza jaso dezakeen errenta-muga gaitutako litzateke horrela.

Erakunde hau ez dago inola ere ados erabaki horren oinarriarekin. Gure ustez, horrelako osabidezko laguntzak banatzerakoan, ezin da kontuan izan bestelako laguntza publikoak egon daitezkeela, eta, gure gomendioan genioen bezala, laguntzak banatzeko orduan dagokion urtean eskatzaileak izandako dirusarrera egiaztatutak bakarrik hartu behar dira kontuan.

Horregatik, bitartekaritzan aritzeko gure esku geneuzkan aukera guztiak amaitu eta gero espedientea itxi eta artxibatu zen arren, administrazio-agintariari eta kexagileari aditzera eman genien txosten honetan sartuko gure genuela kasu hau, onartu gabeko gomendio baten adibide gisa.

Eskola-unitateak banakatzea eta baterabilitzea (29/94)

Gasteizko Goizalde Heziketa Berezirako Zentruko (HBZ) irakasle batzuek erakunde honetara jo zuten haien egoera administratiboa kolokan zegoelako.

Ikastegi hori bertan behera uzteko proiektua 1990. urtean hasi zen, eta 1993ko irailean gauzatu, haren ikasgelak bananduz eta gero hiriko beste bi eskolatan sartuz: San Martin eta Antonio López de Guereñu Herri Ikastetxeetan, hain zuzen ere; baina ekintza horiek ez ziren behar bezala agertu zegozkien erabaki administratiboetan.

Horiek horrela, eraginpean geratutako langileen egoera administratiboa arautzeko modurik ez zen egon. Ondorioz, esandako langile horiek dagoeneko *de facto* inon ez den ikastegi bati atxikirik daude behin-betiko, baina, aldi berean, zerbitzu-emankizunean daude, aldi baterako, haien lehenagoko ikastegiko gela banakatuak hartu dituzten eskolatan.

Egoera are nahasiagoa da, beste ikastegi bat bertan behera uzteko prozesua ere sartu delako tartean: Pascual de Andagoya HBZa. Izan ere, haren ikasgeletako bat Goizalde HBZra bidali denez gero, kexa egindako irakasle taldea beste postu batzuetan jartzeko itxarokizunak erabat aldrebesten dira, horren ondorioz aldaketak gertatzen baitira antzinatasunaren arabera lehen-tasunen hurrenkeran.

Salatutakoa arazo larria izanik, erakunde honek lehen informazio-eskari bat egin zien ikastegi horietako arduradunei, zalantzan jarritako ekintza administratibo horiek nolako oinarri objektiboak zeuzkaten jakin asmoz; bestalde, antzeko unitateak bertan behera utzi, eraldatu, banandu edo integratu behar izatekotan, halako arau berezi batzuk ematea gomendatu genuen, neurri horien eraginpean geratutako langileen egoera administratiboa behin-betiko arautzeko; izan ere, alor honetan indarrean zegoen araudia berariaz indargabetu zuen atxikipen prozesua arautzen zuen 1993ko maiatzaren 11ko Aginduak.

Gure lehen informazio-eskari horri erantzunez, Langilego Gestiorako Zuzendariak aditzera eman zigun arau-hutsune horretaz jabetuta zegoela, eta araudi berezi bat prestatuko zutela; araudi hori oraintsu eman da argitara.

Bestalde, aipatutako neurrien oinarri objektiboak dagokienez, Ikastegietarako Zuzendariak luze eta zabal azaldu zigun zein izan ziren, denboran zehar, salatutako egoera horretara eraman zuten gertakariak, baina ez zuen inondik

ere argitu Pascual de Andagoya-HBZko ikasgela Goizalde HBZan sartzeko arrazoiak.

Hori ikusirik, erakunde honek onartu egin zuen, beste komunikazio batean, behin-betiko arautuko zela kasu honetan eraginpean geratutako irakasle-en egoera administratiboa, eskola-unitateak bertan behera utzi, eraldatu, banandu, integratu eta bateratzeari buruz Hezkuntza Sailak egin asmo zuen arauaren aplikazio bereziaren bidez; hala ere, argi utzi genuen sor zitezkeen arazo ba-tzuk ekidin beharko zirela arau horien bidez: horretarako, ikastegi horietako bakoitzak zenbat irakaspostu eduki behar zituen erabakitzerakoan, ikasle-kopuruari begiratu beharko zitzaion soil-soilik, horrela bakarrik amaituko baitziren ikasgeletarako eta irakaslegorako programazio-politika eta ikastegien hezkuntza errealtatea bereizten dituzten ekintzak.

Erakunde hau azken puntu horretaz kezkatu da batez ere, eta bereziki azpimarratu nahi izan du: alegia, beharrezkoa da Administrazioaren neurriak bat etor daitezten ikastegien benetako egoerarekin; izan ere, diogun baldintza hori ezinbestekoa da, hezkuntza alorreko Administrazioak behar bezala erabili-ko baditu programazioa egiteko eta bere burua antolatzeke dituen ahalmenak.

Horiek horrela izanik, eta zalantzan jarritako neurri horien aldeko datu edo arrazoibide berriak emateko aukera bazegoela onartuta ere, Ararteko honek gomendatu zuen kasu honetako ikastegien arautze formala haien benetako egoeraren arabera egin zedila.

Dena den, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak oraindik eusten die ikastegiak bertan behera uzteko prozesuetan bakoitzeko klaustroekin hartu diren zatikako akordioei, ikastegien benetako jardun-modua kontuan hartu gabe.

Sailaren ekintza hori gure erakundearekiko elkarlan faltatzen hartu beharrean gaude, eta horregatik espediente itxi eta artxibatu behar izan dugu, gure esku zeuden bitartekaritza-aukera guztiak amaituta zeudelakoan.

Dohain handiko umeak hezkuntza sare publikoan eskolatzea (41/94)

Dohain handiko ume baten amak erakunde honi salatu zion inolako osabidezko laguntzarik ez zegoela bere semearen heziketak zekarzkiön gastu gehigarriak ordaintzeko; izan ere, bere iritziz, Euskal Herriko Elkarte Autonomoko irakaskuntza sare publikoan ez dago era honetako ikasleentzako heziketa-egitarau berezirik.

Bere kexa-idazkiarekin batera bidali zigun txosten psikopedagogiko batek argi uzten zuen nolako heziketa-behar bereziak zeuzkan bere semeak: curriculum-moldaketa handi samarra eta kontrol psikopedagogiko egokia.

Arazo hau guretzat berria izanik, Arartekoak hezkuntza agintari ahaldu-nengana jo zuen, sare publikoan ume horrentzako eskolatze egokia lortzerik ba ote zegoen (laguntza-zerbitzuak, espezialistak, etab.), bai eta kasu horretarako osabidezko laguntzarik ba ote zegoen ere jakiteko asmoz.

Horri buruz jaso genuen informazioa nahikoa interesgarria iruditzen zaigu, eta horregatik dakargu hona hitzez hitz:

"Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduak (EHAA, ekainak 1), Haur Heziketa eta Lehen Heziketa aldietako curriculum-moldaketak arautzen dituenak, beharra duten ikasle guztien curriculum-ean moldaketa garrantzitsuak egiteko aukera jaso, eta haiek prestatu, onartu eta gainbegiratzeko prozedura ere finkatzen du.

Sail honen jardunbideak eta horren ondoriozko arau-erregulazioek daukaten funtsezko irizpidea honako hau da: ikasleak erakunde-giro ulerbera batean sartu behar direla; hau da, eskola horrek behar adinako barne-baliabideak (edo kanpokoak ere, beharra egonez gero) eduki behar ditu, eta gai izan behar du berez halako erantzun bat emateko bere ikasleek dauzkaten hezkuntza egoera ezberdinei, antolakuntz egitura egoki baten bitartez.

Hortaz, erakunde bezala ez dugu kontuan hartzen aparteko adimendohainak dauzkaten ikasleentzako eskola edo egitarau bereziak ezartzeko aukera; izan ere, gure ustez, ikaslearen erreferentzi-zentruak berak erantzun behar dio egoera berezi horri, bere ahalbideekin, eta pertsona horren eta bere giroaren azterketa zehatza egin ondoren, eskolak ekin-tza-egitarau egoki bat finkatu behar du.

Pedagogi Aholkutegietako Talde (PAT) Multiprofesionalak dira era hone-tako arazoak aztertu behar dituzten sail teknikoak, eta haiek lagundu behar diote eskolari egoki den curriculum esanguratsua moldatzen, bai eta gauzatzen eta aurrera eramaten ere.

Osabidezko laguntzei dagokienez, jakinarazi behar dizut ez dagoela aurre-kontuetan inolako atalik aukera horri erantzuteko; izan ere, gure ustez, ikasle horri eman dakiokkeen artatze pribatua ez du Sail honek hartu behar bere gain, kontuan izanik ohiko giroan nahikoa artatze berezia ematen zaiela aldez aurretik behar bezala diagnostikatuta dauden kasu guztiei, banan-banan, edozein delarik azaltzen dituen heziketa-behar bere-zien arrazoia."

Erakunde honen aburuz, goian emandako argitasunek behar bezala fro-gatzen zituzten sare publikoan eskolatzeko aukerak.

Halaber, gure iritziz, ume horren guraso edo tutoreek beren kasa ematen bazioten beste edonolako eskolatze bat edota beste edonolako laguntza peda-gogiko osagarri bat, horrek ez zuen zertan osabidezko laguntzarik jaso; izan ere, era horretako laguntzak heziketa bezalako eskubide prestazional batek dituen baliabide murrizten arabera orekatu behar dira derrigor, eta, gainera, eragozpen handia jar liezaiokete euskal hezkuntza Administrazioak alor hone-tan duen integrazio-politikari.

Hortaz, kexa-espeditente hau itxi eta artxibatzea erabaki zen, eta halaxe adierazi zitzaion kexagileari.

Baimenik gabe jardunean dauden ikasgelak ituntzea (103/94)

1993-94 ikasturterako itun deialdia zela eta, ikastegi batek kexa bat egin zigun.

Aurreko deialdietan itundu ziren ikasgela batzuk dirulaguntzarik gabe geratu izana zen kexa horren arrazoia.

Hezkuntza Sailak zioenaren arabera, finantzabidea eztabaidan zuten ikasgela horiek baimenik ez zeukatelako hartu zuen esandako erabaki hori.

Halaxe da: ikastegiak ez zeukan baimenik itundu nahi zituen ikasgeletako baterako. Ikasgela horrek 1993-94 ikasturterako eduki behar zuen baimena ikastaroa hasi ondoren egin zuten, urrian zehazki. Ezin da esan ukapen hori zuzena ez denik, kontuan hartzen badugu baimen-espeditente baten ebazpena bere datatik hasita hurrengo ikasturteaz gero jartzen dela indarrean.

Hala eta guztiz ere, jasotako kexak funtsik bazuela iritzi zion Arartekoak.

Lehenik eta behin, baimen bat ondoko ikasturtean indarrean jartzen delako neurria (332/92 ED, 8.1. art.) espeditente normaldu baten barruan gertatzen da, eta hor ez zen inondik ere kontuan hartzen kasu honetako egoera, alegia, delako ikasgela hori aurreko ikasturte batzuetan itunduta egon zela. Sailaren txostenak albo batera uzten zuen egintza hori, eta ondorio guztiak ukatzen zizkion.

Beste alde batetik, ikasgela horren itunketa egiazkoa izanik, lehenagotik jardunean baitzegoen, harentzako baimen-espeditentearen biderapenak 332/92 EDko 6.2. artikulua finkatutako bi hilabeteko epea gainditu egin zuen.

Baimena emateko agindua ez zen 1994ko maiatzaren bukaera arte eman, eta ekainaren 21a arte ez zen argitaratu (hots, zortzi hilabete geroago).

Ikasgela kopurua gehitzeko baimena ematen zuen aginduaren azken xedapenaren arabera, baimen hori emateak ez zuen esan nahi itun-erregimenaren bidez inolako laguntzarik emango zenik; hortaz, ez zuen kontuan hartzen ikastegi honen kasuan esandako ikasgela hori itunduta egon zela lehenago. Horiek horrela, Arartekoak amaitutzat eman zituen egin zitzakeenak, eta txosten honetan sartzea erabaki zuen.

Ikasleak onartzeko irizpideen artean jatorrizko hizkuntz gaitasuna erabiltzea (167 eta 168/94)

Gasteizko bi herri-ikastetxek hiru urteko ikasleak onartzeko irizpideen artean jatorrizko hizkuntz gaitasuna (ama-hizkuntza, alegia) kontuan hartzea erabaki zuten, nahiz eta irizpide hori jasota ez egon martxoaren 17ko 61/1992 Dekretuan, hau da, EHKako ikastegi publiko eta itunduetako ikasleen onarpena arautzen duen dekretuan.

Eztabaida horri zuzen heldu ahal izateko, Ararteko honek lehen zehazpen bat egin zuen, esanez ez zutela irizpide pedagogikoak (kexa-idazkian behin eta berriz azalduak) izan behar sortutako arazoa konpontzeko erabili behar zirenak; izan ere, era honetako auzien konponbidea soil-soilik irizpide pedagogikoen baitan utziz gero, irakaskuntza hobea eman beharrak gaur egungo aurrekontu-ahalak erabat gainditzera eramango gintuzke.

Nolanahi ere, oinarri pedagogiko horiek gutxietsi gabe, oinarri horiek ahalen mugen barruan jarri behar direla eman genuen aditzera, are gehiago prestazio tankerako eskubide batzuez ari garelarik.

Gauzak horrela, proposatutako onarpen-irizpidearen zuzentasunari eta bideragarritasunari buruzko eztabaida irakaskuntzaren gaur egungo programazioaren barruan kokatu behar zela iruditu zitzaigun; hortaz, horren arabera aztertzekoa zen ea asmo horrek nolabaiteko eragina edukiko ote zuen eskatutako ikastereduan sartzetik edukiko ez zuten ikasleen eskubidearen funtsean.

Eztabaidaren mugak honela finkatu eta gero, erakunde honen ustez ikasleen onarpena jatorrizko hizkuntz gaitasunaren arabera erabakitzen duen sistema bat finkatuz gero, gaitasun hori frogatzeko arazoak izango ziren, eta, gainera, gaur egungoa baino berezituagoa eta zabalagoa den ikas-postuen programazio bat prestatu beharko litzateke; izan ere, horrela jokatu ezean, gerta liteke D ereduetan sartzeko asmoa bertan behera utzi behar izan duten ikasleen aldean bereizkeriazko tratua egotea.

Horregatik guztiagatik, eta, labur esanda, gai honetan inolako ekintzarik burutzea beharrezkoa iruditu ez zitzaigunez gero, aurreko arrazoiari berri eman genien alderdi guztiei eta espedienteak itxi eta artxibatu egin genituen.

Erljioaren irakaskuntza derrigorrez eskaintzea (222/94)

Umeak herri-ikastetxe batean zituen aita batek erakunde honetara jo zuen, bere ustez ikastetxe horretako zuzendaritza indarrean dauden lege eta arauen aurkako jarrera erakusten ari zelako erlijioaren irakaskuntzari zegokioenez.

Izan ere, ikastetxeko zuzendaritzak informazio-orri bat bidali zien ikasleen guraso edo tutoreei, esanez nolako arazoak egongo ziren, eskola-kontseiluarren iritziz, erlijioa irakasteko:

"- Zortzi urte badira ikasgai hori irakasten ez dela (...).

- Ez dugu inolako hutsik ikusi ikastetxeak bere ikasleei ematen dien preskakuntza orokorrean.

- Gaur egungo heziketa-sistemaren erreforma ezarri denez geroz, eskolako ikasketa-planak aztergai sozial eta etikoak jasotzen ditu, zeharreko arloen bidez.

- Aldaketak egin beharko lirateke ikastetxearen antolakuntza orokorrean.

- Ikasleen arteko aldeak (sortuko lirateke).

- Erljio ikasgaiak zehaztu beharreko ordutegi bat eskatzen du, bai eta halako baldintza zehatz batzuk ere zikloaren edo mailaren arabera, eta horrek aldaketa funtsezko batzuk egitera behartuko gintuzke. Lehen irakaskuntzan indarrean dagoen araudiari jarraituz, hau da, 5. maila arte, Erljio arloak 1,5 ordu edukiko ditu astean, edota ikastaldi lagunduaz egingo da. Aldiz, OHOKo 6, 7 eta 8. mailetan; Erljioa Gizarte Zientziekin eta Etikarekin batera irakatsiko litzateke, astean ordubetez, edota Etika emanez bere lekuan, Matematika eta Natur Zientzien blokeari astean ordubete kenduz.

- Ikastaldi Lagunduari dagozkion orduak ez dakarte inolako aurrerapenik ikasgaietan ez eta tutore-lanetan ere.

- Legeak ezarritako beharkizuna da aurrean daukaguna.

- Erlijiorako leku egokiak beste batzuk dira: elizak, katekesiak, ikastegi pribatu erlijiosak, etab.

- Hori guztia kontuan izanik, ikastetxe honetako ikasketa-planean arlo hori ez sartzea erabaki zen aho batez."

Argi dago hezkuntza-arduradunek ikertu behar zutela hemen azaldu dugun kasua, ikastegiek derrigorrez eskaini behar dutelako erlijio alorra, edota, bere orde, ikasleen adinaren arabera ikas-jarduera bat; izan ere, horixe agintzen du ekainaren 14ko 1.006/1991 Erret Dekretuak, Lehen Heziketako gutxienezko irakasgaiak finkatzen dituenak. Bada, hori kontuan harturik, Arartekoak hezkuntza Administrazioari kexa-idazkiaren berri ematea erabaki zuen, zegozkion neurriak har zitzan.

Erantzun bezala Hezkuntza Sailaren Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuak bidali zigun txostenaren arabera, egia zen ikasleen familiei bidalitako informazio-orrian erlijioa eskaintzen zela; baina, halaber, "orri horretan esaten denak oker-ulertze batzuk eragin, gurasoek gai honetan eduki behar duten aukeratzeko askatasuna zaildu eta legeria hautsi dezake (...), batez ere adierazten denean (...) ordezkaitza-sail gorenak 'aho batez erabaki zuela alor hori ikasketa-planean ez sartzea"; horregatik, gure iritziz, "Ikastegiko zuzendaritzak ahalbait lasterren informazio berria bidali beharko diete ikasleen familiei, hemen adierazitakoa kontuan hartuz".

Hezkuntza Sailaren Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuaren azken erabaki hau ikusita, Erakunde honek pentsatu zuen behar bezalako bidea hartuta zegoela kexa-idazkian agertzen zen salaketa, baita laster eta behar bezala konponduko zela ere.

Horrenbestez, espedientea itxi eta artxibatzea erabaki zen, aukera utziz beti ere berriro zabaltzeko, horren beharra egongo balitz; alabaina horrelakorik ez da oraindik gertatu.

Hezkuntza hitzarmena ukatzea (233/94)

Donostiako ikastegi pribatu bateko ikasleen Gurasoen Elkarteko kide batzuek, irakasleek eta irakaskuntzaz kanpoko langileek salaketa bat aurkeztu ziguten; salaketan esaten zenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 1993ko uztailaren 13ko Aginduaren bidez (EHAA, 170. zk., irailak 7) ukatu egin zion ikastegi horri hezkuntza hitzarmenatarako deialdiaren barruan aurkeztutako eskaria.

Kexagileen arabera, haien eskaria ukatzeko arrazoiak eskolatz-beharrak ez betetzea eta aurrekontuak horretarako aukerarik ez ematea zen, baina, haien iritziz, hori herri bereko beste ikastegi pribatu batzuen aldean tratatu desberdina ematea zen.

Hezkuntza alorreko Administrazioari eskari honi buruzko argitasunak eskatu ondoren, erakunde honek ikusi zuen nola, LODE deritzan Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoaren 48.3. artikuluari jarraituz, aurrekontu-ahalbiderik eza nahikoa arrazoi izan zitekeen ikastegi pribatu batzuek hitzarmen-erregimenetik kanpo geratzeko, baldin eta eskolatz-beharrak betetzen ez badituzte.

Aurrekoa onartu eta gero, garbi ikusi genuen non zegoen arazoa: hots, noiz eta zein baldintzatan den zuzen eta egokia ukapen horren arrazoa, eskolatze-beharrrik ez betetzea, alegia.

Ararteko honen ustez, halako ikastegi batek eskolatze-beharrak betetzen ote dituen ala ez erabakitzeke, datu objetibo bati begiratu behar zaio, alegia, zenbat ikasle dituen matrikulatuta, eta ez, ordea, hitzartutako zenbat unitate publiko edo pribatu dauden ikastegi horren eraginpeko aldean, azken hau baitzen, antza denez, hezkuntza Administrazioako Zuzendariak bidalitako txostenak azaltzen zuena.

Bestela, kasu honetan berdintasun irizpidea hautsi zela ulertu beharko zen, EK-ko 27.9. artikuluan duen proiektzioan, eskolatze-beharrak betetzen ez zirelako argudioa halako ikastegi batekin bakarrik erabili zelako; horrelakorik ez zen gertatuko, jakina, baldin eta beste ikaspostuak herri-diruz hornitzeko orduan beste era bateko irizpideak hartu izan balira kontuan, hala nola egoera sozioekonomiko txarrean bizi diren hiritar-multzoei laguntzea edota interes pedagogiko bereziko esperientziaren bat aurrera eramatea, irizpide bi hauek LODEren 48.3. artikuluan jasota baitaude.

Hori hala izanik ere, espediente hau ebazterakoan kontuan eduki genuen aintzat hartu behar zirela Hezkuntza Hitzarmenatarako Araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan agertzen diren lehentasunezko hitzarmenerako irizpideak, herri-dirubideak jasotzeko itzarokizunak daudenean eskatze-koak diren gutxienezko segurtasun juridikoak bermatzearren.

Hortaz, araudi horretako VI. atalak dioenari jarraiki, bistan zen hitzarmen berriak egin baino hobe zela lehentasuna ematea iraupen-epea gainditu duten hitzarmenak berritzeari edota halako herri-dirubide bat onartuta duten ikastegi pribatuen unitate hitzartuak ugaltzeari, hazkunde begetatiboari erantzutearren eta/edo zenbait ikasmailatako ikasle-kopuru gehiegizkoagatik egin beharreko zatiketei erantzutearren. Horrek ez du esan nahiz, halere, lehenago adierazi dugun eran, berdintasun-irizpidea ezertan ere hausten denik.

Hezkuntza alorreko arduradunek eskuratu zizkiguten beste argibide batzuen arabera, lehentasunezko hitzarmenei dagozkien arrazoi horietxek izan ziren, hain zuzen, hitzarmen berriak egitea edo lerro berriak hitzartzea ukatze-ko erabili zirenak, eskueran zeuden baliabideen urritasunagatik.

Gauzak horrela, Administrazioaren jokoan guk parte hartzeko moduko araugabetasunik antzeman ez genuenez gero, Arartekoak kexa-espedientea itxi eta artxibatuko zela jakinarazi zien interesatu guztiei.

Jesus Guridi Musika Eskola (426/94)

Gasteizko Jesus Guridi Musika Eskolako ikasleen gurasoen elkarteko lehendakari andreak salaketa bat aurkeztu zuen erakunde honetan; haren arabera, eskolako agintaritzaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA, hemendik aurrera) prestatzeko prozesua geldiarazita zegoen, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/93 Legeko lehen xedapen iragankorrak propio ezarritako epeengatik.

Bestalde, eskolako sektore guztiek (guraso, ikasle eta irakasleek) ikastegiaren ohiko gestioan demokratikoki parte hartzeko beharra aspalditik sentitzen zela eta, beraz, bultzatu behar zela ere adierazi zuen. Honi dagokionez, nahiz eta ikastegiaren ardura nagusia Gasteizko Udalak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erdibana osatutako partzuergo batena izan, horrek ez du kentzen eskola hau beste edozein bezalako herri-ikastegia izatea.

Erakunde hau biziki kezkatuta geratu zen eskolako sektore desberdinen partaidetza kontu horrekin; izan ere, AJA prestatu behar duen batzordearen osakera zehazten duen uztailaren 6ko 200/93 Dekretuak dioen bezala, eskola-kontseiluak edo aginpidea duen antzeko sail batek onartu behar du araudi hori, eta orduan, Gasteizko Musika Eskolaren kasu konkretu honetan gerta zitezkeen eskolako sektore guztien ordezkapenik ez duen eta, gainera, normaltasun eta jarraitasunez lan egiten ari ez den zuzendaritza-batzar batek onartzea eskolaren araudia izango dena.

Arazoi horregatik, Ararteko honek auzi honi buruzko iritzia eskatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Sail horrek erantzun bezala bidali zigun idazkiaren arabera, musika irakasten duten ikastegien ezaugarri bereziengatik eta haien ugaritasunagatik, 94-95 ikasturtera atzeratu zen gainontzeko ikastegi arruntetan 93-94koan egin zen araudi-prestakuntza. Nolanahi ere, aditzera eman ziguten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1994ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez halako egutegi bat finkatu zela, 94-95 ikasturtean AJAk osatzeko eta, horiek onartu eta gero, ikastegien ordezkapen-sail gorenak eratu eta zuzendaritzatalde berriak izendatzeko hauteskunderi ekiteko.

Beste alde batetik, ordezkapen-sail goren horri dagokionez, behin-behineko formula bat proposatzen zuen, ordurako Gasteizko Alkate jaun txit argiari aurkeztutakoa; haren arabera, partzuergoak indarrean zituen estatutueta auzokideentzat gordeta dauden mahaikide-postuak eskolako sektore desberdinen esku utz zitezkeen.

Esandako AJA hori prestatzen hasi ondoren (1994.09.15), prozesua berriro geldiarazi zen eta kexagileak berriro salatu zuen; horregatik, erakunde honek hezkuntza alorreko arduradunengana jo zuen, gogorarazteko 1994ko ekainaren 16ko Aginduak finkatutako egutegiko epeak bete behar zituztela.

Azken ekintza honen eraginez, eta, halaber, kontuan izanda oraingo partzuergoaren formula bertan behera utziko dela jabetza eskualdatzeko dagoen egitasmoa laister betetzen denean, badirudi behar bezala bultzatu dituela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, behin-betiko espero dugu, hainbat aldiz atzeratu diren hauteskundeak. Horretaz gainera, aldi baterako gestio formula bat aukeratu da, askoz ere aukera gehiago ematen duena bertan parte hartzeko: alegia, AJA prestatu behar duen batzordeak berak hartzea bere gain, epe baterako, ordezkapen-sail gorenari dagozkion betebeharrak.

Erabaki horiek ikusirik, Ararteko honen iritziz badirudi kexa-espeditente honetan azaldutako auzia laister eta behar bezala konpontzeko bidean jarri dela. Dena dela, abian jarri den hauteskunde-prozesua burutzen ez den bitartean, Erakunde honek jarraipen eta ikuskatze lanak egiten jarraituko du.

3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

A) Sarrera

Funtzio Publikoa sailean, 1994. urtean 85 kexa jaso dira guztira, aurkeztu diren kexa guztietatik %15, beraz.

Kexa horiek honela banatzen dira, zein administrazioaren kontra egin diren begiraturaz:

| | |
|--------------------------|----|
| - Eusko Jaurlaritza..... | 66 |
| - Diputazioak..... | 11 |
| - Udalak..... | 8 |

Azpisaileri begira, berriz, hau da banaketa:

| | |
|---|----|
| - Funtzio Publikoa - Hezkuntza..... | 51 |
| - Funtzio Publikoa - Orokorra..... | 13 |
| - Funtzio Publikoa - Osasuna..... | 9 |
| - Funtzio Publikoa - Herrizaingo saila..... | 3 |
| - Oposaketak eta lehiaketak..... | 3 |
| - Beste batzuk..... | 5 |
| - Diziiplina jaurbidea..... | 1 |

Administrazioaren Antolaketaren kontra, berriz, 46 kexa jaso dira, denera aurkeztu direnen %8.

Funtzio publikoaren alorrean aurkeztu diren kexen edukia aintzat hartzen badugu, hautaketarako sail teknikoek baldintza jakin batzuei buruz egiten zuten interpretazio murriztailea zalantzan jarri duten kexa ugari jaso dira. Auzitari jarri diren puntuak hauek dira: deialdian eskainitako postuetarako sarrera ematen zuten tituluen zerrenda, eta lehiaketa fasean lehenagoko esperientzia gisa balioztatzen ziren zerbitzu motak.

Lehenago emandako zerbitzuak aintzat hartzeak ere hainbat kexa eragin ditu, lansari ordainketen barruan hirurtekoak osatzeko egiten ziren espedienteen kasuan, hain zuzen ere horretarako tratu ezberdina ematen zela argudiatzen zelako, besteak beste.

Administrazio publiko ezberdinek burutzen dituzten hautaketa prozesuetan eskatu beharreko prozedurazko bermeak zaindu daitezela eskatu behar izan du berriro Ararteko erakundeak. Gogoratu behar da aurreko gomendioetan ere gai hau aipatu izan dela, zuzenbide publikoko herri-erakunde batek lehiaketa-oposaketa baterako deialdia egin zuenean hain zuzen, jarduera aldeitik halako berezitasun nabarmenak zituelako.

Beste alor berezi batean ere, irakaskuntzan alegia, kexak egon dira, EHKA-ko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasle kidegoaren antolamenduari buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak bere xedapen iragankorretan finkaturikoa betetzen ari den neurrian; horien artean aipagarriak dira sare publikora bildutako ikastoletan lan egiten dutenen funtzionarizazio prozesuek

eragindakoak, funtzio publikoan sartzerakoan tratu ezberdina ematen ari ote zen azaltzen baitzuten. Badira aipatu beharreko beste kexa batzuk, OHO edo Lehen Irakaskuntzaren bitartekoak berriz antolatzean langileak kontratatzeko jarraitu diren irizpideen kontrakoak.

Administrazioaren Antolakuntza sailean, aldiz, administrazio-prozesuari dagozkion alderdi batzuei ematen zaien tratu desegokiaz jabetu ahal izan gara bideratu diren kexen bitartez. Halako prozedura bat zuzen erabakitzeke onar daitezkeen probei buruz ari gara zehazki; izan ere, prozedurari dagozkion baldintza erlatibo batzuk zorrotzegi hartzen dira, eta beste batzuetan ez da prozedurarik egoten; horrela, gai hauetarako dauden xedapen orokorrak ez dira ezagutzen eta, beraz, ez dira ezartzen.

B) Kexa aukeratuak

Mintegi edo prestakuntza ikastaroetan parte hartu izanaren ziurtagiriak (103/93)

Donostiako Usandizaga Batxilergo Institutuko irakasle andre batzuek erakunde honi salatu zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ukatu egin zuela 1991-92 ikasturtean "Orixe" izeneko taldeak zuzendutako informatikazko mintegi/ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagiria.

Antza denez, uko horren arrazoia zera zen: mintegiaren arduradunek baja-parte bat egin zutelara, nahiz eta, kexagileek ziotenez, guzti-guztiak maiz joan ziren emandako klaseetara, bai behintzat irakasleak mintegia bukatutzat eman zuten arte; harrezkero, irakaslearen oniritzia zutelara, ez ziren joan amaieran errepasso modura eman ziren azken klaseetara.

Hezkuntza alorrean gai honen ardura dutenekin harremanetan jarri ondoren, erakunde honen ustez kexa argitzeko behar-beharrezkoak ziren puntu batzuk zehaztuta ez zeudenez gero, Arartekoak argibide zehatzak eskatu zituen, jakiteko ea egiaztatu zen ala ez -gainerako partehartzaileei galdetuz-kexagileek esandakoa, alegia, ikastaldi osora joan zirela, eta, bestalde, ea asistentziaz beste arrazoirik ba ote zegoen, ikastaldian parte hartutako beste irakasleekin erkatuz, kasu batzuetan eta besteetan tratu ezberdina emateko.

Informazio zabalagoa eskatu eta gero, jasotako erantzun idatzia berriro ere zehatza ez izanik, berriz adierazi genuen komeni zela proposatutako frogara egitea; izan ere, bide hura baino ez zegoen irakasle kexagileen bertsioa, ikastaroko arduradunen bertsioaren kontrakoa, egiaztatu ahal izateko. Bestalde, argi adierazi genuen zer jakin nahi genuen ikastaroko partehartzaile batzuei eta besteei tratu desberdina emateko arrazoi berezirik ba ote zegoen galdetzean: alegia, klaseetara joate hutsa ote zen ziurtagiriak luzatzeko baldintza funtsezkoa edo bakarra.

"Orixe" taldeko arduradunak igorri zigun beste idazki bat aztertu eta gero, erakunde honek ondorio hauxe atera zuen: proposatu genuen frogara burutu ez arren, "Orixe" taldeko inork ez zuela zalantzan jarri egintza bat, alegia, klasera joateak ez zuela funtsezko baldintza izan behar ziurtagiriak luzatzeko.

Bestalde, gure ustez, klasera joate hutsaz aparte, ez zen beste ezer berri-rik azaldu, esandako ziurtagiria luzatzeko ezinbesteko baldintza bezala.

Horregatik guztiagatik, eta azken finean hezkuntza alorreko Administra-zioak, berarekin izandako harremanetan, bere ukapena zurrizteko arrazoi sendo eta garbirik eman ez zuela eta, kexagileek eskatutako ziurtagiriak luza-tzea gomendatu zuen Ararteko honek.

Zoritzarrez, eskaria behin baino gehiagotan egin diogun arren, Hezkun-tza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak oraindik ez dio gomendioari inolako erantzunik eman.

Jarrera horregatik, Arartekoak bere ekintzak bertan behera utzi eta jaso-tako kexa itxi eta artxibatu behar izan du; baina agerian utzi nahi dugu hez-kuntza alorreko arduradunen lankidetzarik eza, eta horregatik sartu dugu txos-ten honetan auzi honi dagokion espedientea.

Ur, Hornidura eta Garbiketarako Partzuergoko langileak hautatzea •
(270/93)

Bilboko Ur, Hornidura eta Garbiketarako Partzuergoak egindako deial-dian bigarren mailako elektromekanika ofizial eta gidariantzako lehiaketa-opo-saketan parte hartu nahi zuen hiritar batek haxe salatu zion erakunde honi: partzuergo horrek askotan ez zituela betetzen langile-hautaketarako indarrean dauden arauak.

Auzia aztertu ondoren, erakunde honek garbi ikusi zuen Ur, Hornidura eta Garbiketarako Partzuergoak, erakunde publikoa izanik, aintzat hartu behar zituen alderdi juridiko-formal batzuk ez zituela behar bezala bete esandako lan-postu deialdi horretan.

Izan ere, Partzuergoko langile-postuak betetzeko hautaprobak Barne Jaurbiderako Araudiak dioenari jarraiki egin behar diren arren, horren jardun-erregimenak daukakeen berezitasunengatik, kontua da hautapropa horiek kudeatu eta burutzean ezin daitezkeela alde batera utzi funtzio publikoari buruzko legeria orokorrean gai honetaz biltzen diren xedapen orokorrek; nahiz eta Ur Partzuergoak aparteko izaera publikoa eduki, berezitasun hori instrumentala baino ez da, eta horregatik erakunde horrek ezin du bete gabe utzi administrazio-antolakuntza, bere jardueraren eta dirubidearen erregimen organikoari lotuta ez dauden puntuetan.

Horiek horrela, aurrekontuetan behar bezala azaldutako lanpostu hutsak betetzerakoan, lan publikoen eskaintza derrigorrez gauzatu eta argitaratu behar zela iritzi genion.

Ildo beretik, lehiaketa-oposaketaren deialdia zegokion lurralde historikoa-ren aldizkari ofizialean argitaratu behar zen, eta ezin onar zitekeen argitarapen horren ordez zabalpenik handieneko egunkarietan halako iragarkiren bat ipini izana, neurri hori iragarki ofizialaren osagarri baino ezin baita izan.

Horregatik guztiagatik, era honetako baldintza formalen helburua berme bat eskaintzea izanik, erakunde honek gomendio bat egin zion Partzuergoko Lehendakariari, esandako betebeharrak horiek bete zitezten.

Zoritxarrez, behin baino gehiagotan eskatu arren, partzuergo horrek gure gomendioari inolako erantzunik eman gabe jarraitzen du, bere antolakuntza, jarduera eta dirubide erregimenaren berezitasunen babesean. Horregatik, kexa-espeditentea itxi eta artxibatu behar izan dugu, bai eta erabaki ere txosten honetan sartzea, onartu gabeko gomendioen adibide gisa.

Lanpostu bat aldi baterako betetzeko deialdiko baldintzak administrazio deialdigileak berak bete ez izana (277/93)

Joan den urteko txostenean jasotako kexen artean, bazegoen bat, Osakidetza administrazio postu bat zerbitzu-emankizunean betetzeko deialdira aurkeztu zen lehiatzaile batek egina.

Kexagileak egindako erreklamazioa guztiz arrazoizkoa zen, eta aurreko urteko txostena aurkeztu genuenean, hari buruzko kexa-espeditentea irekita geratu zen, Osakidetza gure gomendioari erantzun zain.

Azkenik, administrazioak aditzera eman zion Ararteko honi kexagileak aurkeztutako administrazioarekiko auzibidea ontzat hartzea ebatzi zuela irailan.

Horrela, administrazioaren ohiko lanean bidezko izango litzatekeena baino atzerapen handiagoaz, ekintzak deialdia ebatzi aurreko momentura atzeratu ziren, eta horrenbestez artxibatu egin zen auzi honi buruzko kexa-espeditentea.

Udalak antolaturiko hautaketa-prozesuan parte hartzea (396/93)

Sestaoko Udalak udal-kiroldegian aldi baterako sokorrista postuak hautabidez betetzeko deia egin zuen, eta bertako herritar bat kexu zen Arartekoaren aurrean Udalak ez ziolako onartu probetan esku hartzeko eskaria. Hain zuzen, udaldian monitore-sokorrista lanak egiteko lau postu betetzeko deia egin zen, zerbitzu hori Sestaoko Benedikta polikiroldegian eskaintzearen.

Deialdiaren bigarren oinarri-arauaren c) azpiatalean eskaturiko baldintza ez egiaztatzeagatik utzi zuten kexaduna onartuen zerrendatik kanpo; atal horretan hauxe eskatzen zitzairen hitzez hitz hautagaiei: "uretako salbamendu eta sokorrismoko hainbat ikastaro eginak eta titulua lortua izatea, lehen laguntza eta larrialdietako sendaketak egiten jakitea eta horretan eskarmentua edukitzea".

Beste agiriekin batera, kexadunak Estatu mailako igeriketa-monitore titulua aurkeztu zuen, Espainiako Igeriketa Federazioak emana, eta, bere esanetan, sokorrista postuetarako eskatzen zen tituluari atxikitako eduki berberak hartzen zituen barne titulu horrek, bai eta zerikusirik zuten beste gai batzuk ere, zenbait gai irakasle berberak ematen zituztelarik.

Gauzak horrela, bi tituluen (eskatutakoa eta aurkeztutakoa) arteko lotura argitu beharra zegoenez gero, erakunde honek txosten bat eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, sail horrek bultzatu baitzuen bere garaian ekainaren 7ko 146/88 Dekretua, guztiek erabiltzeko diren Igeritokien Osasun Araudia onartzen duena. Aipatu dekretuaren 41. artikulua dioenez, guztiek erabiltzeko diren igeritokiek sokorrista tituluduna edukiko dute, salbamenduan eta

lehen laguntza ematen egiaztaturiko eskarmentua duena. Horrela, osasun-araudian eskatutako baldintza goian aipatu ditugun bi tituluak betetzen zuten ala bietako batek bakarrik neur zezan eskatu genion osasun Administrazioritziari.

Osasun Sailak igorri zigun txostenak zioenez, bi tituluak baliokideak ziren eskatutako lanposturako, eta, horregatik, Arartekoak gomendioa luzatu zion Sestaoko Alkateari, aurrerantzean Sestaon horrelako edo horren antzeko deialdiak eginez gero, bi tituluak onar zitzaizkien.

Sestaoko Alkateak uko egin zion gomendioa betetzeari eta ahalmen gabe utzi zuen Arartekoaren iritzia; horren ondorioz, espedientearen artxibatzearekin batera, beste ofizio bat bidali genion udal horri, Ararteko erakundearen zereginak zeintzuk diren argitzeko eta Elkarte Autonomoko edozein udaletan buru egiten duenak haren aurrean dituen betebeharrak gogorarazteko. Halaber, bideratu genuen espedientearekiko izan zuten jarrera behar bezala salatuko genuela adierazi genion. Orduz geroztik, gai honi dagokionez, ez dugu Sestaoko Alkatearen erantzunik jaso.

Berdintasun irizpidea lehenagoko zerbitzuak aintzat hartzean (460/93)

Gure elkarte autonomoko Administrazioaren hitzarmen kolektibo baten eraginpeko langile batzuek aditzera eman ziguten ez zeudela ados tresna juridiko horrek lehenagoko zerbitzuen onarpena arautzen zuten moduarekin, antzinatasunari buruzko puntuan bereziki.

Kasu honetan, jaso genuen kexa hitzarmen kolektibo baten esparruko tresna bati buruzkoa izan arren, bazuen alderdi bat, berdintasun irizpidearen ikuspuntutik aztertze bide ematen zuena.

Izan ere, auzitan jarritako hitzarmen kolektiboan aintzat hartzen ziren Eusko Jaurlaritzan emandako zerbitzuak, edota geroago eskualdatutako sailen batean edo gure elkarte autonomoko foru edo udal Administrazioan emandakoak. Horrela, administrazioa zein jabetzapekoa zen, trataera desberdina ematen zen.

Kexa hau egin ziguten langileak hitzarmen kolektiboan aipatuta ez zegoen administrazio batean aritu ziren lanean.

Kasu honetan nekez zabal zitekeen berdintasun irizpidea funtzionaritzea hutsekoa ez zen esparru batera, hots, estatutu eta lan esparrura.

Antzinatasunari begira, Ertzaintzaren Laguntzarako Unitate Teknikoko (ELUT) langile hauen lehenagoko zerbitzuen onarpena ez da egiten karrerako funtzionarioekin edo administrazio beraren barruko beste hitzarmen kolektibo batzuen eraginpeko langileekin egiten den bezala, baina horrek ez du esan nahi inolako zuzengabetasunik dagoenik ikuspuntu juridiko-formaletik.

Beste langile-mota batzuekiko alderaketa bazter utzi eta gero, hauxe aztertu genuen: hitzarmen kolektibo beraren menpeko langileei soldata kontuan ematen zaien tratua ezberdina, bakoitzak lehenago zein administrazio publikotan egin zuten irizpide hartuz.

Puntu honetan topatzen zen alde hitzarmen kolektiboaren izenpetu zuten aldeek lortutako akordioaren ondorio zen. Hitzarmenek, negoziazioen emaitza

izan arren, argi dago arau-jerarkiaren erregelak bete behar dituztela; horregatik, negoziaketa hori ez da nahikoa arrazoi berdintasun irizpidea alde batera uzteko.

Hitzarmenak lehenagoko zerbitzuak aintzat hartzen zituen moduan ez zen inolako bereizketarik egiten, zerbitzu horiek emateko orduan zegoen erlazioaren eduki edo izaeraren arabera, edota beste edonolako zertzelada objetibo baten arabera. Alde bakarra, langileek zerbitzua eman zuten herri-administrazioaren jatorrian zetzan, eta ezin esan daiteke funtsezko ezberdintasunik dagoenik hitzarmen kolektiboan aipaturiko herri-administrazioetan emandako zerbitzuaren eta bertan aipatzen ez direnetan emandakoaren artean.

Bereizketa hori egiteko arrazoi objektiborik ez dagoenez gero, argi dago bereizkeriazko tratua eman zela kasu honetan.

Kexagileen nahiari oinarria ematen zioten gogoeta hauek egin eta gero, ezin zitekeen ahaztu gure elkarte autonomoko Administrazioako langileen lan-hitzarmen orokorrean puntu honek daukan trataera, edota foru eta udal erakundeetako langileengan eragina duen ARCEPAFE izeneko Akordioan daukana; bai kasu batean, bai bestean, 70/78 Legeak dioenaren arabera aitortzen da antzinatasuna.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 8. xedapen iragankorrak egiten duen aurrikuspena ere ezin zitekeen alde batera utzi; izan ere, horren arabera, 6/89 Legearen xedapen iragankorren babesean funtzionari edo lan-legepeko langile izatera iristen diren langileei aintzat hartuko zaie beste edozein administrazio publikotan emandako zerbitzua, hirurtekoei eta antzinatasunari begira.

Arrazoibide hauen guztien argitan, Arartekoak honako ondorio hau atera zuen: alegia, hitzarmen kolektiboetan jasota ez dauden administrazio publikoetan lehenago emandako zerbitzuak aintzat hartzeari dagokionez, ELUTen emandakoak kontuan ez hartzea bereizkeria zen, eta kexagileen eskubidea aitortzeko beharrezko neurriak hartu beharko ziren, dagokion hitzarmen kolektiboaren barruan dauden gainontzeko langileei aitortzen zaien eskubideak dituen ondorio berberekin.

Arrazoibide hauek guztiak Administrazioari jakinarazi eta gero, berorrek gure gomendioa onetsi eta ontzat jo zituen hitzarmenean propio jasota ez zeuden beste administrazio publikoetan emandako zerbitzua aintzat hartzeko eskariak.

Langileen derrigorrezko atxikipenak (693/93)

Maisu-Maistren Kidegoko irakasle funtzionari batek salatu zigun euskarazko postu bereziari derrigorrez atxikita geratu zela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1993ko maiatzaren 11ko Aginduaren bidez araututako atxikipen prozesuan.

Kexagileak adierazten zuen arrazoia honakoa zen: OHoko Filologia-Euskara espezialitatea irakasteko gaitasuna eman zion hizkuntz agiria lanegunetik kanpo eskuratu zuela, inolako kosturik eragin gabe hezkuntza alorreko Administrazioari; horregatik, bere iritziz, 2. hizkuntz eskakizuna zeukan lanpostu

bati atxikitzeak borondatezkoa izan behar zuen, bere kasuan ezin baitziren kontuan izan atxikipen-arau horretan finkatutako irizpide orokorrak.

Kexan salatutako auzia zehatz-mehatz aztertu ondoren, honako ondorio hau atera zuen erakunde honek: halako gaitasun-agiri bat lehiaketaren berezitasunagatik edota Administrazioak zuzenean edo zeharka sustatzen dituen preskakuntza-ekitaldiengatik eskatzen ez bada, Administrazioak ez duela ahalmenik hemen auzitan jarrita dagoen derrigorrezko atxikipena bezalakorik zehazteko; beraz, horiek bultzatu baino ezingo ditu egin, dagokionak nahita onartzen baditu.

Jakina, Ararteko honen ustez, hezkuntza alorreko Administrazioari bere burua antolatzeko eta bitartekoak bere kasa arautzeko ahalmen orokorra onartzen zaion arren, badu mugapen garrantzitsu bat: alegia, funtzionari baten datuak aintzat hartzean, haren estatutu-harremanetan funtsezkoak diren prozesuen ondorioz (lehiaketak, zuzenean edo zeharka sustatutako ikastaldiak, etab.), karrera administratiboan egiaztatuta daudenak soilik har daitezke kontuan.

Aurreko argudio hauetan oinarriturik, erakunde honen aburuz, gaitasun-agiriak luzatzean (fitxategi automatizatuetakako datuak erabiliz, berariaz luzatzean, alegia) zenbait puntu malgutzea erabaki izan balitz ere, nahiz eta funtzionariak bere adostasuna azaldu, horren ondorioz ezin liteke onartu Administrazioak askatasun osoa edukitzea hemen aztertu duguna bezalako atxikipenetan luzatutako ziurtagiriak nahi bezala erabiltzeko.

Gauzak horrela, egindako derrigorrezko atxikipena berraztertze gomendioa egin genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Gure gomendioari erantzutearren bidali ziguten idazkian, hala ere, onartu egiten zen hemen aipatu dugun hizkuntz gaitasun agiria hezkuntza alorreko Administrazioak inolako ordainik egin gabe egin zen ikas-prozesu batean eskuratua zela, baina, bestalde, aditzera ematen zen kexagileak bere borondatez onartu zuela gaitasun hori egiaztatutzat jotzea OHoko Euskal Filologia alorreko lanpostu batean eta, oraintsuago, 2. hizkuntz eskakizuneko lanpostu batean aritzeko, hiru urtetan inolako desadostasunik agertu gabe; arrazoi horregatik, Administrazioak bidezko irizten zion egindako atxikipenari.

Erantzun hori ikusita, Arartekoak berriro jo zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera lehenagoko gomendio berbera egiteko, sail horretako arduradunek azaldutako argudioak ez zuelako ezertan ere baliogabetzen gomendio horren oinarritzko arrazoibidea. Horrekin batera, aditzera eman genion euskal heziketa sistemaren ezaugarri bereziek ezin zutela babestu auzitan jarritako erregela, nahiz eta ezaugarri horietxek izan halako derrigorrezko atxikipen berezi batzuk gainontzeko elkarte autonomoetan eta Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren esparruan ezezagunak- eragin zituztenak; izan ere, ez zegoen inolako aurrekaririk, uko-ezak eragingo zituzkeen ondorio garrantzitsuak nolakoak izango ziren sumatu ahal izateko, are gehiago hori ez aplikatzeak ezertan aldatzen ez zuelarik atxikipen prozesuaren benetako helburua.

Kontuak kontu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak artean ere ez zuen onartu nahi izan gure gomendioa, haren iritziz agindutako derrigorrezko

atxikipenen irizpideak ez zirelako gehiegizkoak, Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalmenari eta uztailaren 14ko 895/1989 EDko bukaerako bigarren xedapenean emandako baimenari begira.

Puntu horretara iritsita, bitartekaritzan aritzeko geure esku geneuzkan aukera guztiak agortuta ikusten genituelarik, Arartekoak espediente hau ixteko eta artxibatzeko agindua eman behar izan zuen, baina txosten honetan jasoko zuela adieraziz.

Irakaskuntza alorreko funtzio publikorako sarrera: udal musika-eskola batean emandako zerbitzua kontuan hartzea (775/93)

1993ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez (EHAA, 11koa) irakaskuntza alorreko funtzio publikorako hautaprobetarako deia egin zen; horrela, Bigarren Heziketako Irakasle Kidegoan sartzeko -Musika espezialitatea- probak egin zituen emakume batek auzitan jarri zuen udal musika-eskola batean irakasle gisa eman zuen zerbitzu egiaztatua kontuan hartu ez izana.

Bere salaketa arrazoitzeko, deialdi horretako I. eranskinak hitzez hitz zioena aipatu zuen, bertan adierazten zenez, kontuan hartuko baitzen irakaskuntza publikoan egindako irakasle-lana, bai lehiaketako kidegoan ez beste lanpostu batean egindakoa, bai horretxetan sartutako kidegoetako batean edo talde bereko eta destino-osagarri maila bereko beste batzuetan egindakoa, funtzionari izendatua izan ondoren edota lan-legepeko langile finko bezala kontratatua izan ondoren.

Kexagileak bere idazkiari erantsitako dokumentu baten arabera, hezkuntza alorreko Administrazioak zioen lehiatzaileak aipatutako irakasle-lana irakaskuntza publikotik kanpokoà izateagatik ez zuela aintzakotzat hartu.

Aurkeztu zitzaigun auzia zehatz-mehatz aztertu ondoren, lehiatzaileak aipatu zuen irakasle-lana aintzat hartzea bidezkoa zela ebatzi zuen erakunde honek, udal musika-eskolak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin zeuzkan harremanak otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikorako 1/1993 Legearen (EEPL, hemendik aurrera) bederatzigarren xedapen gehigarrian finkatutako lankidetzaharremanen barruan sartzekoak zirelako.

Honi dagokionez, esan dezagun bai deialdiko baldintzek, bai apirilaren 22ko 574/1991 Erret Dekretuak -beronek arautzen baitu, aldi baterako, irakasle-kidegorako sarrera- ez dutela ezer ere zehazten irakaskuntza publikoaren barrukotzat hartu behar diren zerbitzuei buruz; hala ere, aipaturiko ondorioa beste arau orokor batzuetatik eratorria da, EEPLko 1.2. artikulutik eta bederatzigarren xedapen gehigarritik alegia, eta haietan argi eta garbi azaltzen da legegilearen asmoa dela irakaskuntza-sare publikoan sartutzat ematea irakaskuntzaren egitarau orokorraren arabera lanean ari diren udal jabetzako ikastegi guztiak.

Are gehiago, erregimen bereziko irakaskuntzen alorrean, eta kontuan izanda zein eragin handia eduki duen udalen ekimenak esparru horretan, ondo zehaztuta dago hezkuntza alorreko Administrazioak lankidetzaitunak egin ahal izango dituela udalbatzarrekin; beraz, itun horien bitartez artikulatzen da irakaskuntzaren programazio orokorrerako ahalmena deitutakoa.

Horregatik guztiagatik, kexagileak aipatutako zerbitzuak kontuan hartze-ko gomendioa egin behar izan zuen erakunde honek.

Hezkuntza Administrazioak idatziz bidali zigun erantzunak honako hau zioen hitzez hitz: "nahiz eta, Arartekoaren gomendioak bederatzigarren xedapen gehigarriaz egiten duen interpretazioaren arabera, hezkuntza Administrazioak bere esku duen programazio orokorra finkatzeko ahalmena lankidetzaituen bidez artikulatu behar den, erregimen bereziko irakaskuntzaren alorrean, kontuan izan behar da (...)ko Musika Eskolaren kasuan ez dagoela horrelako itunik"; horretaz gainera, aditzera ematen zuen "kasu guztietan hartu den irizpidea honakoa izan da: edozein ikastegi publikoetan egindako lana baino areago, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko sare publikoan egindakoa edota heziketa alorrean erabateko ahalmenak dituen beste edozein hezkuntza administrazioetan egindakoa hartzea kontuan". Hala eta guztiz ere, aurrerantzean egingo ziren deialdietan, udalbatzarren menpeko ikastegi publikoetan egindako lana kontuan hartzeko aukera aztertuko zutela adierazi zuten.

Erantzun honen arabera, eta laguntzak egon bazeudela frogatu ondoren, Arartekoak berriro egin behar izan zuen lehenagoko gomendioa; izan ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak musika-eskola honekin zeuzkan harremanak, berez halako lankidetzaitun berezi baten bidez araututa egon ez arren, ikuspegi material batetik begiratuta, EEPLko bederatzigarren xedapen gehigarrian sartutako lankidetzaitu-harremanen artean sartzekoak dirateke.

Beste alde batetik, gure ustez ezin zitekeen argudiatu kasu guztietan erabilgarri irizpidea Hezkuntza Sailaren menpeko sare publikoko ikastegietan egindako irakasle-lana kontuan hartzea izan zela, zeren eta kasu honetan eztabaidatzen baitzen, hain zuzen ere, ea sare publikoaren barrukotzat hartu behar zen ala ez udal musika-eskoletan emandako zerbitzua, eskola horiekin halako lankidetzaitu-harreman bat badagoela esaterik dagoen kasuetan.

Azkenik, aditzera eman genuen aurrerantzean egingo ziren deialdietan era honetako zerbitzuak kontuan hartzeko aukera planteatzerik ez zegoela, geroago egin den bezala, kalte konponezinak eragingo lizkiekeelako auzi honetako kexagilearen antzera lehen deialdi honetara aurkeztutako lehiatzaileei, kontuan izanda irakaskuntza alorreko funtzio publikoan sartzeko eduki litzaketan bidezko itzarokizunak ustel atera litezkeela.

Gure eskaria behin baino gehiagotan jaso arren, hezkuntza arduradunek oraindik ere uko egiten diote gure gomendioa onartzeari.

Hortaz, eta bitartekaritzan aritzeko geneuzkan aukera guztiak agortutzat jota, Ararteko honek kexa-espeditante hau itxi eta artxibatu beste biderik ez izan, eta aurtengo txostenean sartuko zuela adierazi zien alderdi guztiei.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko erizain-laguntzaile postu hutsak betetzeko lehiaketa-oposaketa: Osakidetzan egindako lanari balioa ematea (105/94)

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (aurrerantzean, AGOFE) bertako erizain-laguntzaile lanpostu hutsak betetzeko lehiaketa-oposaketa baten deialdia plazaratu zuen.

Lehiaketa-aldirako jarritako baremoan, lehiatzaileen lan-esperientziaren balioztapena sartu zen, lan hori non egin zen eta nolakoa izan zen ere kontuan hartuz.

Deialdian aipatutakoaren antzeko erizain-laguntzaile lana Osakidetzan egina zeukan lehiatzaile batek, berak emandako zerbitzua ez ziotela aintzat hartu salatu zuen.

Ararteko honen aburuz, baremoan finkatuta zegoen neurriak -lehenago aipatu duguna- esku ematen dio epaimahai kalifikatzaileari lehenagoko zerbitzu desberdinen balioztapena halako irizpide objetibo batzuen arabera modulatzeko, kontuan hartuz, adibidez, deialdiaren bidez bete nahi den lanpostuaren einkizunarekin zerikusia duen ala ez, etab.

Nolanahi ere, aipatutako neurri horrek ez du inolaz ere aukerarik ematen gizarte-zerbitzuen alorretik kanpo diharduten erakundeetan lan-kategoria berebanean egindako lanaren balioztapena erabat baztertzeko; izan ere, horrela jokatz gero, ez litzateke aintzakotzat hartuko datu guztiz objetiboegi begiratz deialdiko baldintzak behar bezala betetzen dituen lan-esperientzia bat, eta horixe litzateke erizain-laguntzaile lanetan Osakidetzan emandako zerbitzu hauen kasua.

Horregatik guztiagatik, epaimahai kalifikatzaileak merezimenduak balioztatzeke erabili zituen irizpideak berraztertzea gomendatu genuen, bai eta baliorik gabe uztea ere lehenago aipatu dugun erabakia, hau da, Osakidetzan, lehiaketa-oposaketaren deialdian iragarritakoaren antzeko lanpostu batean emandako zerbitzua baztertzeta.

Gure gomendioari erantzutearren egindako idazkian, AGOFeko zuzendariak zioen ez kexagileak azaldutako lan-kategoria (Osakidetzako erizain-laguntzailea), ez haren lanpostuaren betekizuna ere ez zetoze la bat deialdian iragarritako lanpostuarenekin.

Deialdiko II. eranskinean jasotzen den erizain-laguntzaile lanpostuaren betekizunen azalpena axaletik erkatzen badugu Gizarte Segurantzaren Osasun Erakundeetako Osasun Langile Ez Fakultatiboen Estatutuan agertzen den erizaintza zerbitzuetako erizain-laguntzaile lanpostuari dagozkionekin -izan ere, horra jo dezakegu Osakidetzako klinika-laguntzaile batzuek dauzkaten betekizunak zehazteko-, ondorio guztiz desberdina atera dezakegu, Arartekoaren iritziz: hau da, betekizun horiek bat datozela.

Horiek horrela, eta erizaintza zerbitzuetako klinika-laguntzaile lana eta antzeko langileek asistentzi-alorrean egiten dutena pareka daitezkeen neurrian, lehenago egindako gomendioa bete beharko zela adierazi genuen berrir, eta AGOFEk azkenik onartu zuen aurrerantzean kontuan edukiko zuela.

Besterik gertatu da, aldiz, auzi honetako kexagileak bere lan-esperientziaren balorazioa berraztertzeke ere egin zuen eskariarekin; izan ere, ez dira erabili administrazio-prozedura arautzen duen oraingo legeriak finkatuta dituen justizia administratiborako bideak, eta arazo honen eraginpean beste batzuk ere badaudenez gero, ezinezkoa da balorazio hori auzibidezko ikuspegi batetik berraztertzea.

Hori dela eta, espedientea itxi eta artxibatu behar izan da, kexagileari lehenagoko arrazoibideak jakinarazi ondoren.

Irakaskuntza alorreko funtzio publikorako sarrera: titulazioaren derri-gortasuna ez ezartzea sare publikoan sartutako ikastoletako langileei (234/94)

Sare publikoan sartutako ikastola batzuetako hainbat irakaslek ez zeukaten maisu-maistra titulaziorik, eta horregatik, LOGSEko seigarren xedapen iragankorrean araututakoari jarraituz, laster egitekoa zen funtzionari bihurtzeko deialditik kanpo geratzeko arriskuan zeuden; horregatik, erakunde honetara jo zuten, beren auzian bitartekari aritzeko.

Arazoa konpontzeko asmoz halako elkarrizketa batzuk egiten ari zirela jakinik, Arartekoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arduradunengana jo zuen lehenik, elkarrizketa horien emaitzaren berri jakiteko.

Gure eskariari erantzunez, Langile Kudeaketarako Zuzendariak txosten bat bidali zigun. Bertan, datu berri bakar bezala, sare publikoan sartutako ikastoletako langileak funtzionari bihurtzeko prozesua deialdi bakar batean ez agortzeko aukera jasotzen zen; hartara, prozesu horretarako jarritako gehieneko epea (1995eko urriak 24) bete bitartean, Maisu-Maistra Kidegoko funtzionari bihurtzeko behar den titulazioa lortzeko aukera ematen zitzaizen berori erdiesteko bidean zeuden ikastola-irakasle guztiei.

Gainontzeko kasu guztietan, eta Euskal Elkarte Autonomoko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzako Irakasle Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, ezinezkoa zen Maisu-Maistren Kidegoko funtzionari bihurtzeko aukera gauzatu edo, bestela, bermatzea.

Erakunde hau ados zegoen txosten horretan esandakoarekin, zeren eta, legezketasunaren ikuspegi hutsetik begiratuta, erabilera murrizta eman behar baitzaio Kidegoen Legearen lehen xedapen iragankorraren arabera Maisu-Maistren Kidegoan sartzeko finkatuta dagoen erregimenari -hor aipatzen baita titulazioa aurkeztu beharretik libre geratzeko aukera, hain zuzen ere kexagileek sare publikoan sartutako ikastoletako irakasleen kasura zabaltzea nahi zutena-, berez erregimen hori aldi baterako eta salbuespenezkoa delako.

Beste alde batetik, Ararteko honek ez zuen uste inola ere esan zitekeenik bereizkeria gertatu zela funtzio publikora sartzeko prozesu horretan.

Gai honi dagokionez, horrelako bazterkeria gertatu dela adierazi ahal izateko, behar-beharrezkoa da tratu desberdin hori egoera berean edo antzekoetan gertatzea; baina horrelako egoerarik ez dugu aurkitzen espediente honen kasuan. Izan ere, ezin esan daiteke parekatzekoak direnik behin-behineko funtzionari batekin gertatzen dena eta sare publikoan sartutako ikastoletako irakasleen kasuan gertatzen dena, lehendabizikoak ohiko eran eta sistemaren barruan eman duelako zerbitzua, eta bigarrenek, aldiz, sare publikotik kanpo lan egin izan dutelako.

Hortaz, hezkuntza sistemaren antolakuntza orokorrari begira, gure iritziz ez zen bidegabea alde batetik behin-behineko funtzionariei erraztasunak

ematea kidegora sartzeko, titulazioa aurkeztu beharretik libre utziz, salbuespen gisa eta aldi baterako, Kidegoen Legearen lehen xedapen iragankorrean ematen den aukerari jarraiki; eta bestetik, ikastoletatik iritsitako langileei, funtzionari bihurtu ahal izateko, horretarako dauden baldintzak zorrotz bete ditzaten eskatzea; batez ere kontuan hartzen badugu eskakizun horrek tresna zuzentzaile bat daukala, lanpostuko egonkortasunari dagokiona, mugagabeko lan-legepeko langile bezala jarraitzeko aukera aurrikusita baitago, bakar-bakarrik haien postuak ezabatuko direlarik.

Horregatik guztiagatik, eta azken finean gure aldetik auzi honetan sartzeko arrazoirik ikusten ez genezuz gero, Arartekoak kexa-espedientea itxi eta artxibatzea erabaki zuen, eta halaxe adierazi zien alderdi guztiei.

Katedradun maila eskuratzea (283/94)

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko funtzionari batzuek katedradun maila zergatik ezin zuten eskuratu jakin nahi zuten, eta halaxe adierazi zioten Ararteko honi.

Haien eskariari erantzunez, erakunde honek ondoan eransten dugun txostena bidali zien, bai eta adierazi ere horri buruzko espedientea itxi eta artxibatu egingo genuela, arazo honetan parte hartzeko arrazoirik ikusten ez genuelako.

"(...) LOGSE edo Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa, urriaren 3koa, indarrean sartu eta gero, ez dago Batxilergoko Katedradun Numerarioen Kidego apartekorik, Funtzio Publikoa eraberritzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria indarrean zegoen garaian ez bezala. Izan ere, LOGSEren hamargarren xedapen gehigarrian jasotzen den irakasle-kidegoen antolakuntza berrian ez dago inolako kidegorik, lehenagoko Batxilergoko Katedradun Numerarioen Kidegoarekin pareka daitekeenik.

Aitzitik, oraingo lege honen arabera, katedradun maila irakaskuntzako funtzionari batzuek eskura dezaketen maila pertsonal bat da.

Ildo horretatik, LOGSEren hamargarren xedapen gehigarri horretan Bigarren Heziketako katedradun maila aitortzen zaie lehenagoko Batxilergoko Katedradun Numerarioen Kidegoko funtzionarioei, edozein izanda ere haien egoera administratiboa; horretaz gain, aukera uzten zaie Bigarren Heziketako Kidegoko funtzionarioei maila hori bera eskuratzeko, baldin eta dagozkion kidego eta espezialitatean zortzi urteko antzintasuna badute gutxienez eta horretarako egiten diren deialdietan aukeratuak badira.

Beraz, katedradun maila Bigarren Heziketako Irakasleen Kidegoko funtzionariarentzat gordeta dagoen lanbide-sustapen baten moduko zerbait izango litzateke, eta gaur egun oraindik egiteke dago funtzionari horien betebeharrak -mintegi-buru izatea bezalako ohikoez aparte- zehaztuko dituen araudia; eta horrek bakarrik erantzun liezaieke zure kexa-idazkian agertzen dizkiguzun galdera guztiei.

Kontuak kontu, gure azalpenen bitartez konturatuko zinen bezala, zure kasuan katedradun maila ez eskuratzeko arrazoia zu Bigarren Heziketako Irakasleen Kidegokoa ez izatea da; kontuan izan behar da baldintza hori ezinbestekoa dela, LOGSEren hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, eta ezin zaiola inolako salbuespenik aurkitu, hemendik aurrera izango duen arau-antolaketa edozein izanda ere."

Euskal Herriko Elkarte Autonomoko biztanle izatea egiaztatzea (475/94)

Gidari-eskola Partikularretako Zuzendari Agiria lortzeko ikastaldi baterako deialdia egin zen, Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaria-
ren 1994ko martxoaren 17ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 63. zk., apirilak 5); deialdira aurkeztutako lehiatzaile batek erakunde honi salatu zion ikastaldi horretan parte hartu ahal izateko hasierako hautaprobetatik kanpo geratu zela, ez zuelako behar bezala frogatu, biztanle-eroldaren agiriaz edo auzotasun-agiriaz, gutxienez bi urte zeramatzala etengabe Euskal Herriko Elkarte Autonomoan bizitzen.

Arartekoak lortu ahal izan zuen dokumentazioaren arabera, bistan zen kexagileak ez zuela bete bere ohiko bizilekuko udalerrian erroldatzeko beharkezuna, ez behintzat Bilboko erroldan baja hartu zuenetik (93-07-29) Leioakoan alta eman zuen arte (94-04-07); hori zela eta, ezinezkoa zen epe horri buruzko inolako ziurtagiri ofizialik luzatzea.

Hori hala izanik ere, eskatzen zen egiaztagiraren arazoari begira, lehenago esandako hutsa -hots, agiria aurkeztu ez izana- erraz konpon zitekeen, gure ustez, beste frogabide batzuekin, haien bitartez inolako arazorik ez zegoelako kasu honetako kexagilea Galdakaoko udalerrian bizi zela ziurtatzeko.

Hor zeuden, esate baterako, 1990, 1991 eta 1992ko Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorten-kitapenak, edota ohiko etxebizitzaren alokera-kontratua bai eta, azken finean, Bilboko Udalak luzatutako errolda-bajaren ziurtagiria ere, honek argi uzten baitzuen biztanle honek Galdakaoko udalerrian hartu zuela bizileku berria.

Gauzak horrela, eta kontuan izanda kexagileak Herrizaingo Sailburuordeari errekurso arrunta aurkeztu ziola jasan zuen bazterketa salatzeke, Ararteko honek lehiatzailea momentuz onartzea gomendatu zuen, etorkizunean arazoari buruz hartuko zen behin-betiko erabakia edozein izanda ere.

Egin genuen gomendioa jaso ondoren, Herrizaingo Sailburuordeak ez zuen ontzat hartu kexagileak aurkeztu zion errekurso arrunta, horretarako aintzat hartuz bai deialdiaren baldintzetan, bai Toki Jaurbiderako Oinarriko Legean eta Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Araudian adierazitako frogabideak.

Erakunde honen iritziz, udal legeriaren arabera zalantzarik egon ez arren biztanletasuna ziurtatzeko erabili beharreko frogabideaz, kasu honetako bezalako arazoak gertatzen zirenean, hau da, Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Araudiaren 62. artikuluan eta hurrengoetan berriaz aipatzen diren frogabideak ematerik ez dagoenean, kontuan hartu

behar da Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako abenduaren 26ko 30/92 Legeak 80.1. artikuluan ematen duen araua, hots: "Halako prozedura bat erabakitzeko ezinbestekoak diren datuak Zuzenbidean onar daitekeen edozein frogabideren bidez ziurtatu ahal izango dira"; horregatik, kexagilearen errekurso arrunta ontzat ez hartzeko erabakia bertan behera uzteko gomendatu genuen, bai eta horren orde bestea erabaki bat hartzea ere, kexagilea ikastaldirako hautaprobetan onartzeko.

Herrizaingo Saileko arduradunek, berriro ere deialdiaren baldintzetan babestuz, gure azken gomendio honi jaramon egiteari uko egin diote, nahiz eta aurrerantzean egingo diren deialdietan erakunde honek egindako iradokizuna aintzat hartzeko aukera onartu.

Horrenbestez, arazo honetan bitartekaritza lanak egiteko geneuzkan bide guztiak agortuta zaudela ikusita, Ararteko honek espedientea itxi eta artxibatzea erabaki zuen, eta halaxe adierazi zion kexagileari.

ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

ONDAREA

Udalak bide bat herri-jabetzapeko jo zuela eta, auzokide batzuek beren ezadostasuna azaldu zuten, bide hori haien jabetzakoa eta beren lursail baten barrukoa zelakoan (370/94)

Igorreko auzokide batzuek Arartekora jo zuten, Udalak beraien lursail bat hesitzeko baimena ematen ez zielako; kontua da Udalaren jabetzapeko jo berri zen bide bat igarotzen zela lursail horretatik, eta izendapen horren ondorioz, bideak zabalik egon behar zuen, edozein auzokide bertatik inolako oztoporik gabe igaro ahal izateko.

Auzokide horiek auzitan jartzen zuten Udalaren erabaki hura, haien ustez ez zegoelako nahikoa arrazoirik bide hura herri-bidea zela erabakitzeko.

Alde batetik, ez zegoen Udalaren ondasun-zerrendan Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 17. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den bezala.

Bestetik, inguruko jabeen eskritura notarialetan agertzen den mugazehaztasunen arabera, ezin zitekeen esan hura herri-bidea zenik, inongo eskrituratan ez zelako aipatzen bide-zati hura lursail arteko muga zenik. Alderantziz, agiri horietatik ondorioztatzen zen lursail horiek elkarren muga zirela, haien artean inolako etenik egon gabe.

Udalaren arabera, ordea, arau subsidiarioak jendaurrean ikusgai egon ziren bitartean, arazo honetan sartutako auzokideek ez zuten inolako alegaziorik egin bide hura herri-bide izendatzearen aurka.

Arartekoaren aburuz, Udalak ez zuen ondo ulertzen planeamendua onartzeko orduan jendaurrean ikusgai jartzeko neurriaren helburua zein den, hots,

hiritarren partaidetza bultzatzea; gainera, obligazio bihurtzen zuen alegazio-idazkiak aurkezteko eskubidea. Bestalde, bide hori arau subsidiarioetan herri-jabetzapeko gisa agertzea nahikoa iruditzen zitzaion Udalari bidea bere jabetzakoa zela ebazteko, eta hor garbi dago oker ulertzen zela planeamenduaren beterazpen eta kudeaketa fasearen helburua eta, azken finean, bai hirigintza-planen filosofia bera ere.

Udalak beste argudio bat ere erabili zuen: alegia, arazo honen eraginpekoek obra-baimen bat lortzearen aurkeztutako plano batean, bide hura herribide izenaz agertzen zela. Arartekoak gogorarazi behar izan zion plano pribatua zela hura, eta horregatik ezin zitzaiola eman plano-aurkezleek lortu nahi zuten ondorioa ez beste bat; gainera, auzokide horiek geroago argitu zutenenez, plano a egin zuenari leporatu beharreko akatsa zen hura, ez beraiei leporatu beharrekoa.

Inguruko auzokide batzuen adierazpen kontrajarri batzuk eta garrantzi gutxiagoko beste datu eta jakingarri batzuk ere agertzen ziren espedientean.

Arartekoak Alkatearengana jo eta aditzera eman zion, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraituz, auzitan jarritako halako ondasun baten jabetasuna eztabaidatzen denean, erabateko froga garbi batez ziurtatu behar dela ondasun hori herri-jabetzat hartzen zela lehenagotik, eta ez dela nahikoa horren zantzuak edo ustea izatea. Horiek horrela, Igorreko Udalak bertan behera utzi beharko lituzke bidea Administrazioaren jabetzapeko jotzeko hartu zituen erabakiak, bai eta ikerketa-espediente bati ekin ere, aurrerantzean datu argigarri gehiago ager litezkeela kontuan izanda.

Azkenik, aipatu udaleko Alkateak uko egin zion gure gomendioa betetzeari, horretarako inolako arrazoibide berririk azaldu gabe.

3.5. OGASUNA

A) Sarrera

Ogasun alorrean kexa kopurua igo egin da urtez urte, eta 1994an jasotako kexa guztien artetik %12 izatera iritsi dira.

Kexagai izandako administrazioen arabera, hau da banaketa:

| | |
|--------------------------|----|
| - Foru diputazioak | 41 |
| - Udalak | 25 |

Foru-tributoen barruan, Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zerga (NUIZ) eta Ondare Eskualdaketen eta Agiri Bidezko Lege Ekintzen Zergak dira oraindik ere zergapekoen kexa gehien jasotzen dituztenak.

NUIZi dagokionez, gure erakunde hau kezkatuta dago, zeren forma edo prozedurazko arrazoiengatik, gaitasun ekonomikoari eta zergak ordaintzeko gaitasunari buruz Konstituzioak ezartzen dituen irizpideak hausten baitira. Izan ere, ez dago oker bategatik egindako zerga-ordainketa zuzentzeko aukerarik, edota, zergadunak aurreko edo ondorengoak ez diren familiartekoak etxean

dauzkanean, horiek mantentzeak dakartzkion gastuak ez dira kontuan hartzen, eta horrek garbi erakusten du zerga-sistemak akatsak dituela; horregatik, hainbat lege-aldaketa egiteko gomendatu izan du erakunde honek, eta era askotako erantzunak jaso izan ditugu.

Punturik okerrena aipatzekotan, Gipuzkoako Ogasunarena aipatu behar du, Arartekoak administrazio-sail zergabiltzaile hori ikuskatzeko daukan ahalmena zalantzan jarri ere, jarri baitzuen.

Udalen mailan, aldiz, eta behin eta berriz adierazi izan dugun arren, aurren ere aipatu behar ditugu zerga kitapenen jakinarazpenak eragindako kexak; arazo hori bereziki ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergen kasuan gertatzen da. Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/92 Legeak emandako araubide berrian dago arazo horien oinarria.

Udalen prezio publikoek eta batik bat gizarte-zerbitzuei dagozkienek ere eragin dituzte kexa batzuk; krisialdian alor horietako aurrekontuak bere hartan igo gabe uzten dira, eta aldiz, eskariek gora egiten dutenez gero, erabiltzaileak gehiago ordaindu behar izaten du.

B) Kexa aukeratuak

Erabilera publikoko lursail bat Balio Handitzearen gaineko Udal Zergaren menpe egotea (122/93)

Kexagileak, Bilboko emakume batek, etxebizitza bat eta ondoko garajea erosi zituen 1987ko abenduan egindako eskritura publiko baten bidez.

Handik urtebetera, hiri hartako Udalak hiru kitapen burutu zituen, gainbalioagatik, ustez operazio berean erosi ziren etxebizitzari, garajeari eta lursail bati zegozkienak.

Kexagileak lehen bi ordainagiriak ordaindu zituen, eta errekurtsua jarri zuen hirugarren kitapenaren aurka, oker zegoelakoan.

Hala ere, eta Udalak berak zioen bezala, salerosketa-eskrituran "Bilbon, Larrazabal auzoan dagoen lurraren hogeitabatena" sartuta zegoela ikusi zuen; honako hau adierazten zen gero: "lur horiek etorkizunean kale-plaza publikoak eraikitzeke erabiliko direnez gero, auzoko lokalen jabe direnei kalteordainak emango zaizkie jabego-kentzearen ondorioz eskuratzen den balioagatik, eta zerga berezietatik edota bestelako gastu arruntek dakartzatenengatik".

Dena dela, jabegoa kentzeko inolako espedienterik bideratuta ez zegoela eta, gauza bitxia gertatzen zen, alegia, egitez erabilera publikokoak ziren lur batzuek diru-galerak eragiten zizkietela jabeek, zergak ordaindu behar zituztelako.

Horri dagokionez, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 3. artikulua arabera:

"Erabilera publikoko ondasun dira toki-erakundearen kontura zaindu eta mantendu behar diren bide, plaza, kale, pasealeku eta parkeak, iturrietako

eta urmaeletako ura, zubiak eta hiritar orok probetxatu eta erabil ditzaketen gainontzeko obra publiko guztiak".

Kasu honetan auzitan zegoena hiritar orok erabil zezaketen ibilbide publiko bat -udal zerbitzuek zaindu eta garbitu beharrekoa- zela bistan zegoenez gero, lursail horrengatik egindako kitapena baliogabetu zezan eskatu genion Udalari, eta honek onartu eta gero, espedientea artxibatu egin zen.

Etxebizitzan eginiko inbertsioagatik zerga-kenketa bat onartu ez izana (260/93)

Kexa aurkeztu zigun hiritar batek mailegua eskatu zuen 1989an, artean ezkongai zela, eraikitzen ari ziren etxe bat erosteko.

Eraikuntza amaitu zenean, ezkondu baino hiru hilabete lehenago, kexagileak eta bere oraingo emazteak bien izenean jarri nahi izan zituzten etxearen eskriturak.

Geroago, 1991ko NUIZ aitorpenean, Bizkaiko Foru Aldundiak behin-behineko kitapen batzuk egin zituen, eta ez zituen ontzat hartu etxebizitzaren erosketagatik egindako kenketak, mailegu-agirian senarra bakarrik agertzen zelako titular bezala, nahiz eta kenketak egiteko arrazoi batzuk eman zitzaizkion, esanez maileguaren kitapena eta interesak ere senar-emazteen irabazpidezko diruaz ordaintzen zirela.

Horri dagokionez, Kode Zibilaren 1.362 artikulua haxe dio:

"Irabazizko Elkartearen kontura joango dira ondorengo arrazoi hauetako-
ren batengatik sortzen diren gastuak:

(...)

2. Ezkontide bien ondareak erosi, eduki edo erabiltzeagatik."

Erakunde honen iritziz, bestelako interpretazioa eginez gero, tributoen kobraketaren oinarri izan behar duen ahalbide ekonomikoaren irizpidea hautsi egingo litzateke.

Gauzak horrela, gomendio hau egin genuen: urte hartako zerga-aitorpe-
nean ontzat har zezaten etxebizitzaren erosketari zegokion kenketaren kopuru
osoa; azkenik, kexagileek auzibide ekonomiko-administratiboa aurkeztua zuten
arren, ontzat hartu ziren zergadun hauen arrazoiak, Foru Auzitegi Ekonomiko-
Administratiboaren erabakiari itxaron gabe. Kexa hau eragin zuen auzia hone-
la konpondutzat eman eta gero, espedientea artxibatu egin zen.

*Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik, NUIZEN dagokion zerga-
kenketa onartu ez izana (614/93)*

Donostiako hiritar batek honako kasua aurkeztu zigun bere kexa batean:
1989ko maiatzetik hasita 1992ko hil berera arte, bere jabetzako etxe batean
bizitzen egon zen; etxea erosteko mailegu bat eskatu zuenez gero, ohiko etxe-
bizitzan egindako inbertsioari zegozkion zerga-kenketak egin izan zituen NUIZ
aitorpenetan.

Geroago, 1993ko otsailean, Gipuzkoako Foru Ogasunak egin zion kita-
penean ez zizkion onartu egindako zerga-kenketak, etxebizitza hori zergadunaren

ohiko bizilekua ez zelakoan; izan ere, biztanle-eroldako datuetan hiritar hori ez zen helbide horrekin agertzen.

Kexagileak, aldiz, auzitan jarritako etxebizitzan bizi "ohi" zela erakusteko froga batzuk eman zituen.

Bestalde, Auzitegi Gorenak berak, 1991ko azaroaren 15eko epaian, bai eta beste epai batzuetan ere, behin baino gehiagotan adierazi du "ohiko etxebizitza" eta "helbide zibila" gauza bat eta bera direla, Kode Zibilaren 40. artikuluari jarraituz, eta beraz auzotasun administratibotik edo Udal Erroldako inskribapenetik apartekoak.

Gauzak horrela, kontuan hartuta udal-errola, Zerga Lege Orokorren 115. artikulua dioenez, ez zela kexagileak erabil zezakeen frogabide bakarra, Erakunde honek argitasunak eskatu zizkion Zerga Ikuskaritzari, etxebizitza hori ohikoa ez zela erabakitzeko arrazoiak zeintzuk izan ziren jakin asmoz.

Foru Ogasunaren erantzunak, xehetasun horiek argitu ordez, eta arazoaren muinean sartu gabe, zalantzan jarri zuen Ararteko honek ahalmena ba ote zeukan haren jarduna ikuskatzeko; era berean, Administrazioaren eta hiritar soilen arteko auziak konpontzeko, Administrazioarekiko Auzibiderako Epaitegiak bakarrik onartzen zituela adierazi zuen.

Ildo horretatik, Foru Aldundiaren arduradunei gogorarazpen bat egin behar izan genien: alegia, NUIZEN Arauko 105. artikulua eta Konstituzioko 117. artikulua beraren arabera, epaitegi eta auzitegiei bakarrik ematen zaien arren epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko eginkizuna, horrek ez diola Ararteko honi eragozten Eusko Legebiltzarraren 3/85 Legeak ematen dizkion ahalmenak administrazio-bidetik erabiltzea.

Gure gomendioa ontzat hartzen ez zela ikusirik, espedientea itxi eta txosten honetan sartzea erabaki genuen.

Kirol-instalazioak erabiltzeko prezio publikoak murriztea (133/94)

Kexagileak aditzera eman zuenaren arabera, Andoaingo Kirol Patronatuak ez zuen onartzen berarekin bizi diren 18 urtetik gorako seme-alabak kirol-instalazioak erabiltzeko famili-abonoaren barruan sartzea, nahiz eta seme-alaba horiek lanik ez izan edo ikasten egon, eta beraz, kirol-instalazioak erabiltzeko ordaindu beharrekoa beren gain hartzeko baliabide ekonomikorik ez eduki.

Gauzak horrela, 1994. urtean, urteko famili-abonoak 16.800 pta. balio zuen, eta famili-unitatea osatzen duten kide guztiek erabil zezaketen; aldiz, 18 urtetik gorakoentzako abono murriztuak 4.000 pezeta balio zuen. Hortaz, halako famili-unitate batean seme-alabetako bat unibertsitatean ikasten ari bada edota, besterik gabe, dirusarrerarik ez baldin badauka, urte batetik bestera diru gehiago ordaindu beharko du familia horrek, haren seme-alabetako batek 18 urte bete dituelako, nahiz eta lehenagoko ahalmen ekonomiko berbera edo, beharbada, txikiagoa eduki.

Udal ordenantzak zeharka aipatzen duen NUIZEN araudia zehatz-mehatz aztertu ondoren, honako ondorio hau atera daiteke: famili-unitatetzat hartzen

da ezkontideek eta seme-alaba adingutxikoez osatutakoa, edota aita edo ama ezkongabe batek eta bere seme-alaba adingutxikoez osatzen dutena.

Beste kontu bat da, ordea, udalbatzarrak kexagileari bidali zion erantzun idatzian esaten zenez, 30 urte baino gutxiagoko seme-alabengatik kenketak egin ahal izatea, zergadunarekin bizi eta halako dirusarrerara maila batetik gorako irabazirik ez badute.

Beste alde batetik, zerga-ordenantzaren arabera, banakako abono murriztua egin daiteke halako famili-unitate batean bizi eta dirusarrerarik ez duten 18-28 urte bitarteko pertsonentzat, baldin eta haien familian kirolegia erabilzeko abonoa badute.

Ildo horretatik, berez ez dago esaterik Udalak inolako araugabetasunik edo lege-hausterik egin zuenik; daukan ordezkari mailaren arabera hartzen dituelako une bakoitzean on deritzen erabakiak; aldiz, bai esan daiteke aukeratzeko duen ahalmena erabili duela, urtealdi bakoitzean ezartzekoak diren hobariak erabakitzerakoan.

Nolanahi ere, famili-unitate kontzeptuaren barruan hemen esandako beste pertsona horiek ere sartzeko gomendioa egin genion Andoingo Udalari.

Ikasketa-gastuengatik zerga-kenketarik onartu ez izana (227/94)

Astigarragan (Gipuzkoa) bizi den gizon batek honako kasua azaldu zigun: bere seme bat basogintza arloa irakasten den Lanbide Heziketa Eskola baka-rean ikasten ari zen Arabako Murgia herrian.

Bi herri horien arteko joan-etorria egunero egitea nekagarria eta garestia izango zela ikusita, pisu bat hartu zuen alogeran Gasteizen beste hiru ikaslerekin batera, hileroko 60.000 pezetako errenta ordainduz.

Gastu horretaz gainera, beste 30.000 pezeta xahutu behar zituzten ikasurte bakoitzean, Gasteiz eta Murgia arteko bidaia egiten duen autobusa ordaintzeko.

Horri dagokionez, Gipuzkoa Lurralde Historikoaren NUI Zerako Foru Arauaren 78.3.d artikulua arabera, 20.000 pezetako kenketa egin daiteke unibertsitateko goi edo erdi mailako ikasketak egiteagatik familiaren bizilekutik kanpo bizi den seme-alaba bakoitzeko.

Artikulu horrek berez "unibertsitateko" ikasketak aipatzen dituenez gero, kasu honetan familia horrek ez zeukan zerga-kenketarik egiteko eskubiderik, nahiz eta arrazoi horrengatik gastu nabarmenak egin behar izan hileroko-hileroko.

Gai horri dagokionez, esate baterako, Arabako Foru Arauak zerga-kenketa hori kasu gehiagotara zabaltzen du, eskubide hori hezkuntza sistemaren planetan sartuta dauden ikasketak egiten ari direnei ere aitortzen baitie, ikasurte osorako matrikula egiteko baldintzarekin.

Erakunde honen ustez, beste arauketa horrek hobeto errespetatzen du tributo-kobraketa oinarri izan behar duen kontribuzio-ahalmenaren irizpidea, are gehiago NUIZ bezalako zerga pertsonala izanik.

Arrazoibide hauei jarraituz, Arartekoari bidezkoa iruditu zitzaion honako gomendio hau egitea: alegia, hurrengo urtealdietan, zerga-kenketa egiteko

aukera zabaltzea esandako moduan, gure ustez objetibotasun handiagoz arituko delako Zerga Ikuskaritza, zergadunen eskubideen aldeko lanean.

Elbarritasunagatik Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga ordaindu beharretik libre uztea onartu ez izana (292/94)

Kasu honetako kexagilea, Elorrion bizi den gizona, elbarria da (ezker hanka moztua dauka), eta horregatik Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga ordaindu beharretik libre geratzea eskatu zuen.

Esandako udalerrri horretan zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalaren arabera, honako salbuespenok finkatzen dira:

"Elbarrien ibilgailuak edo gidatzeko baimena duten elbarrien jabetzako ibilgailu bereziki moldatuak, beraiek bakarrik erabiltzekoak direnak."

Kexagileak zergarik eza eskatzeko azaltzen zuen arrazoia zen bere jabetzako ibilgailuak martxa-kaxa automatikoa duela, inolako aldaketarik egin gabe haren elbarritasunerako ondo moldatua, beraz.

Hala ere, Udalak zergarik eza ez onartzea erabaki zuen, esanez auzi honetako ibilgailua ez dagoela "bereziki moldatua", martxa-kaxa automatikoa-rekin ateratzen delako fabrikatik bertatik.

Gauzak horrela, erakunde honek Udal horretara jo zuenean, zalantzan jarri zuen ibilgailuen moldaketa berezi hori fabrikatik irten eta gero eginga izan beharra; horretaz gainera, galdetu zuen ea nahikoa arrazoi ote zen hura, ibilgailuaren jabea zerga-tratamendu horretatik kanpo uzteko.

Bere erantzunean, Elorrioko Udalak zioen bere ustez legegileak ez ziela elbarri guztiei eman nahi zerga hori ordaintzetik libre geratzeko eskubidea, eta horixe gertatuko zela kasu honetan, jasotako eskaria onartuz gero.

Dena dela, baieztapen hori ez da zuzena; izan ere, kexagile honen kasuan, zerga ordaintzetik libre geratzearen oinarria ibilgailuaren ezaugarri berezietan datza, eta ez haren elbarritasunean. Gauzak horrela, era horretako ibilgailuak sailean egingo ez balira, eskatzailea moldaketa berezi hori egitera behartuta egongo litzateke.

Nolanahi ere, Udalak ez zuen ontzat eman zergarik eza onartzeko egin genion gomendioa, eta horregatik espediente itxi eta txosten honetan sartzea erabaki genuen.

NUIZ aitortenak besteren bidez aurkeztea (296/94)

Gipuzkoako zergadun batzuek, edo, zehazkiago esanda, administrazio-kudeatzaile batzuek idatzizko kexa bat bidali zuten erakunde honetara, 1993ko NUIZ aitortpena ezin izan zutelako egin besteren bidez; izan ere, zerga-bulegoetako langileek ez zieten horrelako aitortpenik onartu, Ogasun Zuzendaritzaren aginduak betetzen ari zirela esanez.

Zerga Lege Orokorraren 43.1. artikulua arabera:

"Jarduteko gaitasuna daukan zergadunak ordezkari baten bitartez egin ahal izango ditu bere betebeharrekoak, eta aurrerantzean Administrazioak

ordezkari horrekin jardun beharko du, kontrako adierazpenik jasotzen ez duen bitartean".

Horixe bera aurkitzen dugu Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako abenduaren 26ko 30/92 Legearen 32. artikuluan, zergalaritzan ordezeko bezala erabil daitekeen legea izanik hau; artikulua horrek dioenez:

"Jarduteko gaitasuna daukan edozein pertsonak jardun ahal izango du herri-administrazioen aurrean beste baten ordezkari".

Gipuzkoako Ogasun Zuzendaritza Nagusiari argitasunak eskatu ondoren, haren arduradunaren idazki baten bidez ukatu egin zen honelako arazorik zegoenik, esanez inprimaketan beretan jasota zegoela aitortpenak zergadunaz beste pertsona batek ere aurkez zitezkeela.

Aldiz, beste kontu bat zen, haiek ziotenez, telefonoz akordatutako zita bakoitzean gehienez ere hiru aitortpen bakarrik aurkez zitezkeela, aitortpena egin nahi zuten gainontzeko pertsonak denbora luzeegia itxaroten eman ez zezaten.

Nolanahi ere, Donostiako eta Errenteriako gestoria batzuek eduki zituzten arazo bakanei konponbide egokia eman zitzaizkien; horrela, esandako mugarekin, besteren bitartez aurkeztutako aitortpenak kasu guztietan onartu ziren.

NUIZen egindako tributazio-aukera aldatu ezina (439/94)

Kexagileak eta bere emazteak, zarauztarrak, 1993ko NUIZ aitortpen-autokitapena haien koinata baten bidez aurkeztu zuten, baina azken honek oker bat egin zuen, "x" batez markatu zuelako banakako aitortpen aukera, onuragarriagoa zelarik bikoteka egiten dena. Oker horren ondorioz, Ogasun bulegoko funtzionariak burutu zuen behin-behineko kitapenaren emaitza 6.000 pezeta ordaindu beharra izan zen, eta ez 100.000 pezeta jaso beharra, bikoteka egin izan balitz gertatuko zen bezala.

Funtzionariari horren berri eman eta aurkeztutako aitortpena zuzentzeko asmoa adierazi zionean, hark esan zuen ezinezkoa zela ordenagailuan sartutako datuak aldatzea, eta aitortzeak errekurtsoa ezartzeko aukera zeukatzen arren, seguru aski kontrako ebazpena jasoko zutela, NUIZi buruzko 13/1991 Foru Arauaren 88. artikulua dioenaren arabera. Hona hemen zer dioen artikulua horrek:

"Halako zerga-urtealdi baterako egindako lehen aukera ezingo da geroago aldatu".

Beste alde batetik, gaur egun indarrean dagoen Itun Ekonomikoaren arabera, puntu hau Estatuaren Legeak arautu beharrekoa izanik, Gipuzkoako Foru Ogasunak ez zuen ontzat hartu egindako kitapena berez aldatzeko ahalbidea.

Arartekoak oso kezkarri irizten die era honetako kasuei, Konstituzioak finkatzen duen kontribuzio-ahalmenaren irizpidea hausten dutelako; izan ere, formazko huts batengatik, arazo honek eragindako pertsonak beren dirusarreen arabera berez zegoekiena baino gehiago ordaindu behar dute.

Ildo horretatik, arazo hau Ministeritza eskudunaren aurrean azaltzeko aukera aztertzen ari gara Estatuko Defensor del Pueblorekin batera.

3.6. HERRIZAINGOA

A) Sarrera

Ararteko Erakundeak, Herrizaingo alor honetan, Elkarte Autonomoko Administrazio Orokorraren eta udal Administrazioaren jardueraren kontrako hirurogeita bat (61) kexa bideratu ditu 1994. urtean. Horietatik berrogeita bederatz (49) zirkulazioko zigorrak ipintzeko bideei dagozkie, eta horietatik hamazortzi (18) Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzako sail eskudunek ireki eta ebatzitako espedienteei buruzkoak -bi kexatan Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Zuzendaritzak eta Gasteizko Udalak burututako jarduerak batera aztertu dira-; gainerako hogeita hamaika (31) kexetan, udalek erabilitako bideak izan dira aztergai. Gainontzeko hamabietatik (12) lauk (4) ertzainen ekintzak dituzte oinarri eta bik (2) udaltzainen ekintzak; hiruk (3) udal-errolden jardun-moduarekin dute zerikusia; bat (1) Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzan bideratzen diren zigor-prozeduretako inprimakietan erabilitako euskararen kalitateari dagokio; bat (1) aipatu Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzaren jarduera bati, prestakuntza-ikastaro batean parte hartu nahi dutenak hautatzeko moduaren kontra eta, azkenik, bat (1) arrazarengatik egindako bereizketari dagokio, eta kasu horretan nahastuta zeuden udal bateko zerbitzuak.

Aurreko urtealdietan bezala, eta emandako datuen arabera, aztertu ditugun kexetatik kopururik handiena zirkulazio gaietarako dagoen zigor-jaurbide juridikoaren ezarpenari dagokio %80,50 hain zuzen. Aurkeztu eta aztertu diren berrogeita bederatz (49) horietatik hogeita hiru (23) (azpisail honi dagozkionetatik %47, eta aurkeztu diren guztiak hartuta %37,70), prozeduretan hartutako administrazio-erabakiak jakinaraztean hutsegiteak egon direlako egin dira. Hogeita hiru (23) horietatik hamalau (14) udal Administrazioari dagozkio eta bederatz (9), berriz, Elkarte Autonomoko Administrazio Orokorrari.

Halako "errefusapen" batzuei jakinarazpen balioa ematea, eta batez ere ohiko jakinarazpen bideak agortu gabe ediktu bidezko jakinarazpenak egitea salatzeko moduko kontua da. Aztertu diren espediente guztietan araugabetasunak aurkitu ez badira ere, esan dezakegu salatzen den jardunbide oker hori hiritarren lege-segurtasuna kolokan jartzen duen elementu bat izatera iritsi dela Administrazioaren jardueraren alor honetan; gainera, ekintza horiek ugari direla esan behar da, nahiz eta ez diren neurri berean gertatzen ikertu diren administrazio guztietan. Arazoa larriagoa da udal Administrazioan Herrizaingo Sailean baino, sail horren jardueran ia ez baitugu araugabetasunik aurkitu. Erakunde hau kezkatuta dago kolokan jartzen delako Espainiako Konstituzioko

eskubide bat, hain zuzen 24.1. artikuluan aitortzen dena, lehenago aipaturiko jokabideek eskubide hori urra baitezakete.

Ararteko honen ustez, jakinarazpen kontuetan bi arrazoi hauengatik gertatzen dira arauzkontrako jarduerak: alde batetik, araudia bera, eta bestetik, egitura mailako gai bat.

Araudiari dagokionez, arazoa Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 59.4. artikuluaen edukitik dator; izan ere, Administrazioaren "praxian" aurkitutako zenbait eragozpen gainditu nahirik, administrazio sail baten ekintzak norberari "jakinarazterik egon ez denean" ediktu bidez jakinarazteko aukera eman du legegileak. Aldiz, udal-administrazio batzuek azaldu duten jokaera ikusita, gure ustez norberari jakinarazteko ahalegin bat edo gehiago egin eta lortu ez izana ez da nahikoa arrazoi, beste tramite eta ikerketarik egin gabe, jakinarazpena ediktu bidez egiteko. Arauak interpretatzeko moduan dago kokka, eta agintaritza judizialeko sailek gai horri buruz duten iritzia eman ahala gaindituko dira sortzen diren arazoak. Arartekoak txosten honetan bertan gai honi buruz egiten duen gomendio orokorra arretaz aztertuz ondorio zehatzagoak atera ahal izango dira.

Bigarren arazoia, egitura mailakotzat jo duguna, gai horretan Administrazioak zigorrak ezartzeko dauzkan zerbitzuetan behar bezain baliabide egokirik ez egotea da. Gabezia horren barruan, jakinarazpenak egiteko ardura daukatenen eginkortasuna sar dezakegu.

Herritarren eskubideak babestearren (baliteke eskubide horiek hemen salatu ditugun arauzkanpoko jokaeren eraginez urratuak izatea), Arartekoak hauxe gomendatzen die dagokien administrazio guztiei: aipatutako zerbitzuei behar dituzten bitartekoak eta baliabideak emateko ahaleginak egin ditzatela, egoera hori konpondu ahal izateko.

Esanak esan, erakunde hau arazo horretaz kezkatua egon arren, hasieran behintzat ez litzateke egokia izango, ez bidezkoa ere, eragindako administrazio-sailek utzikieriaz jokatu dutela esatea, kontuan izanik arazoa, besteak beste, arrazoi honengatik sortu dela: duela denbora gutxi onartutako arau bat interpretzeko moduagatik, alegia. Hori esatean adierazi nahi dugu araugabetasunak aurkitu arren, eta horiek gero eta sarriago gertatzen direla egiaztatu badugu ere, zigorrak eta behartze-bidez gauzatzen ari ziren prozedurak indarrrik gabe uzteko hainbat administraziori egin dizkiogun ia gomendio guztiak onartu direla, eta ondorioz, urratu ziren herritarren eskubideak bere onera ekarri direla.

Beste gai bat ere aipatu nahi dugu sarrera hau amaitzeko. Batzuetan, trafiko alorreko zigorbideak ikertzerakoan, behartze-bidezko ordainarazpena bideratzen duten sail eskudunen jarduera ikuskatzen da maila batean; ordainarazpen horien arduradun Lurralde Autonomoko Administrazio Orokorra eta foru- edo udal-Administrazioa izan daitezke. Gai honetan eskudun diren sailen jarduera ere, aipatu administrazio-alorrarekin funtsezko erlaziorik ez daukan arren, aztergai eta balioztagai bilakatzen da, jardun-modu horretan

araugabetasunak aurki daitezkeelako. Araugabetasunak zigorbidean kontrolik ez ezartzeagatik gerta daitezke kasu zehatz batzuetan. Era berean, behartze-bidezko prozeduretan egindako jakinarazpenetan, lehen aipaturiko akats berberak aurkitu ditugu. Hori horrela izanik, gaia larriagoa da, hiritar baten ondarea kaltetuta gerta baitaiteke funtsezkoak eta formalak diren gutxienezko bermeak errespetatzen ez direlako. Gure ustez, hutsegite horiek eragiten dituzten arrazoiak lehenago azaldutako berberak dira eta, beraz, konponbideak ere haren antzekoa izan behako du.

Jarraian, kexa batzuk aipatuko ditugu, beren eduki bereziagatik txosten honetan jasotzeko modukoak direnak.

B) Kexa aukeratuak

Behar bezalako jakinarazpenik eza bidezaingo alorreko zigorbidean (771/92)

Bidezaingo, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunaren araudia ustez hautsi zuelako zigor-espeditentea ireki ziotela eta, Bilboko hiritar batek erakunde honetara jo zuen. Esku hartu zuen agenteak egindako salapenari jazartzen hastea zen kexagaia.

Denbora aurrera zihoala, jazarleak egindako aldezen-pleguari zegokion erantzun zuzenik jaso ez zuenez gero, udal-administrazioak zigor-espeditentea artxibatu egin zuela uste zuen. Alabaina, handik hamaika hilabete barru, premiabidezko aginduen jakinarazpena jaso zuen udal-espeditentearen ondorioz jarritako diru-zigorra ez ordaintzeagatik.

Erakunde honek zigor-espeditentearen biderapenari buruzko argibideak eskatu zizkion Bilboko Udalari, batez ere jakinarazpen-moduari zegozkionak. Biderapen-pauso guziak epe barruan jakinarazi zituela aditzera eman zuen udal-administrazioak bere burua zurtzeko; zigorrari zegokionez, jakinarazpena posta-bidez egiten saiatu ziren, eta hartzailea une horretan etxean ez egoteagatik bide hori alperrikakoa gertatuenez gero, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bidez egin zen jakinarazpena.

Gertatutakoaren argitan kasua aztertu ondoren, erakunde honek gomendioa luzatu zion Bilboko Alkateari, zigor-jakinarazpenak eman nahi eta eman behar dituen funtsezko bermeak behar bezala eskaini ez zirelako, zigor-espeditentea artxiba zezan eskatuz; hori guztia, administrazio-jardunbidean gaur egun indarrean dagoen araudiari jarraiki egin zen.

Horrela, gomendioan genioen bezalaxe, "Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan adierazten den ezinak (jakinarazi ezina) benetako ezina behar du izan, jakinarazpena hartzaileari helarazteko ahaleginak etengabe eta arduraz egin izanak zurituko duena."

Orobat, hauxe zioen Arartekoaren gomendioak: "honelako zigorbidekasuetan, Administrazioak ezinbestean oreka gorde behar du zigor-espeditentea

irekiz babestu nahi den onura juridikoaren eta lege-segurtasunaren irizpidearen artean. Horregatik, ezin daiteke nahikoatzat jo jakinarazpen-ahalegin bakarra, batipat jendea normalean etxean ez dagoen orduetan egiten bada; eta aldizkari ofizialaren bidezko jakinarazpena, ohiko bidez baliatuz hartzai-leari ezin jakinarazi izan zaiola behar bezala frogatzen den kasuetan bakarrik erabil daiteke."

Azkenik, Udalak onartu egin zuen Arartekoak bidalitako gomendioa eta kexadunaren aurka irekitako zigor-espeditentea ixteari ekin zion; hortaz, hari horren berri eman ostean, bukatutzat eman zen Arartekoaren jarduera kasu honetan.

Ustezko lege-hausteak ikertzeko Ertzaintzak egiten dituen jardueretan datu batzuk isilean gordetzea (66/93)

Gipuzkoako emakume batek kexa-idazkia aurkeztu zion erakunde honi, ustez legea urratzeagatik bere semea atxilotu zutelako. Halaxe gertatu zen bai, Ertzaintzak bere semea atxilotu zuen ustez lege-hauste batean nahastua zegoelako; horren ondorioz, alde batetik epaileari atxiloketa eta atxiloketa-arrazoia- ren berri eman zitzaion, eta bestetik, Ertzaintzak ohi bezala prentsa-ohar bat bidali zien komunikabideei, bere lanari buruzko argibideak emateko.

Egoera aztertu ondoren, ustezko lege-urratzea argitzean Ertzaintzak izan zuen jokaera guztiz legezkoa zela ikusi ahal izan genuen. Hala ere, gertakari hori zela eta Herrizaingo Sailak bidali zuen prentsa-oharrean ustezko errudunen izena eta bere abizenen lehen hizkiak aipatzen zirela konturatu ginen.

Ustezko errudunak aipatzeko modu horrekin batera, haiek identifikatzeko lagungarri ziren beste argibide batzuk ere ematen ziren, esate baterako adina edo zein herritan bizi ziren, eta horren ondorioz, halako kasuetan osotara identifikatzen ziren pertsona atxilotuak; gure ustez, jardunbide horrek pertsona atxilotuen intimitate-eskubidea urratzen zuen, are gehiago kontuan hartzen badugu oraindik ez dela hasi ere egin haien kontrako zigor-prozedurarik.

Horregatik, Ararteko honek gomendioa luzatu zion Herrizaingo Sailari, hauxe eskatuz: alde batetik, ustez legea hausteagatik norbait atxilotzen zutenean, bai izenaren, bai abizenen lehen hizkiak bakarrik azal zitezten prentsa-oharretan; eta bestetik, zenbait datu ematea eragotzi zedin, hala nola adina edo biziterria -batik bat herri txikiak izatean-, inguruko pertsonak atxilotua erraz identifika ez zezaten.

Herrizaingo Sailak onartu egin zuen gomendioa eta aurrerantzean Arartekoaren aholkuak betetzeko agindua eman zien prentsa-oharrak bidaltzeaz arduratzen diren ertzainburuei.

Jakinarazpenik eza bidezaingo alorreko udal-zigorbidetan (13/94)

Bilboko emakume batek kexa aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, Zirkulazio Araudiaren 146.1. artikulua ustez urratzeagatik, bertako Udalak bere kontra zigor-espeditentea ireki zuelako.

Kexadunaren esanetan, zigor-jakinazpena jaso zuen, egindako salapenaren berri aurrez ezertxo ere ez zekiela; horren ondorioz, ez zeukan lege-haustearen arrastorik, ez eta bere garaian eskura zeuzkan babes-bideenik ere.

Bilboko Udalari argibideak eskatu ondoren, ustezko lege-urratzea zehatz-mehatz nola gertatu zen azaltzen zuten agiriak jaso genituen, bai eta salapen-jakinazpenari buruzkoak ere. Udalak zioenéz, ez zuten jakinarazpena bere garaian egiterik izan, hartzailea kanpoan zegoelako, eta, hortaz, lurralde historikoko aldizkari ofizialean egin zuten jakinarazpena.

Informazio horri begira, eta espediente honen antzeko beste batzuk jasoa genituela kontuan hartuz, Arartekoak bidezaingo alorreko zigor-prozeduratan bete behar diren eginbeharrak gogorazi zizkion Bilboko Udalari, batez ere salapen eta zigorre dagozkienak. Horrela, gogora ekarri zion indarrean dagoen legedian berariaz iragarritako kasuetan bakarrik jakinaraz daitezkeela egintza horiek aldizkari ofizialaren bidez; orobat adierazi zion ezin zela gizarte-errealitateari egokitutako bidetzat jo honako hau: hartzailea etxean ez zegoelako lehen jakinarazpena (ez dago horren egiaztagiririk) ezin egin ahal izan zenean, aldizkari ofizialaz baliatzea.

Horregatik guztiagatik, jakinarazpenak egiteko moduan araugabetasunak antzeman zirenez gero, zigorra bertan behera uztea gomendatu zitzaion, bai eta aipatu zigor-espedienteagatik kexadunak ordaindu zituen diru-kopuruak atzera hari itzultzea ere.

Bilboko Udalak gomendioa ontzat eman zuela adierazi eta gero, eta kexadunari zor zitzaizkion diru-kopuruak itzuli zitzaizkiola egiaztatu ondoren, bideratutako kexa-espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

Atzerritarrak udalaren biztanle-eroldan sartzea (137/94)

Bizkaiko Galdakaon bizi ziren atzerritar batzuek kexa-idazkia aurkeztu zioten Arartekoari udalerrri horretan hartu zen neurri batengatik, hain zuzen, udal-eroldan baja eman zitelako.

Biztanle-eroldan baja emateak kalte nabarmen eta larriak dakarzkie atzerritarrei, funtsezko eskubideetan (osasun-txartela, gizarte-laguntzak edo ondasun higiezinak izateko eskubidea) eragina dutenak. Hori dela eta, Arartekoak arazo ilun honi buruzko txosten zabal bat egin zuen, udal-errolde dagokienez, gure elkarte autonomoan bizi diren atzerritarrak zein egoeratan dauden argitzearren, bai udal-erroldean jarraibide bateratu eta erabatekoa sustatzeko ere. Txosten hori Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egin zion 1993 urtealdiari buruzko txostenean sartu zen, gomendio orokorren atalean.

Aztergai genuen kasuan, udal-bajaren eraginpean zeuden pertsonetako batzuek babes politikoa eskatzén zuten, eta beste batzuek, berriz, errefuxiatu maila onartzen ez zitelako eta, ukapen horren kontra aurkeztu zuten epaile-errekurtsoa noiz ebatziko zain zeuden. Beraz, legez Espainiako Estatuan bizi ziren guztiak.

Goian aipatu dugun txostenean azaldutako irizpideen arabera, eta txosten hori hartzen dugu hemen oinarri, kexadunari biztanle-eroldan alta eman ziezaien eskatu zion Arartekoak Galdakaoko Alkateari, eta Alkateak berehala

egin zuen eskatutakoa. Horrela, Erakundeari aurkeztu zioten kexan aurkezturiko arazoa konpondu zenez gero, espedientea itxi eta artxibatu zen.

3.7. JUSTIZIA

A) Sarrera

Justizia alorrean 46 kexa jaso ditugu, honela banatuta:

| | |
|---|----|
| - Eusko Kauriaritzako Zuzentza Saila..... | 37 |
| - Zuzentza Administrazioa..... | 9 |

Gogoratu behar da Arartekoak justizia alorrean egiten duen lana epailaritzaskatasunaren irizpideak baldintzatua dagoela eta, horregatik, debekatuta daukala epaile-erabakien funtsa sakonki aztertzea; auzitegiak Administrazioaren tresna dira, eta Arartekoak ikuspegi horretatik bakarrik ikuska ditzake.

Bestalde, atal honetan zentzu zabalean justiziarekin loturiko gaiak sartzen ditugu. Horrela, Abokatu Bazkundeen jardueraren inguruko kexak aipatu behar dira bereziki, bazkunde horietako abokatuen kontra aurkeztuak, hain zuzen. Orobat, Herri Salataritzaren kontrako salapenak ere badaude, elbarritasun kasuetan prozedura judizial zibila (ezintasun kasuetan) edo penala irekitzeko egokitasuna azter dezan eskatzen dutenak.

B) Kexa aukeratuak

Epaitegi batean utzitako fiantza galtzea (129/94)

Kexagileari eta beste hiru pertsonari triskantza delituak behin eta berriz egitea leporatu zieten 1982an eta, Bergarako epaitegi batek ezarritako 100.000 pezetako fiantza utzi eta gero, behin-behineko askatasuna lortu zuten.

Geroago, 1993ko martxoan, kargu guztietatik libre geratu zen, eta epaileak fiantza itzul zekion agindu zuen.

Orduan, kexagileak idazki bat bidali zuen fiantza itzultzeko eskatuz, epaile-erabakiaren kopiarekin eta fiantza epaitegian utzi zuela egiaztatzen zuen agiriarekin batera, baina epaitegian erantzun zioten horren aztarnarik ez zegoela.

Donostiako Probintzi Auzitegiko Fiskalburuari informazioa eskatu ondoren, honek zigor-prozedura hasteko agindua eman zuen, herri-diruak ustez bidegabeki erabili zirelako; horrekin batera, gertakariak jazo ziren egunetan epaitegi hartan arduradun zeuden pertsoneri deklarazioa hartzeko ere eskatu zuen.

Hala ere, ezin izan zen zehaztu nor zen gertakarien arduraduna, epailea eta idazkari titularra hilda zeudelako eta egun haietan lanean ari ziren funtzionarioek ezin izan zutelako inolako argibiderik eman.

Gauzak horrela, eta delitu hura, 1982ko azaroaren 27az geroko egun batean gertatua, preskribatuta zegoenez gero, fiskalak ekintza guztiak bertan behera uzteko eta espedientea artxibatzeke eskatu zuen.

Ondorioz, zigorra jasotzeko erantzukizuna noren gain zegoen ez jakin arren, egiaztatua geratu zen kaltea eragin ziotela kexagileari, justizi Administrazioaren jardura okerraren erruz; hortaz, aditzera eman genion bidezkoa zela kalteordaina eskatzea Ministeritzari, eta erakunde honek sumarioaren biderapena bultzatu zuen.

3.8. INGURUGIROA

A) Sarrera

Alor honetan 53 kexa jaso dira 1994an, jasotako guztien %9,4a; zein administrazioari dagokion, honela banatzen dira:

| | |
|--------------------------|----|
| - Udalak..... | 46 |
| - Eusko Jaurlaritza..... | 5 |
| - Diputazioak..... | 2 |

Edukiaren aldetik, ordea, talde hauetan bil ditzakegu:

| | |
|---|----|
| - Sailkaturiko hiri-ekintzak..... | 46 |
| - Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk..... | 7 |

Sailkaturiko hiri-ekintzak azpisaillean jasotakoei dagokienez, era horretako jarduerak eragiten dituzten zarata, ke eta usainek sortutako gogaipenak salatzen dituzten kexa batzuk dauzkagu urtealdi honetan ere. Salaketak, jardura horien ondoan bizi diren herritarrek egin dituzte.

Batez ere ostalaritzako lokalek eragiten dituzte gogaipenak, alegia, pub, taberna, dantzaleku eta antzekoek, baina gero eta ugariagoak dira normalean etxebizitzetan kokatzen diren tailerrek, musika edo heziketa akademiek, supermerkatuek, etabarrek eragindako gogaitaldien aurkako salaketak.

Bestalde, 1992. urteko txostenean, auto-gordeleku edo garajeek eragindako gogaipenen kontrako salaketak gero eta gehiago zirela ikusi genuen.

Kexa-arrazoi nagusia garajeetan ibilgailuei sarrera-ateak igotzeko motorek ateratzen duten zarata izaten da.

Kasu gehienetan, arazo hori konpontzeko nahikoa litzateke ateak igotzeko motorrak aldatzea edo atea jarduerarako baimenean ezarritako neurri zuzentzaileen arabera jartzea; gainera, garaje horiek kolektiboak direnez gero, neurri horiek hartzea ez da oso garestia izaten garaje-postuen jabeentzat. Halere, garaje-postuen jabeak ados jartzen ez direlako edo arazoaren berri ez dakitelako, kasu horien konponbidea gehiegi atzeratzen da.

Azkenik, ingurugiroarekiko arazoak modu zabalean hartuta, aurreko urtealdietan bezala, zaratek sortutako kutsadura, hauts jaurtiketak, e.a. dauzkagu,

batez ere harrobiek eraginak, eta isurketa eta hondakin pozointsuen ondorioz sorturiko arazoak ere badira, azken horiek industria jakin batzuek eraginak.

B) Kexa aukeratuak

Jarduera-baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea (577/92)

Debako emakume batek, bere etxabeen zegoen taberna baten jardunak sortzen zituen zarategatik, etxean gogaipenak jasan behar izaten zituela salatu zuen idazki baten bidez.

Debako Udalak bidalitako dokumentuak aztertu ondoren ikusi genuenez, Udalak soinugabetze-proiektu berria aurkez zezan eskatu zion taberna-jabeari, izan ere, tabernan egin zituzten zarata-neurketetan egiaztatu zen soinuetatik babesteko sistema ez zitzaiola arauz ezarritako zarata-mailari egokitzen.

Taberna-jabeak proiektu hori aurkeztu ez zuenez gero, Debako Udalak musika-ekipoa kentzeko eskatu zion.

Halaz guztiz, kexadunak zioen zarategatiko gogaitaldiak ez zirela eten, eta bere etxebizitzatik garbi asko entzuten zirela tabernako bezeroen elkarriketak nahiz telebista-zarata.

Horrekin batera, lokal horren kanpoko ateak etxe-atarira jotzen zuela eta, normala denez, atarian ez zegoela zarategatik babesteko sistemarik egiaztatu genuen; beraz, kexadunaren etxean zaratak arrazoi horregatixe entzungo zirelakoan geunden.

Hori zela eta, kexadunak tabernaren atea eskuarki irekita egoten zela salatu zuen.

Gai honi dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro Sailak jakinarazi zigun foru-erakunde horretako teknikariek egin zuten ikusketan hauxe egiaztatu ahal izan zutela: tabernako aireztatze-sistema ez zettorrela bat bere garaian, jarduera-baimena eskatzean, jabeak aurkeztu zuen proiektuarekin, eta proiektu horretan oinarrituz kalifikatu zutela jarduera.

Era berean, Sailak adierazi zigun jarritako aireztatze-sistemak kanpoalderako bidea izan behar zuela, eta hori atea irekiz bakarrik egin zitekeen.

Horrelako jardueretan, taberna-ateak itxita edukitzea derrigor bete beharreko baldintza da, zaratak inguruan entzun ez daitezen.

Beraz, kexadunak etxean jasaten zituen gogaipenak lokaleko aireztatze-sistemak eragiten zituela ondorioztatu genuen, tabernak atea irekita jardun behar zuelako, aireztatzea lortzeko beharrezko baitzen kanpoaldera bidea izatea.

Horregatik, Arartekoak Debako Udalari gomendioa egin zion, hark jarduera-baimenean ezarritako baldintzak lokalari egokitzeko eska ziezaion taberna-jabeari, alegia, jarduera-espeditatea bideratzeko aurkeztu zuen proiektu teknikoan agertzen zen aireztatze-sistema jartzeko.

Debako Udalak ez zuen onartu egindako gomendioa eta, hortaz, Ararteko honek, esku hartzeko zituen aukera guztiak agortu zituelakoan, espeditatea itxi eta artxibatu zuen.

Herri-bidean antolatzeak ziren rock kontzertuak (473/93)

Donostiako herritar batek erakunde honetara bidali zuen kexa-idazkian salatzen zuenez, Errege Katolikoak aldeko ostalariek rock kontzertuak antolatzeko asmoa zuten bezeroak erakartzearen.

Horrela, kexadunak zioen jadanik nahikoa gogaipen jasaten zituztela alde horretako taberna, pub, e.a.-en jardunak sorturiko zarataren ondorioz, eta ez zeudela dezibelio gehiago pairatzeko prest taberna-jabeek antolatu nahi zituzten zuzeneko kontzertu horiengatik.

Donostiako Udalari argibideak eskatu ondoren, hauxe egiaztatu ahal izan genuen: Errege Katolikoak kalean festetan bakarrik uzten zutela musika-saioak egiten, eta horretarako Udalak beharrezko neurriak hartzen zituela auzokideei gogaitaldirik ez eragiteko, batipat kontzertuak bukatzeko ordua mugatuz.

Halaz guztiz, Ararteko honek gomendio bat luzatu zion Donostiako Udalari, alde hartako auzokideen salapenak kontuan hartuz, festetan bakarrik eman ezan horrelako saioak egiteko baimena, hain zuzen Aste Nagusian, egun horietan ere kontzertuen bukaera-ordua mugatuz.

Udal horrek erantzun zigun ez zuela Errege Katolikoak aldean inolako emanaldirik antolatuko, ez ihauterietan, ez Aste Nagusi edo urteko beste egun jakin batzuetan ere, bertako auzokideei gogaipenak eragoztearren.

Hortaz, kexa sorrarazi zuen arazoa konpondu zelakoan, kexadunari Donostiako Udalak onartutako erabakiaren berri eman genion eta espedientea itxi eta artxibatzeari ekin.

Ibilgailuak konpontzeko tailerrak legez kanpo jardutea (577/93)

Erakunde honetan Ondarroako auzokide talde baten kexa-idazkia jaso genuen; bertan salatzen zutenez, beren etxabeetan ibilgailuak konpontzeko tailer bat zegoen, eta urteak zeramatzaten haren jardunak eragindako zarata, usain, eta abarreatik gogaipenak jasaten. Halaber, arazoa Ondarroako Udalari behin baino gehiagotan salatu zitela zioten, eta ordurarte ez zutela gogoia betetzeko moduko erantzunik jaso.

Udalak jardueraren espedientearen kopia bat bidali zigun, eta horren bidez tailerrak ez zeukala arauzko udal-baimenik egiaztatu ahal izan genuen, berorren jabe berriak jabetza aldatzeko egin zuen eskaria artean onartu gabe zegoelako.

Gai honi dagokionez, hauxe da Epaitegi Gorenaren iritzia: jarduera-toki baten jabea aldatzeak, irekitzeko baimena berriz eskatu beharra dakar berekin, izan ere, jabetza aldatzeko eskaria egiten denean, Udalak ezinbestean egiaztatu behar du ea egin nahi den jabe-aldaketaren ondorioz jarduera berberari ekingo zaion lokalean ala aurrez baimendutakoaz bestelako bati, eta aldi berean, jarduera horrek neurri zuzentzaile egokiak betetzen dituen egiaztatu behar du; hori egin ostean, baimena eman ala ukatu egingo du (1983ko otsailaren 23ko Epaitegi Gorenaren Epaia (EGE), Ar. 938; 1980ko azaroaren 7ko EGE, Ar. 4.402).

Bestalde, beste gauza bat ere egiaztatu ahal izan genuen, alegia, lokal horiek barne hartzen zituen eraikina antolaketaz kanpo zegoela 1985eko

irailaren 6an behin-betiko onartu zen Ondarroako Hiri Antolaketaren Egitasmo Nagusiaren Xehetasun-Aldaketan, eta etxebizitzetarako hirilur gisa kalifikatua zegoela (1991ko martxoaren 27an hasierako onarpena eman zitzaizen Ordezko Arauen Zabalpena). Kalifikazio horretan ez zen mekanika-tailer edo xaflategi erabilerarako baimenik ematen.

Beraz, jarduera ez zen legezkoa hirigintz ikuspuntutik begiratuta eta, nolahi ere, arrazoi horrengatik ezin zen legezkotu Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren arabera.

Are larriagoa zen arazoa kontuan hartzen badugu tailerrak ez zituela betetzen egoki jarduteko beharrezko ziren neurri zuzentzaileak, udal-teknikariek egin zituzten ikusketetan egiaztatua ahal izan zutenez.

Horrengatik guztiagatik, Ararteko honek gomendioa egin zion Ondarroako Udalari, indarrean zegoen araudiaren indarrez, tailerra itxi zezan eskatuz.

Aipatu udalak erantzun zigun, udalerrriaren ekonomi-egoera zela eta, ezin zuela erabaki hori hartu, nahiz eta arrazoizkotzat jo auzokideen salape-nak.

Halaber, honako hau ere adierazi zigun Udalak: berriki onartu ziren Ordezko Arauetan Erretererja auzoa industrialde izateko izendatua zegoela eta, hortaz, "egunen batean" bertara aldatuko zirela lantegi guztiak, baina bitartean ez zegoela beste irtenbiderik.

Ararteko honek bere gomendioa ez-onartutzat hartzen zuela adierazi zion Udalari, eta, beraz, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 27. artikuluari jarraiki, ez-betetze horren berri emango zuela urtero Eusko Legebiltzarrari egiten diogun txostenean; orobat beste hau ere erantsi zion: ez zitzaiola bidezkoa iruditzen bere jardun-eza zuzitzeko erabili zuen arrazoibidea, hots, herriaren ekonomi-egoera ematea aitzakiatzat, kontuan hartzekoa baita kasu zehatz honetan derrigor bete beharreko araudia dagoela, herritarrek ez ezik Administrazioak ere bete behar duena, agintari publikoek legezkotasun-irizpidea hartu behar dutelako oinarri beren jardueran.

Industri-jarduerak sorturiko egurats-kutsadura (48/94)

Irungo herritar batek erakunde honen aurrean salatu zuenez, herri horretako industrialdean zeuden bi pabilioitako langileek gogaipen larriak pairatzen zituzten industria baten jardunaren ondorioz; industria hori, hain zuzen, materiale plastikoak eta gai kimikoak (polimeroak, poliesterak, e.a.) tratatu eta eraldatzeaz arduratzen zen.

Ildo horretatik, kezadunak zioen oso erraz iragazten zirela jarduera horrek sortutako gas pozointsuak, bai materiale horiek tratatzeko behar den instalazio babestailak akatsak zituelako edota instalaziorik ez zegoelako, bai poligonoko pabilioiak materiale hauskorrez eraikiak daudelako; horrela, gas pozointsuek beren biltegi eta bulegoetako ingurugiroa kutsatzen zutelako zioen, inguruko enpresetako langileek lana aldi baterako utzi behar izaten zutelarik buruko minak nahiz eztarriko lehortasun eta azkurak jota.

Horrengatik guztiagatik, Ararteko honek laguntza eskatu zion Eusko Jaur-laritzako Ingurugiro Saiburuordetzari. Hala bada, saiburuordetza horretako

teknikariak ikuskaketa egin eta egiaztatu zuten salatutako enpresa ingurugiroan arazo larriak sortzen ari zela, jardueraren kalifikazioan egurats-kutsadura eragozteko ezarrita dauden beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ez zituelako.

Nabaritu ziren akatsen aurrean, Ingurugiroko Sailburuordetzak ikatz aktibatuko iragazkiak jar zitzan eskatu zion enpresa-jabeari, bai eta kutsa zitezkeen gune guztietatik gasak eta partikula solidoak bildu eta iragaz zitzan ere.

Beraz, Arartekoak kasu honetan esku hartzeko zituen aukera guziak agorturik, eta salatutako arazoa epe laburrean konponduko zelakoan, espediente itxi eta artxibatuko genuela jakinarazi genion kexadunari.

Bertako zuhaitzak moztea errepidea eraikitzeko (55/94)

Bilboko herritar batek erakunde honetan salatu zuen Bizkaiko Foru Aldundia Berrizen 198 haritz eta 4 pago mozten hasi zela, Abadino-Ondarroa korredorean egiten ari ziren lanen barne, rotonda bat egin asmoz, eta bien bitartean Berrizko Udala zuhaitzak herriko beste toki batzuetara aldatzeko antolak egiten ari zela, haietan iraunarazteko.

Gai horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailak hauxe adierazi zigun: Berriz-Ondarroa korredorearen egokitze eta zabaltze lanak egitearren, jabego-kentze espediente bat bideratu zela Berrizko Udalarenak ziren lurrak hartzeko, eta lur haietan bertako hainbat zuhaitz mota landaturik zeudela, landatoki gisa erabiltzen zirelako.

Orobat, sail horren esanetan, lurren bidezko balioa neurtzerakoan Lurrien Kudeaketarako Zerbitzua eta Udala ados jartzen ez zirenez gero, Herrilaretarako Zuzendaritza Nagusiak Udaleko talde politiko guztiekin zenbait bilera egin zituen, haiei bi aukera emanaz: bata, mota bereko zuhaitz kopuru bera landatzea erabakitzeke zegoen beste leku batean, eta bestea, dirubidezko akordio bat onartzea; eta, elkar adituz, azken konponbide hori onartu zen. Halaber, Udala jasotako diru-ordainarekin guztiz konforme zegoela aditzera eman zigun.

Bestalde, ingurugiroa lehengoratzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailak, egitasmoa aztertzean irizpide honi jarraitzen zaiola adierazi zigun: errepide baten taiuketak garrantzizko landaredian eragina duen ala ez aztertu, berori iraunarazten saiatu eta, hori ezinezko gertatuz gero, berriz ezartzen duela. Horretarako, egitasmoek badute Ekologi, Estetika eta Paisaiaren Antolaketari buruzko atal bat.

Jarraibide horren adibidetzat, Berriz-Ondarroa korredorean ordurako eraikiak zeuden zatietan egindako inbertsioen laburpena eskuratu zigun, eta bai egitekoa zen beste zatian aurrikusitako inbertsioena ere.

Horrela, argi eta garbi ikusten zen Berrizko zati horretan landatzeko iragartzen ziren ia landare guztiak bertako zuhaitz motak zirela (haritza, urkia, pagoa, gaztainondoa, lizarra, haltza, gereziondoa, pagarra, astigarra,...), hainbat gurutzagunetan, ongi ikustea galerazten duten oztopoetan edo lorategien antzera jarritako toki lauetan landaturiko beste mota batzuk izan ezik.

Horregatik guztiagatik, foru-erakundearen jokaera indarrean dauden legeekin bat zetorrela iritzi zion Ararteko honek, eta ingurugiroaren aurka gerta

zitekeen eraso a birlandatze-egitasmolari esker aski orekatu zenez gero, espedientea ixteari ekin genion.

Gogaipenak kafetegi baten jardunak eragindako zaratagatik (85/94)

Traparango herritar batek, bere etxabeaz zegoen kafetegi baten jardunak eragindako zaratak zirela eta, gogaipenak jasaten zituela salatu zuen erakunde honen aurrean.

Hain zuzen, kexadunak zioen aipatu lokalak ez zuela hotsetatik babesteko sistemarik, bere etxebizitzatik garbi asko entzuten baitziren kafetegiko elkarrizketak, bai eta musika-ekipoak, telebistak, aire egokituaren sistemak, altzariak arrastaka erabiltzeak, e.a.-ek sorturiko hotza ere.

Trapagarango Udalari gertakari horiek salatu zizkion arren, arazoa konpontzeko inolako neurririk ez zela hartu adierazten zuen.

Trapagarango Udalari argibideak eskatu ondoren, hauxe egiaztatu ahal izan zuen erakunde honetako lege-aholkulariak: udal-teknikariek hainbat hots-neurketa egin zituztela eta guztietan zarata-mailak arazuz ezarritako gehienezko muga gainditzen zuela, eta lokalak ez zuela zaratetatik babesteko sistemarik.

Horregatik, Udalak zarata ez sortzeko behar ziren neurriak har zitzaion eskatu zion kafetegi-jabeari alkatetza-dekretu bidez eta, jakinaren gainean egon zedin, hauxe adierazi zitzaion: "musika-aparailuak erabiltzea debekatua dago, irratia, telebista eta musika-haria izan ezik, eta horiek zarata-maila gainditzea eragozten duen aparailua edukiko dute, lokalaren edozein gunetan 75 dB (A) gainditu ez ditzaten."

Hala ere, Arartekoari egoki iruditu zitzaion dekretu horren edukiari buruzko zehazpen batzuk egitea. Alde batetik, bagenekielako taberna-kafetegi horretan musika-ekipoa jarri zutela eta, hortaz, beharrezko jotzen gurelako jabeari lokal barruko zarata-maila 90 dB (A)-ra egokitu zezan eskatzea, horixe iragartzen baitu Etxebizitzetarako Hirilurrean kokatzekoak diren Jarduera Gogaikari, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei ezarri behar zaizkien Izaera Orokorreko Arau Teknikoei buruzko 171/85 Dekretuak, ekainaren 11koak, bere lehen saileko lehen kapituluko 3.2.4. atalean.

Era berean, beharrezko iruditzen zitzaigun jabeari egindako eskaeran "soinugabetze-proiektua" aurkeztu behar zuela zehaztea, aurrez aipatu mailara egokitua.

Horregatik, Ararteko honek gomendioa egin zion Udalari honako hau eskatuz: "Alkatetza-dekretu bidez taberna-jabeari eska diezaion (...) soinugabetze-proiektua aurkez dezala lokal barruan 90 dB (A) ez gainditzeko kalkuluak eginda, jarrita daukan musika-ekipoa erabiltzeko baimena bi hilabeteko epean jaso dezan, eta jakinaraz diezaion hori betetzen ez badu, musika-aparailua zigilatuko diotela eta 75 dB (A) ez gainditzeko soinugabetze-proiektua aurkeztu beharko duela."

Aipatutako udalak gomendioa onartu zuenez gero, espedientea artxibatzeari ekin genion.

Araugabetasunak untxiak hazteko granja baten eraginez (93/94)

Andoaingo herritar bat kexu zen erakunde honen aurrean bere etxebizitzatik gertu zegoen untxiak hazteko granja batek sorrarazten zizkion gogaipenengatik.

Horrela, kexadunak zioen bere etxebizitza eta untxiak hazteko granja elkarrengandik oso hurbil zeudenez gero, gogaitaldiak jasaten zituela handik zetozen usain sarkor eta gernuengatik; eta agerian zegoela horrek osasunari etengabe eraso egiten ziola.

Hala bada, Andoaingo Udalera jo genuen gaiari buruzko argibideak biltzeko asmoz.

Udalak emandako espedientearen arabera, jarduera legezkotua zegoela egiaztatu ahal izan genuen eta, kexadunak Udalari aurkeztutako salapenen ondorioz, hainbat ikusketa egin zituztela Ingurugiroko Sailburuordetzako teknikariek, bai Osakidetzakoek ere.

Aipatu erakundeek igorri zizkion txostenei begira, Udalak 1992. urtearen bukaeran nabaritu ziren akatsak zuzen zitzan eskatu zion jarduera-jabeari.

Horretarako, 1993ko urte hasieran Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren Osasun Saileko teknikariek bidezko ikusketa egin zuten, baita ezarritako neurri zuzentzaileak hartu zirela egiaztatu ere.

Alabaina, azken ikusketa hau egin zenetik denbora luze samarra igaro zenez gero, eta berorri esker zeuden frogak kontuan hartuz -esate baterako abereen gorotzak biltzeko zuloa eta hondakin likidoena hustu gabe zeudela eta filtrazioak zeudela erakusten zuten argazkiak-, udal-teknikariek beste ikusketa bat egin zezaten eskatu zion Arartekoak Andoaingo Udalari, ezarritako neurri zuzentzaileak bete zirela egiaztatu ahal izateko.

Erakunde honek eskatu zuen ikusketa egin ostean, ikuskatzera joan zen udal-teknikariak egindako txostena bidali zigun Udalak.

Txosten horri jarraiki, granjaren jardueran ez zen gogaipenak sor zitzakeen araugabetasunik nabaritu, eta instalazio-baimenean ezarritako neurri zuzentzaile guztiak betetzen zituela egiaztatu zen.

Hala eta guztiz ere, era honetako jarduerak noizbehinka edo sarritan gogaitaldiak eragin ditzaketela gogoan hartuz -kexadunak emandako argazkietan ikus zitekeenez-, Ararteko honek adierazi zion araugabetasun horiek antzematen zirenean Ingurugiroko udal-teknikariarekin harremanetan jar zedila, horrek berehala ikusketa egin eta, behar izanez gero, arazoa konpontzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

Egin ziren ikusketen bitartez ezin frogatu ahal izan zen aipatu jarduerak araugabetasunak sortzen zituenik, eta, hortaz, Arartekoak kasu honetan esku hartzeko zituen aukerak agorturik, kexa-espedientea itxi eta artxibatuko genuela jakinarazi genion zegokionari.

3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

A) Sarrera

Alor honetan jasotzen diren keak era askotakoak dira, Administrazioak ematen dituen zerbitzuak bezain ugariak. Nolanahi ere, sarrien bideratzen diren espedienteek ur, gas eta garraio hornidura, batik bat autobus bidezko garraioa, dute aztergai.

Herrilanei dagokienez, aurkeztu diren keak ikusirik, arazoak sortzen dituzte bai lanak egin aurretik, bai proiektu-fasean daudenean, bai burutzen ari direnean ere, lan horiek eragiten dituzten kalte eta erantzukizunengatik.

Halako herrilan bat egitearen egokitasuna edo lan horien ezaugarriak eta diseinua auzitan jartzen dituzten keak auzokide elkarte eta auzokide taldeek aurkeztu ohi dituzte. Aldiz, herrilanak burutzeak sorturiko arazoak norbana-koek salatzen dituzte eta zehatzagoak izaten dira (kalteen erantzukizuna, zerbitzuen konponketa, sarbide arazoak, bide zaharren desagerpena, etabar...)

B) Kexa aukeratuak

Eusko Trenbideak-eko autobusetan ume-kotxeak sartzeko debekua (294/92)

Erakunde honetan Zumarragako andre baten salapena jaso genuen; emakumea kexu zen ume-kotxea eramateagatik Zumarraga-Zumaia bidea egiten duen autobusean sartzan utzi ez ziotelako.

Gai horri dagokionez, Arartekoak egiaztatu zuen aipatu autobusetan ume-kotxeak ez onartzeak Eusko Trenbideak-en Merkatal Zuzendaritzaren zirkular batean finkatutako irizpidea zuela oinarri; agindu horrek, hain zuzen 17/89 Zirkularrak, hauxe zioen: "ez da autobusetan ume-kotxerik sartzan utziko, bastoi itxurazko kotxe tolesgarriak izan ezik, eta horiek, jakina, tolestuak".

Urolako trenbideetan ume-kotxe mota guztiak sartzan uzten zutela kontuan hartuz, erakunde honen iritziz, aipatu xedapenak arrazoigabeko bereizkeria zekarren berekin, Konstituzioko 14. artikuluan aitorturiko berdintasun-irizpidea urratzen zuena; gainera, 39. artikuluan iragarritakoa ere urratzen zuen, hau da, herri-agintariek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatu behar dutela dioena.

Horregatik, Ararteko honek 17/89 Zirkularra alda zezan eskatu zion Eusko Trenbideak-i gomendio baten bidez, gerta zitezkeen bereizkeria-kasuak galerazteko eta, behar izanez gero, zirkularra aldatu bitartean, Urolako autobus-bidearen egoera berezia gogoan hartuz, bereizketarik egin gabe ume-kotxe guztiak autobusetan sartzan utz zezaten.

Gure gomendioari hainbat zehazpen egin ondoren, Eusko Trenbideak-eko zuzendaritzak adierazi zigun artean ezinezkoa zela gomendioa betetzea, bidai-poltsak jasotzeko tokia zuten autobusetan izan ezik, eta horrek bidaia

a priori bermatzen ez zuenez, ezin zitekeela egin. Orobat jakinarazi zigun Eusko Trenbideak konpainia bere autobus multzoan plataforma baxuko autobusak sartzen hasten zen neurrian, 17/89 Zirkularraren salbuespenak ezarri ahal izango zirela, ibilgailu mota horretan eraman baitaitezke ume-kotxeak nolabaiteko segurtasunez.

Ondoren, Urolako bideari plataforma baxuko autobus bat eman zitzaiola egiaztatu genuen eta, hortaz, espedientea itxi eta artxibatu genuen.

Industri-erabilerarako izendatua zegoen lurzatia Udalak argi-indarrez ez hornitzea (84/93)

Gasteiz hiria inguratzen duten industri-poligonoetan berriki jarritako enpresa arabar batek kexa-idazkia aurkeztu zion Arartekoari. Bertan zioenez, Gasteizko Udalak enpresa koka zedin beharrezko zen azpiegitura jartzeko dirua eskuratuko ziola hitz eman zion, eta ez zuen bere hitza bete, batez ere enpresa kokatuko zen lurzatian argi-indarra emateari zegokionean.

Egiaz, lurzatiaren salerosketa-kontratuan bazen atal bat, eskualdaketagatik ordaindu beharreko prezioa finkatzeaz gain, honela zioena: "aipatu lurzatiaren prezioaren barne sartzen da, lurraren berezko balioarekin batera, poligonoaren hirigintza-lanak osotara bukatzea, hondakin-urentzat hodiak jartzea, argi-indarrez hornitzea, tentsio altuan nahiz baxuan".

Gasteizko Udalari argibideak eskatu ondoren, horrek erantzun zuen bere garaian industri-poligonoa argi-indarrez hornitzeko hitzarmen bat sinatu zuela enpresa hornitzailearekin, eta hitzarmen horretan 125 W/m²-ko potentzia iragartzen zen lurzati bakoitzerako, lurzatiaren azalera osoaren %60a hartuko zuena. Orobat, hitzarmenaren arabera, erabiltzaileak 170 KW-ko edo hortik beherako potentziak eskatuz gero, hornidura tentsio baxuan egingo litzateke, eta hori baino potentzia handiagoetarako transformadore berezia beharko litzateke, erabiltzaileak ordaindu beharrekoa.

Aipatu hitzarmenean oinarrituz, kexa-aurkezleak tentsio baxuan ematekoa zen potentziaz gorakoa eskatu zuela ikusirik, Udalak irizpide hau hartu zuen lurzati argi-indarrez hornitzeko: argi-indarra jasoko zuen enpresa horrek eta Udalak erdi bana ordaintzea potentzia gehitzeak zekarren diruzko aldea. Horrela, diruzko alde hori ordaintzearen, diru-kopuru jakin bat jar zezan eskatu zion Udalak enpresari, berak bere aldetik beste zatia ordainduko zuela hitz emanez.

Enpresa, ordea, ez zegoen ados arrazoibide horrekin eta aurka egin zion administrazio erabakiari; baina, halare, ordaindu egin zuen, bere kontra espediente betearazle bat ireki zezaten eragozteko.

Ararteko honen ustez, lurzatiaren salerosketa-kontratua sinatu zuenean enpresa kexadunak Gasteizko Udalaren eta enpresa hornitzailearen arteko hitzarmenaren berri ez izana xehetasun erabakiorra zen; izan ere, sinaturiko kontratua irakurriz gero, ondorio hauxe atera zitekeen: lurzatia argi-indarrez hornitzeak zekarren gastua ordaintzeko betebeharra Udalari zegokiola, eta eginbehar horri ez zitzaiola inolako mugarik jartzen.

Horregatik guztiatik, erakunde honek gomendio bat bidali zion Gasteizko Alkateari, eta bertan jakinarazi zion oso-osorik Udalak ordaindu behar zuela industri-jarduera abiarazteko eskatu zen argi-indarraren kostua, eta, halaber, argi-indarragatik ordurarte ordaindu zituen diru-kopuruak itzuli behar zizkiola enpresa kexadunari.

Alabaina, Gasteizko Udalak gomendioa betetzeari uko egin zion, gomendioak zioena industri-poligonoko lurzati guztiei ezartzea ezinezkoa zela adieraziz; dena den, Ararteko honen iritziz, arrazoi horrek ez zuen zurrizten kasu horretan Udalak izan zuen jokaera bidegabea.

Araugabetasunak udal-polikiroldegiaren kudeaketan (200/93)

Erakunde honetan Ondarroako (Bizkaia) herritar baten kexa-idatzia jaso genuen, udal-polikiroldegiaren kudeaketan ustez araugabetasunak gertatu zirela salatzen zuena. Kexa, hain zuzen, polikiroldegian zeuden instalazioetako batzuk erabiltzeko jendeari jartzen zitzaizkion ordutegi-murrizpenek eragin zuten.

Ondarroako Udalak berak bidali zigun informazioari esker jakin izan genuenez, alde batetik, kirol-instalazio bat aspalditxodanik jendearentzat itxita zegoen, batipat arratsaldeko ordutegian, bertan Udalaren kirol-zerbitzuak berak antolatutako ikastaroak egiten zirelako. Ikastaroak ematen ziren orduetan jendeari han sartzeko aukera murrizten zitzaion, eta ondorioz, ez zegoen areto hartan sartzetik asteen hiru arratsaldetan, ez larunbat goizetan ere, eta gainontzeko egunetan berantorduetan bakarrik sar zitekeen; bazkide edo erabiltzaileek instalazioez baliatzeko duten eskubideari begira, Arartekoaren iritziz onartezina zen murrizpen hori, are gehiago kontuan hartuz murrizpena denboraldia hasi ondoren egin zutela.

Bestalde, beste kirol-instalazio bat ere arratsaldero lau ordu baino gehiago jendearentzat itxita egoten zen, eta ordu horietan joaten dira bertara erabiltzaile asko eta asko, gehienek duten lan-ordutegiaren ondorioz.

Horregatik guztiatik, jendeari bi areto horiek erabiltzeko aukera ematearren, aretoak guztientzat behar den besteko denbora-epe egokian irekitzeko neurriak har zitzaizkien gomendatu zitzaion Udalari. Horrela, nahikoatzen jotzen zen polikiroldegia irekita egoten den ordu guztien erdia barne hartzen zuen gutxienezko denbora-epea. Orobat, irekitzeko ordutegia nahikoatzen ez ezik, egokitzen ere hartzeko, orduak modu berdintsuan banatu beharko lirateke aste-ko egun eta egun-zatietan.

Beraz, polikiroldegia irekita egoten den orduen erdietan gutxienez, goize-oro nahiz arratsaldero, bertako areto guzti-guztiak jendearentzat ireki zitzaten eskatu zion Arartekoak Udalari gomendio baten bidez.

Azkenean, Ondarroako Udalak Arartekoaren gomendioa onartu eta ordutegi berria ezarri zuen bi areto horiek erabiltzeko; hortaz, kexan azaldutako arazoa konpondu zelakoan, espediente artxibatzea erabaki zen.

Herrilanarekin batera entregatu zen tailuaren jabetza erreklamatu zuten tailugileak azaldutako kexa (602/93)

Artista batek tailu bat itzul ziezaion eskatu zion Gasteizko Udalari, erreklamazioan agertzen zuenez, obra berea zelako.

Tailua bere garaian Gasteizko Udalari entregatu zitzaion, Ullibarriko ponpaketa-estazioari zegozkion lanekin batera. Tailu hori urtegi obrak egiteko arduraz enpresak enkargatu zion egileari.

Auzia ez zen berria, izan ere, bere garaian tailuaren prezioagatik desadostasuna sortu zen eta egileak auzibidera jo zuen, baina ez zuen lortu bere eskaria onar zezaten.

Kexadunak oraingoan epailearen erabakian agertzen zen adierazpen bat hartzen zuen oinarri bere eskaria onartua izan zedin: egileak ez ziola enpresari eskatutako artelana entregatu.

Kasu honen hastapenetan epaile-erabaki bat agertzen zen arren, kexak beste izaera edo arrazoi bat zuen bigarren aldi honetan, eta horregatik bidera-penerako onartu genuen.

Arartekoaren eskariz Udalak bidali zuen txostenean aditzera ematen zuenez, Udalak ez zuen zerikusirik izan enpresa eta tailugilearen arteko kontratuan, eta tailua, nolana ere, herrilariak (urtegia) helburu artistikoz egin zuen ekarpenatzat jo behar zen, 1984ko azaroaren 16an Udalbatzarrak onartu zuen arauari jarraiki.

Erabaki horri dagokionez, Udalaren txostenak ez zuen kontuan hartzen arau hori ez zegoela indarrean ur-biltegi lana esleitu zenean, ez eta lan hori entregatu zenean ere.

Erabakiaren indarraldia alde batera utziz, ezerk ez zuen eragozten urtegi-lanak egiteko sinatu zuen kontratuaren baldintzetan artelan bat entregatzeko betebeharra ezartzea.

Alabaina, ez Udalaren txostenean, ez espedienteaz aztertzeke eskuratu zizkiguten agirietan, ez zen adierazten betebehar hori zegoenik.

Arrazoi horiek ez ezik, arazoari loturiko beste alderdi batzuk ere izan genituen kontuan, besteak beste bere garaian hartu zuen epaile-erabakian jasotako zehazpenak. Bertan aditzera ematen zen tailugileak ez ziola entregatu enpresa eraikitzaileari eskatutako artelana eta, horregatik ere erabaki zen enpresak ez zeukala zertan ordaindu eskaturiko kopurua.

Horren guztiaren ondorioz, egoera berezi bat sortu zen tailuaren jabetzaren inguruan, eta ez zen ezagutzen, gutxienez aztertutako agirien bidez, egoera hori alda zezakeen gertakaririk.

Epaile-erabakiaren ondorio zen egoera hori, 1984ko Udalbatzarraren erabakiak aldatzen ez zuena, eta egoera horrexek argitu behar zuen, Arartekoaren iritziz, kexadunaren eskariaren funtsa.

Kexaduna itxuraz jabea zela nabarmena zenez gero, Arartekoak gomendioa egin zion Udalari, egileari eskatu zuen tailua itzul ziezaion.

Udalak, gure gomendioan azaldutako arrazoiak eztabaidatzen ez zituen idazki baten bitartez, uko egin zion gomendioa betetzeari.

Herritarrak kexu ziren udalaren zine-antzokia ongintza eta jolaserako elkarte baten lokalera aldatu zutelako (725/93)

Ermuako herritar batzuek Arartekora jo zuten Udalaren ekintza baten kontra zeudela adierazteko. Udalak El Ateneo udal zine-antzokia desegin zuen, berori itxi eta bertako ekipamendua ongintza eta jolaserako elkarte baten jabetzapekoa den Ermua Zinemara aldatzeko; gainera, horren ondorioz herri-diru kopuru handia ezarri behar izan zen, lokal pribatu bat berritzeko.

Operazio hori burutzeko Udalak erabili zuen bidea ere salatzen zuten, hark Ermuako herritar askoren iritzitari ez ziola jaramonik egin eta, horrez gain, kudeaketan legezkontrako ekintza garrantzitsuak burutu zituela adieraziz.

Bi zine-antzokiak ikustera joan eta gaia aztertu ostean, Arartekoak hauxe erantzun ziren herritarrei: Toki Jaurbiderako Oinarrien Legeak aginpide zabalaren ematen diela udalei beren ardurapeko zerbitzuak sortu, kendu, aldatu eta antolatzeko. Ildo horretatik, ongintza-jolaserako elkarteak eta Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, eta hitzarmen horrek zurrizten zuen antzokia lokal publiko batetik pribatu batera aldatzea, baita horren ondoriozko diru-inbertsioa ere; beraz, hitzarmena ez zen legezkanpoko.

Bestalde, Arartekoak zera gogorarazi zion Udalari, hirigintzaren ikuspuntutik begiratuta, Ermuako Hiri-antolaketarako Egitasmo Orokorrak herri-ekipamendurako sistema orokor izateko izendatu zuela El Ateneo barne hartzen zuen eraikina, eta etorkizunean eraikin hori zernahitarako baliatuta ere, erabilerara berbera izan behar zuela.

Azkenik, ongintza eta jolaserako elkartearen lokala egokitzeko lanak egin zirenean, Udalak legezkontrako ekintzak burutu zituela egiaztatu zuen Erakundeak. Alde batetik, ez zen idatzi, ez onartu ere, egitekoak ziren lanak azaldu eta zurrutuko zituen proiektu edo txosten tekniko balioztaturik. Beste alde batetik, Udalak hogeita bost milioi pezeta xahutu zituen, nahiz eta aurrekontuan horretarako diru-kopururik izendatuta ez egon, eta hilabeteak igaro ziren aurrekontu-aldaketa bideratu zen arte, gastu horiei aurre egiteko behar adina kreditua erabiltzeko baimena ematen zuena.

Araugabetasunak ur-kontsumoari dagozkion erreziboak kobratzera koan (26/94)

Bilbon bizi, baina Bakion beste etxebizitza bat zuen herritar batek Bakio-ko Udalaren kontrako kexa aurkeztu zuen Arartekoan, bere ustez, ur-kontsumoagatik berriki bidali zioten ordainagiria ez zelako zuzena.

Kexadunak zioenez, etxebizitza hori oporretarako izanik, luzaroan ez zen han inor bizi izaten, eta horregatik, ez zen ur-kontadorearen irakurketa sei hilabetero egiten, herri horretako beste etxebizitzetan arauz egiten zen bezala. Sei hilabetez behin irakurketarik egiten ez zenez gero, gutxienezko kontsumoagatik ordainagiria bidaltzen zioten, kexadunak normaltasun osoz ordaintzen zuena. Hala ere, bidezko kontadore-irakurketa egin ondoren bidali zioten azken erreziboan, zenbateko osoari ez zizkieten kendu ordurarte ordaindu zituen gutxienezko diru-kopuruak. Horrek esan nahi zuen azken kontadore-irakurketa egitean ez zituztela kontuan hartu aurreko sei hilabeteko epeetan

ordaindu zituen gutxienezko kopuruak eta, beraz, birritan kobratu ziotela benetakoa kontsumoaren zati bat.

Kexa-aurkezlearen azalpena zuzentzat jo zuen Arartekoak eta halaxe adierazi zion Bakioko Udalari; Udalak, ur-zerbitzua kobratzeko darabilen bidea erakunde honi azaltzeaz gain, okerbidez kobratutako diru-kopuruak itzuli zizkion kaltetuari.

3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

A) Sarrera

Alor honetan, osasun publikoarekin zerikusia duten kexek erakutsi digutez, sarritan jarduera batzuen jabeek nekez onartzen dute baldintzak bete beharra osasun, garbitasun eta segurtasun alorretan. Horren lekuko, guztiek erabiltzeko diren igerilekuen araudia ezartzeari buruz aurkeztutako kexak dira.

Osasun mailako laguntzari dagokionez, berez osasun zerbitzuari dagozkion kexekin batera, Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren Gutunean jasotako eskubide batzuk gauzatzekoan sortutako arazoak azaldu zaizkio Arartekoari.

Erabiltzaile batzuek ospitalea eta zerbitzu espezializatuak aukeratzeko arazoak azaldu dituzte. Kasu horiek, ordea, arazo burokratikoengatik edo prozedurak arin burutu ez direlako gertatu dira batez ere, eta ez ospitalea eta zerbitzu espezializatua aukeratzeko eskubidea kolokan jartzeagatik, eskubide hori ez baitzen zalantzan jartzen.

Osasun alorrean legez jasota dauden eskubide horiek gauzatzeko egon den zailtasunak ez dauka zerikusirik gizarte ongizate alorrean aurkitutakoekin; izan ere, alor horretan eskubide batzuk ez daude garbi zehaztuta eta ezartzen zaizkien mugak ez dira oraindik oso garbiak. Egoitza publiko batzuetan banakako gela lortzeko itxaron-zerrendetara sartzeko modua zein den ikusi ondoren egin dugu aurreko baieztapena.

B) Kexa aukeratuak

Jubilatuen udal klubeko lehendakariaren kontrako zigor-espeditzea (323/93)

Gasteizko edadetuen udal klub bateko lehendakari ohiak Arartekora jo zuen, Udalak bere kontra eman zuen zigor-ebazpena salatzen. Izan ere, Gasteizko adinekoen klubaren estatutuari jarraiki, udal horretako adinekoen zerbitzuak zigorra ipini zion kexadunari, hain zuzen sei hilabetez bazkide-eskubideak galtzea, eta urtebetez bere karguaz baliatzeko debekua eta klubeko baztordekide lekua uztea.

Bere karguan ziharduenean kexadunak ustez legez kanpo jokatu zuelako jarri zioten zigorra; Udalaren zigor-ebazpenaren arabera, hauexek ziren leporatzen zitzaizkion oker-egiteak: agiri faltsuak aurkeztea, klubak kultur eta astialdi ekintzetarako zuen diruaz zilegi ez zen moduan baliatzea, eta egitarau horretarako zeuden fondoak bidegabé erabiltzea.

Arazoaren ikerketak luzaro iraun zuen eta zaila izan zen, batipat klubeko kontuak nahasian zeudelako eta nekez ikus zitekeelako loturarik ustezko frogen eta kexadunak nahiz Administraritzak egindako adierazpenen artean. Elkarrizketa asko eta asko egin behar izan ziren bi alderdiekin eta, azkenik, baita bilera bat ere, bertan bi alderdiak zeudela, kontrako adierazpen horietatik zein zen egiazkoa eta frogekin bat zetorrena ikusi ahal izateko.

Azkenean, erakunde honek ondorio hau atera zuen: agiri faltsua aurkezteari zegokionez, Administraritzak zuzen jokatu zuela zigorra ipintzean. Haatik, Udalak leporatu zizkion beste jardunbideak ezin zirela frogatutzat jo, betiere zigortzeko Zuzenbidearen irizpideetan oinarrituta; beraz, Arartekoak Udalari bidali zion gomendioak zioenez, Udalak hasieran leporatu zizkion hiru huts oso larriak ez, baizik huts larri bakarra egin zuela egiaztatu ahal izan zen. Horren ondorioz, hasieran ezarri zigorra baliogabetu eta egiaztatutako hutsarengatik besté zigor bat jar zezan gomendatu zion, ordurarte kexadunak bete zuen zigorraren arabera, azken hori zertxobait arinduz.

Udalak óntzat eman zuen Arartekoaren gomendioa eta, hortaz, azkenean behar bezala konpondu ondoren, itxi ahal izan genuen kexa-espedientea.

Erabilera kolektiboa duten igerileku pribatuen betebeharrak (419/93)

Erabilera kolektiboa duten igerilekuentzako ezarrita dagoen osasun mailako araudiak, igerilekuek dagokien administrazioaren baimena lortzeko bete behar dituzten baldintzak finkatzen ditu.

Baldintza horiek, abiapuntu gisa igerileku guztientzako izanik ere, alda daitezke igerilekua dagoen lekuko etxebizitza edo biztanle-kopuruaren arabera.

Kopuru horiei begira, igerilekuan sokorrista bat egon dadin eska daiteke, baldintza gehigarri gisa.

Azken eskakizun horrengatik aurkeztu zuen kexa etxe-jabeen elkarte bateko buruak.

Kexa aztertzean ez genuen ardatz hartu arauz ezarritako betebeharrak egokiak ziren ala ez, erakunde honen ustez hori ebaztea osasun alorreko Administrazioari zegokiolako; Arartekoak beste hau jakin nahi zuen: ea erabilera kolektiboa izan bai, baina alor pribatukoak ziren jardueretan eska zitezkeen baldintza horiek, hain juxtu hori gertatzen baitzen aurkeztu ziguten kasuan.

Administrazioak lehenagotik dauden beste alor pribatu batzuetan garbitasun eta osasun mailako eskakizunak betearazten dituen arren (adibidez, etxebizitzaren bizigarritasun baimena edo agiria), berriagoak diren beste alor batzuetan ez dá lortzen hartzailak horrelako betebeharrak modu baketsuan betetzea.

Osasunari kalte egingo dioten ondorioak galerazteko baldintza batzuk ezarri eta betearaztea agintari publikoei dagokie, eta arian-arian alda daitezke gizarteak lortzen duen aurrerapen-mailaren arabera. Hori kontuan hartuz

ulertzen da alor sozial, kultural edo ekonomiko ezberdinetan, jarduera berberak izan arren, eskakizun ezberdinak egotea; are gehiago, gerta liteke jarduera horietako batzuk arautu gabe egotea ere.

Horrela, gizarte batek aurrera egiten duen neurrian kalteak konpontzeko neurri gehiago hartzen dira, eta ez hori bakarrik, kalteak eragin ditzaketen arriskuak murrizteko bide gehiago ere sustatzen dira.

Kexan azaldutako kasu zehatzari dagokionez, ez zirudien beste eskakizun batzuk zalantzan jartzen zirenik, esate baterako uraren kalitatea ikuskatzeko eskakizuna, agian betebeharrak hori betetzeko ohitura handiagoa zegoelako. Halere, agintari publikoek ahalmen berbera daukate baldintza batzuk zein besteak betearazteko: alegia, osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen jardueren alorrean daukan ahalmena.

Gogoeta horien arabera, aurkeztutako kexa honako auzi honetara mugatzen zen: osasun alorreko araudian eskatzen diren baldintzak egokiak diren ala ez, eta Ararteko Erakundeak uste zuen alor horretan ezin zuela osasun alorreko Administrazioa ordezkatu. Halaz guztiz, ez da ahaztu behar lurralde autonomoko beste araudi batzuk ere bat datozela hasieran aipatutako araudiarekin eta beren aginduetan sokorrista baten beharra aldarrikatzen dutela.

Interesdunei hausnarketa horiek helarazi ondoren, kexa artxibatu egin zen.

Bizkaian elbarri larrientzako babes eta arreta zentru bat sortzeko beharra (452/93)

Osakidetzako zentru batean zegoen tetraplejiko batek Arartekora jo zuen Elkarte Autonomoan elbarri fisiko larriei arreta emateko dauden zentruetako batera ekar zezaten eskatzeko.

Arazoa ezaguna da erakunde honentzat, izan ere 1991 eta 1992ko urteei zegozkien txostenetan bereziki aipatu zen alor honi ez zitzaiola behar bezalako arreta eskaintzen; orduan, kasurik larrientzat Elkarte Autonomoan postuak sortuz arazoa konponbidean jar zezaten gomendatu genien foru aldundietako gizarte ongizate sailei.

Araban eta Gipuzkoan era horretako elbarriei arreta egiteko hainbat postu sortu ziren, baina ez ordea Bizkaian.

Kexagileak ospitaleko postua utzi eta zahar-egoitza laguntzadun batera joan beharra zeukan. Gai horri zegokionez, kexadunak zioen adin alde handia zegoela beraren eta egoitzan bizi ziren pertsonen artean, 65 urtetik gorakoak baitziren guztiak, eta berak, aldiz, 30 urte baitzeuzkan.

Erakunde honek beste bi probintzietako zentruetan galdetu zuen ea posturik bazegoen kexaduna jasotzeko, baina ez zen haitetara eramaterik lortu, lekurik gabe zeudelako. Horrela, azkenean zahar-egoitzara joan behar izan zuen.

Horren aurrean, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailera jo zuen berriro, lurralde horretan elbarri fisiko larrientzako zentru berezi bat edukitzeko zegoen premia adieraziz, eta helburu hori betetzearren, postu batzuk sortzeko gestioak egin zitzaion gomendatu genion.

Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako erantzunean zera zioen, arazo horrentzako konponbidea "...epe laburrean bete asmo dituen helburuen artean dago...", baina 1994. urtealdirako aurrekontuetan ez zegoen horrelako zentru bat eraikitzeko dirurik. Halere, Gizarte Ongizate Sailak beste hau ere jakinarazi zuen: "...azaldutako arazoa behin-betiko eta modu egokian konpontzeko lanean jarraituko du...", eta bien bitartean, hitzartutako beste zentru batzuetan sartuko zituela interesdunak.

Hortaz, arazo horrek konpontzeke jarraitzen du, eta Arartekoak horren ardura harrarazi behar die dagokienei.

Gaisotasun bati dagokion ebakuntza egin ordez, beste bati dagokiona egin zioten (580/93)

Hamasei urteko mutil gazte baten amak bere semeak jasandako mediku-hutsegitea azaldu zuen, eta horren bidez inolako kalteordainik ez zuela lortu nahi adierazi zuen, baina bai, ordea, horrelakorik berriro ez gertatzea.

Bere semea klinika pribatu batera joan zen fistula batetik ebakuntza egin ziezaioten. Klinika hori Osakidetzarekin hitzartuta zegoen, eta erakunde horrek hala eskatu ziolako joan zen klinikara. Klinikari sartu eta hurrengo egunean egin zioten ebakuntza, baina ez horretarako izendatua zegoen sendagileak, beste batek baizik.

Sendagile horrek ez zuen gaisoa ebakuntza egin aurretik ikusi eta, fistula-ebakuntza egin ordez, odoluzki-ebakuntza egin zion. Horregatik, bi egun geroago berriro operatu behar izan zuten, fistulatik orduan. Bi ebakuntzak anestesia orokorraz egin zizkioten.

Erakunde honek Osakidetzari helarazi zion kasua, azaldutakoa ikertu behar zuelakoan, antzeman zitezkeen hutsak zuzentzearen.

Osakidetzak Erakunde honi igorri zizkion txostenetan, zenbait ikerlanen berri ematen zen, hain zuzen klinikari bertan eta kezagileak kasua azaldu zuen Sendagileen Bazkude Ofizialean eginak.

Azterketa horietan, zorionez ondorio larririk izan ez zuen huts hori onartzen zen, eta ondoko arrazoioak ematen ziren:

Alde batetik, ebakuntza kirurgikoak ez zituela sendagile bakar batek egiten, taldean egiten direlako. Kasu horretan, taldeko sendagile bat oporretan zegoen eta beste bat kanpoan, eta horregatik izendatua zegoen sendagileaz beste batek egin behar izan zion ebakuntza.

Bestetik, nahastutako bi gaisotasunen artean dagoen kontzeptu mailako antza aipatzen zen: Fistula-kiste sakrokoxigeoa (gaisoak diagnostikatuta zeukan fistula) eta Fistula perianoa (odoluzkiak). Esan beharra dago gaisoak bi gaitzak zeuzkala.

Arrazoi horiek argi zezaketen zergatik gertatu zen hutsegitea, baina, noski, ez zuten inola ere zurrizten. Horregatik, txostenetan aditzera ematen zen hutsarekin zerikusia zeukatenean beharrezko neurriak hartu zituztela horrelakorik berriz gerta ez zedin.

Jaberik gabeko katu batzuek eragindako arazoa eta Udalak katu horiek biltzeko duen egitasmoa (699/93)

Bizkaitar batek kexa azaldu zion erakunde honi, bere herriko udalak ez zuelako ezer egiten bera bizi zen kalean zeuden jaberik gabeko katu ugarik sorturiko gogaipenak galerazteko, eta gainera auzokide batzuek katu horientzat botatzen zituzten jan hondarren kiratsak osasun mailako arazoak ekar zitza-keelako.

Kexadunaren herriko udaletik bidalitako informazioa jaso ondoren, udal horrek arazoa konpontzeko zenbait ahalegin egin zituela ikusi genuen.

Kexagileak salatutako pertsonen gutunak bidali zitzaizkien katuei jatekorik bota ez ziezaieten; udal-albaitariarekin bat eginda aztertu zen zein izango ote zen animalia horiek harrapatzeko modurik onena, eta sendagile titularrari kalte- tuta aldeari buruzko osasunbide-txostena eskatu zitzaion.

Jarraian, udalak hitzarmen bat sinatu zuen animalien babeserako elkarte batekin "...abandonatuta edo galduta zeuden animaliak bildu eta beste leku batera eramateko, eta horretarako udalak berak dei egin dezake (udaltzain- goak, e.a.) edo nor den azaldu eta eskaria egiten duen beste edozein herritarrek".

Erakunde honetan kexa egin baino bost hilabete lehenago lanean hasia zen animalien babeserako elkarte hori, eta kexagilea bizi zen aldean eta herri- ko beste leku batzuetan katu asko bilduak zituen. Katu-biltzeak herritarren deien ondorioz egin ahal izan ziren, herritarrek katuak non zeuden eta non ezkutatzen ziren adierazi eta gero. Kexagileak ere deitu izan zien elkartekoei, baina katuak harrapatzeko eta horiek piskanaka desagerrarazteko beharrezko laguntzarik eskaini gabe.

Hori guztia ikusirik, erakunde honek ebatzi zuen udalak erantzun ziola kexadunak azaldutako arazoari, eta konpontzeko bideak jarri zituela. Baina arazoa nolakoa zen ikusirik, garbi zegoen hiritarren laguntza beharrezkoa zela, eta kasu zehatz honetan ez zela laguntza hori behar adinakoa izan. Beraz, uda- laren jokoaren legezkontrako ezer ikusi ez eta espedientea artxibatu egin zen.

Laguntza espezializatu guztia zentru bakar batean bildu nahi izana (99/94)

Osakidetzak Araban burututako osasun-plangintzagatik kexa bat jaso genuen. Plangintza horri jarraiki, gaisoa non bizi den, halako ospitalea izen- datzen zaio, Santiago edo Txagorritxu.

Pertsona batek hamaika urte zeramatzan zerbitzu espezializatu bat jasotzen Txagorritxu ospitalean, eta aldiro-aldiro joaten zen bertara. Sendagileek aginduta, botika batzuk hartzen zituen.

Aipatutako administrazio-banaketaren ondoren, gaiso horrek ordurarteko ospitalera joaten jarraituko zuen, baina beste zerbitzu espezializatu bat behar izanez gero, hiriko beste ospitalera bidaliko zuten, hori baitzen aurrerantzean zegokiona.

Banaketa horrek ordurako arazoren bat sortu zuen, zentru berriko espe- zialistaren bat gaisoaren ordurarteko osasun-historiarik gabe zegoelako, eta

beraz ez zituelako ezagutzen gaiso horren aurrekariak, ez eta jarraitzen zuen tratamendua eta hartzen zituen botikak ere.

Horregatik, gaisoak behar zituen zerbitzu espezializatu guztiak ospitale bakar batean jaso nahi zituen, hain zuzen Txagorritxu Ospitalean, ordurarte tratatzen zuten lekuan.

Horretarako ahoz eta idatziz gestio ugari eginak zituen Osakidetzaren egoitza ezberdinetan, ospitaleetan bertan eta baita Alorreko Zuzendaritzaren aurrean ere; baina eskatzen zuena ematen ez ziotela eta, Arartekora jo zuen.

Erakunde honek beharrezko antolak egin zituen Osakidetzarekin, eta azaldu zitzaizkion arazoak zirela medio kexagilearen eskaria onartu ondoren, arazoa konponduta geratu zen.

Sendagile-zerbitzu espezializatu aukeratzeko eskubidea (209/94)

Andre bat hainbat urtez Osakidetzako ospital orokor bateko Traumatologia Zerbitzuan tratatu zuten eta zerbitzu horretan ebakuntza ere egin zioten. Denbora igaro ahala, andrearen egoera gaizkitu egin zen eta beste ebakuntza baten premia zeukan; baina ebakuntzatik onik ateratzeko oso aukera gutxi zeudela eta, sendagileek ebakuntza ez egitea erabaki zuten.

Aldi bat igaro ondoren, gaisoak mina eta oinazeak zeuzkalako Osakidetzari osasun-laguntza eskatu zion, baina ez ordurarte arreta eman zioten ospitalean.

Osakidetzak lehengo zentru berera bidali zuen. Gaisoak bere eskariari eusten zionez gero, beste ospitale batean ordua eman nahi izan zioten, baina azkenean erantzuna ezezkoa izan zen, eta ordurarteko ospitalera joatea eskaini zioten.

Kasua erakunde honi azaldu ondoren, gaia Osakidetzan ospitalea eta ospitale-zerbitzuak aukeratzeko eskubidearen alorrean sar zitekeela iruditu zitzaigun. Eskubide hori, uztailaren 18ko 175/1989 Dekretuan jasota dago eta Osasunbide eta Kontsumo Sailburuaren 1990eko urtarrilaren 25eko Aginduak garatzen du.

Arartekoak Osakidetzari helarazi zizkion arazoi horiek, eta azkenik gaisoari beste ospitale batean zerbitzua jasotzeko aukera eman zitzaion.

Zentru pribatu batean tratamendua jasotzeagatik egindako gastuak ordaintzea eskatzen zaio Osakidetzari (400/94)

Eztarriko arazoekin zebilen pertsona batek famili-medikuarengana jo zuen; horrek ambulategiko espezialistarengana bidali zuen, eta honek, bi bisitarren ondoren, ospitale orokor bateko zerbitzu espezializatura. Ospitale horretan proba batzuk egin ondoren eztarriko minbizia zuela adierazi zioten.

Ospitaleko sendagileak zintzurreko mikrozirugia egitea proposatu zion; horretarako eguna jarri zion, tumorea nolakoa zen eta zenbateraino zabaldua zegoen ikusi ondoren tratamendurik egokiena finkatzeko, tratamenduan ebakuntza sar zitekeelarik.

Gaisoa, ordea, ez zen azken proba hori egitera joan eta ospitale pribatu batera jotzea erabaki zuen, non ebakuntzarik gabeko tratamendua eman baitzioten.

Tratamendu hori oso garestia izan zen eta gaisoak Osakidetzak ordaintzea nahi izan zuen, zentru pribatuko tratamendua Osakidetzaren ospitalean emango ziotena baino gogobetegarriagoa gertatzen zitzaiolako. Gainera, bere ustez, gastu hori ez zen egin beharrik ere izango Osakidetzak mota horretako tratamenduetan espezializatutako zentru batera bidali izan balu (zentru pribatua, baina gaisoak publikotzat jotzen zuena).

Gastuak ordaintzeko eskaria ez zitzaion onartu, ezta ondoren aurkeztu zuen errekurtsua ere, eta interesdunak horregatik jo zuen erakunde honetara.

Arartekoak gaia aztertu ondoren, Osakidetzak gaisoari arreta egokia eta bidezko denbora-epetan eskaini ziola ikusi zen, anbulategiko espezialistarengana joan eta handik hilabete barru ospitaleko diagnosa baitzeukan; egun batzuen buruan egin behar zioten azken proba bakarrik falta zen ezarri beharretako tratamendua erabakitzeko.

Osakidetzaren ospitaleak tratamendua erabaki baino lehen gaisoak prozesua eten zuenez, ezin zen tratamendua epaitu, ez zekitelako haren berri. Gerta zitekeen Osakidetzaren ospitalean ezarriko zioten ospitale-tratamendua klinika pribatuan ezarri ziotenaren antzekoa izatea edo berak aipatzen zuen ospitalera bidalia izatea, Osakidetzarekin hitzartutako zentrua zelako.

Horregatik guztiagatik ondorio hau atera zen: gaisoak zentru pribatura bere borondatez jo zuela, ez zuela Osakidetzak bidali eta ez zegoela hara bidalia izateko arrazoirik ere. Beraz, Gizarte Segurantzakoak ez diren zerbitzuetan osasun-laguntza ematea arautzen duen araudiaren arabera, ez zen bidezkoa interesdunak eskatzen zuen ordainketa egitea.

3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

A) Sarrera

Alor honetan jaso diren 2 kexak honela banatzen dira:

| | |
|--------------------------|---|
| - Eusko Jaurlaritza..... | 1 |
| - Udalak..... | 1 |

Alor honetan bi kexa bakarrik jasotzeak hauxe aditzera ematen du: EHKARI gai horietan eskumen urri ematen zaizkiola. Horrela, Gizarte Segurantzaren aurrehartze-sistemaren osagarri den sistema bati buruzko kexa bat atal honetan sartu da. Izan ere, aurrehartze-sistema osagarria piskanaka desagertu eta Gizarte Segurantzaren sartzen doan neurrian arazoak sortu dira.

B) Kexa aukeratuak

MUNPAL delakoa (Toki Administrazioaren Aurrezaintzarako Estatu-ko Mutualitatea) Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartzean Montepio osagarria kentzea (239/92, 197/94, 198/94)

Bilboko Udalean lanean aritutako zenbait pentsiodunek kexa aurkeztu zuten Montepio sistemaren kontura jasotzen zuten osagarri bat kendu zietelako.

Montepio deritzan zaharsari horren bidez diru-kopuru bat jasotzea bermatzen zen, eta hori, pentsiodunek MUNPALetik hartzen zuten pentsio nagusiari osagarri bat erantsiz egiten zen.

Kexadunek beste pentsio bat ere jasotzen zuten Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren pentzutan, eta ez zegoen pentsio horiek denak (MUNPAL, Montepio eta erregimen orokorra) batera jasotzea eragotziko lukeen arrazoirik.

Kexa eragin zuen arazoa apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretua (ED) ezarri ondoren sortu zen, dekretu horrek erregimen orokorraren barruan sartu baitzituen Gizarte Segurantzako erregimen bereziak.

Erregimen orokorrean sartzearen ondorioz, kexadunek pentsio bakarra jasotzen zuten, hain zuzen lehenago MUNPAL pentsioa zena eta erregimen orokorrari zegokiona batuz lortutakoa.

Testuinguru horretan, Bilboko Udalaren ustez, lehen MUNPALenaren osagarri zen Montepio pentsioa, erregimen orokorrean sartzeari buruzko 480/1993 ED ezarriz lortzen zen pentsio bakarrari erantsi behar zitzaion aurrerantzean.

Horrela, Arartekoaren iritziz, Bilboko Udalak Alkatetza Dekretu baten bidez adierazi zuena hitzez hitz eta soil-soil irakurritz gero, Udalaren jarduera azal zitekeen, baiña erabaki hori ezin zitekeen zuritu, ez baitzuen kontuan hartzen pentsio bakar bilakatu zen horrek jasan zuen aldaketaren jatorria.

Kexadunek Montepio pentsioa jaso zuten epean, pentsio horren kopurua MUNPALenaren arabera orekatzeko kalkuluak egitearren, MUNPAL pentsioa bakarrik hartu zen oinarri Montepio Arautzen zuen Hitzarmenean.

Pentsiodunek beren jarduera pribatuagatik Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sorrarazi zuten pentsioa ez zen kontuan hartu kexa eragin duen Alkatetza Dekretuan orain azaltzen den orekatze-sistema burutzeko.

Pentsio publikoan alorrean, horiek sorrarazteko bete behar diren baldintzez gain, muga batzuk ere badaude, bai hilean gehienez jaso daitekeen kopuruari begira, bai pentsio horietako batzuk guztiak batera jasotzeko debekuari begira ere. Muga horietaz arduratzen dira Aurrekontu Lege Orokorrak, eta aipatu 480/1993 Erret Dekretua lege horien garapena baino ez da; ildo horretatik, kexadunek azaldutako kasuetan ez zirudien muga horiek urratu zirenik.

Alde batetik, bi pentsioak (MUNPAL eta erregimen orokorra) lehen ere publikotzat jotzen zirenez gero, ezberdintasun bakarra nabaritzen zen lehengo

egoeraren aldean: batu egin zirela lehen berezita zeuden bi batugai. Bestalde, alkatetza dekretuan ez zen adierazten Gizarte Segurantzaren erregimen orokorraren eta klase pasiboaren erregimenaren bitartez bikoiztasun-ezaren irizpidea urratu zenik, eta horrek bidezko dirudi kontuan hartzen badugu erregimen horiek ez dagozkiela administrazio bakar bati emandako zerbitzuei.

Orain oso-osorik erregimen orokorrak ordaintzen duen pentsioa pentsio bakartzat hartzeak ez dio ezer eranstenATEGITEAREN aurreko egoerari Montepio Arautzen duen Hitzarmenaren 1.c) atalak dioena gauzatzeko, orduan ere biak pentsio publikotzat jotzen baitziren, aurrekontu legeetan beroriek jasotzeko ezartzen ziren mugen arabera.

UdalakATEGITE horri eratziki dion ondorioa, gutxien jota ere, 480/1993 Erret Dekretuak eragin nahi ez zuen ondorioa da.

Egiaz, lehen bi pentsio publiko ezberdin zirenei kopuru bakarra gainezartzeak zaildu egin zezakeen funtsezko bide batez baliatzea Montepio osagarria ezartzerakoan: hain zuzen, osagarri horren kopurua MUNSALi zegozkion kopuruaren arabera orekatzea, azken pentsio hau desagertu egin baitzen.

Haatik, zailtasun hori, Arartekoaren ustez, ez zen Montepio pentsioa kenduz konpondu behar. Agian kasu honetarako konponbide egokia izan liteke lehenagoko MUNSAL pentsioaren kopurua hartu eta horri pentsio publikoen alorrean ondoren egin diren rebalorizazioak ezartzea.

Kexa aurkeztu eta Bilboko Udalari gomendio bat bidali ostean, kexadunek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuten eta, hortaz, 13. artikulua dioenari jarraiki, Arartekoaren jarduera geldiaraztea erabaki zen.

Lan-agintaritzak hitzarmen kolektiboaren gutxienezko edukia ikuskatzea (818/93)

Herritar batek hauxe salatu zuen erakunde honetan: Bilboko Ur, Hornidura eta Osasunbide Partzuergoaren XI. hitzarmen kolektiboan ez zela berariaz adierazten zein izango ziren urteko irabaziak urteko lanorduen arabera.

Hitzarmen kolektibo hori irakurri ondoren, erakunde honek egiaztatu ahal izan zuen aipatu partzuergoa ez zitzaiola beti irizpide berari jarraitzen hainbat lansari finkatzerakoan.

Horrela, oinarrizko soldata bestelako osagarri batzuetan (gauez lan egitea, jendeari arreta ematea), oinarrizko soldataren arabera zegozkion ehuneko kopuru baten bidez zehazten zen diru-zenbatekoa.

Aitzitik, beste osagarri batzuetan (erabateko dedikazioa, ekintza bereziak), berariaz adierazten zen osagarri bakoitzari zegozkion guztizko diru-kopurua.

Bestalde, oinarrizko soldata modu bitxi batean finkatzen zuten, iraganari begira, aurreko urtealdietarako ezarri ziren igoerak oinarriztat hartuz igotzen baitzituzten soldatak.

Erakunde honen iritziz, azken kasu honetan erabilitako bideak, era berean, zeharka izanik ere, oinarrizko soldataren arabera kalkulaturako osagarrietan zuen eragina, eta ez zettorren bat Langileen Estatutuaren 26.5. artikuluan aurrikusitakoarekin; izan ere, estatutu horrek dioenez, hitzarmen

kolektiboen testuan berariaz adierazi beharra dago zein izango den urteko lansaria lanorduen arabera.

Horregatik, eta lan-agintaritzari lanaren alorrean legezketasuna bermatzeko eman zaion betekizuna kontuan hartuz, Ararteko honek Uren Partzuergoaren hitzarmen kolektiboa egokitu zezaten eskatu zien Lana eta Gizarte Segurantzza Saileko arduradunei.

Gomendio horri egindako erantzun-idazkian, aipatu arduradunek ukatu egiten zuten indarrean dagoen legeria urratu zutenik.

Horri dagokionez, zera zioten, hitzarmenak indarreko urtealdi bakoitzera-ko soldata-igoerak ezartzen zituela aurreko urteko oinarrizko soldataren arabera, eta horren taula inoiz ez zela Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzara bidali han gorde eta erroldan sar zezaten, ez hitzarmen honetan, ez aurrekoetan ere, hitzarmen-sinatzaileek hala egitea erabaki ez zutelako, baina jakina, langileek bazekitela horren berri, eraginkorra baita Kode Zibilaren 1.273. artikuluan ezarritakoa.

Halaber, auzibidezko arazoak zeudela zioten jadanik erroldatua zegoen hitzarmen kolektiboaren testuan edozein aldaketa egin zedin eskatzeko.

Idazki horren arabera, Arartekoak adierazi behar izan zuen ez dagoela hitzarmen bat ustez legezkontrakoa izan daitekeen ala ez erabakitzerik hitzarmen-sinatzaileen arteko nolabaiteko adostasunean oinarrituz, baizik eta, aitzitik, hitzarmen kolektibo batek indarrean dagoen legeria urratuko duela bertan negoziazioaren ardatz nagusi izan behar duten arau formalak hausten badira, edota bestela, beharrezko Zuzenbidearen arau materialak urratzen badira, eta horien artean sartu behar dira hitzarmenetako gutxienezko edukiari dagozkio-nak.

Ildo horretatik, Langileen Estatutuaren 26.5. artikulua haxe dio hitzez hitz: "hitzarmen kolektiboetan berariaz adierazi behar da zein izango den urteko lansaria, urteko lanorduen arabera"; beraz, datu hori gutxienezko eduki premiazkotzat jo beharra finkatzen du eta, ondorioz, horri arreta ez egitea araugabetasun-arrazoitzat hartu behar izatea.

Arduradunek aipatu zituzten auzibidezko arazoei dagokienez, jakinarazi genien gure gomendioaren helburua ("XI. Hitzarmenaren testua (...) Langileen Estatutuaren 26.5. artikuluan jasotakoari egokitu diezaioten eskatzeko") ez zela soil-soilik zegokion epaitegian jazarpena aurkeztea.

Horrela, zehaztu genien bazirela hitzarmenaren legezketasuna zalantzan jarri ez zuten jurisprudentzia-aurrekariak, nahiz gutxienezko eta premiazko edukiak idatziz ez adierazi, lan-agintaritzak berak bazuelako eduki horien berri.

Horregatik, aurrerantzean hitzarmenak erroldaratu aurretik modu eragin-korrean esku hartzeko aukera egon zitekeelarik ere, gomendio bat luzatu genuen agintaritzak eskudunak hitzarmenean aipatu ez zen soldata-aula aurkez zezan eta ziurta zezan horren berri izango zutela bai hitzarmen horrek kaltetu-takoek, bai enpresako langile guztiek ere.

Horren ondoren, Lana eta Gizarte Segurantzza Saileko arduradunek adie-razi ziguten bazutela soldata-kontzeptu ezberdinen berri; beraz, erakunde

honek, kexan azaldutako salapena zuzen bideratzeko neurri egokiak hartu zirelakoan, espeditentea itxi eta artxibatzea erabaki zuen.

3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

A) Sarrera

Atal honetako kexak ikusita, nabarmena da hiritarrek gero eta gehiago arduratzen direla hirigintza alorreko ekintzez, haien interesetan eragina izaten dutelako; batzuetan, hiritarrek banaka aurkezten dizkigute beren kexak, eta beste batzuetan, aldiz, auzokide elkarteak izaten dira guregana jotzen dutenak.

Plangintzak direla eta iristen zaizkigun kexak halako puntu jakin batzuei buruzkoak izaten dira: lursail edo ekintza-eremu batekin zer egingo den edo nola sailkatuko den, edota nolako hornigai berriak ipiniko diren.

Hirigintz kudeaketari buruzko kexak kaltea jasan duten jabeek berek egin dituzte, beren eskubideen aldeko hirigintz arauak zorrotz bete daitezzen eskatzeko, edota dagokion udalari aprobetxamenduaren %15 uztea bidezkoa ez dela adierazteko.

Nolanahi ere, kexa gehienak obrak egiteko baimenek eragin dituzte. Salaketa horietako batzuk ekintza publikoaren ondorio direla esan daiteke, ezen kasu horietan auzokideek ez baitituzte beren interesak babesten, guztienak baizik; dena dela, gehientsuenetan, obra horien bidez egingo diren erakuntzek edo sortuko diren erabilera berriek halako kalte pertsonal batzuk eragingo dizkietela salatu ohi dute.

Beste kexa batzuk, aldiz, 1992ko Lurraren Legearen 4. xedapen gehigarriak aitortu eta Eusko Jaurlaritzaren 109/93 Dekretuaren 4. xedapen gehigarriak garatutako ordezkio etxebizitza jasotzeko eskubideari dagozkio. Kexa horietan, auzokideek beren kezka adierazten zuten, halako ekintza baten ondorioz beren ohiko etxebizitza utzi eta beste batera joan beharra zeukatela, eta bien bitartean, pisu berriak eraiki arte, behin-behineko beste etxe batean egon behar zutelako.

Bestetik, hiritarrek etxebizitza duina eduki ahal izateko ekintza publikoari dagokionez, etxebizitza lortzeko orduan berdintasun eskubidea betetzeari buruzko kezka agertzen zen jasotako kexetan. Gainera, promozio batean etxebizitza sozial bat eskuratu nahi, baina baztertuta sentitu direnen eskubideak aintzat hartzea eskatzen zuten; inoiz, etxeak lortzeko baldintzak hiritar-multzoren baten aldeko gertatzen zirela ere salatzen ziguten.

B) Kexa aukeratuak

Herri-bidearen egoera txarra hirialdean (197/92)

Bilboko auzokide elkarte batek kexa-idazkia aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, San Inazio auzoko ingurune bat urbanizazio-egoera txarrean

zegoela salatuz. Halaber, haien esanetan, oso arriskutsuak ziren bai ibilgailu ugari elkartzen ziren bide zati bat, bai sarbidea oso aldapa bizian zuen bidegurutzea.

Elkarte horrek Bilboko Udalari ere eskariak luzatu zizkionez gero, administrazio-espeditenteen biderapenaz gain ezarri zuen Arartekoak bere lana. Lehenbizi, bide-arriskua eragozteko ahaleginak egin ziren, bideak berehalako arriskua baitzekarren, toki horretan gertatutako istripuek erakusten zutenez.

Horrela, zenbait neurri hartu ziren ingurune horretan zebiltzan ibilgailuen segurtasuna bermatzeko; izan ere, bertan trafiko handia dago, Bilboko metroa egiteko lanen ondorioz, San Inazioko Agirre Lehendakariaren etorbideko trafikoa, egun Deustuko "behe-saihesbidea" deritzana osatzen duten kaleetara bideratu baitzuten.

Zirkulazio-arriskuak neurri handi batean gutxitu ondoren, ingurune horretako zati batzuen urbanizazio-egoeraz arduratu ginen. Horrela, bertara joan orduko, hauxe ikusi ahal izan genuen: kalearen ondoan zegoen orubea, erabiltzen ez ziren industri-biltegi batzuen sapaia zena, oso egoera txarrean zegoen, azalean ur eta zuloak zituela, eta, bestalde, lurrazal horretara oso erraz sartzen zen aipatu kaletik. Hori biziki arriskutsua zen bertan paseatzen ibiltzen ziren pertsonentzat, batez ere umeentzat, bai eta jabeek hara eramandako etxe-abereentzat ere.

Gainera, zulo handi eta sakon bat ere bazegoela konturatu ginen, seguraski bukatzeke utzitako eraikuntza-lanen baten ondorioz sortua. Zuloaren eta kalearen artean horma bat egon arren, tamalez, txit erraz irits zitekeen zulo ertzera, eta hori arriskutsua zen alde horretan jolasean ibili ohi diren umeentzat.

Horregatik guztiagatik, aipatu lokalen egoerak gorputz eta osasunezko arriskua zekarrelako, Arartekoak haien zegozkien espeditenteak ireki zitzaion eskatu zion Bilboko Udalari, eta baita lokalak norenak ziren ikertu eta erantzukizuna haren gain utz zezan ere. Hainbat jarduera egin ostean, lurralde Udalarenak berarenak zirela jakin genuen, nahiz eta Udalak lehenago jabe zen enpresarekin orubeak eskualdatzeko hitzarmena sinatu zuen.

Azkenik, Udalak bideratu zituen administrazio-espeditenteen emaitzen berri izan ondoren, erakunde honek gomendioa bidali zion Udalari, eta honek osotara onartu zuenez gero, espeditentea ixtea erabaki genuen, kexan azaldu ziguten arazoa konpondu zelakoan.

Bizkaiko Foru Aldundiak jabegoa kendutako lurralde itzuli nahi ez (732/92)

Bermeoko herritar batzuek Arartekora jo eta aditzera eman zuten Eusko Jaurlaritzak lurren jabegoa kendu zietela 1983an errepede-saihesbide proiektu bat burutzeko, baina errepede ez zela egin. Gainera, Lurralde Historikoen 27/83 Legearen indarrez, lur horiek Eusko Jaurlaritzaren eskuetatik Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetara pasatu zirela zioten.

Jabego-kentzea gertatu eta handik bost urtera, 1988an, hiritar horiek lurra itzultzeko eskatu zioten Bizkaiko Foru Aldundiari, baina honek ez zien erantzun.

1993ko ekainean Herrilanetarako Foru Saileko eta Bermeoko Udaleko ordezkariak kaltetuekin bildu eta hauxe proposatu zieten: epe laburrean hasiko zen Ordezko Arauen aldaketan, Bermeoko Udalak saihebidia egiteko taiuketa berri eta ezberdina onartzen bazuen -eta orduan bazirudien hala gertatuko zela-, Bizkaiko Foru Aldundiak berehala ekingo ziola jabegoa kendutako lurra itzultzeari.

Bermeoko Udalak, ordea, saihebidia egiteko lehenengo taiuketari eutsi zion Ordezko Arauen Aldaketarako Aurrerapenean; horiek horrela, Arartekoak Herrilanetarako Foru Diputatuarengana jo zuen haien legezko betekizunak gogorarazteko, eta esateko berehala ekin behar ziotela jabegoa kendutako lurra jabeen eskutara itzultzeko pausuak emateari, Derrigorrezko Jabegokentzei buruzko Legeak 53 eta 54. artikuluetan xedatutakoaren bidetik, 1983an bidezko balioa alde aurretik ordaindu ondoren.

Auzokide-elkarte batek Administrazioaren nagusikeria salatu zuen, eta auzoan ordezkotxe emateko baldintzen kontra azaldu zen (57/94)

Sestaoko auzokide-elkarte batek Arartekora jo zuen, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila eta Udala itun baten bidez auzo hirigintza mailan hobetzeko egiten ari ziren jardueraren kontra zeudela azaltzeko. Proiektua aurrera eramaten bazen, etxebizitza batzuen jabetza kendu eta etxeak bota behar izango ziren eta haiek ez zeuden ados etxe horietako bizilagunei ordezkotxeak emateko jarri ziren baldintzekin.

Hiritar horiek Administrazioak emandako tratua erantzik ziren kexu, ez zielako inolako informaziorik eman eta ez zuelako beren iritzia ezertarako kontuan hartu. Gainera, adierazi ziguten ondoko herri bateko auzo bateko bizilagunei, ordezkotxe emateko orduan, etxe berria eman ziela Administrazioak zaharraren ordezkotxe, eta, horregatik, berekin ere irizpide berberari jarraitzeko eskatzen zuten.

Azkenik, gutxienezko dirusarrerarik ez zeukaten etxebizitza jabe trukean etxebizitza berria alokeran eman nahi ziotela eta, horrekin ados ez zeudela eta etxebizitza berriaren jabe izan behar ziotela.

Arartekoak kasua aztertu ondoren, aditzera eman zien jardura horiek Eusko Jaurlaritzak Udalarekin sinatutako hitzarmen batean zutela oinarri, eta bazegoela alde bat ondoko udalaren kasuarekin: izan ere, azken horretan udalerririk laguntza gehigarri bat eman zuen auzo lekuz aldatzeko, eta horri esker eman ahal izan ziren etxe berriak zaharren truke.

Bestalde, elkarteari jakitera eman genion Arartekoak beti uste izan duela Administrazioak Konstituzioaren 47. artikuluan jasotakoa betetzen saiatu behar duela, alegia, hiritar guztiek etxebizitza duina edukitzeko eskubidea izatea. Ildo horretatik, funtsezkoena etxebizitza duina eduki ahal izateak izan

beharko luke, eta bigarren mailakoa etxebizitza alokatuta edo jabetzan edukitzeak.

Ikuspegi horretatik, Erakundearen ustez Udalak zuzen jokatu zuen etxebizitza berriak alokatuta eskaini zizkienean gutxienezko irabazirik ez zuten etxebizitza zaharren jabeei; izan ere, alde batetik, jabegoa kendutako etxebizitza ordaintzen zuen, eta bestetik, irabazien arabera mailakatutako alokeren dirukopuruak edozein bizilagunen eskura zeudela pentsa zitekeen.

Arartekoaren kezka bakarra hau zen: Administrazioak eskaintzen zituen alokera-kontratuetan ezarritako epeek aukera ematen ote zieten hiritarrei etxebizitza horietan nahi bezain denbora luzean bizitzen jarraitzeko; Udalak jakinarazi zuenez, alderdi hori bermatu egiten zitzaien maizterrei, hain zuzen ere, alokairu asko, batez ere adineko pertsonenak, bizi osorakotzat jo zitezkeelako.

Arartekoak, azkenik, auzokide-elkarteari aditzera eman zion ordezeko etxebizitza emateko prozesuan bizilagunen bat egoera kezkagarrian geratzen bazen, horrelako kasu bereziak aztertzeko prest zegoela.

Lurra botatzeko toki bat udalaren baimenik gabe jardunean ari zela salatu zuen herritar batek (97/94)

Erandioko biztanle batek Arartekora jo zuen, Udalaren isilbidezko baimenarekin Enekuri aldean zaborra botatzen ari zirela, eta udal-agintariei salatu arren, horri buruzko inolako neurrik ez zela hartu adierazteko.

Arartekoak informazioa eskatu zion Udalari eta hauxe adierazi zigun erantzunean: enpresa batek zabortegirako bidea eraikitzeko baimena zeukala, ordezeko arauak alde horretxetan iragartzen zutela zabortegia eta horretarako alde zurretik idatzitako Egitasmo Berezi bat ari zela bideratzen.

Zabortegia ikuskatzeko asmoz leku hartara egindako bisita baten ondoren ikusi zenez, kontua ez zen bide bat egiten ari zirela bakarrik, baizik eta zabortegi handi bat ere bazegoela bertan, neurri handiko materialez betetzen hasia, ordurako metro kubiko asko hartuta zituena.

Bien bitartean, Hirigintzako Foru Diputatuak, zabortegiari zegokion Egitasmo Bereziaren onarpena bertan behera uztea erabaki zuen, zabortegiaren proiektuan zuzenketa batzuk sartu eta ingurugiroa eta paisaia babesteko proiektu bat egin arte.

Udalaren utzikeriagatik ez zen batere ikuskatzen ari zabor horiek nondik iristen ziren, ez eta pozointsuak ziren ala ez.

Arartekoak Erandioko Udalari gomendatu egin zion isurketak berehala geldiarazi eta zabortegia itxi zezala, Egitasmo Berezia behin-betiko onartu eta beharrezko baimenak eskuratu arte. Gainera, botatako zaborrak aztertu behar zituela ere esan genion, inolako produktu kutsagarririk ez zela bota ziurtatzeko.

Aldi berean, Ingurugiro Sailordetzari jakinarazi zitzaion kasu honen berri, Sailaren baimenik gabe legez kontra zaborrak botatzen ari zirela jakin zezan.

Erandioko Udalak, azkenik, gure gomendioa onartu zuela erantzun zigun eta, ondorioz, zabor-botatzea eta zabortegirako bidea egiteko lanak bertan behera utzi eta zigor-espeditatea irekitzeko agindua eman zuela.

Babes ofizialeko etxebizitza ukatzea eskatzen ziren gutxienezko irabaziak ez edukitzeagatik (164/94)

Bilboko emakume batek salatu zuen bere seme-alabetako bik bertako Udalak eskaini zituen babes ofizialeko etxebizitzetako bat eskuratzeko eskaria egin zutela eta Udalak ez zuela onartu, haiek ez baitzeuzkaten eskatzen ziren gutxienezko irabaziak.

Gai honi dagokionez, hauxe eman genion aditzera kexadunari: euskal Administrazio publikoaren agintekeria eta utzikieratik herritarrek babestea dela erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak Arartekoari eman dion betekizuna, beti ere indarrean dauden legeei jarraiki. Horrela, babes ofizialeko etxebizitza lortzeko eskatzen diren irabaziak araubidez ezartzen direnez gero, Administrazioaren jokaera legezkoa izan zela adierazi genion, eta, beraz, kasu honetan ez genuela gure eskuhartzea zurituko lukeen lege-urratzerik nabaritu.

Hala ere, Ararteko honek kexadunari jakinarazi zion Hirigintza eta Etxebizitarako Kontseilaritza ahalegin handiak egiten ari zela etxebizitza lehen aldiz erosteko programa berezian sartzeko ezarrita dauden baldintzak eskatzaile batzuentzat hobetu zitezten, hain zuzen, urtean gutxienezko kopurutik behar-rako irabaziak dituzten eskatzaileentzat, hartara gai honetan premia handiena duten taldeen beharrei erantzutearren. Ildo horri jarraituz, 1994ko apirilaren 29an etxebizitza alorrean presako neurriak hartzeari buruzko dekretu berri bat argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian, eta bertan dirubidezko neurri berriak agertzen dira, irabazi gutxiko jendeak lehen etxebizitza erosteko aukera izan dezan.

Hirigintza alorreko lege-hauste baten aurrean neurririk hartu ez zuen alkate baten utzikeria salatzen da (178/94)

Plentziako zenbait herritarrek Arartekora jo zuten, herriko alde zaharrean legezkontrako obra bat egiten ari zirela jakinarazi eta honako hau salatzeko: Udalak ez zuela inolako neurririk hartu etxebizitza batzuen eraikuntza galerazteko, eta ondoren obrak legeztatik zitezkeen edo zati bat lurrera bota behar zen erabakitzeke.

Udalari espedientearen kopia eskatu eta horrela ikusi genuen Udalak egindakoa ez zela batere eraginkorra izan; izan ere, Alkatetzak hiru dekretu eman zituen obrak geldiarazteko, baina obrekin aurrera jarraitu zuten erabat amaitu zituzten arte.

Azkenik, obrak geldiarazteko azken agindua eman eta handik urtebetera, alkatetzak lantasan irizpidea ezartzea erabaki zuen dekretu baten bitartez; teitatuaren goiera eta azalera handiegia zirela onartzen zuen arren, lege-haustea larriegia ez zenez gero, interesen orekagatik ez zen komeni erabaki gogorregia hartzea, eta bai, ordea, Administrazioaren aldetik zigor espediente bat irekitzea, gehienez ere.

Arartekoak igorri zion gomendio-idatzian ez zuen aztertu egokia ote zen laintasun irizpidea ezartzea ala ez ezartzea, baina Alkatezari gogorarazi zion badagoela halako diskrezionalitate bat lege-kontzeptu mugagabe hori ezartze-ko zein baldintza bete behar diren erabakitzerakoan, eta gainera ez dela erabili behar larria ez den hirigintzako edozein lege-hauste babesteko, ezen, bestela, lege-hauste horiek ia inolako zigorrak gabe geratuko bailirateke.

Horretaz gain, Alkateari gogorarazi zitzaion aipatutako egoera diziplina edo aurre-hartze mailako neurriak behar zen garaian hartu ez zirelako eta Udalaren aginduak betearazi ez zirelako sortu zela, Toki Jaurbiderako Oinarrren Legearen arabera Alkatezari baitagokio berak hartutako erabakiak betearaztea.

Berdintasun irizpidea babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko (214/94)

Udal-elkarte pribatu batek sustatutako etxebizitza batzuen adjudikaziorako ezarri ziren baldintzen arabera, etxebizitza horietako bat lortu ahal izateko, bi pertsona edo gehiagoz osatutako famili-unitate bateko kide izan beharra zegoen.

Horregatik, baldintza hori betetzen ez zuen herritar batek kexa aurkeztu zuen, baztertuta sentitzen zelako etxebizitza horietako bat lortzeko aukera zuten famili-unitateen aldean.

Arartekoaren ustez, baldintza hori betetzen ez zuten pertsonen tratu ezberdina emateak ez zuen esan nahi berez kexa arrazoizkoa zenik.

Horrela, egoera batzuetan ematen den mesedezko tratua neurritzkoa bada lortu nahi den helburuari begira, horren ondorioz ematen den tratu ezberdina onargarria da.

Hala ere, egoera berezian dauden hainbat pertsona kanpoan uztearen ondorioz -esate baterako, famili-unitatea gutxienez bi pertsonak osatzen ez dutenean-, etxebizitza horietako bat lortzeko aukerarik gabe geratzen ziren baldintza hori betetzen ez zuten pertsonak.

Horrela, Arartekoak arrazoigabetzat eta berdintasunaren irizpidearen kontrakotzat jo zuen bereizkeria hori; izan ere, baldintza hura neurritz gainekoa zen mesedezko tratuaz lortu nahi zen helburuaren aldean, etxebizitza lortzeko aukerarik ematen ez zuelako beste baldintza berezi batzuk betetzen zituzten pertsonen.

Berdintasun irizpide hau derrigor hartu behar da kontuan, agintari publikoek Konstituzioak hiritarrei aitortzen dizkien eskubideak betetzen direla bermatu behar dutenean, esate baterako etxebizitza edukitzeko eskubidea, kasu honetan bezala.

Horregatik, gomendio hau luzatzea erabaki zen: aurrerantzean egiten diren etxebizitza-sustapenetan, kexa hau eragin zuena bezalako egoerak kanpoan ez uztea, nahiz eta egoera sozial edo ekonomiko jakin batzuk aintzat hartu.

Ordezko etxebizitza lortzeko eskubidea ezartzea hirigintz jardueretan (278/94)

Zarauzkar batek azaldu zuenez, Zarauzko Aritzatalde izeneko 30. Sektoraren birbanaketa-espeditatearen ondorioz bere etxebizitzatik bota zuten, Zatikako Egitamuan etxe hori lurreratzea iragarrita zegoelako.

Gainera, Zarauzko Udalak 30. sektore horretan etxebizitza sozial berriak egin arte aldi baterako beste etxe bat eman zion alokeran, 1992ko Lurraren Legearen Testu Bateratuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera; izan ere, xedapen horrek ordezko etxebizitza lortzeko eta lehengo lekuan eginiko etxe berrira itzultzeko eskubidea aitortzen du.

Alabaina, etxebizitza berrietara itzultzera une hartan bezala lanik gabe jarraituko balu, edo artean bere irabaziak lanbidearteko gutxienezko soldata bider 1,8 eginez lortutako kopurutik gorakoak ez balira, edo jasotako kalteordaina barne hartuz etxebizitzaren prezioaren seiren bat ez baleuka, orduan, indarrean zegoen araudiaren arabera, ezingo litzateke babes ofizialeko etxebizitzaren jabe egin, nahiz eta bota zioten etxebizitza berea izan; horrela, etxebizitza alokeran hartu beharko luke eta hori ez zitzaion zuzena iruditzen.

Arartekoak Zarauzko Udalari argibideak eskatu eta gaia aztertu ondoren honako erantzun hau bidali zion: Udalak famili-unitate bakoitzaren premien arabera etxebizitza duin eta egokia bermatu behar zela herritarrei, eskubide horretaz baliatzeko dauden lege-jaurbide ezberdinen artean bereizketarik egin gabe.

Kasu honetan babes ofizialeko etxebizitzaren baldintzen arabera alokera bermatu behar zuen Zarauzko Udalak: hau da, neurtutako moduloaren %4,5eko errenta gehienez ere, edo bestela esanda, 1993rako, eta kontuan izanik herritar horren irabaziak lanbidearteko gutxienezko soldata (65.219 pta./hileko) baino gutxiago zirela, hilean 15.000 pezeta inguruko errenta ateratzen zitzaion.

Bestalde, herritar hori Zarauzko Udalak besterik erabaki arte egon zitekeen alokatutako etxean, baina garbi utziz luzapenak lortzeko eskubidea izango zuela, azaldutako egoera berean jarraitzen zuen bitartean.

Etorkizunean elkarrekin biziko diren pertsona-unitateei esleituriko babespeko etxebizitzak noren izenean agertu behar duten eskriturretan (467/94)

Basauriko herritar batek Arartekoari azaldu zionez, itundutako etxebizitza baten jabe egiteko eskaria luzatu zuen, eta horretarako eskaera-orri bat aurkeztu; orri horretan bera erosle gisa agertzen zen eta bere bi arrebak (hauek ez zuten inolako irabazbiderik) elkarbizitzarako unitatearen gainontzeko kide bezala.

Zozketa egin ostean etxebizitza bat egokitu zitzaion, eta gero eraikina jaso zuen enpresa sustatzaileak kontratu bat izenpetzea eskaini zion, bertan jabe gisa agertuko zirelarik elkarbizitza-unitateko hiru kideak.

Herritar hori kezu zen etxebizitza berak bakarrik ordaindu beharko zuelako, arrebek ez baitzuten dirusarrerarik, eta, halere, eskrituretan soil-soilik etxebizitzaren heren baten jabe gisa agertuko zelako. Gainera, kexadunaren iritziz, etxea berak eskatu zuenez gero, ez zegoen jabetza bera eta bere arriben artean banatzera behartzen zuen araurik.

Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatu eta gaia aztertu eta gero, Arartekoak ondorio hau atera zuen: etorkizunean osatuko zen elkarbizitza-unitatea zela, ordurarte anai-arreba horiek gurasoekin bizi baitziren.

Gauzak horrela, senargai-andregaien kasuan gertatzen den bezalaxe, Administraritzak, etorkizunean elkarrekin biziko den bikote edo pertsona-unitateko kide guztiak jotzen ditu jabetzat, etxebizitza-eskaria unitate horretako kide batek ala guztiek egin.

Arartekoak ez zuen Administraritzaren jokaeran legekanpoko ezer antzeman, baina herritarrari ematen zaion informazioak garbiagoa izan behar duela iruditu zitzaion; hori dela eta honako gomendio hau luzatu zuen:

"Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak hauxe jaso beharko luke etxebizitza sozial edo babespekoen esleipena arautzen duen legedian: etorkizunean elkarrekin biziko diren pertsona-unitateen kasuan, kide guztiak joko direla etxebizitza-jabetzat, eskari-egile edo eskari-aurkezlea edozein delarik ere. Halaber, horixe adieraziko duen atal bat sartu beharko litzateke aurrerantzean egingo diren etxebizitza-esleipenak arautzeko baldintza-pleguetan."

Handik denbora gutxi barru, gomendioa onartzen zuela erantzun zigan Administraritzak, eta Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak abenduaren 19ko 6/94 Barruko Agindua eman zuen, "erosle" eta "elkarbizitza-unitateko kide" kontzeptuak argitzen dituen. Horrez gain, araudia aldatzean, barruko agindu horretan jasotako kontzeptuak bertan sartuko zirela zioen Administraritzak.

Udalaren utzikeriagatik legekontrako eraikuntza bat botatzeko epea amaitu zen (545/94)

Hona hemen Arartekora jo zuen hiritar batek azaldu zuena: bere etxebizitzatik metro bat baino gutxiagora legez kontra txabola bat eraiki zutela salatu zion Andoaingo Udalari, eta Udalak txabola botarazteko hainbat dekretu onartu zituen arren, txabolak zutik zirauen.

Udalari argibideak eskatu zizkion Arartekoak, eta emandako erantzunaren arabera, 1987an Udalak legekontrako eraikuntza horren berri izan eta jabeari botatzeko agindua eman zion, ezin zelako legeztatu; geroztik dekretu bat baino gehiago onartu ziren, baina jabeak sekula ez zuen agindua bete.

Arartekoak Alkatetzaren jokaera salatu zuen bere gomendioan, Lurraren Legeak eta Ordezko Arauek jasotzen zutenaren kontra, jabearen orde txabola lurreratu ez zuelako. Arartekoaren ustez, Udalak ez zuen modu eraginkorrean jokatu, alderantziz, ez zuen bere eginbeharra bete. Izan ere, Udalak legekontrako eraikuntzak botatzeko zeukan lau urteko epea bukatu egin zen eta,

beraz, ez zen zuzendu egindako lege-haustea, guztien interesaren eta salaketa egin zuten bizilagunen kaltetan.

3.13. BESTE GESTIO BATZUK

A) Sarrera

Ohikoa den bezala, azaltzen dituzten gaiengatik orain arte aipatu ditugun beste alorretan sartu ezin diren kexak sartzen dira atal honetan.

Joan den urtean atal honetan sartu beharreko 13 kexa-espeditente jaso dira, Ararteko Erakundearen bideratutako kexa guztien %2,2, beraz.

Atal honetan bildutako kexak oso ezberdinak direnez gero, ez da erraza horietan sarrien agertzen diren gaiak adieraztea.

Halere, aurreko urtealdietan bezala, nola edo hala gizarte-laguntzekin zerikusirik duten kexak azpimarratu behar dira.

Era berean, berez alor pribatuari badagozkio ere, gizon-emakumeengan daukaten eraginagatik Arartekoaren bitartekaritza eskatzen zuten gaiak ere aztertu dira.

B) Kexa aukeratuak

Etxebizitza baten salerosketa-kontratua deuseztatzea (274/94)

Honako arazo hau jakinarazi zigun hiritar batek bere kexan: eraikuntza alorreko enpresa batekin kontratu bat izenpetu zuen, bere herrian sustapen pribatuko eta babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko. Kontratu haren arabera, erosleak 1.537.000 pezeta ordaindu behar zituen aurrerapen bezala, eta gainerakoa giltzak jasotzean; gainerako hori ordaintzeko, mailegu hipotekario bat eskatzeko asmoa zeukan.

Kontratua izenpetu baino lehen, kexagileak bezero zen banketxe batean galdetu zuen ea mailegu hipotekario bat lortu ahal izango zuen, eta baietz erantzun zioten ahoz.

Kexagileak diru-kopurua ordaindu zuen, baina banketxera joan zenean hitzartutako mailegu hipotekarioa eskuratzeko egin beharrekoak egitera, lehenago aipatu ez zizkioten halako baldintza batzuk ipini zizkioten, beretzat bete ezinezkoak. Horregatik, espero zuen mailegua ezin izan zuen eskuratu eta, ondorioz, etxebizitza erosteko kontratuko klausulak ere ezin izan zituen bete.

Hori nahikoa arazo zen pertsona horrentzat, ordurarte zeukan etxebizitza aldegin behar baitzuen; baina, gainera, ordurako 1,5 milioi pezeta emanak zituen, eta, kontratua bete ezin zuela eta, eraikuntza-enpresari bere dirua itzultzeko eskatu zionean, honek aurrerapen bezala jasotako diruaren erdia bakarrik itzuliko ziola segurtatzen zion, kontratuko klausula baten babesean. Operazio horretan, kopuru handia galtzen zuen kexagileak -768.500 pezeta-

eta diru horren beharra zeukan, lehenagokoa baino merkeago aurkitu zuen bigarren eskuko beste etxebizitza bat erosi ahal izateko.

Gainera, erosleak ordaindu ez zuenez gero, eta nola berau ados ez zegoen lehenago esandako baldintzetan kontratua deuseztearekin, eraikuntza-enpresak lehenik notario bidez eta gero epaitegiaren bitartez eskatu zion ordaintzeko edota kontratua deusezteko.

Gure erakundea harremanetan jarri zen eraikuntza-enpresa horrekin, eta akordio batera iritsi ginen; horren arabera, kontratua deuseztu egingo zuten, eta erosleari aurrerapen bezala eman zuen diru-kopuru guztia itzuliko zioten, eraikuntza-enpresak izandako gaštuei zegokiena izan ezik, alegia, 110.000 pezeta, haiek ziotenez.

Hortaz, erakunde honek akordioaren testua osatu zuen esandako moduan, eta bi alderdiek izenpetu egin zuten, Arartekoak berme eta konponbiderako bitartekari gisa jardun zuelarik. Handik egun gutxira, banku-agiri bat iritsi zitzaigun; haren bitartez, eraikuntza-enpresak egiaztatzen zuen 1.427.000 pezeta itzuli zizkiola kexagileari. Gauzak horrela, espedientea artxiatu egin zen.

Irakasle batek gaitasun psikikoa neurri handi batean galdu zuelako funtzionari izateari uko zion (304/94)

Maisu-maistren kidegoko irakasle batek, gaitasun psikikoa neurri handi batean galdu zuela eta, funtzionari izateari uko egiteko aurkeztu zuen eskaria bideratu zuen Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak.

Maistra horren familiarteko batek erakunde honen laguntza eskatu zuen, uko egite horrek berekin zerkartzan ondorio larriengatik.

Ararteko honek, lehen-lehenik, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendariaren laguntza eskatu zuen, eta hau prest agertu zen aipatu funtzionariaren administrazio-egoera normaltzeko; bestalde, familiak lanerako behin-behineko ezintasunagatik zegokion baja bideratzen zuen bitartean, maistraren eskaera indarrrik gabe uztea erabaki zuen Administrazioak.

Ararteko honek, ondoren, eskuetan zeukan kasuari buruzko agiri guztiak bidali zizkion Donostiako Entzutegiko Fiskalburu jaunari, bidezko jotzen bazuen, ezintasunaren adierazpen judiziala egin zezan.

Azken proposamen hori ere onartua izan zen, eta kexan azaldutako arazo konponbidean zegoela ikusirik, erakunde honek amaitutzat eman zituen bere eginbeharrak.

IV. ATALA
ESTATISTIKA

4.1. OHAR OROKORRAK

1994. urtealdian guztira 3.838 idazki eta agiri jaso dira Ararteko Erakunde-
dean, eta 3.632 ofizio eta idazkiri eman zaie irteera.

Kopuru horiek hauxe adierazten dute: Arartekoak bidalitako agirien
kopurua, hau da, Erakundearen jarduera eta agiri-produkzioa agerian jartzen
dituena, %6 igo dela 1993. urtekoarekin alderatuz. Jaso diren agirien kopu-
ruea, aldiz, %5 gutxitu da.

| | 1994 | 1993 urtearekiko aldaketa |
|----------|-------|------------------------------|
| Sarrerak | 3.838 | %-5 |
| Irteerak | 3.632 | %+6 |

Hilean batez-beste 303 idatzi atera dira Erakundetik, eta, aldiz, 320 sartu
dira. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, sarrerak eta irteerak modu ore-
katuan banatzen dira hamabi hilabeteetan, abuztuan salbu, hil horretan gizarte
eta administrazio mailako jarduerak geldotu edo lasaitu egiten direlako, eta
horrek ondorioak ditu Erakundearen erroldan.

| Hilabetea | Sarrerak | Irteerak |
|-------------|----------|----------|
| Urtarrila | 335 | 262 |
| Otsaila | 348 | 282 |
| Martxoa | 360 | 411 |
| Apirila | 293 | 290 |
| Maiatza | 400 | 396 |
| Ekaina | 370 | 378 |
| Uztaila | 276 | 245 |
| Abuztua | 151 | 134 |
| Iraila | 203 | 256 |
| Urria | 339 | 236 |
| Azaroa | 432 | 359 |
| Abendua | 331 | 383 |
| 1994. urtea | 3.838 | 3.632 |

(Ikus 1. diagrama 183. orrialdean)

Jasotako kexak

1994. urtealdian Erakundeak 755 kexa jaso ditu, eta horrek, aurreko urteko 823 kexekin alderatuz gero, %9ko jaitsiera adierazten du.

Kexa-kopuruari dagokionez, aurreko urteetako gorako joera eteteko arrazoia hauxe izan daiteke: Erakundeburua 1994.go martxotik behin-behineko egoeran egotea. Sarritan, hiritarrek parekotzat jotzen dituzte egoera hori eta postua hutsik egotea; nolana ere, behin-behinekotasun hori ez da batere mesedegarria hiritarrek Erakundean duten konfidantza sustatzeko, eta konfidantza hori ezinbesteko baldintza da hiritarrek Arartekoan kexak aurkezteko erabakia har dezaten.

Nolana ere, nabarmendu beharra dago onartu ez diren kexen kopurua dexente gutxitu dela aurreko urtearekin alderatuz, eta horrek adierazten du hiritarrek hobeto ezagutzen dutela Erakundearen zeregina.

Hori erakusten dute, hain zuzen, honako datu hauek dela: 1994. urtealdian aurkeztutako kexa-kopuru osoa 1993.goarekin alderatuz gero %9a gutxitu arren, zenbait arrazoiengatik onartu ez diren kexak kanpoan uzten baditugu, euskal Administraritzaren publikoaren aurka aurkeztutakoak %1 bakarrik gutxitu dira, aurrerago adieraziko dugun bezala.

Kontuan hartzeko beste datu bat ere badago, kexa-kopurua gutxitu arren Erakundearen idazki-kopurua handitu dela, hain zuzen ere. Horrek jarduerak behera egin beharrean gora egin duela adierazten du.

| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 |
|--------------|------|------|------|------|------|------|
| Kexa-kopurua | | | | | | |
| guztira | 585 | 614 | 769 | 783 | 823 | 755 |

(Ikus 2. diagrama 184. orrialdean)

Onartu ez diren kexak

Ararteko Erakunde-hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legeak 21. artikuluan jasotzen ditu hiritarren kexak onartzeko bete behar diren baldintzak. Horrela, 1994. urtean guztira jaso direnen artean, lehenik arrazoi anitzengatik onartu ez direnak bereizi behar dira. Batez ere, norbanakoen arteko arazo pribatuak izategatik, edo ordurako epaitegien aurrean azalduak eta sendetsitako epaia emanda edo epaile-ebazpenaren zain zéudelako baztertu dira.

Nolana ere, erakunde honek 1994an erreklamazioei ahalik eta legebabesik handiena emateari eutsi dio, eta jardunbide-arauak interpretatzera-koan beti administratuaren alde jokatzeko saiatu da. Onartu ez diren kexei dagokionez, Erakundeak une oro azaldutako arazoak konpontzeko egokien izan daitezkeen irtenbideak hiritarrari ezagutarazteko ahaleginak egiten ditu.

Onartu ez diren kexak eta horretarako arrazoiak

| | |
|--|-----|
| - Norbanakoen arteko arazoak | 33 |
| - Auzitegira eramandako kexak | 28 |
| - Erakundearen eskumenetik kanpokoak | 27 |
| - Araugabetasun-eza begibistakoa izatea | 22 |
| - Aurretiaz Administrazioaren aurrean kexa aurkeztu gabekoak | 7 |
| - Legez ezarritako epeak bete arte itxaron behar du | 6 |
| - Bidezko interesik eza | 3 |
| - Urtebetetik gora iragandakoak | 2 |
| - Izenik gabea | 1 |
| - Beste batzuk | 1 |
| <hr/> | |
| Guztira | 130 |

(Ikus 3. eta 4. diagramak 185. eta 186. orrialdeetan)

Espainiako Defensor del Pueblo-ri igorritako kexak

Zuzenean euskal Administrazio publikoaren kontra aurkeztu ez diren kexen barruan, beroriek ikutzen dituzten alorren arabera, Espainiako Defensor del Pueblo-ri igortzen zaizkio bidera ditzan, Estatuko Administrazioari baita gozki, eta hortaz, Arartekoaren eskumen-eremutik kanpo baitaude.

1994. urtean Defensor del Pueblo-ri aurreko urtean baino askoz kexa gutxiago bidali zaizkio, hain zuzen %36ko jaitsiera egon da.

| | |
|--|----|
| - Espainiako Defensor del Pueblo-ri | 49 |
| - Beste herri-defendatzaile batzuei igorritako kexak | 1 |

Beste gestio batzuk eragin dituzten kexak

Estatistikak egitean aparte zenbatzen dira, Ararteko Erakundeak berak onartu eta bideratu arren, berez euskal Administrazio publikoaren jardura jakin baten kontrakoak ez diren kexak.

Alegia, hiritarrak azaldu duen arazoa konpontzeko era askotako gestioak eragin dituzten kexak dira eta, normala denez, oso tankera ezberdineko gaiak eta arazoak biltzen dituzte. Horrela, izen hori daraman atalean aztertu diren gaien laburpena agertzen da.

Aurreko urtealdiarekin alderatuz, beste gestio batzuk eragin dituzten kexen kopurua dexente gutxitu da.

| | |
|---|----|
| - Beste gestio batzuk eragin dituzten kexak | 13 |
|---|----|

4.2. ESTADISTIKA SAILEZ SAIL

Kexak dagozkien gai-sailen arabera aztertzen baditugu, nabarmenak dira, zerrendaren hasieran, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, aurreko urtealdiarekin alderatuz %5eko igoera izan baitute, funtzionari eta Administrazioako langileek aurkeztutako kexa-kopuruak izan duen igoera dela eta.

Hauek dira kexa-kopuru igoera nabarmena izan duten beste zenbait sail: Herrizaingoa (%33), Ingurugiroa (%20) eta Justizia (%35). Ogasuna, 1993. urtealdiarekin erkatuz kexa-kopurua gehitu ez bada ere, 1994. urtealdian kexa gehien jaso dituen bigarren saila izan dela esan beharra dago.

Azpitarratzekoa da Osasun eta Gizarte Ongizate sailak kexa-kopuruan izan duen jaitsiera nabarmena (%31). Bai Hirigintza eta Etxebizitzak, bai Hezkuntza sailak ere kexa gutxiago jaso dituzte.

Azkenik, gainerako sailen ehuneko kopuruak aurreko urteetako antzekoak izan dira, kexa-kopuruan gorabehera gutxi izan baita.

Esan beharra dago, garrantzizkoa baita, 1994an Administrazioaren aurka bideratutako kexa-kopurua 1993. goarekin alderatuz ia ez dela gutxitu, orduan 568 kexa bideratu baitziren, eta urtealdi honetan, berriz, sei gutxiago, hau da, 562.

| | Zenbat kexa jaso | % |
|----------------------------|---------------------|------|
| Funtzio P. eta Adm. Antol. | 131 | 23 |
| Ogasuna | 66 | 12 |
| Hirig. eta Etxeb. | 62 | 11 |
| Herrizaingoa | 60 | 10,6 |
| Ingurugiroa | 53 | 9,4 |
| Justizia | 46 | 8,2 |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 44 | 8 |
| Hezkuntza | 41 | 7,3 |
| Herrilanak eta Zerbitzuak | 25 | 4,4 |
| Nek., Ind., Merk. eta Tur. | 18 | 3,2 |
| Kult. eta Elebit. | 14 | 2,5 |
| Lana eta Giz. Segur. | 2 | 0,4 |
| Guztira | 562 | 100 |

(Ikus 5. diagrama 187. orrialdean)

Kexak azpisailen arabera

1994 urtealdian jasotako kexak gaietara begira aztertzean, ondorengo taulan ikusten da nolako eragina daukaten azpisailak Ararteko honek bere lana eratzeko darabiltzan gai-alorretako bakoitzean.

Lehenik, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alorreko igoera, Funtzio Publiko azpisailak izan duen igoerari zor zaiola ikusten da, azpisail horretan aurreko urtean baino 38 kexa gehiago jaso baitira. Era berean, Bidezaingo azpisailean ere igoera nabarmena gertatu da, eta horrela kexen multzo osoan Herrizaingoak ere gora egin du. Azkenik, Ogasun sailean, Foru-tributoak azpisailean ere kexa-kopurua dexente igo da.

1994an beherakada izan dutenen artean Osasuna eta Gizarte Ongizate saila dago, atal horretan sartzen diren kexen artetik osasunari dagozkionetan antzeman delarik beherakadarik handiena. Bestalde, Hezkuntza alorreko kopuruak behera egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin zerikusia duten arazo gutxiago azaldu izanak eragin du. Etxebizitza azpisailak izandako jaitiera ere aipatzekoa da.

| | |
|---|-----|
| - Funtzio Publikoa eta Adm. Antolakuntza | 131 |
| - Funtzio Publikoa | 85 |
| - Administrazioaren Antolakuntza | 46 |
| - Administrazioaren Antolakuntza | 36 |
| - Administrazioaren jardunbidea | 4 |
| - Kontratazioa eta ondarea | 4 |
| - Intimitate-eskubidea babestea | 2 |
| - Ogasuna | 66 |
| - Foru-tributoak | 39 |
| - Udal-zergak | 11 |
| - Prezio publikoak | 7 |
| - Udal-arielak | 7 |
| - Bestelakoak | 2 |
| - Hirigintza eta Etxebizitza | 62 |
| - Hirigintza | 43 |
| - Etxebizitza | 19 |
| - Herrizaingoa | 60 |
| - Bidezaingoa | 53 |
| - Herri-bakea | 7 |
| - Ingurugiroa | 53 |
| - Sailkaturiko hiri-ekintzak | 46 |
| - Ingurugiroari eragiten dioten beste gorabehera batzuk | 7 |
| - Justizia | 46 |
| - Administrazio Autonomikoaren ekintzak | 9 |
| - Justizi Administrazioaren administrazio-zerbitzuen ekintzak | 37 |

| | |
|---|----|
| - Osasuna eta Gizarte Ongizatea..... | 44 |
| - Osasuna | 18 |
| - Gizarte Ongizatea..... | 26 |
| - Hezkuntza..... | 41 |
| - Ituneak, laguntza bereziak eta beste batzuk..... | 16 |
| - Irakaskuntzaren programazio orokorra | 9 |
| - Bekak eta ikasteko laguntzak | 8 |
| - EHU | 5 |
| - Ikastegia aukeratzeko eskubidea | 3 |
| - Herrilanak eta Zerbitzuak..... | 25 |
| - Herrilanak | 15 |
| - Garraioak | 7 |
| - Udal zerbitzuak..... | 3 |
| - Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 18 |
| - Merkataritza..... | 9 |
| - Nek., abeltzantza eta arrantza | 7 |
| - Industria | 1 |
| - Turismoa | 1 |
| - Kultura eta Elebitasuna..... | 14 |
| - Elebitasuna | 10 |
| - Kirola | 2 |
| - Historia- eta arte-ondarea..... | 1 |
| - Bestelakoak | 1 |
| - Lana eta Gizarte Segurantza | 2 |
| - Lana | 1 |
| - Gizarte Segurantza | 1 |

4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKA

Euskal Elkarte Autonomoko Justizi Administrazioaren administra- zio-zerbitzuen kontrako kexak

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 9.2. artiku-
luan xedatutakoari jarraiki, Euskal Elkarte Autonomoko Justizi Administrazioa-
ren jardunari dagozkion kexak, kasu bakoitzean gaia ikertzeko edo ebazteko
ahalmena duen sailari igortzen zaizkio.

Horregatik, euskal administrazio publikoen kontra jasotako erreklamoak zenbatzerakoan kexa-multzo hori bereiztu egin behar da, agintaritza berezi baten jardunaren kontrako salaketak direlako.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaizkion aurreko urteetako txostenetan adierazi den bezala, Erakundeak kasu horietan Ministeritza Fiskalari eta, hala dagokionean, Agintaritza Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzen dizkio kexak, erakunde horiek ikerketak egin ditzaten eta egindakoaren berri erakunde honi eman diezaioten.

1994. urtealdian Euskal Elkarte Autonomoko Justizi Administrazioaren administrazio-zerbitzuen jardunari dagozkion 37 kexa bideratu dira guztira, beraz, aurreko kopuruarekin alderatuz nabarmen igo da.

- Euskal Elkarte Autonomoko Justizi Administrazioaren administrazio-zerbitzuen kontrako kexak37

1994. urtealdian Arartekoaren ikerketa-esparruan sartzen diren euskal administrazioen aurka jasotako kexei dagokienez, azken urteotako egonkortasuna hautsiz, aldaketa handiak aurkitu ditugu kexak hiru administrazioen artean banatzean.

Datuen arabera toki Administrazioaren jarduerak eragin duen kexa-kopurua gehitu egin da, eta Komunitate Autonomoko Administrazioaren jarduerak eragindako kexa-kopuruak aldiz beherakada nabarmena izan du. Foru-administrazioei dagokienez, horien aurka aurkeztutako kexa-kopurua zertxobait handitu dela ikusten da.

Horren ondorioz, erakunde honen historia laburrean lehendabiziko aldiz toki Administrazioaren aurkako kexa-kopurua Administrazio autonomikoaren aurkakoa baino handiagoa izan da, eta ehunekoari begira hamar puntuko aldearekin gainera.

| | Zenbat | % |
|--------------------------------------|-----------|-----------|
| - Toki Administrazioa | 259 | 46,8 |
| - Eusko Jaurlaritzako Administrazioa | 203 | 36,7 |
| - Foru Administrazioa | 91 | 16,5 |
| | <hr/> 553 | <hr/> 100 |

(Ikus 6. diagrama 188. orrialdean)

Foru-administrazioen aurkako kexak

1994. urtealdian kexa gehien jaso dituzten foru-administrazioak Gipuzkoa eta Bizkaia izan dira, kexa-kopuru berbera baitute, eta gero Araba.

Hurrenkera hori aldatu egiten da, ordea, kexa-kopurua lurralde historikoetako biztanle-kopuruarekin lotuz gero. Datuek erakusten dutenez, proportzioan Arabako foru Administrazioak jaso ditu kexa gehien, jarraian Gipuzkoa dator antzeko ratioarekin, eta Bizkaia da kexa gutxien jaso dituen.

Kexak foru-diputazioen arabera

| | Nº | % |
|----------|----|------|
| Bizkaia | 36 | 39,6 |
| Gipuzkoa | 36 | 39,6 |
| Araba | 19 | 20,8 |
| Guztira | 91 | 100 |

(Ikus 7. diagrama 189. orrialdean)

Toki Administrazioaren kontra aurkeztutako kexak

Euskal Elkarte Autonomoko toki Administrazioaren kontra aurkeztu diren kexei dagokienez, Bizkaia da, normala den bezala, toki administrazioen kontra guztira kexa gehien aurkeztu dituen lurraldea; jarraian Gipuzkoa eta Araba datoz, ordena horretan.

Berriro, lurralde historikoetako hiriburuetakoa administrazioek jaso dituzte kexa gehien 1993an; horien artean Bilbo nabarmentzen da, eta ondoren Gasteiz. Behin eta berriz azpimarratzekoa da, ordea, Arartekoaren egoitza hiriburu horretan egoteak bertako hiritarrei kexak aurkezteko ematen dien erraztasuna.

Elkarte Autonomoko beste udalerriei dagokienez, Bizkaian Getxo eta Sestao, eta Gipuzkoan Irun nabarmenarazi behar dira, 1994. urtean bost kexatik gora aurkeztu dituzten bakarrak direlako, iaz bezalaxe.

Toki Administrazioaren aurkako kexak

Araba

| | |
|----------------------|----|
| Gasteiz..... | 34 |
| Aiara | 3 |
| Amurrio | 3 |
| Artziniega | 3 |
| Erribera Goitia..... | 2 |

| | |
|---------------------------|-------|
| La Puebla de Labarca..... | 2 |
| Urkabustaiz..... | 2 |
| Baños..... | 1 |
| Barrundia..... | 1 |
| Gaubea..... | 1 |
| Iruña..... | 1 |
| Laudio..... | 1 |
| Zalduondo..... | 1 |
| | <hr/> |
| Guztira..... | 55 |

(Ikus 8. diagrama 190. orrialdean)

Bizkaia

| | |
|----------------------|----|
| Bilbo..... | 46 |
| Basauri..... | 9 |
| Getxo..... | 6 |
| Abanto-Zierbena..... | 4 |
| Barakaldo..... | 4 |
| Portugalete..... | 4 |
| Trapagaran..... | 4 |
| Durango..... | 3 |
| Elorrio..... | 3 |
| Erandio..... | 3 |
| Ermua..... | 3 |
| Galdakao..... | 3 |
| Mallabia..... | 3 |
| Sestao..... | 3 |
| Bakio..... | 2 |
| Bermeo..... | 2 |
| Gorliz..... | 2 |
| Igorre..... | 2 |
| Lekeitio..... | 2 |
| Plentzia..... | 2 |
| Santurtzi..... | 2 |
| Sopela..... | 2 |
| Alonsotegi..... | 1 |
| Balmaseda..... | 1 |
| Busturia..... | 1 |
| Gernika-Lumo..... | 1 |
| Markina-Xemein..... | 1 |
| Forua..... | 1 |
| Leioa..... | 1 |
| Mungia..... | 1 |
| Murueta..... | 1 |

| | |
|----------------|-------|
| Urduliz..... | 1 |
| Zaldibar | 1 |
| | <hr/> |
| Guztira..... | 125 |

(Ikus 9. diagrama 191. orrialdean)

Gipuzkoa

| | |
|-------------------|-------|
| Donostia..... | 18 |
| Hondarribia..... | 8 |
| Irun..... | 6 |
| Eibar..... | 5 |
| Lasarte-Oria..... | 5 |
| Andoain..... | 4 |
| Hernani..... | 4 |
| Pasaia..... | 3 |
| Elgeta..... | 2 |
| Elgoibar..... | 2 |
| Getaria..... | 2 |
| Tolosa..... | 2 |
| Zarautz..... | 2 |
| Zumaia..... | 2 |
| Abaltzisketa..... | 1 |
| Antzuola..... | 1 |
| Astigarraga..... | 1 |
| Belauntza..... | 1 |
| Bergara..... | 1 |
| Billabona..... | 1 |
| Errenteria..... | 1 |
| Legazpi..... | 1 |
| Mutriku..... | 1 |
| Orio..... | 1 |
| Soraluze..... | 1 |
| Urretxu..... | 1 |
| Usurbil..... | 1 |
| Zumarraga..... | 1 |
| | <hr/> |
| Guztira..... | 79 |

(Ikus 10. diagrama 192. orrialdean)

Elkarte Autonomoko Administrazioaren (Eusko Jaurlaritzaren) aurkako kexak sailez sail banaturik

Eusko Jaurlaritzako administrazioen jardura edo isiltasunen kontra aurkeztu diren kexei begira, Hezkuntza, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Herrizaingoa, Osasuna eta Gizarte Ongizatea dira berriro ere kexa gehien sortu dituztenak.

Kexa gehien eragin duten sailak Hezkuntza, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza eta Herrizaingoa izan dira.

Bestalde, igoerarik handienak ondorengo hiru sail hauetan gertatu dira: Hezkuntza, Herrizaingoa eta Justizia. Aldiz, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza eta Osasuna izan dira ehuneko kopuruetan eta kopuru osoetan beherakadarik handi eta azpimarragarriena izan dutenak.

| | Zenbat kexa jaso | % |
|----------------------------|---------------------|------|
| Hezkuntza | 55 | 27,1 |
| F.P. eta Adm. Antol. | 51 | 25,1 |
| Herrizaingoa | 26 | 12,8 |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 21 | 10,3 |
| Hirig. eta Etxeb. | 16 | 7,9 |
| Nek., Ind., Merk. eta Tur. | 10 | 4,9 |
| Justizia | 9 | 4,4 |
| Kult. eta Elebit. | 6 | 3 |
| Ingurugiroa | 5 | 2,5 |
| Herrilanak eta Zerb. | 3 | 1,5 |
| Lana eta Giz. Segur. | 1 | 0,5 |
| Guztira | 203 | 100 |

(Ikus 11. diagrama 193. orrialdean)

Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak sailez sail

| | Zenbat kexa jaso | % |
|------------------------------------|---------------------|------------|
| Hezk., Unib. eta Ikerketa | 85 | 41,9 |
| Herrizaingoa | 33 | 16,3 |
| Osakidetza | 30 | 14,8 |
| Hirig., Etxeb. eta Ingurugiroa | 18 | 8,9 |
| Zuzentza | 9 | 4,4 |
| Merk., Konts. eta Turismoa | 6 | 3 |
| Osasuna | 6 | 3 |
| Industria eta Enerjia | 5 | 2,5 |
| Kultura | 4 | 2 |
| Lehend., Araub. Jur. eta Aut. Gar. | 2 | 1 |
| Garraioak eta Herrilanak | 2 | 1 |
| Nekazaritza eta Arrantza | 1 | 0,4 |
| Ekonomia eta Ogasuna | 1 | 0,4 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 1 | 0,4 |
| Guztira | 203 | 100 |

Kexa gehien eragin dituen Eusko Jaurlaritzako saila Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izan da, alde nabarmenarekin. Ondoren Herrizaingoa eta Osakidetza, eta neurri apalagoan Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailak dira kexa gehien eragin dituztenak.

1994an hiritarrei arazo gutxieng sortu dieten sailak berriz, Arartekoan aurkeztutako kexen arabera neurtuz, Ekonomia eta Ogasuna, Lana eta Gizarte Segurantza eta Nekazaritza eta Arrantza izan dira.

Foru administrazioen aurkako kexak sailez sail banaturik

Aurreko urtealdietan bezala, Ogasun alorra da lurralde historikoetako foru-administrazioen kontra Ararteko Erakundearen kexa gehien eragin dituen. Gipuzkoako kasua nabarmena da, 22 kexarekin.

Era berean, foru erakundeen jarduera ikertzeko bideratu diren espedienteen ikuspegitik, Osasuna eta Gizarte Ongizatea, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza eta Herrilanak eta Zerbitzuak dira garrantzitsuen artean bigarren lekuan daudenak.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza eta Ogasun saileko kexa-kopuruak gora egin du, Osasun eta Gizarte Ongizate sailekoek behera egin duten bitartean.

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|-------------------------|-------|---------|----------|---------|------|
| Ogasuna | 4 | 15 | 22 | 41 | 45 |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 3 | 6 | 6 | 15 | 16,5 |
| F. P. eta Adm. Antol. | 5 | 6 | 4 | 15 | 16,5 |
| Herrilanak eta Zerb. | 2 | 3 | 1 | 6 | 6,6 |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | - | 3 | 1 | 4 | 4,4 |
| Kult. eta Elebit. | 2 | 1 | 1 | 4 | 4,4 |
| Hirig. eta Etxeb. | 2 | 1 | - | 3 | 3,3 |
| Ingurugiroa | 1 | 1 | - | 2 | 2,2 |
| Hezkuntza | - | - | 1 | 1 | 1,1 |

(Ikus 12. diagrama 194. orrialdean)

Toki Administrazioaren aurkako kexak sailez sail banaturik

Toki Administrazioaren aurkako kexak gaiaren arabera banatuz gero, azkenaldian sarritan gertatzen da lehenengo lekuan Ingurugiro nahiz Hirigintza eta Etxebizitza sailak egotea.

Aurten Ingurugiroa izan da lehenengoa sailkapenean, hamar kexa gehiago izan baititu, eta jarraian, nola ez, Hirigintza eta Etxebizitza dator, aurreko urtean baino lau kexa gutxiagorekin.

Toki Administrazio alorrean ere nabarmen igo da Herrizaingorekin, ibilgailuen zirkulazioarekin, eta Nekazaritza, Industria eta Merkataritzarekin lotura duten kexen kopurua, eta gutxiago Herrilan eta Zerbitzuekin, Funtzio Publiko eta Administrazioaren Antolakuntzarekin eta Ogasunarekin lotura duten kexen kopurua.

Kexa-kopuruak behera egin duen sailen artean nabarmena da, lehen aipatutako Hirigintza eta Etxebizitza sailaz gain, Osasun eta Gizarte Ongizate saila.

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|-------------------------|-------|---------|----------|---------|------|
| Ingurugiroa | 12 | 24 | 15 | 51 | 19,7 |
| Hirig. eta Etxeb. | 6 | 23 | 19 | 48 | 18,5 |
| F. P. eta Adm. Antol. | 10 | 21 | 15 | 46 | 17,8 |
| Herrizaingoa | 8 | 26 | 3 | 37 | 14,3 |
| Ogasuna | 7 | 9 | 8 | 24 | 9,3 |
| Herrilanak eta Zerb. | 7 | 11 | 6 | 24 | 9,3 |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | 1 | 3 | 8 | 12 | 4,6 |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 2 | 4 | 5 | 11 | 4,2 |
| Kult. eta Elebit. | 2 | 2 | - | 4 | 1,5 |
| Hezkuntza | - | 1 | - | 1 | 0,4 |
| Lana eta Giz. Segur. | - | 1 | - | 1 | 0,4 |

(Ikus 13. diagrama 195. orrialdean)

4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA.

Aurreko urteetan bezala, Bizkaia Lurralde Historikoko biztanleek aurkeztu dituzte kexa gehien Ararteko Erakundearen. Aurreko urteetako datuei begiratuz gero, berdin jarraitzeko joera ikusten da, lurralde historiko guztiek 1993. urtealdiko proportzio bera gorde baitute Elkarte Autonomo osoan aurkeztutako kexa-kopuruari dagokionez.

Kexen jatorriaren arabera lurralde banaketa

| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | Joera |
|----------|------|------|------|------|------|------|-------|
| Bizkaia | 288 | 284 | 293 | 332 | 376 | 349 | %-9 |
| Gipuzkoa | 188 | 195 | 244 | 241 | 250 | 234 | %-9 |
| Araba | 97 | 125 | 158 | 201 | 182 | 160 | %-9 |

(Ikus 14. diagrama 196. orrialdean)

Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Behin eta berriz ikusten denez, Arartekoari aurkezten zaizkion kexek batez ere hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dute jatorria. Nagusitasun hori Araban nabarmenagoa da, gasteiztarrek egin baitituzte erreklamazio guztien %76.

Aldiz, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, kexen erdiak baino gehiago lurralde horien hiriburuetatik kanpo bizi diren pertsonak egin dituzte eta, hortaz, hiriburua/gainontzeko udalerriak erlazioa, kexak aurkezteari dagokionez, askoz ere orekatuagoa da bi lurralde historiko horietan Araban baino; gainera, Gipuzkoan Bizkaian baino nabariagoa da gainerako udalerriek hiriburuaren aldean duten garrantzia.

| | Zenbat | % |
|-----------------------|--------|------|
| Araba | | |
| Gasteiz | 121 | 75,6 |
| Beste udalerriak..... | 39 | 24,4 |
| | 160 | 100 |
| Bizkaia | | |
| Bilbo | 148 | 42,4 |
| Beste udalerriak..... | 201 | 57,6 |
| | 349 | 100 |

Gipuzkoa

| | | |
|-----------------------|-------|-------|
| Donostia..... | 67 | 28,6 |
| Beste udalerriak..... | 167 | 71,4 |
| | <hr/> | <hr/> |
| | 234 | 100 |

(Ikus 15. diagrama 197. orrialdean)

Euskal Elkarte Autonomoaz kanpotik iritsitako kexak

Ohikoä den bezala, badira kexa gutxi batzuk Euskal Elkarte Autonomo-koak ez diren beste leku batzuetatik iristen direnak. 1994an era horretako kexa-kopurua dexente igo da, Elkarte Autonomotik kanpoko 13 erreklamazio jaso baitira. Horietatik 12 Espainiako beste alde batzuetatik bidali dituzte, eta 1 atzeritik igorria da.

Estatuko beste komunitate autonomo batzuetatik igorriak

| | |
|----------------------------------|-------|
| Kanarietako K.A..... | 3 |
| Gaztela eta Leongo K.A..... | 2 |
| Nafarroako Foru Komunitatea..... | 2 |
| Kantabriako K.A..... | 2 |
| Madrilgo K.A..... | 1 |
| Andaluziako K.A..... | 1 |
| Aragoako K.A..... | 1 |
| | <hr/> |
| | 12 |

Beste Estatu batzuetatik igorriak

| | |
|---------------|---|
| Frantzia..... | 1 |
|---------------|---|

Kexen jatorriaren arabera lurreko biztanleko 10.000 biztanleko

Lurreko biztanleko arabera iritsi diren kexen jatorriari buruzko azterketa konparatua egiteko, probintzia bakoitzetik helarazi dizkiguten kexa guztiak dagozkien probintzien biztanle-kopuruarekin lotuko ditugu. Ondorengo taulan eskaintzen dira lurreko biztanleko arabera iritsi diren kexak 10.000 biztanleko.

Erkaketa horretan ikus daitekeenez, aurten ere Araba da ehuneko kexa-kopuru altuena duen lurraldea, nahiz eta 1994an Arabari dagokion ratioak behera egin duen eta, horrela, aurreko urtealdietan beste bi lurraldeekiko zeukan aldeä gutxitu egin den.

Gainerako bi lurralde historikoei dagokienez, ehunekoak aurreko urtekoen antzekoak dira, zertxobait gutxitu arren. Nolanahi ere, Bizkaia da oraindik Ararteko Erakundearen kexa-proporzio baxuena aurkezten duen lurraldea.

| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 |
|----------|------|------|------|------|------|------|
| Araba | 4,3 | 4,5 | 5,8 | 7,4 | 6,7 | 5,9 |
| Gipuzkoa | 3,3 | 2,7 | 3,6 | 3,5 | 3,7 | 3,5 |
| Bizkaia | 3 | 2,9 | 2,5 | 2,8 | 3,3 | 3 |

(Ikus 16. diagrama 198. orrialdean)

4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA

Euskal administrazio publikoren baten kontra 1994. urtean aurkeztu diren 525 kexen biderapenari dagokionez, erdiak baino gehiago, %54, urte barruan ebatzi dira, eta beste 239 abenduaren azken egunean artean biderapenean zeuden. Azken kopuru horretan, urteko azken egunerarte irekitako espediente guztiak sartzen dira, noski.

| | Zenbat | % | Kexaduna zuzen | Kexaduna oker | Besterik |
|--------------|--------|------|----------------|---------------|----------|
| Biderapenean | 239 | 45,5 | | | |
| Bukatutak | 286 | 54,5 | 99 | 173 | 14 |

(Ikus 17. eta 18. diagramak 199. eta 200. orrialdeetan)

1994. urtean bukatutako espedienteak bideratzen hasitako urteen arabera

1994. urtean osorik bideratu diren 286 kexekin batera, aurreko urteetan egindako eta urte berean ebatzi ezinik geratu ziren beste 277 erreklamazioen biderapena ere amaitu da. Jakina, multzo horretako espediente gehienak 1993. urtearen azken sei hilabeteetan ireki ziren.

| | |
|-----------|-----|
| 1989..... | 1 |
| 1990..... | 5 |
| 1991..... | 17 |
| 1992..... | 48 |
| 1993..... | 206 |
| 1994..... | 286 |

1994. urtean bukatutako espedienteak, guztira563

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak

Erakunde honen lan juridikoa antolatzeko egiten den gai-multzoen araberrako banaketa aintzat hartuz, 1994. urtean batik bat Funtzio Publiko eta Administrazioaren Antolakuntza alorrean eman zaie arrazoia kexa-aurkezleei. Gai-multzo gehienetan ez onartutakoen artean, kexagileek hasieran azaldutako argudioen kontrako ebazpenaz itxi diren espedienteak dira nagusi.

| | Bid. | Buk. | Kexaduna zuzen | Kexaduna oker | Besterik |
|-------------------------|------|------|-------------------|------------------|----------|
| F. P. eta Adm. Antol. | 62 | 69 | 34 | 29 | 6 |
| Ogasuna | 31 | 35 | 9 | 26 | - |
| Hirig. eta Etxeb. | 27 | 35 | 9 | 24 | 2 |
| Herrizaingoa | 26 | 34 | 16 | 17 | 1 |
| Ingurugiroa | 31 | 22 | 5 | 17 | - |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 16 | 28 | 7 | 19 | 2 |
| Hezkuntza | 12 | 29 | 6 | 23 | - |
| Herrilanak eta Zerb. | 14 | 11 | 4 | 6 | 1 |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | 8 | 10 | 2 | 7 | 1 |
| Kult. eta Elebit. | 7 | 7 | 5 | 2 | - |
| Justizia | 5 | 4 | 2 | 2 | - |
| Lana eta Giz. Segur. | - | 2 | - | 1 | 1 |
| Guztira | 239 | 286 | 99 | 173 | 14 |

(Ikus 19. eta 20. diagramak 201. eta 202. orrialdeetan)

Elkarte Autonomoko Administrazio orokorraren prozedurari buruzko estatistika

Euskal Elkarte Autonomoko Administrazio orokorraren, hau da, Eusko Jaurilaritzaren, kontra bideratutako kexetatik 107 urte barruan itxi dira, eta horietako hirutik batean eman zaio arrazoia kexadunari.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Eusko Jaurlaritza

| | Bid. | Buk. | Kexaduna | | Besterik |
|-------------------------|-----------|------------|-----------|-----------|----------|
| | | | zuzen | oker | |
| F. P. eta Adm. Antol. | 40 | 30 | 15 | 13 | 2 |
| Hezkuntza | 9 | 27 | 5 | 22 | - |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 10 | 11 | 3 | 6 | 2 |
| Hirig. eta Etxeb. | 7 | 9 | 4 | 5 | - |
| Herrizaingoa | 11 | 15 | 3 | 11 | 1 |
| Lana eta Giz. Segur. | - | 1 | - | 1 | - |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | 4 | 6 | 4 | 1 | 1 |
| Herrilanak eta Zerb. | 2 | 1 | - | 1 | - |
| Kult. eta Elebit. | 5 | 1 | 1 | - | - |
| Ingurugiroa | 3 | 2 | - | 2 | - |
| Justizia | 5 | 4 | 2 | 2 | - |
| Guztira | 96 | 107 | 37 | 64 | 6 |

(Ikus 21. eta 22. diagramak 203. eta 204. orrialdeetan)

Foru administrazioen prozedurari buruzko estatistika

Foru administrazioen kontra aurkeztu diren kexen atalean, 1994. urtean irekitako espedienteen erdia urte amaierarako itxita zegoen, eta horietatik 16 kasutan eman zaie arrazoia kexagileei.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Foru administrazioak

| | Bid. | Buk. | Kexaduna | | Besterik |
|-------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|----------|
| | | | zuzen | oker | |
| Ogasuna | 23 | 18 | 3 | 15 | - |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 4 | 11 | 8 | 3 | - |
| Herrilanak eta Zerb. | 3 | 2 | - | 1 | 1 |
| F. P. eta Adm. Antol. | 9 | 6 | 3 | 3 | - |
| Hirig. eta Etxeb. | 3 | - | - | - | - |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | 2 | 2 | - | 2 | - |
| Kult. eta Elebit. | 2 | 2 | 1 | 1 | - |
| Ingurugiroa | - | 2 | - | 2 | - |
| Hezkuntza | - | 1 | 1 | - | - |
| Guztira | 46 | 44 | 16 | 27 | 1 |

(Ikus 23. eta 24. diagramak 205. eta 206. orrialdeetan)

Toki Administrazioaren prozedurari buruzko estatistika

Azkenik, gure elkarte autonomoko toki administrazioei dagokionez, erakunde honek bideratu dituen espedienteen erdia baino gehiago ebatzi dira. Kasu horietan, herena baino zertxobait gehiagotan bidezkotzat jo dira hirita-reek azaldutako arrazoiak.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Toki Administrazioa

| | Bid. | Buk. | Kexaduna zuzen | Kexaduna oker | Besterik |
|-------------------------|------------|------------|----------------|---------------|----------|
| Ingurugiroa | 31 | 20 | 5 | 15 | - |
| Hirig. eta Etxeb. | 21 | 27 | 5 | 20 | 2 |
| F.P. eta Adm. Ant. | 16 | 32 | 17 | 11 | 4 |
| Herrilanak eta Zerb. | 17 | 7 | 3 | 4 | - |
| Ogasuna | 7 | 17 | 6 | 11 | - |
| Herrizaingoa | 18 | 19 | 13 | 6 | - |
| Osasuna eta Giz. Ong. | 4 | 7 | 1 | 6 | - |
| Hezkuntza | 1 | - | - | - | - |
| Kult. eta Elebit. | 1 | 3 | 2 | 1 | - |
| Nek., Ind., Merk., Tur. | 5 | 7 | 1 | 6 | - |
| Lana eta Giz. Segur. | - | 1 | - | - | 1 |
| Guztira | 121 | 140 | 53 | 80 | 7 |

(Ikus 25. eta 26. diagramak 207. eta 208. orrialdeetan)

4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA

1994. urteko kexak soziologikoki aztertu eta gero, emakumeek egindako salaketak gehitu egin direla ondoriozta dezakegu, baina, hala ere, gizonak dira oraindik nagusi, horiek egin baitituzte jasotako kexen erdia baino gehiago.

| Sexua | Zenbat | % |
|-----------|--------|------|
| Gizonak | 391 | 51,8 |
| Emakumeak | 239 | 31,6 |
| Taldeak | 125 | 16,6 |

(Ikus 27. diagrama 209. orrialdean)

Euskal Elkarte Autonomoko bi hikuntza ofizialen erabilerari dagokionez, 1994an erakunde honetan aurkeztu diren 755 kexak hartzen baditugu, 20 bakarrik aurkeztu dira euskaraz eta gainontzekoak gazteleraz. Horrek aurreko

urteetako joera eten du, euskaraz aurkeztutako kexa-kopurua handituko zela adierazten baitzuen.

Arartekoak, hiritarrak erreklamazioa egiteko aukeratu duen hizkuntza errespetatu eta hizkuntza berean bideratzen du beti kexa, gure herrialdean hizkuntz normalkuntzarako indarrean dauden legeek agintzen dutena zorrotz beteaz.

| Hizkuntza | Zenbat | % |
|-----------|--------|------|
| Gaztelera | 735 | 97,4 |
| Euskaraz | 20 | 2,6 |

(Ikus 28. diagrama 209. orrialdean)

Azkenik, eta kexak aurkezteko moduari dagokionez, ohikoena Arartekoarekin idatzizko harremanak izatea da, baina kexa anitz Arartekoaren egoitzara etorri eta ahoz aditzera eman dira, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala..

| Aurkezpena | Zenbat | % |
|------------|--------|----|
| Idatziz | 560 | 74 |
| Ahoz | 195 | 26 |

(Ikus 29. diagrama 210. orrialdean)

4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Euskal hiritarrek zerbitzu horri ematen dioten erabilera finkatu egin zela genion aurreko txostenetan. Eta gauza hori bera frogatzen dute 1994. urteari dagozkion datuek.

Aurten 423 bisita hartu dira Arartekoan, hilean %35, beraz. Horietatik guztietatik 145, hau da %34, lege-arauzko kexa bilakatu ziren. Gainontzeko bisitarietarako dagokienez, zenbait kasutan haien azaldutako gaiak Arartekoaren eskumenetik kanpo geratzen ziren eta, hortaz, ezin ziren kexa bezala bideratu, edo agiri gehiago eskuratu behar zituzten, edo bisitaren arrazoia irekitako kexa-espeditarearen egoera jakitea besterik ez zen.

Jasotako bisitari gehienak, %66, bakarrik etorri dira, eta gainontzeko %34a taldean. Guztira, 577 pertsona etorri dira zerbitzu honetara; horietatik %51 gizonak izan dira eta %49 emakumeak, eta aipatu beharra dago emakumeen proportzioak gora egin duela gizonenarekin alderatuz.

Erakunde an jasotako bisitak

| | Zenbat | % |
|----------|--------|-----|
| Banaka | 281 | 66 |
| Taldeka. | 142 | 34 |
| Guztira | 423 | 100 |

(Ikus 30. diagrama 211. orrialdean)

Etorri den jende kopurua

| | Zenbat | % |
|--------------|--------|-----|
| Gizonekoak | 293 | 51 |
| Emakumezkoak | 284 | 49 |
| Guztira | 577 | 100 |

(Ikus 31. diagrama 211. orrialdean)

Pertsona horien adinari dagokionez, Erakundera gutxien etorri direnak gazteak (23 urtetik beherakoak) eta adinekoak (60 urtetik gorakoak) izan dira, bi talde horiek batera %22a osatzen dutelarik. Gainontzeko %78a hiru adin multzoen (24-59) artekoek osatu dute, eta horietatik gehienak 35 eta 46 urte bitartekoak izan dira, guztien %29ra iritsiz, ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

Pertsonen sailkapena adin taldeen arabera

| Edad | Zenbat | % |
|----------------|--------|------|
| 23 urte arte | 35 | 6 |
| 24 - 34 | 131 | 22,7 |
| 35 - 46 | 166 | 28,8 |
| 47 - 59 | 153 | 26,5 |
| 60 edo gehiago | 92 | 16 |
| Guztira | 577 | 100 |

Erakunde an egindako bisita edo kontsulta batzuk euskaraz burutu dira, eta hizkuntza horretan mintzatu gara hiritar horiekin. Kexa idatziz egiterakoan, ordea, askok gaztelera erabiltzea nahiago izan dute eta, ondorioz, estatistikari begira, informazio zerbitzu honetan gazteleraz bideratu diren kexak euskaraz bideratuak baino gehiago izan dira.

Bisitien kopuruen banaketa ez da berdina urte sasoi guztietan; nahiko neurrizkoa bada ere, maiatzean eta ekainean gehiago egiten dira eta, noski, abuztuan beherapen handia izaten dute.

Bisitien banaketa hilabetez hilabete

| | |
|----------------|------------|
| Urtarrila | 34 |
| Otsaila | 42 |
| Martxoa | 39 |
| Apirila | 36 |
| Maiatza | 51 |
| Ekaina | 48 |
| Uztaila | 29 |
| Abuztua | 13 |
| Iraila | 26 |
| Urria | 44 |
| Azaroa | 31 |
| Abendua | 30 |
| Guztira | 423 |

(Ikus 32. diagrama 212. orrialdean)

Bisita horien jatorri geografikoari dagokionez, berriro azpimarratu behar da Ararteko Erakundea Gasteizen egoteak daukan eragina. Horrela, bisiten %59 hiri horretakoak izan dira; beraz, bisita guztien %82 arabarrek egin dituzte.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaitik eta Gipuzkoatik antzeko bisita kopurua jaso da, alegia, %15a eta %13a hurrenez hurren, eta Arabatik, berriz, %72a, nahiz eta lurralde horrek Euskal Elkarte Autonomoko biztanleen %13a besterik hartzen ez duen.

Bisitarien jatorria lurralde historikoen arabera

| | Zenbat | % |
|----------------|------------|------------|
| Araba | 302 | 71,5 |
| Bizkaia | 64 | 15 |
| Gipuzkoa | 55 | 13 |
| Beste batzuk | 2 | 0,5 |
| Guztira | 423 | 100 |

(Ikus 33. diagrama 213. orrialdean)

Hau da herrien araberako banaketa:

Bisitarien jatorria udalen arabera

| Araba | | |
|----------------------------|-------|------|
| Gasteiz | 248 | 82 % |
| La Puebla de Labarca | 9 | |
| Artziniega | 5 | |
| Amurrio | 4 | |
| Iruña | 4 | |
| Erribera Goitia | 3 | |
| Laudio | 3 | |
| Leza | 3 | |
| Baños | 2 | |
| Labastida | 2 | |
| Biasteri | 2 | |
| Dulantzi | 2 | |
| Urkabustaiz | 2 | |
| Zalduondo | 2 | |
| Zigoitia | 2 | |
| Ajara | 1 | |
| Aramaio | 1 | |
| Arratzua-Ubarrundia | 1 | |
| Beranturi | 1 | |
| Gaubea | 1 | |
| Kanpezu | 1 | |
| Koartango | 1 | |
| Lantziego | 1 | |
| Legutio | 1 | |
| | <hr/> | |
| Guztira | 302 | |

| Bizkaia | | |
|--------------------|----|------|
| Bilbo | 23 | 36 % |
| Barakaldo | 7 | |
| Basauri | 7 | |
| Getxo | 3 | |
| Leioa | 3 | |
| Durango | 2 | |
| Zierbena | 2 | |
| Zornotza | 2 | |
| Arrigorriaga | 1 | |
| Arteaga | 1 | |
| Bermeo | 1 | |

| | |
|--------------------|---|
| Elorrio | 1 |
| Erandio | 1 |
| Galdakao | 1 |
| Gernika-Lumo | 1 |
| Lekeitio | 1 |
| Loiu | 1 |
| Mallabia | 1 |
| Mañaria | 1 |
| Mungia | 1 |
| Portugalete | 1 |
| Sestao | 1 |
| Zaratamo | 1 |

Guztira64

Gipuzkoa

| | | |
|----------------------|----|-----|
| Donostia | 10 | 18% |
| Eibar | 10 | |
| Irun | 5 | |
| Tolosa | 4 | |
| Arrasate | 3 | |
| Eskoriatza | 3 | |
| Beasain | 2 | |
| Bergara | 2 | |
| Abaltzisketa | 1 | |
| Andoain | 1 | |
| Astigarraga | 1 | |
| Azkoitia | 1 | |
| Elgoibar | 1 | |
| Lasarte-Oria | 1 | |
| Leintz-Gatzaga | 1 | |
| Olaberría | 1 | |
| Orio | 1 | |
| Urretxu | 1 | |
| Usurbil | 1 | |
| Zarautz | 1 | |
| Zumaia | 1 | |

Guztira55

Beste batzuk

| | |
|--------------------------------|---|
| Miranda de Ebro (Burgos) | 1 |
| Alicante | 1 |

Guztira2

Bisitetan Administrazioaren kontra aurkeztu diren kexen %61 inguru euskal Administrazio publikoaren kontrakoak izan dira. Azaldu diren arazoek %23 ezin izan dira onartu norbanakoen arteko auziak zirelako edo justizi auzitegien aurrean jada aurkeztuta zeudelako. Azkenik, bisita batzuk (%9a) egiteko arrazoiak Estatuko Administrazioaren aurka kexa aurkeztea izan da, eta beste batzuk (%6a), berriz, beraiek aurkeztu kexei buruzko espedienteen egoera eza-gutzeko egin dira.

Bisitetan jaso diren eta euskal Administrazio publikoari dagozkien kexen arrazoiak asko izan dira, jarraian datorren koadroan ikus daitekeen bezala, baina lau sail nabarmentzen dira, denera guztiaren erdia baino gehiago (%63) baitira, eta hauexek dira: Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Osasuna eta Gizarte Ongizatea, Hirigintza eta Etxebizitza eta Ogasuna.

Bisita-arrazoiak sailez sail -euskal administrazioak-

| Saila | Zenbat | |
|-----------------------------------|---------------|-----|
| Funtzio Publikoa eta Adm. Antol. | 65 | |
| Osasuna eta Gizarte Ongizatea | 41 | |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 40 | |
| Ogasuna | 36 | |
| Herrizaingoa | 25 | |
| Ingurugiroa | 23 | |
| Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak | 13 | |
| Hezkuntza eta Kultura | 8 | |
| Nekaz., Indus., Merka. eta Turis. | 6 | |
| | 257 | 61% |
| Guztira | | |

(Ikus 34. diagrama 214. orrialdean)


Estatuko Administrazioari dagozkionak, berriz, hauek izan dira:

Estatuko Administrazioa

| | Zenbat | |
|--|---------------|----------|
| Gizarte Segurantza eta Estatuko klase pasiboak..... | 22 | |
| Ekonomia eta Ogasuna..... | 4 | |
| Hezkuntza..... | 4 | |
| Herrizaingoa..... | 4 | |
| Posta eta Telegrafoak..... | 3 | |
| Soldadutza..... | 2 | |
| Osasuna..... | 1 | |
| | <hr/> | |
| Guztira..... | 40 | 9,5% |
| Justizia Administrazioa..... | 15 | 3,5% |
| Gai pribatuak..... | 80 | 19% |
| Espedientearen biderapen egoerari buruzko kontsulta .. | 25 | 6% |
| Beste batzuk..... | 6 | 7% |

Amaitzeko, joan den urteko txostenean esaten zen bezala, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren SOS-Deiak larrialdietarako arreta-zerbitzuak jardunean dirau 088 telefono zenbakiaren bidez. Noizbehinka erabiltzen da zerbitzu hori, baina, halere, hiritarrak premia larria daukanean bertara jotzeko aukera bermatuta dago.


IDAZKIEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE
URTARRILAK 1-ABENDUAK 31 BITARTEKO ALDIAN



SARRERAK
 IRTEERAK

1. DIAGRAMA


JASOTAKO KEXAK



■ 1989 ▨ 1990 □ 1991
■ 1992 ▩ 1993 □ 1994


2. DIAGRAMA

KEXEN EGOERA ONARPEN PROZEDURAREN ONDOREN




3. DIAGRAMA

EZEZTUTAKO KEXEN BANAKETA




4. DIAGRAMA

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN
 AURKAKO KEXAK SAILEZ SAIL BANATURIK




5. DIAGRAMA

ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA




6. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




7. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA ARABAN UDALEZ UDAL




8. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA BIZKAIAN UDALEZ UDAL




9. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA GIPUZKOAN UDALEZ UDAL




10. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO
KEXAK SAILEZ SAIL BANATURIK




11. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN AURKAKO KEXAK
SAILEZ SAIL BANATURIK





12. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO KEXAK
SAILEZ SAIL BANATURIK




13. DIAGRAMA

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA



14. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA LURRALDE BAKOITZEAN




HIRIBURUA

 BESTE UDALAK

15. DIAGRAMA

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO
LURRALDE BANAKETA 10.000 BIZTANLEKO



1989

1990

1991


1992

1993

1994


16. DIAGRAMA

ONARTURIKO KEXEN EGOERA




17. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA EMAITZAREN
ARABERA




18. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN
DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




19. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




20. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA:
 BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN
 BANAKETA SAILEZ SAIL




21. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




22. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




23. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN
BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




24. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA
SAILEZ SAIL




25. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




26. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA




27. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA HIZKUNTZAREN ARABERA




28. DIAGRAMA

KEXAK AURKEZTEKO MODUA




29. DIAGRAMA

ERAKUNDEAN JASOTAKO BISITAK




30. DIAGRAMA

ETORRI DEN JENDE KOPURUA




31. DIAGRAMA

BISITEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE




32. DIAGRAMA

BISITARIEN JATORRIA
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



33. DIAGRAMA

BISITA-ARRAZOIAK SAILEZ SAIL
EUSKAL ADMINISTRAZIOA



34. DIAGRAMA

V. ATALA

**ADMINISTRAZIOAREN SAIL
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

Jakina denez, otsailaren 27ko 3/85 legeak 24. artikuluan dioenez, enpresa ordezkari edo nolabait administrazio kontrolpean dagoen enpresa bateko funtzionari, agintari eta langile edo arduradunek Erakundearen ikerketan lanari trabak jartzen badizkiote, edo Arartekoari espedienteak edo administrazio-agiriak ikusteko eskubidea galerazten badiote, Arartekoak bere urteko txostenean eta dagokion atalean jokabide horiek aipatu ahal izango ditu.

Horri buruz, administrazio publikoek oro har erakunde honen informazio-eskariari erantzuten badiote ere, arrazoirik gabeko atzerapenak egon dira, eta horrek eragin kaltegarria izan du espedienteen biderapenenan. Ondorioz, kezak ebazterakoan ere atzerapenak egon dira, eta hori errespetu faltatzat jo daiteke, bai erakunde honekiko, bai hiritarrekiko ere.

Jarraian datozen zerrendetan 1994. urtealdian Arartekoaren informazio-eskaerari erantzuteko legezko eginbeharra bete ez duten administrazioak azaltzen dira, eta baita jarrera horrek eragindako errekerimenduak ere.

Horrela, Euskal Elkarte Autonomoko Administrarritza orokorreko sailen artean, erabat nabarmena da, erakunde honi laguntzerakoan erakutsitako ardura-ezagatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hala ere, azaldu beharra dugu urtealdi hau joan den legegintzaldiko gobernu-taldean azken urteari dagokiola.

Foru administrazioen saili dagokienez, honakoak dira nabarmenak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Naturagune Saila, eta Bizkaiko Gizarte Ongizate Saila.

Azkenik, toki-administrazioei dagokienez, nabarmenak dira Gasteizko Udala Araba Lurralde Historikoan, Donostia eta Hondarribiko Udalak Gipuzkoan, eta Plentzia eta Basauriko Udalak Bizkaian.

Nolanahi ere, azaldu beharra dago zenbait sail eta udal atal honetan errekerimendu bat edo gehiagorekin azaltzeak ez duela esan nahi beste batzutan Erakundeari lagundu ez diotenik.

Jarraian azaltzen diren zerrendetan, lehen datak eskaera-ofizioa noiz bidali den adierazten du; parentesi artean agertzen den zenbakiak, berriz, errekerimendua zenbat aldiz egin den, eta ondorengo datak errekerimendu horiek noiz egin diren ematen dute aditzera. Bestalde, BI eta B laburdurek, hurrenez hurren, espedientea bideratzen ari den edo bukatua dagoen adieratzen dute.

5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

A) Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Kabinete Teknikoko Zuzendaria

- 29/94 - B - Beren administrazio-egoera dela eta, Irakasleen Kidegoko zenbait irakasle zehaztasunik gabeko egoera larrian ego-
tea.
1994-02-04 (1) 1994-03-25
- 107/94 - B - Hizkuntz gaitasunaren agiriak homologatzea.
1994-02-25 (1) 1994-03-21
- 127/94 - B - Ikastetxe publiko batean hizkuntz ereduak aldatzea.
1994-03-18 (1) 1994-06-02
- 476/94 - Bi- Irakasle bat sare publikoan sartzea.
1994-11-11 (1) 1994-11-28
- 481/94 - Bi- Irakaskuntzako funtzionari batek beste lan bat egiten ari
zenez jaso ez zituen lansari-diferentziak ordain dakizkion
eskatzen du.
1994-10-10 (1) 1994-11-28
- 512/94 - B - Hautaketarako epaimahaiak emandako kalifikazioak begi-
ratzea.
1994-08-16 (1) 1994-09-26
- 622/94 - Bi- Funtzionari bati destinoa baliogabetu eta lehenagokoa
ematea.
1994-11-09 (1) 1994-11-25
- 624/94 - Bi- Unibertsitate mailako beken deialdian bizileku-gastuengati-
ko dirulaguntza ukatzea.
1994-11-11 (1) 1994-11-28

Industri eta Energi Saila

Zerbitzu Orokorren Zuzendaria

- 157/94 - Bi- Gas naturalaz hornitzeko Zerbitzu Publikoaren jarduna.
1994-11-11 (1) 1994-12-22

Herrizaingo Saila

Herrizaingo Sailburua

19/94 - B - Trafiko-isunetan euskara oker erabiltzea.
1994-03-14 (1) 1994-04-22

Bidezaingo Zuzendaria

169/94 - Bi- Polizi-jarduera.
1994-03-25 (1) 1994-04-27

Osasun Saila

Osakidetzako Zuzendaria

504/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.
1994-08-16 (1) 1994-12-02

B) Foru diputazioak

- Arabako Foru Diputazioa

Kultura Saila

Kultura Saileko Diputatua

500/94 - Bi- Etxebizitza zaharberritzeko baimena ematea.
1994-09-05 (1) 1994-11-07

- Gipuzkoako Foru Diputazioa

Nekazaritza eta Naturagune Saila

Nekazaritza eta Naturagune Saileko Diputatua

34/94 - B - Ehizak Bizkaiko udalerrri bati arazoak sortzen dizkio.
1994-02-04 (1) 1994-03-21

223/94 - Bi- Abaltzisketako Ñañarri Elkarte Publikoaren helburuak
betetzea.
1994-08-19 (1) 1994-11-09

104/94 - B - NUIZengatik atxikitako gehiegizkoa atzerapenez itzultzea.
1994-03-03 (1) 1994-04-14

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua

375/94 - 439/94 - B -

Nahastea tributazio-era hautatzerakoan.
1994-07-01 (1) 1994-09-12

- Bizkaiko Foru Diputazioa

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua

109/94 - B - Aldez aurreko erretiroari dagozkion laguntzak NUIZen menpe egotea.
1994-03-18 (1) 1994-04-14

Hirigintza Saila

Hirigintza Saileko Diputatua

220/94 - B - Nekazal ustiatokiei loturik egongo liratekeen familia bakarrarentzako bi etxebizitza eraikitzekeo baimena ukatzea.
1994-06-15 (1) 1994-09-13

C) Udalak

- Araba Lurralde Historikoa

Artziniegako Alkatea

237/94 - B - Errepidea konpondu ondoren urei eusteko arazoak izatea.
1994-06-15 (1) 1994-09-08

500/94 - Bi- Etxebizitza zaharberritzeko baimena ematea.
1994-09-05 (1) 1994-11-07

Gasteizko Alkatea

59/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-11-24 (1) 1994-01-16

302/94 - B - Trafiko-isuna.
1994-12-16 (1) 1994-07-17

- 427/94 - Bi- Udalaren jarduera oposaketa eta lehiaketa alorrean.
1994-07-07 (1) 1994-09-08
- 440/94 - B - Trafiko-isuna.
1994-07-07 (1) 1994-09-12
- 473/94 - Bi- Kanean obrak egiten ari zirenean oinezko batek izan zuen istripuagatik erantzukizuna eskatzea.
1994-08-01 (1) 1994-09-29
- 479/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-07-22 (1) 1994-09-13
- 480/94 - Bi- Trafiko-isuna.
1994-07-18 (1) 1994-09-12

Zalduondoko Alkatea

- 319/94 - B - Etxe aurrean ibilgailuek aparkatzea.
1994-05-30 (1) 1994-09-12

Izarrako Administrazio Batzordearen Lehendakaria

- 291/94 - Bi- Ur-hornidura.
1994-05-30 (1) 1994-09-12

- Bizkaia Lurralde Historikoa

Alonsotegiko Alkatea

- 578/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-10-10 (1) 1994-11-14

Bakioko Alkatea

- 26/94 - B - Ur kontsumoagatik kobratzea.
1994-03-18 (1) 1994-04-14

Basauriko Alkatea

- 10/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-10-10 (1) 1994-12-13
- 265/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-07-22 (1) 1994-09-08
- 495/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-08-01 (1) 1994-09-08

Bilboko Alkatea

197/94 - 198/94 - B -

Udaleko langile batzuei Montepio pentsio-osagarria ematea.

1994-03-24 (1) 1994-05-03

289/94 - B - Trafiko-isuna.

1994-06-13 (1) 1994-09-12

Durangoko Alkatea

273/94 - Bi- Trafiko-isuna.

1994-05-16 (1) 1994-07-07

Elorrioko Alkatea

292/94 - B - Elbarria izateagatik Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik libre geratzeko eskaria ez onartzea.

1994-05-30 (1) 1994-09-12

Galdakaoko Alkatea

137/94 - B - Atzerritarrek udalerrian erroldatuak daudela egiaztatu ezina.

1994-04-27 (1) 1994-05-24.

Getxoko Alkatea

73/94 - B - Ostalaritza-lokalen jarduera-baimena.

1994-03-30 (1) 1994-05-06

76/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.

1994-03-30 (1) 1994-05-09

306/94 - Bi- Hirigunean etengabe ibilgailu astunak aparkatuta egoten direla salatzen du.

1994-05-30 (1) 1994-09-12

Gorlizko Alkatea

493/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.

1994-10-10 (1) 1994-11-14

Mallabiko Alkatea

207/94 - 313/94 - B -

Autobus geltokiak aldatzea bide-taiuketa berria egiteko.

1994-06-24 (1) 1994-10-04

Portugaleteko Alkatea

435/94 - Bi- Funtzionari bati zigor-espedientea irekitzea.
1994-10-10 (1) 1994-11-28

Sestaoko Alkatea

366/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-11-11 (1) 1994-12-22

597/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-10-20 (1) 1994-11-28

Trapagarango Alkatea

85/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-03-09 (1) 1994-04-14

- Gipuzkoa Lurralde Historikoa

Andoaingo Alkatea

93/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-04-22 (1) 1994-05-24

Astigarragako Alkatea

121/94 - B - Industri babilioia eraikitzeko baimena.
1994-04-22 (1) 1994-06-02

Donostiako Alkatea

148/94 - Bi- Lurzatien jabegoa kentzea.
1994-03-18 (1) 1994-04-14

311/94 - Bi- Eraikin baten egoera txarra.
1994-05-30 (1) 1994-09-08

Elgoibarko Alkatea

487/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-08-01 (1) 1994-09-08

Hondarribiko Alkatea

- 275/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-05-16 (1) 1994-06-16
521/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-10-10 (1) 1994-11-14

Lasarte-Oriako Alkatea

- 124/94 - B - Jantokia erabiltzeagatik prezio publiko gisa bidalitako kitapenaren kontra.
1994-04-18 (1) 1994-05-18

Mutrikuko Alkatea

- 156/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.
1994-06-28 (1) 1994-09-08

Orioko Alkatea

- 394/94 - B - Aurrez emandako zerbitzuak aintzat hartzea.
1994-06-13 (1) 1994-09-20

Errenteriako Alkatea

- 135/94 - B - Udal-etxebizitza bat uztea.
1994-04-22 (1) 1994-07-04

5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAIZKIA BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

A) Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Kabinete Teknikoko Zuzendaria

- 29/94 - B - Beren administrazio-egoera dela eta, Irakasleen Kidegoko zenbait irakasle zehaztasunik gabeko egoera larrian egotea.
1994-05-04 (2) 1994-06-02 / 1994-07-07
179/94 - 213/94 - B -
Katedradun izateko merezimendu-lehiaketa.
1994-05-27 (2) 1994-07-05 / 1994-09-08

Industri eta Energi Sails

Zerbitzu Orokorren Zuzendaria

- 25/94 - B - Bere ibilgailua Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egitera eramanean, tratu txarra jaso izana.
1994-02-25 (2) 1994-03-21 / 1994-05-25

Euskal Herriko Unibertsitatea

Idazkari Nagusia

- 184/94 - Bi- Dietetika eta giza elikadurazko ikasketek balio ofiziala izatea Estatu osoan.
1994-04-22 (2) 1994-06-02 / 1994-01-16

B) Foru diputazioak

- Bizkaiko Foru Diputazioa

Nekazaritza Sails

Nekazaritza Saileko Diputatua

- 240/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.
1994-05-16 (2) 1994-06-16 / 1994-07-04

Gizarte Ongizate Sails

Gizarte Ongizate Saileko Diputatua

- 186/94 - Bi- Pentsioa bertan behera uztea.
1994-04-15 (2) 1994-07-04 / 1994-09-12
228/94 - Bi- Administrazioaren isiltasuna.
1994-04-22 (3) 1994-05-25 / 1994-07-07 /
1994-09-19

C) Udalak

- Bizkaia Lurralde Historikoa

Basauriko Alkatea

10/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-01-21 (2) 1994-02-25 / 1994-03-21

Durangoko Alkatea

79/94 - Bi- Administrazioaren isiltasuna.
1994-03-30 (3) 1994-05-09 / 1994-07-04 /
1994-01-16

Getxoko Alkatea

74/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.
1994-03-30 (2) 1994-05-06 / 1994-07-04
453/94 - Bi- Administrazioaren isiltasuna.
1994-07-22 (2) 1994-09-08 / 1994-11-28

- Gipuzkoa Lurralde Historikoa

Andoaingo Alkatea

119/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-03-11 (2) 1994-04-14 / 1994-07-04

Donostiako Alkatea

191/94 - B - Okindegietan egunkariak saltzea.
1994-03-25 (2) 1994-05-25 / 1994-07-07

Hondarribiko Alkatea

161/94 - Bi- Herriko festetan kalez kaleko salmentarako baimena ematea.
1994-05-09 (2) 1994-07-04 / 1994-09-08

Irungo Alkatea

7/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-10-21 (2) 1994-02-25 / 1994-03-18
110/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-03-09 (2) 1994-04-14 / 1994-07-04

5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARRREN, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

Udalak

- Araba Lurralde Historikoa

La Puebla de Labarcako Alkatea

407/94 - Bi- Okerreko hirigintz informazioa emateak proiektu-gastuak dakarzkie norbanakoei.
1994-09-30 (1) 1994-12-02

Gasteizko Alkatea

193/94 - Bi- Erantzukizuna udal-etxebizitza bat konpontzen xahutu den dirua ordaintzerakoan.
1994-04-05 (3) 1994-05-11 / 1994-07-07 /
1994-09-12

- Bizkaia Lurralde Historikoa

Plentziako Alkatea

60/94 - Bi- Bañoak Birlandatzeko Partzuergoa.
1994-03-11 (2) 1994-04-21 / 1994-06-20

Trapagarango Alkatea

85/94 - B - Jarduera gogaikarriak.
1994-05-20 (1) 1994-07-06

- Gipuzkoa Lurralde Historikoa

Donostiako Alkatea

171/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.
1994-03-24 (1) 1994-06-02

Irungo Alkatea

110/94 - Bi- Jarduera gogaikarriak.
1994-07-18 (1) 1994-12-16

VI. ATALA

**ARARTEKOAK EGINDAKO
GOMENDIOAK BETETZEA**

Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 14. artikulua, bere jarduera-esparruko administrazio ezberdinek burutzen dituzten egintzak baliogabetu, ezeztu edo aldatzeko aukera ukatzen dio Arartekoari.

Aldiz, 3/85 legeko 11. b) artikulua arabera, Arartekoak sail eskudunei, funtzionarioei edo horien buru egiten dutenei gomendioak egiteko edo beren legezko betekizunak gogorarazteko ahalmena izango du, jokabide bidegabeak edo legezkanpokoak zuzentzeko edo Administrazioaren zerbitzuak hobetzeko.

Arartekoak, gainera, legeak zuzen bete arren Administrazioaren egintza edo ebazpenek ondorio bidegabeak, arrazoigabeak edo agian bereizleak dituztenean, ebazpen horietarako erabili dituen irizpideak aldatzera bultzatzea dezake Administrazioa.

Era berean, kexak egoki eta bizkor ebazteko adiskidetasun edo akordio bideak proposa ditzake.

Esan den bezala, erakunde honetatik bidalitako ebazpenek behartze-indarrik ez badute ere, eta, horregatik, jasotzen dituzten administrazio publikoek horiek onar edo bazter ditzaketen arren, nolana ere, Legebiltzarraren ordezkari den neurrian, Arartekoak Administrazioaren erantzunaren berri izan behar du kexagileari jakinarazteko eta, horretaz gain, Legebiltzarrari ere adierazi behar dio zenbateraino bete diren bere gomendioak, eta baita horien edukia eta izaera ere.

Atal honetan, beraz, euskal administrazio publiko ezberdinek Arartekoaren erabakiei emandako erantzunak modu sistematizatuan jaso dira, onartuak, ebatzi gabeak eta ez onartuak bereiztuz.

Gomendio bat onartua ala ez onartua den erabakitzea ez da beti erraza izaten, zenbaitetan gomendioaren zati bat bakarrik onartzen baita, edo erabakiak etorkizunerako onartzen baitira, eta ez aurkeztutako kasu zehatzerako.

Halaber, badira erantzun nahasiak edo zuzenak ez direnak, eta horiek Administritzaren jokaera zein izango den ziur jakitea galeratzen dute.

Horien guztien artean, esandakoaren erakusgarri, Bilboko Udaleko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zinegotzi Ordezkariak gure gomendioetako bati emandako erantzuna nabarmendu beharra dugu 1994. urtealdian, oso nahasia eta laguntzeko asmo-ezaren adibide garbia delako.

Erantzun horren bitartez kexa-espeditente bat -lehiaketa-oposaketarako deialdi publiko bati buruzkoa, besteak beste, suak itzaltzeko zerbitzuan postu

batzuk betetzeko egin zena- itxiztat eman nahi zen, hitzez hitz hau zioen idazki baten bitartez:

"... GOMENDIOA kontuan hartu dugula adierazten dizut, plaza kontzeptuari buruz iritzi bera ez badugu ere, gure ustez ez baita hutsik dauden lanpostuen abstrakzioa, eta aldi berean ez gaude ados Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 30. artikulua ulertzeko moduarekin, gure ustez baldintzak guztiz bat etortzeak ez baitu esan nahi Lanpostuen Zerrendako postu bat betetzeko behar den titulazio zehatza ez adierazteak (baldintza hori ez da nahitaezkoa) aukeraketa-prozesuan titulazio zehatza eskatu ezina dakarrela, biak zuen aurtengo urtarrilaren 20ko idazkian azalduak."

Irizpide hori nahita zehazgabea denez gero eta bertan adierazitakoak gure gomendioa betetzeko benetako borondate garbia erakusten ez zuenez gero, erabilitako hitzen arabera behintzat, Arartekoak espedientea ixteko idazkia egin zuen. Idazki horretan, denbora gutxi barru Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko genion urteko txostenean sartzekoan, erakunde honek gomendioa ez onartuzat joko zuela oharrarazten zitzaion. Txosten hau egiten ari garen unertarte ez da gai horri buruzko berririk jaso.

A) Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

457/94- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintzak.

Edukia: Bigarren Mailako Irakasle Kidegoan sartzeko asmoz Injineru Tekniko titulazioa -Tecnologia espezialitatea- aurkeztu zuten eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko hautaprobentzen deialditik kanpo utzi zituzten lehiakide guztiak baldintzapean onartzea. Ez onartua.

Hezkuntza Administrazioarako Sailburuordea

377-394/94 eta 536/94-

Irakasleak lekuz aldatzeko lehiaketa.

Edukia:

1. Irakaskuntzako lanpostuen sailkapena egun aurrekontuan sartuta dauden diru-horniketei egokitzea.
2. Egokitzea egin ondoren, lekuz aldatzeko hurrengo lehiaketetan iragartzen diren postu hutsen kopurua sailkapen berrian adierazitakoa izatea. Ebatzi gabe.

Kabinete Teknikoko Zuzendaria

431/93- Hizkuntz eskakizunak.

Edukia:

1. Lortutako euskalduntze mailak bermatzen saiatzea, dauden baliabideek eta hezkuntza egitasmoak horretarako aukera ematen dutenean beti ere, hizkuntzaren ofizialkidetasuna hedatzen eta ikastetxeen autonomia sustatzen jarraitzeko asmoz.

2. Euskalduntze mailak dagozkien lanpostu zerrendetan adieraztea, horrela hezkuntza-eskaintzaren eskubidea sendotzen baita, eta baita gutxieneko lege-segurtasuna ere, segurtasun hori beharrezkoa baita Zuzenbidearen eta hezkuntza Administrazioak egiten duen programazio orokorraren arteko harremanetan. Onartua.

2/94- Nahitaezko lekualdaketatik espezialitate-gehiarria kentzea.

Edukia: espezialitate-gehiarriari dagokion dirua jasotzen jarraitzeko eskubidea errespetatzea, ez baita borondatezko lekualdaketa izan. Onartua.

11/94- Katedra lortzeko lehiaketan merezimenduen balioa neurtzea.

Edukia: kexadunak behar bezala adierazi eta egiaztatu ondoren Pédagogian Eguneratzeko Kurtsoaren -Marraskia alorrean- balioa neurtzea, merezimendu lehiaketarako deialdi-aginduan balioa neurtzeko aurrakusten diren irizpideei jarraituz, eta, hala ere, beharrezkoa izanez gero, 1993ko ekainaren 23ko Agindua zuzentzea, horren bitartez eman baitzen jakitera lehen aipatu lehiaketaren behin-betiko erabakia. Onartua.

512/94- Hautaketarako epaimahaiak emandako kalifikazioak ikuskatzea.

Edukia: hautaketa-epaimahaia osatu zuten kideen adierazpenak jasotzea kexagileak defendatutako bertsioa egiaztatu asmoz, adierazpen horiek baitira frogabide eraginkor bakarra. Onartua.

568/94- Irakasle Kidegoan sartzeko oposaketan emandako kalifikazioa.

Edukia: behar bezala konpontzea erabaki gabe dagoen administrazio-errekurtsoa, eta ondoren, baita kexa-espeditzea ere. Ebatzi gabe.

Herrizaingo saila

Administraritzza eta Araubide Juridikorako Sailburuordea

66/93- Intimitate-eskubidea urratzea Ertzaintzaren informazioa prentsa-erretsearen eskuetara iristeagatik.

Edukia: sail horrek aurrerantzean argitaratzen dituen prentsa-oharretan zenbait pertsonari buruzko informazioa ematean, haien izen-abizenen lehen hizkiak bakarrik adieraztea. Onartua.

Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaria

778/93- Administrazioaren isiltasuna.

Edukia: Kexagileak aurkeztutako errekurtsio arrunta erabakitzea, haren nahia kontuan hartuz; eta ondorioz beste zigor-ekintza bat adieraztea, bertan kexadunak azaldutako arrazoiei erantzuna emanez. Onartua.

779/93- Administrazioaren isiltasuna.

Edukia: kexagileak aurkeztutako errekurtsio arrunta erabakitzea, haren nahia kontuan hartuz; eta ondorioz beste zigor-ekintza bat adieraztea, bertan kexadunak azaldutako arrazoiei erantzuna emanez.

196/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Bidezaingorako Legearen 73.2. artikulua urratzeagatik jarritako isuna ezeztatzea eta arau-hauste horregatik bideratutako zigor-espedientea artxibatzea.

2. Beharrezkotzat joz gero, okerreko aparkaleku-txartela erabiltzeagatik irekitako zigor-espedientea sustatzea.

3. Ezeztatzea eskatzen den isunagatik kexadunak ordaindutako dirua hari itzultzea. Onartua.

212/94- Trafiko-isuna.

Edukia: ustez Bidezaingorako Legearen 19. artikulua urratzeagatik kexadunaren aurka irekitako zigor-espedientea artxibatzea. Ez onartua.

475/94- Bizitokia egiaztatzea.

Edukia: kexaduna Gidarien Eskola Partikularren Zuzendari izateko Gaitasun Agiria lortzeko ikastaroan sartzeko hautaprobetan baldintzapean onartzea, gai horri buruz hartzen den azken erabakia edozein dela ere. Onartua.

475/94- Bizitokia egiaztatzea.

Edukia: 1994ko irailaren 19an Herrizaingo Sailburuordeak emandako Erabakia ezeztatzea eta horren ordeztu berria ematea, kexaduna behin-betiko onartu dela adieraziz. Onartua.

530/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Kexadunak zigor-erabakiaren aurka dagokion administrazio-errekurtsioa jarri badu, berori kontuan hartzea, auzibidean lege-haustea egiaztatzeaz gain, ekintza zigortzeko ezarritako zegoen epea bukatu delako.

2. Kexadunak zigor-erabakiaren aurka administrazio-errekursorik jarri ez badu, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzako sail eskudunak, gure ustez Bizkaiko Bidezaingorako Lurralde Arduradunak, zigor-ebazpena ezeztatuko duen erabakia hartzea, azaldutako arrazoiengatik eta azaroaren 26ko 32/1992 Legearen 105. artikulua aurriztuz duenaren babesean. Ebatzi gabe.

Ertzaintzaren Laguntzarako Unitate Teknikoaren Zuzendaria

32/94- Balioztatzeko Batzordearen osakera.

Edukia: aurrerantzean, froga praktikoak aurriztuz dituzten merezimendu-lehiaketetarako deialdietan, Balioztatzeko Batzordean zenbait adituren partehartzea bermatzea, eta hori posible izango ez balitz, kanpo-aholkulari lankideak izendatzeko aukeraz baliatzea. Onartua.

B) Foru diputazioak

- Arabako Foru Diputazioa

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Saileko Foru Diputatua

105/94- Hautaprobetan merezimenduak neurtzea.

Edukia: erizain-laguntzaile lanpostuak betetzeko lehiaketa-oposaketan Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak neurtzeko hartu dituen irizpideak berriz aztertzea, Osakidetzan emandako zerbitzuen balioa kontuan ez hartzeko erabakia indar gabe utziz. Onartua.

- Bizkaiko Foru Diputazioa

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Saileko Diputatua

228/94- Administrazioaren isiltasuna.

Edukia: kexadunak norbanakoarentzako dirulaguntza jasotzeko egin dituen eskakizunei buruz erabaki zehatzak ematea. Ebatzi gabe.

- 463/94- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) menpe da-
goen egoitzan gaueko txandarako postuak betetzea.
Edukia: erizain-laguntzaile postuen banakako sailkapena egitea
eguneko ala gaueko txanda dagokien kontuan hartuz, horrela,
etorkizunean, langileak egoitza horretan sartzera, merezi-
mendu eta gaitasun irizpideak hartuko baitira oinarri. Ebatzi
gabe.

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua

- 260/93- Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik zerga-kenketa.
Edukia: etxebizitza erosteko maileguari dagokion zerga-kenketa
senarrari eta emazteari biei egiten uztea, mailegua bietako
baten izenean egon arren. Onartua.
- 474/93- Senitarteko elbarrituren bat izateagatik zerga-kenketa.
Edukia: zorrozki aurreko edo ondorengo ez direnengatik ere
zerga-kenketa egitea. Ebatzi gabe.
- 27/94- Matrikulazio Zerga ordaintzetik libre uztea.
Edukia: pertsona elbarri baten ibilgailuaren matrikulazioa zerga-
rik gabe uztea. Ebatzi gabe.
- 252/94- Administrazioaren isiltasuna.
Edukia: hiri-katastroan egoki den aldaketa egitea, lurzatiaren
jabe gisa egun horren jabetza duen pertsona agerraraziz eta
kexadunari baja emanez. Ez onartua.
- 346/94- Hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
Edukia: Administraritzak kexadunari honek eskatutako hizkun-
tzan erantzutea. Onartua.
- 450/94- Zerga-kenketak NUIZen.
Edukia: epaile-erabakiz elikadura-pentsioa ordaintzen duten eta
NUIZen zergadun diren pertsonen seme-alabengatik zerga-ken-
keta egiteko aukera ematea. Onartua.

- Gipuzkoako Foru Diputazioa

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua

- 246/93- Ohiko etxebizitza erosteagatik ordaindu beharreko interesenga-
tik zerga arintzea.
Edukia: egin berria den etxebizitza erosteko maileguen intere-
sengatik oinarri zergagarria arintzea.

- 447/93- Aurrez prezio finkatua duten etxebizitzak Ondare Eskualdaketa-gatik Zergatik (OEZ) libre uztea.
Edukia: babes ofizialeko etxeak lehen aldiz pertsona bizidunen artean eskuz aldatzean, zerga ordaindu beharrik ez izatea. Ez onartua.
- 614/93- Ohiko etxebizitzagatik zerga-kenketa.
Edukia: ohiko etxebizitzat hartzea egiaz bizi den etxea, bertan erroldatua ez badago ere. Ez onartua.
- 227/94- Zerga-kenketak NUIZen.
Edukia: ikasketa-planetan sartuta dauden guztiei unibertsitate mailako ikasketengatik kenketa egiteko aukera ematea. Ez onartua.

C) Udalak

- Araba Lurralde Historikoa

Amurrioko Alkatea

- 323/94- Jarduera gogaikarriak.
Edukia:
1. Badaezpadako neurri gisa Amurrioko lagunarteko jolas-elkarte bat ixtea.
2. Elkarte horren jabeari berori legeztatzeko eskaria egitea, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian (JGOKAA) adierazitako prozeduraren arabera, horretarako hauxe auzeratu behar duela adieraziz: dagokion baimen eskaria eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak ezartzen dituen baldintza teknikoekin bat datorren proiektu teknikoa. Ebatzi gabe.
- 323/94- Jarduera gogaikarriak.
Edukia: 1990eko martxoaren 30ean behin-betiko onartu ziren Amurrioko Plangintzaren Ordezko Arauetan aldaketa zehatzak egitea, eta arau horiek Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuaren xedapenei egokitzea. Onartua.

La Puebla de Labarcako Alkatea

- 407/94- Hirigintzari buruzko informazio okerra zela eta hiritarrek proiektuetan dirua gastatu beharra izan zuten.
Edukia: sotoa lekuz aldatzeko proiektua egokitzeak sortu dituen gastuak Udalak ordaintzea, arduragabe jokatu baitzuen hirigintzako informazio gutxi eta nahasia ematean.

Gasteizko Alkatea

- 84/93- Udalaren eskuhartzea lurzatiak hirigintzarako gai egitean.
Edukia:
1. Hauxe jasotzen duen Alkatetza-Lehendakaritza Dekretua ezeztatzea: enpresari bere lurzatia argi-indarrez hornitzeagatik dagokion dirua ordaintzeko eskatzen dion erabakia.
2. Jarritako berrezarpen-errekurtsoa gaitzetsia izan ondoren kexadunak ordaindu zuen dirua itzultzea. Ez onartua.
- 323/93- Jubilatuen elkarte bateko lehendakariari zigor-espeditentea irekitzea.
Edukia: egitezko arrazoibideak eta lege mailakoak oinarritzat hartuz, kexadunaren aurka jarritako zigorra indargabetzea, eta aipatu espeditentea irekitzea egoki iritziz gero, faktura faltsutu zuelako hutsegite larriagatik beste zigor bat ezartzea, aurrekoak bete direla kontuan hartu eta berori arinduz. Onartua.
- 602/93- Tailua bere egileari itzultzea.
Edukia: tailua zegoen lekutik kentzea. Ez onartua.
- 676/93- Zirkulazio zergaren kobrantza helbideratzea.
Edukia: udal-bulegoetan zerga gainkargurik gabe ordaintzeko aukera ematea, helbideratu beharra izan gabe. Ebatzi gabe.
- 301/94- Trafiko-isuna.
Edukia:
1. Kexadunaren aurka jarritako zigorra balio gabe uztea.
2. Kexadunari zigor horregatik eta Udalaren garabiak ibilgailua kaletik kentzeagatik ordaindutako dirua itzultzea. Ebatzi gabe.
- 480/94- Trafiko-isuna.
Edukia: bai zirkulazio arauak hausteagatik kexaduna zigortzeko erabakia, bai 1993ko apirilaren 24ko erabakia ere baliogabetzea, azken horren bitartez gaitzesten baita aurrekoaren aurka jarritako berrezartze-errekurtsoa. Ebatzi gabe.

- Bizkaia Lurralde Historikoa

Basauriko Alkatea

- 10/94- Jarduera gogaikarriak.
Edukia: Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arris-kutsuen Araudiaren 36. eta hurrengo artikuluek diotenari jarraiki, Alkatetza-Dekretu bidez taberna baten jabeari lokala egungo araudiari egokitzeko behar diren proiektuak aukezteko azken epea ematea -hilabetekoa-, araudia betetzen ez badu taberna behin-behineko itxiko diotela oharraraziz. Ebatzi gabe.
- 438/94- Udalaren ardura-eza auzoarekiko.

Edukia: Basauriko auzo batean etengabeko polizi-zainketa bermatzea, erakunde honi auzokideek bidalitako idazkian salatu diren arazoak galerazteko eta horrela, lehen aipatu alderdiko bizilagunek udal-erakundeari aurkez diezazkioketen salapenei berehalako erantzuna ematen saiatzeko. Ebatzi gabe.

711/94- Hautaprobak egiteko aukera izatea.

Edukia: kexagileak aurkeztutako erreklamazioa berariaz eta arrazoiak emanez argitzea, kexaduna babesten duten eskubi-deei benetako epaile-babes egokia ematen saiatzeko asmoz.

Berangoko Alkatea

589/93- Ur-horniduragatik Udalari zor zaion dirua ordaintzea.

Edukia: etxeak urez hornitzeko zerbitzuagatik ordainagiriak baliogabetzea, Udalaren zerbitzua ur-bilketa mantentzea baita soilik, eta gainera ez baitu zerga-ordenantzetan zerbitzu horrengatik tasa kitatzeko bide ematen dion tarifarik.

Bilboko Alkatea

771/92- Trafiko-isuna.

Edukia: kexa-aurkezleari Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egindako oharra indargabetzea, eta ondorioz, Bidezaingo, Motordun Ibilgailu eta Bide Segurtasunerako Legearen Testu Bateratuaren 81. artikulua ezarriz, zigor-espeditentea bertan behera uztea ekintza zigortzeko epea bukatu delako. Onartua.

388/93- Trafiko-isuna.

Edukia: kexa-aurkezleari Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egindako oharra ezeztatzea, eta ondorioz, Bidezaingo, Motordun Ibilgailu eta Bide Segurtasunerako Legearen Testu Bateratuaren 81. artikulua ezarriz, zigor-espeditentea bertan behera uztea ekintza zigortzeko epea bukatu delako. Onartua.

686/93- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Alkatetza-dekretu bidez Jolaserako Kultur Elkartea behinbetiko ixteko (behar izanez gero zigilua jarritz) agindua ematea.
2. Nahitaezko den irekitzeko baimena lortu arte lokalak itxita jarraituko duela oharraraztea. Baimen hori lortzeko ikusketa zerbitzuek zera egiaztatu behar dute, jarduerak instalazio-baimenean ezartzen diren baldintzak betetzen dituela hain zuzen ere. Ebatzi gabe.

728/93- Administraritzaren isiltasuna.

Edukia:

1. Kexadunari bere idazkietan egindako galderei berariaz erantzutea, aurkeztutako gaiaren inguruan burutu diren azken udal-ekintzak azalduz.

2. Udal horretako teknikariek emandako irizpideei jarraituz Komunitateari konponketak egiteko agindua ematea, hau da, lonja edo eraikinera ura sar ez dadin irazgaitz egin dela bermatzea, edo eraikin horrekin lotura zuzena duten pertsonen osasun eta segurtasunean eragina duen beste edozein akats konpontzea.

13/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egindako oharra ezeztatzea, eta ondorioz, Bidezaingo, Motordun Ibilgailu eta Bide Segurtasunerako Legearen Testu Bateratuaren 81. artikulua ezarriz, zigor-espedientea bertan behera uztea ekintza zigortzeko epea bukatu delako.

2. Aurka egin zaion espedientea dela eta kexa-aurkezleak ordaindutako dirua itzultzea. Onartua.

244/94- Trafiko-isuna.

Edukia: zigor-espedientean erabakitako zigor-ekintza baliogabetzea, eta baita ondoren behartze-bidez erabakitako zigor-ekintza guztiak ere, hori baita kexadunari eskubide osoak itzultzeko bide bakarra. Onartua.

356/94- Titulazio eskakizunak hautaketa-prozeduran.

Edukia: Udalak aurrerantzean hautaprobetarako deialdia egiten duenean, hautagaiei eskatzen zaizkien sarrera-baldintzak guztiz bat etortzea bete nahi diren lanpostu zerrendan adierazitako baldintzekin. Ebatzi gabe.

465/94- Administraritzaren isiltasuna.

Edukia: kexa-aurkezleak Udalaren Kultura Saileko Zinegotziari aurkeztutako idazki guztiak berariaz erabakitzea eta erabaki horien edukia eraikunde honetara bidaltzea. Onartua.

556/94- Santutxuko merkatuan dauden harategiak ikuskatzea, eskatutako neurri zuzentzaileei eta egungo hirigintza-araudiari egokitzen zaizkien egiaztatzeko. Ebatzi gabe.

584/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Kexadunari ezarritako zigorra ezeztatzea.

2. Kexadunari zigor-erabakiak ezarritako isuna ordaintzeko eman zuen dirua itzultzea.

592/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Kexadunari ezarritako zigorra baliogabetzea.

2. Zergak ordainarazteko sailean bideratu zen behartze-espedientea indargabetzea. Espediente hori aipatu sailean bideratu zen, kexadunari ezarritako diru-zigorra derrigorrez gauzatzeko. Ebatzi gabe.

615/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Irakaskuntza jarduera geldiarazteko agindua ematea harik eta legezkotzen den arte, bai 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak aurrikusitako prozeduraren arabera, bai Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak eta ezar daitekeen gainerako udal hirigin-tza-araudiak eskatutako baldintza teknikoekin bat etorritz.

2. Ostalaritza jarduera behin-betiko ixteko agindua ematea, ezin baita legezkotu. Ebatzi gabe.

661/94- Trafiko-isuna.

Edukia:

1. Kexagileari jarritako zigorra indargabetzea, Alkatetza-dekretuz.

2. Behartze-bidezko espedientean agertu ziren zergak ordainarazteko ekintzak ezeztatu eta baliorik gabe uztea. Espediente hori lehen aipatu zigorraren bitartez jarritako isunaren ordainketa gauzatzeko bideratu zen.

Ur, Hornidura eta Saneamendurako Partzuergoaren Lehendakaria

211/93- Uraren ordainagiria gehiegizkoa izatea.

Edukia: kexadunari ur-kontsumoagatik beste ordainagiri bat bidaltzea, erabilitako ura epearen aurreko hiru hiruhilabetekoen eta ondorengo hiruren arteko batez-bestekoa dela pentsatuz; lortzen den diru-kopurua egoki den moduan kitatuko da kexadunarekin. Onartua.

Durangoko Alkatea

511/94- Trafiko-isuna. Ibilgailua mugitu ezinik uztea.

Edukia:

1. Ibilgailua mugitu ezinik uzteko badaezpadako neurria bertan behera uztea.

2. Ibilgailua mugitu ezinik uzteko neurria hartzeagatik kobratu zen dirua itzultzea, 10.000 pzta. hain zuzen. Onartua.

273/94- Trafiko-isuna.

Edukia: ibilgailua mugitu ezinik uzteko badaezpadako neurria bertan behera uztea, eta horregatik, kexadunari ordaindutako dirua itzultzea. Ebatzi gabe.

Elorrioko Alkatea

292/94- Zirkulazio Zerga ordaindu beharrik ez izatea.

Edukia: kexagilea Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu beharretik libre uztea, bidalitako kitapena bertan behera utziz. Ez onartua.

Erandioko Alkatea

- 97/94- Zabortegi baten arauzkanpoko jarduna salatzea.
Edukia: zabortegiaren jarduera berehala geldiaraztea eta zigor-espeditentea irekitzea. Ebatzi gabe.

Ermuko Alkatea

- 725/93- Udal-antzokiaren konponketa.
Edukia: aurrekontu-arauak errespetatzea eta krediturik gabe gastuak egiteko hitzik ez ematea. Ebatzi gabe.

Gorlizko Alkatea

- 166/94- Administrarritza-kontzesioa bertan behera uztea.
Edukia: ondare publikoa modu pribatuan erabiltzeko eman zen kontzesioa bertan behera uztea prentsa salmentarako kiosko bat jartzeko, eta aldi berean horri buruzko beste administrazio-kontzesio bat emateko beharrezkoa den prozedura hastea. Ebatzi gabe.

- 493/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Taberna-jatetxearen jabeari jatetxea martxan izatea debekatzeari, jarduera hori arauzkontraktotzat hartu behar baita, eta debekua mantentzea harik eta legezkoak den arte.

2. Jabeari taberna-jatetxea legezkoak den eskaria egitea, horretarako Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuarekin eta indarrean dagoen gainerako udal hirigintza-araudiarekin bat datorren proiektu teknikoa aurkeztu behar duela jakinaraziz. Ebatzi gabe.

- 370/94- Auzokideek protesta egin zuten Udalak bide baten jabegoa publikotzat jo zuelako, horretarako nahikoa frogabide izan gabe.

Edukia: Udalak onarturiko akordioak baliogabetzea, horien arabera egiaztatuz ematen baita bideak erabilera publikoa duela. Bestalde, egoki iritziz gero, Udalak ikerketa-espeditentea ireki lezake, bidearen jabegoa publikoa dela erabat egiaztatuko luke ten beste datu edo gertakari batzuk azalduko balira ere. Ez onartua.

Leioako Alkatea

- 172/94- Gainbalio Zergaren menpe egotea.

Edukia: operazioa Lurren Balioaren Gehikuntzagatiko Zergaren eraginetik kanpokotzat jotzea, eta ondorioz bidalitako kitapena baliogabetzea. Ez onartua.

Mallabiko Alkatea

527/94- Errepidean seinalea jartzea.

Edukia: gidariari seinale baten bidez eskubitara bihurgune arriskutsua datorrela adieraztea. Ebatzi gabe.

Plentziako Alkatea

60/94- Basoak Birlandatzeko Partzuergoa.

Edukia: kexa-aurkezleari zor zaion dirua berehala ordaintzea, Urzuriagas mendia birlandatzeko partzuergoan erabakitakoaren arabera. Ebatzi gabe.

178/94- Lanak baimenari egokitu gabe egitea, eta Udalak egoera horri zabarkeria eta geldotasunez aurre egitea, edozein neurrik balioa galtzen duelarik.

Edukia:

1. Udalak hirigintzako diziplina-espedienteetan bizkorrago jokatzea ustez legezkanpokoak diren lanak somatzen direnean, atzerapenengatik ez daitezzen berriro burutu legezkanpoko lanak, hirigintza-itxurari dagokionez, guztien interesaren kalterako baita.

2. Alkatetzak beharrezko baliabideak erabili eta egoki diren neurriak hartzea Udalaren sail ezberdinek hartzen dituzten erabakiak betetzen direla bermatzeko. Ez onartua.

Sestaoko Alkatea

396/93- Funtzio publikoan sartzeko titulazioak parekotzat jotzea.

Edukia: Espainiako Igeriketa Federazioak ematen duen "igeriketa-monitore nazionala" titulua eta "uretako salbamendu eta sokorrismo" titulua parekotzat jotzea monitore-sokorrista postuetarako hurrengo deialdietan. Ez onartua.

Sopelako Alkatea

147/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Udalak, Alkatetza-dekretu bidez, joko-areto baten jabeari zaratatik babesteko sistema jar dezan eskatzea, aretoa jartzeko baimenean ezarritako neurri zuzentzaileei egokitua. Horretarako proiektu teknikoa aurkeztu behar du, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak dioenez.

2. Halaber, bi ate jartzeko eskatzea, aipatu dekretuak jarduera hauetarako agintzen duen bezala, zaratak aretoaren inguruko bizilagunei heltzea galerazteko asmoz.

3. Aretoak irekitzeko baimenik ez badu, legezkotu arte jarduera geldiaraztea. Onartua.

Trapagarango Alkatea

85/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Alkatetza-dekretu bidez lokalaren jabeari bi hilabeteko epean zaratatetik babesteko sistemaren proiektua aurkezteko eskatzea, aretoaren barruan 90 dB (A)-ren araberako kalkuluek eginez, jarritako musika-tresna erabiltzeko behar den baimena eskuratzearren. Aldi berean, eskakizuna betetzen ez badu musika-tresnari zigilua jarriko zaiola eta soinuaren aurkako sistemaren proiektua 75 dB(A)-ren araberako kalkuluek egin dezan eskatuko zaiola oharraraziko zaio. Onartua.

- Gipuzkoa Lurralde Historikoa

Astigarragako Alkatea

121/94- Pabilioi bat eraikitzeko lan-baimenaren baldintzen aurkako protesta.

Edukia: baimenaren zenbait baldintza ezeztatu, eta aldi berean ordezeko arauak behin-betiko onartzeko eskatzen zaio Udalari. Onartua.

Bergarako Alkatea

760/93- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Udal zerbitzu teknikoek tabernetan ikusketa teknikoa egitea, horien jarduera ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak aurrikusita-koari, hau da, etxebizitzatarako hirilurrean ari diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko teknika orokorrei egokitzen zaien egiaztatze asmoz.

2. Ikusketa horren ondorioz tabernen jardueran legezkanpoko ezer somatuz gero, jabeek jakinaraztea eta akatsak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudien arabera konpontzeko eskatzea. Ebatzi gabe.

Donostiako Alkatea

386/94- Administrazteraren isiltasuna.

Edukia: kexadunaren aurka hartutako zigor-erabakiak indargabetzea, Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Sagurtasunerako Legearen Testu Bateratuaren 81. artikulua dioenez, ekintza zigortzeko epea amaitu baita. Ebatzi gabe.

86/94- Hautaprobetarako onartua izatea.

Edukia: Alkatetza-Lehendakaritza horren erabakiaren bidez, Udaltzaingoko Sarjentu izateko lau lanpostutarako meritu-lehiaketan onartuak izan diren zein kanpoan utzitakoen zerrendak jendeari ezagutaraztea eta kexagilea bertan azaltzea, horrela 1994ko martxoaren 8ko erabakia aldatuz. Ez onartua.

171/94- Administrazaren isiltasuna.

Edukia: kexadunak Alkatetza-Lehendakaritza horretan aurkeztutako berrezarpen-errekurtsoa berariaz erabakitzea, erakunde honi erabakiaren berri emanez. Onartua.

238/94- Aurretik jakinarazi gabe udal-errolan baja ematea.

Edukia: kexagileari baja emateko erabakia baliogabetzea, dagozkion ondorioetarako denboraldi horretan kexagilea altan zegoela kontuan hartuz. Onartua.

Eibarko Alkatea

626/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Ibilgailuen zainketa jarduera geldiaraztea jarduera hori legezkotu arte.

2. Leku horren jabearen edo jabeen aurka egoki den zigor-espeditzea irekitzea, beharrezko udal-baimenik gabe jardunean aritzeagatik. Ebatzi gabe.

Elgoibarko Alkatea

487/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Zerbitzu teknikoek beharrezko ikusketa egitea, taberna-jate-txeak Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko.

Ikusketaren ondoren jarduera horrek ez dituela beharrezko baldintza teknikoak betetzen eta gogaipenak sortzen dituela egiaztatuz gero, konponketa-lanak egiteko dauden aukera teknikoak neurtzea.

2. Kasu horretan, jabeari epe jakin batean neurri zuzentzaileak hartzeko eskatzea. Ebatzi gabe.

Hernaniko Alkatea

531/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Badaezpadako neurri gisa musika-ekipoa kentzea, orain arte soinua neurtu denean hauxe egiaztatu baita: etxebizitza kalte-tuenetara iristen den zaratak baimendutako maila gainditzen duela.

2. Jabeari zaratatetik babesteko sistema ezartzeko proiektua aurkez dezan eskatzea, 90 dB (A)-ren araberrako kalkuluez, 171/85 Dekretuaren 3.2.4. artikulua eskatzen duen bezala. Ebatzi gabe.

Hondarribia Lantzen S.L.-ko Administrazio Batzordeburua

214/94- Etxebizitza emateko onarpen-baldintzak.

Edukia: aurrerantzean etxebizitzak sustatzen direnean kexa hau eragin duten bezalako egoerak kanpoan ez uztea, gizarte edo ekonomia egoera batzuei ematen zaien balioa edozein dela ere. Ez onartua.

Irungo Alkatea

804/93- Kirol-jardueratarako Udalak ematen dituen dirulaguntzak.

Edukia: kexa aurkeztu duen klubari dirulaguntza ematea, Udalak horretarako onartu zituen irizpide orokorren neurketaren arabera. Onartua.

110/94- Jarduera gogaikarriak.

Edukia: 15 eguneko epean udal-teknikoek ikusketa tekniko zorrotza eta behar bezalakoa egitea, taberna-jatetxea egun indarrean dagoen legediari egokitzen zaion egiaztatzeko. Ebatzi gabe.

Lasarte-Oriako Alkatea

809/93- Udalaren geldokeria hirigintza alorreko lege-hauste baten (bal-koia ixtea) aurrean.

Edukia: Udalaren akordioak betearaztea, kaltea jasan duten ondasunak araudia urratu aurreko egoerara itzultzeko aginduz, eta, beharrezkoa izanez gero, Udalak berak, ordezkoko gisa, gauzak lehengora ditzan. Ebatzi gabe.

Soraluzeko Alkatea

691/94- Ur-kontadorearen mantenuagatik legezkantoko tarifa kobratzeagatik salaketa.

Edukia: kontadoreen jabe diren herritarrei Udalak "kontadore-alokairua" gatik prezio publikoa kobratzeari uztea. Ebatzi gabe.

Tolosako Alkatea

406/92- Funtzionari baten legezkanpoko egoera.

Edukia: kexadunaren legezkanpoko egoera konpontzea, bai abere-hiltokiko administrari lanpostuaren sailkapen berria eginez, bai kexaduna bere mailari dagokion lanpostu batera berriz atxikiz. Onartua.

Zizurkilgo Alkatea

566/93- Jarduera gogaikarriak.

Edukia:

1. Udal-zerbitzu teknikoek, ahalik eta azkarren, salatutako lokaletan ikusketa teknikoa egitea, lokal horiek 171/85 Dekretuan xedatutakoari, eta zehazki xedapen horren 1.go kapituluaren 1.go saileko 3.1.2., 3.2.3., 3.2.4., 3.2.5. eta 3.2.6. atalei egokitzen zaizkien egiaztatzeko asmoz.

2. Ikusketaren bitartez jardueretan akatsik somatuz gero, lokal jabeei horiek konpontzeko eskatzea, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren 36. artikulua eta hurrengoek agintzen dutenaren arabera. Onartua.

VII. ATALA
**GOMENDIO ETA IRADOKIZUN
OROKORRAK**

1994. urtean Arartekoak, aurkeztu dizkioten kexak banan banan hartu eta aztertu ondoren, azaldutako gaietarako gomendioak eta oharpenak luzatu ditu, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. b) artikuluan jasotako aurrikuspenak beteaz, eta horrela bukaera eman die bideratu diren espedientei. Hartu diren erabakien bitartez, behar bezalako eta banakako arreta eskaini zaie erakunde honetan bideratu diren arazoei.

Aztertu eta ebatzi beharreko salapenak sarritan elkarren artean oso antzekoak diren administrazio-jarduerek sorrarazten dituzte. Jakina, arazoentzako jatorria behin eta berriz berbera izateak halako garrantzi bat ematen dio gai horri, oro har gizarte osora hedatzen dena. Bestalde, hauxe antzematen da: batzuetan banakako kexak ez dituztela aztergai eragina duten arazo guztiak isladatzen, eta horren ondorioz, gerta liteke zenbait gai zatiz bakarrik aztertzea.

Erakunde honek dituen eginbeharrak betetzerakoan, tankera berezia duten arazoak aztertzen dira: alegia, behin eta berriz agertzen ez diren arren eta behar bezala bideratu daitezkeen arren, noizean behin kezka sorrarazten duten arazoak dira, beren eragin-esparrua zabaldu daitekeelako.

Goian azaldutako gorabehera horiek direla eta sortzen den kezka bideratzeko, Arartekoak hainbat ekintza burutu ditu jardunean daramatzan urteotan, Erakundea sortzen duen 11. c) artikuluan ezarritakoaren babesean. Horrela, gomendio eta iradokizun orokorrak egin dizkie herri-agintariei, eta horiek berez kexetan azaldutako arazo jakin batzuk konpontzen ez badituzte ere, arestian aipatu arazoak aztertzen dituzte, hain juxtu, erakunde honen ustez hiritarren eskubideetan oro har eragina duten edo izan dezaketenak.

Gomendio eta iradokizun orokor horien helburua, alde batetik, legedian dauden hutsak adieraztea da, hots, hiritarren eskubideetan eragina duten alorretako arau-hutsuneak, eta bestetik, Administrazioaren jokaera jakin batzuk zuzentzea, hain zuzen eskubide horiei zor zaien begirunearekin bat ez datozenak.

7.1. EHKA-KO LURRALDEA EGOKI EGITURATZEKO, LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDABIDEAK (LAG) ONARTU BEHARRA

EHKAKo Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/90 Legearen agindua betez, Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Hirigintza, Etxebizitza eta Ingarugiro

Saila bereziki, lurraldea egituratzen, hari barne-lotura ematen eta haren aurrebidea planifikatzen ahalegindu da azken lau urteotan. Horretarako, antolamenduari buruzko dokumentu hauen idazketa sustatu du:

- Lurraldea Antolatzeko Gidabideak (LAG).
- Ekonomia jarduerak antolatzeko Lurraldearen Alorkako Egitasmoa.
- Kantauri itsasaldeko ibaiak antolatzeko Lurraldearen Alorkako Egitasmoa.
- Bilbo Handiaren eginkizun-azpieroemari dagokion Lurraldearen Zatiko Egitasmoa.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Gipuzkoako lurraldeko sei eginkizun-eremuei dagokien plana idaztea hitzartu dute: Beasain-Zumarraga, Donostia, Eibar, Arrasate-Bergara, Tolosa eta Zarautz-Azpeitia dira eremuok. Dokumentu hauetatik Donostiako eginkizun-eremuari dagokiona aurkeztua da dagoeneko, aurre fasea bideratua izan dadin.

Argi dago, beraz, LAGak direla Euskal Elkarte Autonomoko lurraldearen antolamendua diseinatzeko giltzarria eta oinarrizko dokumentua. Haien lurralde-esparrua Elkarte Autonomo osoa da, eta lurraldearen antolamendua baldintzatzen duten erabaki guztiak biltzen ditu: ingurune fisikoa, bizitzeko eta ekonomia jarduerak bideratzeko lur politikak, kultur-ondarea, hiria berregokitzea eta zaharberritzea, aisialekuak, oinarrizko azpiegiturak, ekipamenduen antolamendua, eta baita lurraldearen eginkizun-eremuen araberako banaketa ere; azken honek erdiko mailan eraginkortasun handiagoaz jarduteko aukera emango du.

LAGek lurraldean eragina duten jarduera guztiak biltzea eta elkarren artean lotura estuagoa izatea lortu nahi dute, era horretara, administrazio eta erakunde publiko guztiak, bai eskumen orokorrak dituztenek bai alor batekoak baino ez dituztenek, errespetatu eta sustatu beharko duten oinarrizko egitura eratuko baita.

Hirigintzak, eta hedaduraz, lurraldearen antolamenduak, bere eskumenak erakunde maila desberdinen artean (udaletxe, foru aldundi, Elkarte Autonomo) banatuak izatea du ezaugarri. Horregatik, batzuetan, bakoitzak bere aldetik jotzen du eta ez da inolako koordinaziorik izaten. Arazo hauek LAGen edukien eta lurraldearen antolamendurako gainerako bitartekoen bidez konpon daitezke neurri handi batean, denek batera jarduteko oinarriak eta helburuak ezartzen baitituzte, administrazio guztiak bete beharrekoak.

Dokumentu hau asmo handikoa izanik, eta edukiz mamitsua, ulertzekoa da, edo ez da harrigarria, hura egitean tirabirak eta aurkako iritziak sortzea, edo administrazioaren batek hura arbuatzea ere. Hala ere, tokian tokiko interesen defentsa egitea arrazoizkoa eta are zuzena bada ere, horrek ez du Elkarte Autonomo osoko lurraldea antolatuko duen sistemari buruzko hitzarmen motaren bat egin ahal izatea galarazi behar. Behar-beharrezkoa da batzen gaituzten puntuak aurkitzea, asmotan ados jartzea, eta esparru malgu eta bateratzaile

bat sortzea, administrazio bakoitzari zor zaion begirunea kontuan harturik, alde bakarreko jarrerak, edo banatzaileak, menderatu ahal izango dituena.

Ez dugu ahaztu behar gure elkarte autonomoa txikia dela, biztanle-dentsitate handikoa, nolabaiteko bizitasuna duten sektoreak dituena, eta egoera horrek tirabira handiak sortzen dituela lurraldean. Beraz, gure ingurunea eta, azken finean, gure bizi-kalitatea gorde eta iraunarazi nahi baditugu, ahalik eta arrazotasun handienaz jardun behar dugu, daukagun lur zati txiki hau hondatu edo behar ez den moduan erabili gabe.

Lurraldea behar bezala antolatzeak eta egituratzeak, jardueren kokaleku egokia zehaztuz, produkzio handiagoko ekonomia moldeetara iristen eta alorreko politiken arteko koordinazioa lortzen lagundu behar digu. Halaber, lagungarri izan behar zaigu administrazioak, zeinek bere lurraldean jarduera errentagarriak kokatu nahi izateagatik, elkarren lehian has ez daitezten, horren ondorioz, eta ezinbestean, behetik jokatu baita jarduera horiek erakartzeko orduan, ikus bestela zer gertatu den.

Plangintzaren egitura dela eta, oinarrizko dokumentua (LAG, alegia) onztat ematen ez den artean ez dago bere erabakien menpe dauden lurraldearen antolamenduari buruzko gainerako dokumentuak onartzerik; hau da, LAGak behin-betiko onartu artean ezin dira indarrean jarri bere erabakien arabera garatzen diren lurraldearen alorkako eta zatikako egitasmoak.

Jakina denez, LAGak bideratzeak luze jo du: 1990eko uztailaren 17an erabaki zen idaztea; 1991ko abenduan egin zen hari buruzko aurreko azalpena jendaurrean; aurkeztutako iradokizunak aztertu ondoren, 1994ko urtarrilaren 24an onartu ziren behin-behingo; berriro alegazioak aurkeztu eta 1994ko uztailaren 29an onartu ziren behin-behingo. Orain, alderdi politikoak ados jartzea falta da behin-betiko onar daitezten.

Erakunde honentzat, Eusko Jaurlaritzaren 4/90 Legeak lurraldea antolatzeko agintzen dituen bideak kontuan harturik, ezinbestekoa da Euskal Elkarte Autonomoak behin-betiko onartutako eta indarrean jarritako LAGak izan ditzan. Horregatik, bai Eusko Jaurlaritzak bai herri-administrazio guztietako arduradunek, elkartasuna eta arduraduntza erakutsiz, Euskal Elkarte Autonomo lurraldearen antolamenduan ados jartzeko ahalegina egin beharko luke, LAGak behin-betiko onar daitezten.

7.2. ZENBAIT GOGOETA EGITASMO OROKORRETAKE ORDEZKO ARAUAK IDAZTEAREN INGURUAN

Udal asko 1992ko Lurraren Legeari buruzko Testu Bateratuaren arabera bere oinarrizko plangintza aldatzen eta/edo hari egokitzen hasi denez, edo aurki hasiko denez, orain du erakunde honek gogoeta batzuk egiteko unea.

Eusko Jaurlaritzaren 132/94 Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren arabera, 25.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek eta baita Bilboko Hirialdean eta Donostiako eginkizun-eremuan daudenak ere, 1998ko apirilaren 8 dute beren indarreko plangintza 1992ko Lurraren Legeari buruzko Testu Bateratuari egokitzeko azken eguna.

Lege hau ez ezik, 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek beste bete-behar bat dute: udalerrri hauek babes publikoko etxebizitzak egiteko lurtzat hartu beharko dituzte etxebizitzatarako hirilurren %20 eta bizilekuak urbanizatzeko lurren %65. Hala baitu erabakita Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 17/94 Legearen 2. atalak, etxebizitzari buruzko eta hirigintza kudeaketa eta plangintza bitartekoak bideratzeko presako neurriei dagokionez.

Gaur egun indarrean dagoen plangintza hau egin zenean -aurreko hamarraldian idatzi zen gehiena- hauek ziren berorren helburu nagusiak: hiria ekipamendu berriz hornitzea, leku zabalez eta berdegunez hornitzea, azpiegiturei buruzko plangintza egitea, eraikuntza pilaketa galaraztea, etxebizitza eskaintza handiagoa eta zabalagoa egitea, eraikitako ondarea babestea etab. Helburu hauek guztiak bete ez badira ere, kontuan hartuak izan dira behintzat egitasmorokorretan eta ordezkotz arauetan. Beraz, helburuok betetzeko ahalegina egingo delako bermea izan beharko luke horrek.

Azken urte hauetako hirigintzaz ikasi duguna kontuan hartzen badugu, bat etorri beharko genuke, eta onartu, plangintza honek pragmatismo handiaz jokatu beharko lukeela, kontuan hartu beharko lituzkeela, eta aurririkusi, ekintza-unitateak diseinatzeko eta planifikatzeko orduan kudeaketak dituen zailtasunak. Plangintzan idatzitako diseinuari gehiegi lotzeak, diseinatutakoa hiriko lurretara aldatzeko dituen zailtasunei buruz egin beharreko gogoeta egin gabe, ordezkotz arau eta egitasmorokor asko eta formaz akatsik ez duten eginbideei buruzko proposamenak eragin ditu, baina hauek ez dute hiria ezertan aldatzen edo hobetzen lagundu, eta ezta bizilekuak egiteko lurrik urbanizatzen edo salgai jartzen ere.

Hirigintzari buruzko plangintza eta kudeaketa elkarrekin loturik daude ezinbestean. Horregatik, egitasmok kudeaketari buruzko zailtasunei aurre hartzea komeni da, eta plangintza egiten ari den bitartean gainera, eragozpenei itzuri eginez eta lor daitezkeen irtenbideak proposatuz. Nahiko genuke oinarrizko plangintzaren aldaketa eta egokitze prozesuetan irizpide hauek kontuan hartuko balira, ez dadin berriro hutsik egin, huts horiek herritarraren kalterako izaten baitira beti.

Halaber, plangintzak etxebizitzari buruzko arazoa helburu nagusitzat hartzea bultzatu behar da, batez ere babespeko etxebizitzari dagokiona. Egitasmo zabalak diseinatu beharko lirake horretarako, programa horietan etxebizitzasustapenak toki nagusia izatea, eta herri-administrazio guztien ekimenak eta inbertsioak koordinatzen eta bere baitan hartzen uztea.

Azken urte hauetan arras garestitu da etxebizitza. Dirudienez, gaur egun orain dela hamar urte baino zailago da hiritarrek etxebizitza duin eta egokia izan dezaten lortzea. Eta horixe da, Konstituzioaren 47. atalaren arabera, herri-administrazioetako ekonomia eta gizarte gaietarako politikaren gidari izan beharko lukeen xede nagusia. Plangintzak, gaur egun dagoen etxebizitza-eskaera kontuan hartuta, behar bezalako irtenbidea eman beharko lioke arazo horri, teknika honek bere mugak dituela jakinik ere.

Hari honi helduz, ez dugu uste azken urte hauetan etxebizitzak egiteko lur nahikorik izan ez dela esan daitekeenik. Bai ordea, ez dela urbanizatutako

lurrik izan, gero etxebizitzak egiteko. Honek adierazten duenez, askotan ez da behar bezalako hirigintza kudeaketarik egin. Hau da, ez da kemenez jokatu, ez bitartekorik erabili, etxebizitza-eskaerari behar bezala erantzuteko.

Hirigintzari buruzko plangintzak eta kudeaketak malgu eta erakargarriak izan beharko lukete, eragileak eta ekimen pribatuak hirigintzan eta etxebizitza-sustapenean inbertsioak egitera bultzatzeko, jakinik garrantzitsuena hirigintzan zehaztutako helburuak lortzea dela, eta ez hirigintza jarduera bakoitzeko protagonista.

Etxegintzari buruzko herri-ekintzaz hitz egitean, orubezko ondare publikoa bereziki aipatu behar da, besteren artean orubearen aprobetxamendu tipoaren %15eko lagapenez lurretan edo dirutan hornituko baita. Ondare hauen helburua babes publiko motaren baten bidezko etxegintzari lotua dago. Espero izatekoa da aberasteko asmorik gabe diharduten udalek oinarrizko tresna gisa erabiltzea ondare hauek, horretarako erabiltzeko lurra nahitaez gorde dadin Eusko Legebiltzarrak ezarri duen 17/94 Legearekin batera, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurra aukeran egotea lor dadin, nahiz eta merkatuko ikuspegi batetik begiratuta, irabazpide gutxieneko erabileretako bat izan hau.

Azaldutakoaren laburpen eta ondorio gisa, gomendio orokor hauek egin dira:

- Euskal Elkarte Autonomoko 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek eta Bilboko eta Donostiako hirialdeetakoek *lehenbailehen egokitu behar dituzte beren egitasmo orokorrak eta ordezkoko arauak* 1992ko Lurra-
ren Legeari buruzko Testu Bateratura. Ez da egokitze-prozesu honetan berantutzeagatik inolako aitzakiarik onartuko.

Egokitzea dela eta, 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek Babes Ofizialeko Etxeak egiteko gordetako lurretatik %20 hirilurrean sartu beharko lituzkete eta %65 urbanizatzeko lurrean; izan ere, hori ezartzen du 17/1994ko Legeak, etxebizitza gaietarako eta hirigintza kudeaketa eta plangintzarako bitartekoak bideratzeko Presako Neurriei buruzkoak, erabakitakoaren arabera.

- Plangintzaren egokitze eta aldaketek itzuri egin beharko liekete proposamen formal hutsei, gutxitan bidera baitaitezke hauek, eta kudeaketari buruzko eragozpenei aurre hartuz, hirian gauzatuak izateko aukera izango duten konponbide benetakoak eta egingarriak eskaini.

- Lehenasuna eman beharko litzaioke etxebizitzaren arazoari, etxebizitza babestuari bereziki, hiri bakoitzari egokitutako irtenbideak bila daitezen, eta etxebizitza egitasmoak helburu eta ardatz nagusi bihurturik, hirigintzari buruzko plangintza eta egitasmoa ardatz horren inguruan egin dadin.

- Udal-arduradunek itzuri egin behar diote batzuetan erori izan diren nagikerian berriro erortzeari, eta indarberiturik, hirigintza kudeaketari eta etxebizitza politikari heldu, beren helburu behinenean artean sartuz hauek.

7.3. HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA ETA BEREN ZERGA BETEBEHARRAK ONDO BETETZEA

Lehen tributoak beste modu batera ordaintzen ziren. Egintzaren batek zerga aldetik garrantzia zuenean, herritarrak jakinaren gainean jarri behar zuen Ogasuna, eta hori berori zen, kasuan kasuko arauak ezarriaz, ordaindu beharreko zorra zenbatekoa zen erabakitzen zuena. Gaur egun, ordea, autokitapenen sistema oro har erabiltzen hasi direnetik, lehengo eskemak izan du aldaketarik, izan ere, lehen Administrazioak zuen eginbearra, egun, herritarrak berak hartu behar du bere gain, eta horrela, okerren bat egiteko arriskua eta, aldi berean, zerga-antolamendua ez betetzekoa eta zigorren bat jasotzekoa izugarri handitzen da.

Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari egin zion 1990eko txostenean adierazi zen goian aipatu eginbearra ezartzean zergapekoa benetan babesik gabe geratzen zela, eta egoera larriagotu egiten zela, zerga-kitapenen baten aurka egiteko asmorik edukiz gero, arrazoiaren arabera erabil zitzakeen aurka eta aztertzeko prozedurak asko zirelako.

Lege-administrazio mailako Antolamenduak berez duen konplexutasuna areagotu egiten da zergen alorrean. Iluntasun hori herri Zuzenbidearen beste zenbait alorri berdin-berdin egotzi badakieke ere, egia da zergen ordaintzaren bidez gastu publikoaren mantenuan parte hartzerakoan, administratuak beste alorrekin baino maizago jarri behar duela harremanetan Administrazioaren alor honekin.

Beraz, badago gomendio honetako gaia aukeratzeko arrazoirik, izan ere, zergapekoari inposatzen zaizkion betebeharrak askok eta askok, neurritz kanpoko ezagutza eta abilezia tekniko-juridikoa edukitzea eskatzen dute, eta gainera, betebeharren praxiari buruz beharrezko den informazio guztia eskaini beharko litzateke, horiek betetzeak berez zergak ordaintzea badakar ere, ez dezan gainera zigorra jartzeko eta kalte konponezinen bat sortzeko aukerarik eman.

Arartekoa jardunean egon den urteetan, Kode Zibileko 6.1. atalean jasotako aurrikuspenak, hain zuzen "legeak ez ezagutzeak ez du horiek betetzetik libre uzten" dioenak, praktikan zer-nolako eragina izan duen ikusi ahal izan dugu. Bitxia da jatorria lege arloan duen arau horrek administratuen artean ohikoa ez den hedadura duela ikustea; hala izanda ere, herritar gehientsuenak egunero argitaratzen diren lege mailako xedapen ugarien artean noraezean ibiltzen dira.

Dena dela, Konstituzioak bere 9.3. artikulua bidez herri-agintarien jardura arautzeko ezartzen duen lege-segurtasunaren irizpidearen arabera, herritarrari zerga-betebeharrak bete ditzan eskatzea baino lehenagoko lana da ezartzekoak diren arauak argi eta garbi azaltzea, baita zergapekoei informazio eta prestakuntza egokiak ematea ere.

Gure Konstituzio Auzitegiak 1990eko urriaren 4ko epaian honako hau dio:

"Lege-segurtasunaren eta herri-agintariak arrazoirik gabe bereizketa egiteko debekuaren irizpideek araua argi eta garbia izan dadila eskatzen

dute, herritarrek lege horren aurrean zer egin jakin dezaten, eta eskarien artean ez da ahaztu behar, zuzenbidearen zehaztasunerako eta legegurtasunerako arauak egiterakoan lege-teknika garbia eta zehatza erabiltzeak duen garrantzia, batez ere zergen alorrean, izan ere, alor horrek herritar guztien ekonomi-jarduera oro baldintzatzen eta ikutzen dituzten egintza eta lege-harremanak arautzeaz gain, gero eta partehartze eta garrantzi handiagoa ematen baitio herritarrari zergen kudeaketa eta ezarpenean."

Eta honela jarraitzen du erabateko ziurtasunez eta gardentasunez:

"Esandakoaren ildotik, legegileak, Estatukoak zein autonomikoak, ez du inolako aitzakiarik herritarrei zuzenduriko lege araubidea gehientsuentzat erabilgarria eta ulergarria egiten ez ahalegintzeko, legegintza nahasiak, ilunak eta osatu gabeak zaildu egiten baitu bere aplikazioa eta gainera, Zuzenbidearen zehaztasuna eta herritarren berarekiko konfidantza gutxitzeaz gain, justiziaren balioa ilundu baitezake azkenean."

Gure auzitegi gorenena egindako zehaztasun horiek gorabehera, eguneroko jardueran ikusi dugu aldizka kobratzen diren tributoez, behartze-erabakiaz, adituen balio-neurketa argigarriaz edota errekurtsio ekonomiko-administratiboaz herritarrari hitzegitea, eta historiaurreko gizonari injineritza genetikoen aurrerakuntzez hitzegitea gauza bera dela, bien artean alderik bada-goelarik, bigarrenari gai horri buruzko azterketarik eskatzen ez zaiolako eta herritarra, berriz, ekitaldi bakar batean, bere hezkuntzatik at dauden ezagupen asko erabiltzera behartuta dagoelako.

Horrela, bada, Auzitegi Gorenak 1987ko urriaren 2ko epaiaren bidez zera dio:

"Zigortzeko ahalmenaren esparruaren barruan, 'legeak ez ezagutzeak ez du betetzetik salbuesten' dioen irizpidea, kasuan kasuko egoera subjektibo eta objektiboen bidez zehaztu eta ñabartu egin beharko da, zigortutakoaren jardunean edota jardunik ezean eragin zuzena izan baitute.

Herritarrari, egunetik egunera zailagoa eta korapilotsuagoa den lege-ordenamendua zertan ezagutu ez duelarik, ezin zaió eskatu halako ezaugarri esoterikodun eta zehaztasunik gabeko jakingaiak ezagut ditzan."

Esandakoaren ildotik, gure etsipena erakutsi behar dugu, legegintza fiskalaren ustezko objektibitatean babesturik, zerga Administrazioak oinarritzko justizia eta berdintasun irizpideen aurka burututako zenbait ekintzaren aurrean.

1994. urtean zehar NUIZ aitortpenak aurkeztearen ondorioz zergapekoek azaldu zituzten kexak aztertzeke aukera izan zuen erakunde honek.

Espediente hauetariko hirutan honako hau gertatu zen: zergadunek, familia-unitatearen irabazien aitortpena egiteko modua aukeratzekoan, banakakoa ala bateratua, kaltegarrienaren alde egin zuten, eta espero zuten diru-itzulketaren orde, harriduraz ikusi zuten Gipuzkoako Foru Ogasunak dirukopuru handiak sartzeko eskatu ziela.

Egoera horrek duen alderik okerrera hauxe da: akatsa horretarako gaitasuna zuen funtzionariak kitapen-orria eman zien unean bertan adierazi zuten, Ogasunaren bulegoan bertan. Zuzenketa eskatu zutenean, bertan ziharduen funtzionariak azaldu zien irtenbide bakarra Administrazioarekiko diru-erreklamazioa egitea zela, aldi berean alperrikakoa izango zela adieraziz, zergen araudiaren arabera ezin baita urtealdi berean hautatu den aitortpena egiteko modua aldatu.

Are larriagoa da, kasuetarik batean errenta aitortzaileak aurrez zein aukera zitzaion mesedegarrien jakin nahi zuela adierazi zuenean, ezezkoa jasotzea, bi aitortpen moduei zegozkien orriak beterik eman ez zituelako. Eta gainera, funtzionariaren setak eraginda, zotz eginez bietatik bat aukeratu zuenean, ez zitzaion hautaketa horren ondorioen berririk eman, alegia, ezin izango zuela aurrerantzean aldatu, eta horren guztiaren emaitza, arestian aipatu duguna izan zen.

Erakunde honen ustez, eta bestelakorik aintzat hartu gabe, ezin daiteke onar jarduera horren ondorioz, eta gaitasun ekonomikoari buruzko konstituzio-irizpidearen aurka, lagun batek egokituko litzaiokeena baino askoz diru gehiago ordaindu behar izatea Aldundiko kuxtei, kontuan izanik Ogasunak urtebete lehenago hartu zituela haren euspenak, aitortpena egiteko eguna eta ordua eskatu behar izan zuela, orria betetzeko makina bat buruhauste izan, eta azkenik, orria emateko iladan pazientzia handiz itxaron behar izan zuela.

Kudeaketa garaian borondate ona egon izan balitz, erraza zatekeen "huts" hori konpontzea, baina Arartekoak horretarako burutu zituen jarduerak alperrikakoak izan ziren.

Behin ere ez zuen Gipuzkoako Ogasunak gertatutakoa ukatu, eta zilegi iruditu zitzaion emaitza, aitortzaile orori "aukera egokia egiteko bide ematen zion alegiazko aurre-kalkulo sistema" eman zitzaiola jakinaraziz. Hala ere, zalantzarik gabe esan daiteke horrek ez zuela eragotzi Arartekora jo zutenek bederen, eta agian gehiagok, beren interes ekonomikoentzat ondorio larriak ekarri zituen hutsa egitea.

1987ko irailaren 25eko Auzitegi Gorenaren epaiaren arabera:

"...ez da eskubide baten benetako babesaren aurkakoagorik, izaera fiskaleko betekizun formal bat bete ez delako eskubide hori galeraztea baino."

Eta berriagoa den 1994ko uztailaren 26koaren arabera:

"...Auzitegi Gorenak behin eta berriz emandako doktrinak zuzendu egiten du babesgabezia, eta herritarrak egintzak aipatzerakoan edo egintza horiek Zuzenbidearen barruan sailkatzerakoan huts egiten badu, zein bide jarraitu behar duen erakustera behartzen du Administrazioa, izan ere, honek *funtzionario teknikari bati dagokion lana egiteko herritarra erabiltzen du, lan hori herritarrari ez badagokio ere...*"

Argi dago "hautaketa" benetan egin ahal izateko, behar-beharrezko diren argibideak eta gure borondatea alde jakin batera zuzentzeak dakartzan ondorioen ikuspegi osoa emango duguten alderdiak ezagutu behar direla.

Zoritzarrez, eta lan honetan zehar aipatu diren arrazoiak direla medio, batzuetan zergapekoak susmo hutsez baino ez du jokatzen.

Erakunde honek bideratzen dituen kexa asko eta askoren oinarri eta eragilea, kexagileari ondorio kaltegarria sortu dion juridiko-administratiboaren egitura zail eta nahasiaren ezagupen eza da, eta gutxitan gertatzen da ezjakintasun hori Administrazioak hiritarrei dagozkien eskubideak zein diren azalduz konpontzea.

Hori dela eta, Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/1992 Legearen 35. artikulua (ordezko gisa ezartzekoa zerga arloan), hiritarrek Administrazioarekin dituzten harremanetan haiei aitortzen zaizkien eskubideen zerrenda zehazten duenean, honako eskubide hau onartzen du:

"Burutu behar dituzten proiektu, ekintza edo eskakizunei indarrean dauden xedapenek ezartzen dizkieten baldintza juridiko edo teknikoei buruzko argibideak edo orientabidea lortzea."

Bestalde, Zergen Lege Orokorrak, 107. artikuluan, zergapekoek Administrazioari behar bezalako agirien bidez galderak egiteko aukera agertzen du, nahiz eta -zehazten du- erantzuna informazio-emate huts gisa hartuko den eta ez administrazio-egintza bezala, eta hortaz, ez du Administrazioa behartzeko indarrik izango, legez bestelakorik erabakitzen ez bada bederen.

Apirilaren 26ko 76/1989 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza sailean zergapekoentzako laguntza eta informazio zerbitzua sortzen duena, "tirabira honetako bi muturrak, hots, Estatu eta hiritarrak elkarri hurbiltzeko" saiakera laudagarria da, hitzaurrean adierazten den legez.

Hala ere, ekimen honek ez du galerazi, arestian esan dugun bezala, zerga alorreko kexa asko zergapekoei eman beharreko informaziorik ezak sortzea.

Eta horrela, bada, 1990eko azaroaren 28ko epaian, Auzitegi Gorenak argitu du:

"Administrazioari argibideak eskatzeko aukerak ez du lege-arauen iluntasunak eragindako zuzenbide-erruaren errugabetasuna galerazten, zeren eta ZLOren egungo 107. artikulua berri-emate huts gisa hartzen baitu argibide-eskaria, Administrazioa behartu gabe (...) eta, beraz, argibide-eskari horrek ez ziokeen azaldutako auziari erantzungo."

Horri guztiari hiritarrengan sortzen den zalantza gehitu behar zaio, Administrazioak egitezko kasu berari buruzko galderari emandako erantzunak zerbaitetan kontrajarriak izaten baitira.

Eta modu honetan berebiziko garrantzia duen beste arazo batekin egiten dugu topo: alegia, hainbatetan arazoa ez da informazio zehatz batez jabetu ahal izatea, baizik eta informazio hori Administrazioaren edozein agintaritzaren aurrean erabili ahal izango dela bermatzea.

Horri dagokionez, berriz ere heldu behar diogu hiritarrek zerga-administrazioen jokaeraren aurka azaldutako kexak bideratzen erakunde honek duen esperientziari. Hona hemen eredu bat: ur edangarriaren hornidura zerbitzua erabiltzen zuen emakume batek aurkeztutakoa. Udalerrri garrantzitsu bateko

bulegoetara jo zuen baja gauzatzeko asmoz, bere dendaren jabetza aldatu behar baitzuen. Bertan ziharduen funtzionariak baja jabe berriaren altarekin batera egin zezan aholkatu zion. Hala ere, eta jabe berria tramitea burutzera-koan atzeratu egin zenez gero, zergak ordainarazteaz arduratzen den udal-sailak lokalaren lehengo jabeari bidali zizkion tarte horretako ordainagiriak eta baita %20ko behartze-bidezko gainkargua ere.

Erakunde honek zegokion zerbitzuari argibideak eskatu zizkionean, hauxe erantzun zigun: "baja emateko eskari bat dagoenean, erakunde honek jarraitzen duen araua eskatutakoa ematea izaten da, betebeharrak eskatzailearen sinadura eta ordainketak egunean jartzea direlarik"; baina ondoren, halaxe jarraitzen zuen: "Udal honek ez du zalantzan jartzen interesdunak behin eta berriz dioena, hau da, baja burutzera etorri zenean baja hori alta berriarekin batera egitea komeni zela esan ziotela". Argi ikusten da, beraz, benetan kexagileak zioen moduan eman ohi zituztela argibideak.

Auzi honi buruz ere erabaki dute auzitegiek. 1991ko uztailaren 11ko Madrileko Justizi Auzitegi Nagusiaren epaiaren arabera:

"Zerga aitortenean norberaren lan jarduera nola ezarri behar den jakiteko Ogasun ordezkariatzako funtzionari bati egiten zaion ahozko eskaerak ez du kontsulta izaera, *baina horrek ez du esan nahi Administrazioak eman duen informazio okerrak lege aldetik garrantzirik ez duenik*, azken horren ondoriozko egintzek beti ekarriko baitute berekin zigorrik gabeko zuzenketa-agiria."

Azkenik, derrigorrez aipatu behar da, azaletik baino ez bada ere, zenbat atzeratzen den erreklamazio ekonomiko-administratiboen biderapena, kontuan hartzen badugu, akatsak saihesteko mekanismoek huts egiten dutenean, Administrazioarekiko auziak ebazteko eskumena duten auzitegiak jo aurretik zergapekoak bere eskubidea bereonerratu eta berrezartzeko duen azken aukera direla erreklamazio hauek; bestalde, auzitara jotzeak diru-kostu handia dakarrenez gero, lege-gizonaren eta prokuradorearen eskuhartzea ordaindu behar direlako, ez da komenigarri izaten bide horretaz baliatzea diru-kopuru txikiko auzietan.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboen biderapena gehiegi luzatzen dela egiaztatu dugu, eta batzuetan auzitegiek epaile-babes eraginkorraren ukapentzat jo duten denborarekin mugan egon dela. Izan ere, gutxitan argitu dira erreklamazio horiek urte t'erdi iragan baino lehenago, eta zenbaitetan hiru urtez ere luzatu dira.

Adibide gisa, hona hemen erakunde honetan bideratutako 593/94 zenbakidun kexa-espeditentea. Interesdunek hogeitau egun lehenago jakinarazi zitzaizkien ondare-eskualdaketagatiko kitapen baten aurka erreklamazioa egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundian gai ekonomiko-administratiboetarako dagoen Auzitegian, 1991ko irailaren 12an. 1994ko uztailaren 15ean, beraz, ia hiru urteren buruan, auzitegiak honako akordio hau jakinarazteko adeitasuna izan zuen:

"Honako erreklamazio hau 1991ko irailaren 12an egin zela aintzat hartuz, eta Zergen Lege Orokorren 164.1. artikulua ezartzen duenaren

arabera, hori egiteko epea aurka jotako egintza jakinarazten den hurrengo egunetik hasita 15 eguneko delarik, auzitegi honek honako akordio hau onartu du:

AKORDIOA

Bidalitako kitapenak baieztatzea, honako erreklamazio hau epez kanpo aurkeztua izan zelako."

Hau da, ia hiru urte behar izan dira erreklamazioa epez kanpokotzat hartzen duen erabaki zailera iristeko, eta denbora horretan zehar interesdunek, *solve et repete* irizpidearen arabera, bidali zieten kitapenaren zenbatekoa ordaindu edo abala eman behar izan zuten, aurka jotako egintza bertan behera utz zedin.

Esandakoari dagokionez, lehen aipatu dugu epaile eta auzitegiek eman beharreko epaile-babes eraginkorrerako eskubideak berekin dakarrela behar ez bezalako atzerapenik gabeko prozesua izateko eskubidea, bere berme eta guzti (Auzitegi Gorenaren 1990eko abenduaren 26 eta 27ko epaiak).

Konstituzio Auzitegiak atera berri duen urtarrilaren 10eko 7/1995 epaiak zehaztu duenez, "behar ez bezalako atzerapena" kontzeptu zehazgabea zehaztu egin beharko da kasu bakoitzean, aintzat hartuz bai gaiaren konplexutasuna, bai errekurtsogilearen eta epailaritza-sailaren jokabidea. Eta ondorioz:

"Hain zailtasun gutxikoak diren honako hau bezalako auzigaietan, ez dago inolako arrazoirik aurkako aldeak egindako goradei errekurtsoren epaialdia ohikoa ez den egunean jartzeko eta hainbeste atzeratzeko.

"Epaillaritza-sailean errekurtsu gehiegi pilatzea gerta litekeela pentsatzeak ere, ez luke auzialdia hainbeste (...) atzeratzeko arrazoi izan behar. Hala, giza eskubideen Europako Auzitegiak aitortu duen bezala, alegiazko egoera horrek, ez du Estatua bere justizi Administrazioan beharrezko diren giza zein bestelako baliabideak berehala eskaintzeko duen betebeharra betetzetik aske uzten, Konstituzioak eskatutako bizkortasun eta eraginkortasuna eman diezaion justiziari (...)."

Honaino azaldu dugunetik ondorengo ondorioak atera ditzakegu:

- Autokitapen sistemak oro har erabiltzen hastearekin batera, ezinbestekoa da administrazio guztiak herritar gehientsuenentzat ulergarria izango den zerga-araudia argitzen saiatzea.

- Herritarrak lege eta Administrazio mailako egitura nahasia eta konplexua ezagutzen ez duenez gero, zerga guztiak ordaintzeko betebeharra arindu eta orekatu egin beharko zaio informazio argia eta benetakoa emanez, hartara, bere zerga aitortenaren eduki guztiak zehazteko iritzi eta argibide oro izan dezan, inongo akatsik egiteko arriskua saihestuz.

- Zergak kudeatzeko sailen lana izango da, zergapekoaren aitorten-kitapena ekonomi-gaitasunaren irizpideari egokitzen zaiola bermatzea, zerga-arauak ez ezagutze hutsagatik inork ez dezan behar baino gehiago ordaindu.

- Lege-segurtasunaren irizpideak hauxe eskatzen du: zergen ordainketa prozesuan (kudeaketa, diru-bilketa nahiz ikuskatze-aldietan), parte hartzen duten sail guztiek administratuei eman behar dioten informazioak orain arte baino berme handiagoak eskain ditzan, Administrazioaren beraren edozein agintaritza-sailetan erabilgarriak izan daitezzen.

- Epaleek eta auzitegiek eman beharreko babes eraginkorra gauzatzeko, beharrezkoa da norbanakoek egindako erreklamazio ekonomiko-administrati-boei buruzko erabakiak bidezko epe barruan ebatzea, behar ez bezalako atzerapenik gabe, horrek behar besteko giza eta materiale baliabideak jartzea eskatzen badu ere.

7.4. UR EDANGARRIAREN HORNIDURAGATIK ORDAINDU BEHARRREKO PREZIO PUBLIKOAK ETA FAMILIAREN BABESA

Gomendio labur honek oinarritzat hartu ditu etxean ur-hornidura zerbitzua jasotzen duten hiritarrek erakunde honetan egin dituzten kontsultak, izan ere, hiritarrek galdetzen dute ea bidezkoa den udalek prezio publikoak tarifa ezberdinetan oinarrituz ezartzea, hau da, gastatutako m³-en arabera. Horren inguruan, Galiziako Justizi Auzitegi Nagusiak 1994ko irailaren 30ean eman berri duen epaiak sistema hori legezkoa dela esan arren, epai hori aitzakiatzat har dezakegu gaiari beste ikuspuntu batetik heltzeko, alegia, behar-beharrezkoa den zerbitzu publikoa ematearen ikuspuntutik.

Horrela, lehen aipatu epaian, errekurtsogileak, Finisterreko (La Coruña) Udaleko zinegotzia bera, Udalaren osoko bilkuran onartutako espedienteari aurka egin zion, Konstituzioko berdintasun-irizpidea eta familiaren babeserako irizpidea urratzen zituela uste baitzuen. Espediente horrek tarifa ezberdinak ezartzen zituen guztira gastatutako ur metro kubikoen arabera.

Sistema horren bidez, gutxienezko prezio bakarra ezartzen zen, etxebizitzako kide-kopurua edozein izanda ere. Horrek familiei egiten zien kalte, pertsona bakar batek baino ur gehiago gastatzen dutelako nahitaez.

Tarifa ezberdinak hiru kontsumo-mailaren arabera ezartzen ziren: 9 m³ baino gutxiago, 9 eta 15 m³ bitartean, eta 15 m³ baino gehiago. Horren ondorioz, adibidez, guztira 10 m³ gastatzen duen bost kideko familia batek gehiago ordainduko du m³-a, guztira 9 m³ gastatzen duen pertsona bakar batek baino, ur hori igerilekua betetzeko edo kotxea garbitzeko erabiltzen badu ere.

Kontua da Galiziako Auzitegi Nagusiak hauxe uste duela: tarifa lineala ez izateak, eta maila jakin batetik aurrera garestiago izateak, ez duela berdintasun-irizpidea urratzen, eta,

"azkenik, azaldutakoaren arabera, aurka egin zaion aldaketak ez du zeri-kusirik familia babesik gabe uztearekin, ez eta, ondorioz, Konstituzioaren 1. eta 39. artikulua ez betetzearekin ere."

Hala ere, interpretazio horrek konstituzio-ikuspuntu zorrotzetik balioa izan arren, egin da udalek tresna ezinhobea dutela bere esku, ez familiei

mesede egiteko, baizik eta gutxienez familia izate hutsagatik gehiago ordaintzea galerazteko.

Izan ere, Toki Ogasunak Arautzeko Foru Arauen 47. artikulua, zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoak zehazterakoan, honako aukera aurrikusten du:

"Horretarako *gizarte*, ongintza, kultura edo interes *publikozko arrazoiak* daudenean, Udalak aurreko bi ataletan aurrikusitako gutxienezkoak baino baxuagoak diren prezio publikoak ezarri ahal izarigo ditu." (Oro har zenbatekoa gutxienez zerbitzuaren kostua ordaintzeko adinakoa izango da).

Zerbitzu hori behar-beharrezkoa da eta horrexegatik agertzen da Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak udalei ezartzen dizkien nahitaezko zerbitzuen artean.

Horrela, udal-agintariak egoera horrekiko arreta erakutsi behar dute, tarifa bidezko kobraketa-sistema objetiboki familien kalterako baita.

Elkarté Autonomoaren barruan, gai hori ez da beti modu berean bidertzen. Horrela, erreferentzia gisa hiru euskal hiriburuak hartuz gero, Bilbo eta Gasteizen tarifa-sistema erabiltzen dela ikusten dugu; horren arabera lehenengo maila, edo "gutxienezkoa", 20 m³ bitartekoa da, eta gero beste bi maila daude, 40 m³ eta 60 m³ artekoak. Horietarako ezarri den tarifa hasierako 20 m³-etarakoa baino %100 altuagoa da.

Donostian, aldiz, m³ bakoitzeko prezio finko bat kobratzea erabaki da, kontsumo altuak garestitu gabe.

Donostiako Udalak erabilitako sistema zuzenena iruditzen zaigu; arrazoi honengatik: uraren gehiegizko kontsumoa garestitu nahi bada, behar-beharrezko ondasun urria baita ura, azaldutako adibidearekin egiaztatu dugu tarifa-sistemak ez duela galerazten ura alferrik galtzea.

Laburbilduz, erakunde honen iritziz euskal udalek ardura erakutsi behar dute etxeak urez hornitzeagatik tarifa-sistemari dagokionean; famili-ekonomiari kalte handia egiten baitio.

Horren inguruan, Konstituzio ikuspuntutik prezio publikoak kobratzeko sistema horrek berdintasun-irizpidea eta familiaren babeserako irizpidea urratzen ez baditu ere, udalek toki-ogasunen araudian aurrikusitakoa gauzatu behar dute, eta ur-horniduraren garrantzia duen zerbitzua ematerakoan kontuan hartu behar dituzte gizarteari eta interes publikoari dagozkien arrazoiak. Ondorioz, adierazitako arrazoiengatik bidezkoen bezala agertzen den kobraketa-sistema ezarri behar dute.

7.5. ESPEZIALITATEAREN IRIZPIDEA HAUTAPEN-SAIL TEKNIKOAK OSATZEAN

"...aski da Auzitegi Goren honek sarritan emandako doktrina gogoratzea (...), alegia, lehiaketa eta norgehiagoketan aritzen diren epaimahai kalifikatzaileek diskrezionalitate tekniko oso zabala dutela, haien partaideen

ustezko alderdigabetasunagatik, haien ezagutzen espezialitateagatik eta egindako hautaprobetan partehartze zuzena daukatelako; izan ere, Justizia Auzitegiak ezin dira bigarren epaimahai kalifikatzaile bihurtu, beraien ezagutzengatik edota adituen froga espezializatu batek ekar ditzakeen ezagutzengatik, egiten diren lehiaketa edo norgehiagoketa guztietan, eta beraz ezin dituzte jarri beraien kalifikazio-irizpideak hautaprobak epaitu behar dituen epaimahaiak bere diskrezionalitate tekniko horrengatik eduki behar dituenen gainetik..."

Auzitegi Gorenaren Epaia, 1993ko apirilaren 30ekoa (Erref. Aranzadi 2.876).

Aipu honek argi eta labur zehazten du zein den doktrina nagusia, hautaprobetako epaimahai edo sail teknikoen jarduerak eduki behar duen izaerari buruz.

Izan ere, era horretako saili aitortzen zaien diskrezionalitate teknikoagatik ezinezkoa da haien jarduera berraztertzea, non eta ez den funtsezko akatsik aurkitzen, edo babesik eza, alderdikeria edo agintearen desbiderapena gertatzen.

Dena den, diskrezionalitate-ahalmen hori bere egiazko muga barruan kokatzeko etenik gabe egiten den borrokagatik, eta ahalmen hori egoki den bezala erabiltzen dela ziurtatzea beharrezkoa izanik, Arartekoa bezalako kontrol-erakundeek behin eta berriro azpimarratzen dute halako irizpide batzuek daukaten garrantzi handia; izan ere, hasieran eman dugun aipu jurisprudenzialak berak dioen bezalaxe, irizpide horiek -hots, alderdigabetasuna eta partaideen ezagutzen espezialitatea- diskrezionalitate horren oinarrian daude eta haien arrazoi nagusi dira.

Jakina, objektibitateak edozein administrazio ekintzaren oinarri izan behar duenez gero, baita diskrezionalitate mailako ahalmenak erabiltzeko orduan ere, sail hautatzailea osatzean bertako kideen epaiak batik bat teknikoak izan behar du; hau da, alderdien interesetatik kanpo eta, oro har, hautaprobek berenak ez diren interesetatik kanpo hartu behar da epai hori, proben helburua hautagairik onenak aukeratzea baita, eta horretarako merezimenduek eta gaitasunak izan behar dute lanpostu publikoa banatzeko orduan kontuan izan beharreko irizpide edo jarraibide nagusiak.

Horren ondorioz, azkenik egingo den aukera beti ere alderdigabetasunean eta hautagaien gaitasun eta prestakuntzari buruzko balioztapenetan oinarritu beharko denez gero, sail hautatzaileetako partaideak teknikari edo adituek izan beharko dute, ez agian haiek bakarrik, baina bai nagusiki.

Bestela esanda, ez da nahikoa sail teknikoan parte hartuko dutenek hautaprobetara aurkezteko eskatzen den ikasketa edo lanbide maila bera edo handiagoa edukitzea, dagokion tituluz ziurtatua: izan ere, sail horietako partaideek behar bezalako gaitasun teknikoak eduki beharko dute hautagaien merezimenduak eta prestakuntza neurtzeko, hautaproba bakoitzaren edukiaren arabera.

Azken finean, hautaprobetan eskatzen den mailatik goragoko titulua edukitzeko baldintza formal hutsaren gainetik, kontua da behar bezalako berezko

trebakuntza eta egokitasuna (hots, behar bezalako gaitasun teknikoak) edukitzea proba horietan hautapena egin ahal izateko.

Behin eta berriro aipatzen ari garen objektibitate eta alderdigabetasun irizpide horiek berek argitzen dute nolako garrantzi konstituzionala duen haie-tatik eratortzen den eta orain hemen aztertzen ari garen espezialitate irizpide horrek.

Horrela, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua berez, hitzez hitz behintzat, espezialitate irizpide hori ezertan ere aipatzen ez duen arren, J. M. Alegre Villa irakasleak bikain adierazi duen bezala, irizpide horren funtsean dagoen teleologia zalariz gabe islaturik dago artikulua horretako lehen zenbakiaren oinarritzko postulatuak ("Administrazio publikoak objetiboki zerbitzatu-zen ditu interes orokorrak"); are gehiago, hirugarren zenbakian, funtzionario publikoen estatutuak ari delarik, alderdigabetasuna, merezimendua eta gaitasuna aipatzen dira bereziki funtsezko baldintza bezala, *strictu sensu* funtzionarioen jarduerarako ezezik, baita, jakina, funtzionarioen eraketarako ere. Eta zer-tzelada horiek guztiak behar adinako egokitasun eta gaitasun profesionala daukatenez bakarrik neur ditzakete objektibitatez.

Horregatik, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua berak, funtzionario publikoen estatutu orokorra dela eta, eta zehazkiago lanpostu publikoa lortzeko merezimendua eta gaitasuna direla eta, aipatzen duen legezko arauketan ezin izan dira bazter utzi irizpide horiek.

Ildo horretatik, eta Estatu mailako arauketari gagozkiolarik, honako arau hauek aipa genitzake:

- Abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoaren Aldaketarako Neurriei buruzkoa:

(19.2. art.) "Gobernuak hautapenez arduratuko diren sailen osakera eta jardunbidea arautuko ditu, sail hautatzaileetako partaideen espezializazioa ziurtatuz..."

- Abenduaren 19ko 2.223/1984 Erret Dekretua, Estatuaren Administrazioaren zerbitzuko Langileen Sarrerarako Araudi Orokorra onartzen duena:

(11.2. art.) "Epaimahaiak osatzeko orduan, espezialitate irizpidea bete behar izango da, eta, horregatik, partaideen erdiak eta beste batek guxtienez eduki beharko dute lanposturako eskatzen den ezagutza-alor bereko titulazioa, eta den-denek maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa".

(12.1. art.) "Hautapen-batzordé iraunkorrek eta epaimahaiak haien zereginetarako aholkulari adituak sartzea erabaki ahal izango dute (...). Aholkulari horiek beraien espezialitate teknikoak erabili baino ezingo dute egin, hautapenez arduratzen den sailari laguntzeko".

Beste alde batetik, arauketa autonomikoa ez da iritsi araudi berezi bat osatzera, baina halere Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak antzeko edukiaz errepikatzen ditu lehenago aipatu ditugun estatu mailako aginduak. Hona hemen:

(31.2. artik.) "Epaimahaiak osatzean arreta haundiz zainduko da espezialitate-erizpidea betetzea. Epaimahaikideetatik erdiak behintzat izan behar du sartzeko eskatutako ezagupen-alor bereko titulazioa, eta denek izan behar dute ikasketa-maila bereko edo goragoko titulazioa. Epaimahaie-tan beti izango da Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari bat, eta beste bat langilegoarena, sindikatu-etako ordezkariak izendatua".

(31.3. artik.) "Aukeraketa-aldiak dituen saio guztietako edo batzuetako, epaimahaiek beren lanetarako aholkulariak hartu ahal izango dituzte, eta hauek beren teknika-berarizkotasunetan aritzera mugatuko dira".

Puntu honetara iritsi ondoren, beharrezkoa da nabardura bat egitea: alegia, arau honek, hitzez hitz, "zainduko da" bezalako esapide malgua erabiltzen duen arren, egiazko agindua ez izateak ez du esan nahi irizpide hori betetzeko beharra ezertan ere arintzen edo malgutzen denik.

Alderantziz, erakunde honen iritzi, arintze edo malgutze hori badaezpada neurritzat bakarrik har daiteke titular adituak izendatzea ezinezkoa denerako; kasu horretarako, gainera, badago kanpoko aholkulariak izendatzeko beste neurri zuzentzaile bat.

Bestela, horrela ulertu ezean, arrisku handian egongo litzateke ebaluaketa-prozesuaren kalitate teknikoa, zeren eta hautagaien gaitasun eta jakituriaren azken kalifikazioa ez bailitzateke epaimahaikide guztien balioztapenaren ondorio, baizik eta epaimahaikide bakar baten esku gera liteke kalifikazio hori, objektibitatearen kalterako.

Horri dagokionez, erakunde honetan daukagun eskarmentuaren arabera, hau da, orain arte aztertu ditugun kexa-espedituek erakutsi digutenez, nahiz eta ezin dugun esan hemen aipatzen ari garen espezialitate irizpidea argi eta garbi hausten dela, bai esan dezakegu ez dela behar bezala pentsatzen kome-nigarria eta garrantzitsua dela hautapenetan parte hartzen duten epaimahaiki-deak adituak izatea, lehenago esan dugunaren ildotik: hots, behar adinako gaitasun teknikoa eduki dezaten, gaitasun formal hutsaren gainetik.

Gauzak horrela, topatu ditugun kasu batzuetan, ebaluaketa baten emaitzen aurkako itxurazko jarrera baten azpian -kontuan izanik hori beti epaimahaiei aitortzen zaien diskrezionalitate teknikoaren baitan geratzen dela, esan dugun bezala-, nolabait salatu ere egiten da epaimahaikideen gaitasun tekniko urria.

Adibide gisa, Euskal Elkarte Autonomoko udal handi baten administrari-kidegorako hautapropa batzuk aipatuko ditugu: haietan, eduki tekniko-juridiko nabarmeneko kasu praktikoetan oinarritutako proba batzuk egin ziren, eta haien lehen zuzenketa aurkako iritzi anitz eragin zuen; orduan, epaimahaiak gaien aditua zen kanpoko aholkulari baten laguntza eskatu behar izan zuen, azterketen zuzenketa zorrotza izango zela ziurtatzeko. Beraz, horrela nahikoa nabarmen geratu zen, alde batetik, hautapropa horietako epaimahaikideek ez zutela behar bezalako gaitasun teknikorik, eta, bestetik, bigarren zuzenketa ere nahikoa mugatua zela, aditu bakar baten esku geratu zen eta.

Nolanahi ere, espezialitate irizpide hori egiaz bete beharra ezin da agindu Administrazio publikoan sartzeko hautaprobetarako sail hautatzaileak osatzeko orduan bakarrik.

Ararteko honen ustez, irizpide hori berdin-berdin bete behar da funtzionari entzat utzitako lanpostuak betetzeko prozesuak erabaki behar dituzten batzordeak osatzeko orduan ere.

Azken urteotan badirudi lanpostuak betetzeko prozesuetan gaitasunik handieneko hautagaia aukeratzeko posibilitaterik txikienaz ere baliatzeko joera argia dagoela, beren ezaugarriengatik hala behar duten lanpostuetarako.

Joera horrek babes egokia aurkitzen du Euskal Elkarte Autonomoaren arauetan; izan ere, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3. artikuluan berariaz adierazten da proba praktikoak ere antolatu ahal izango direla, hautapen-prozesuko beste zati bat bezala eta normalean aintzat hartu ohi diren merezimenduen balioztapenaren osagarri bezala.

Estatuko arauetan jasota dagoenez, bestalde (28/1994 Erret Dekretua, lanpostuak betetzeko araudi orokorra onartzen duena), halako lehiaketa berezi batzuetan, deialdi guztietan kontuan hartzen diren merezimendu orokorrez gain, beste merezimendu berezi batzuei ere ematen zaie balioa, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta horietarako txostenak idatzi edo elkarrizketak egiteko aukera dago.

Estatuaren esparruan segituz, aurreko agindu horien ondoan badaude beste neurri osagarri batzuk ere, hautaprobetan aholkulari adituak egongo direla ziurtatzeko eta, horrela, hautagaien gaitasuna eta merezimenduak epaituko dituen sail teknikoko partaideek objektibitatez eta zuzentasunez jokatu dutela bermatzeko. Horrela, urtarrilaren 15eko 28/1990 Erret Dekretuaren 16.1. artikulua hitzez hitz dio: "balioztapenaz arduratuko diren batzordeek adituak izendatzeko eskatu ahal izango diote agintaritzasail deitzaileari; aditu horiek aholkulari lanak beteko dituzte, eta beren iritzia eman ahal izango dute, baina ez dute, ordea, botoa emateko eskubiderik izango."

Argi dago, beraz, hautaprobetako ohiko ariketekin batera (proba praktikoekin batera) hautapenerako teknikei lotuta egon ohi diren halako irizpide batzuk bete behar direla, epaimahaiak osatzean bete behar den espezialitate irizpidea esate baterako; izan ere, bestela jokatu gero, behin eta berriz esan dugun bezala, epaimahaiak ez baldin badute gai bakoitzean aditua den norbaiten laguntza, orduan nekez ziurta liteke balioztapen-batzorde horiek behar bezala jokatu dutela, beren epaiaren zuzentasun, objektibitate eta alderdiga-betasunari dagokienez.

Berrito ere ikusten dugu ez direla nahikoak izaten edozein balioztapen-batzordeetako kideei eskatzen zaizkien baldintzak (bete nahi den lanposturako eskatzen den titulazio bera edo maila handiagokoa duen talde batekoa izatea), halako gaitasun berezi bat eskatzen duten lanpostuetarako hautagaien gaitasuna neurtzeko proba praktikoak balioztatzea behar dituztenean.

Arrazoibide haiek guztiak azaldu eta gero, ez dirudi inolako zalantzarik dagoenik Ararteko Erakunde honek gai honetaz eman behar duen gomendioari buruz.

Hasieran egin ditugun iruzkinak gogora ekarriz, behar-beharrezkoa da euskal administrazio publikoek argi eta garbi ulertzea espezialitate irizpidea derrigor bete behar dela langileak aukeratzeaz arduratzen diren epaimahai edo sail teknikoak osatzeko orduan, eta, ildo horretatik, beharrezkoa dela hori horrela izateko dauden oztopo guztiak kentzea.

Hartara, era honetako sail teknikoek daukaten diskrezionalitate teknikoa bere egiazko muga barruan sartu ahal izango da, bai eta, aldi berean, ahalmen hori behar bezala erabiliko dela ziurtatu ere.

7.6. EDIKTU BIDEZKO JAKINARAZPENAREN ERABILERA ADMINISTRAZIOAREN ZIGORBIDEAN, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN LEGE-JAURBIDERAKO ETA ADMINISTRAZIOAREN JARDUNBIDE ARRUNTERAKO AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAN FINKATUTAKOAREN BABESEAN

Administrazio Publikoen Lege Jaurbiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/1992 Legea (APLJ eta AJAL), azaroaren 26koa, indarrean sartu zenean, halako aldaketa batzuk gertatu ziren administrazio-jakinazpenen lege-jaurbidean; hori zela bide, jakinarazpen horien erabilerari buruzko gomendio orokor bat egin genuen, berez zergak kitatzeko moduagatik, baina administrazio-jakinazpenekin egiten denari buruzko ildo orokor batzuk ere zehazten zituena. Izan ere, bereziki arduratuta geunden Administrazioak Legearen 59.4. artikulua edukiaz egin zezakeen ulerkerarekin, bertan jasotzen baitzen zein kasutan izan zitekeen bidezkoa halako jakinarazpen bat ediktu bidez egitea, batez ere -esandako agindu horrek jasotzen zuen bezalazuzeneko jakinarazpena (dagokionari berari, alegia) egiterik egon ez denean.

Interesgarria da gomendio horretako argudio eta arrazoibideetako batzuk ekartzea hona; bukaeran, hauxe zioen:

"Justizia antolamenduak jakinarazpenerako ezartzen dituen bide eta berme guztien helburua, Konstituzioan aitortzen diren babes judizial eraginkorren eta segurtasun judizialaren irizpideei erantzutea da, eta Administrazioak, beraz, ezin die entzungor egin Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak gai horri buruz eman dituzten ebazpenei.

Administrazioak bereziki, ahal dela, ez du ediktu bidezko jakinarazpena jo behar, beste bideekin ez bezala, kasu horretan interesatuak jakinarazpena jaso duela ez delako frogatua geratzen.

Administrazioak APEJLko 59. artikulua laugarren atalaren ezarpena moldatu egin beharko luke, bertan ediktu bidezko jakinarazpena jakinarazpena egin nahi izan eta lortu ez denean erabiliko dela iragartzen baita. Erakunde honen iritziz, jakinarazpena egiteko lekuari buruz zalantzarik ez dagoenean, ahalegin hori behar hainbat aldiz egin beharko litzateke, aipatutako aginduaren baimen orokorrean babestuz, hain garrantzi handia duen tramitea ediktu bidez jakinarazteko joera baztertuz. Era berean, jakinarazpenak egiteko ardura daukaten funtzionarioen aitortpenak

egiazkotzat jotzea *iuris tantum* dela onartu beharko da, eta beraz kontrako froga aurkez daitekeela."

Gure iritziz beharrezkoa da orain ere beste gomendio bat egitea, 1992an egin genuenaren ildotik, halako jarraibide batzuk eskaintzeko; izan ere, zigor-prozedura batzuk bideratzeko orduan, herri-administrazioek ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzeko aukeraz baliatzen jarraitzen dute, gure lehenagoko gomendioari jaramonik egin gabe eta, gainera, Konstituzioaren jurisprudentziak zehazten duen erreferentzi-esparrua aintzat hartu gabe.

Konstituzio Auzitegiak (KA) finkatu duenaren arabera, Zuzenbide penala-
ren oinarritzko irizpideak zigor Zuzenbide administratiboan ere erabili beharre-
koak dira, biak direlako Estatuaren zigor-ahalmenaren agerbide (KAren epaia,
1981eko ekainaren 8koa). Horren ondorioz, Espainiako Konstituzioaren
24.1. artikuluan jaso den berme-erregimena derrigor bete behar da herritarren
bizikidetasuna babesteko zigor-prozedura administratiboak bideratzean (KAren
66/1984 epaia). Konstituzioaren agindu horren arabera moldatuko da Herri-
administrazioetako sailek azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.4. artikuluan
jasotakoaz egin behar duten interpretazioa, jakinarazpena norberari egiten
saiatu eta horrelakorik egiterik egon ez denean ediktu bidezko jakinarazpena
erabiltzeko aukerari dagokionez.

Esandako 59.4. artikuluko horri jarraituz, Administrazioak hiru kasutan
dauka eskumena bere interes eta eskubideekin zerikusia duten ebazpen eta
ekintza administratiboak ediktu bidez jakinarazteko, beti ere interesdunaren
ikuspegitik. Horietatik bi -alegia, jasotzaileak ezezagunak direnean, edota jaki-
narazpena non egin behar den jakiten ez denean-, lehendik jasota zeduten
Administrazioaren Jardunbiderako Lege (AJL) indargabetuan; hirugarrena,
aldiz, eta hemen datza legegintza mailako berritasuna, gorago esan dugun
kasua da, hots: jakinarazpena norberari egiten saiatu arren, horrelakorik egite-
rik egon ez denean.

Konstituzio Auzitegiak, bere hasiera-hasieratik zehaztu du Espainiako
Konstituzioaren 24.1. artikuluko argi eta garbi agintzen diela legegileari eta
interpretatzaileari babesa bultzatzeko, ahal den neurrian, kontrako iritzia
erkatuz (KAren 9/1981 epaia), eta arauen azaleko interpretazioaren gainetik
jartzeko justiziarako eskubideaz baliatu ahal izateko aukera (KAren 14 eta
46/1987 epaiak). Bistan da lege-antolamenduaren arauen interpretazioak
epaile-babeserako eskubideaz benetan baliatu ahal izatearen bidetik egin behar
direla, alde batera utziz administrazio-ekintza hutsa hiritarren eskubide konsti-
tuzionalekiko errespetuaren gainetik jartzen duen edozein irakurkera. Legezko
arauak Konstituzioaren arabera ulertu behar dira, eta, beti ere, konstituzio
Zuzenbidearen eraginkortasunari begira onena den zentzuan (KAren 77/1984
epaia).

Kontutan izan behar da Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aitortu-
tuta dauden oinarritzko eskubideak kalteturik gertatzen direla hiritarrari aukera
uzten ez zaionean bere eskubide edo interesak epai-bidez babesteko edota
horretarako oztopo handiak ipintzen zaizkionean (KAren 70/1984); bestalde,
Konstituzioaren agindu horren 1. zatian alde aurretiko bermea jartzen du

edozein prozesu juridikzionalerako, epaile-babes eraginkorra ziurtatzen duela-rik prozesu horretan sartzeko aukeraren bidez (KAreñ 46/1982); gainera, administrazio-jakinazpenen araugabeko erabilera babeserako oinarritzko eskubidearen kontraktatzat joenezake. Horregatik guztiagatik, honako hau esan behar dugu ondorio bezala: alegia, zigor-prozeduretan, Administrazio publikoen ekintza eta erabakiak ediktu bidez jakinarazteko aukerari dagokio-nez, APLJ eta AJALen 59.4. artikulua *pro actione* deritzan irizpideari jarraituz ulertu eta interpretatu beharra dagoela.

Abiapuntu horrekin, gure iritziz ez da bidezkoa ulertzea APLJ eta AJA-Len 59.4. artikulua araberaz posible dela jakinarazpenak ediktu bidez egitea, zuzeneko jakinarazpena egiten saiatu eta horrelakorik egiterik egon ez denean; izan ere, administrazio publikoen zenbait sailetan horrela jokatzeko da, hain zuzen ere administrazio-prozeduren biderapen eta ebazpenak errazteko. Gure iritziz, esandako artikulua horren ulerbideak murrizgarria izan behar du: hots, dagokienei ezin zaie eragotzi beraien interesekoak diren ekintza administratiboen berri zuzena jakitea, aukera izan dezaten haien babeserako eskubide konstituzionalaz baliatzeko inolako arazorik gabe; izan ere, bistan da ezinezkoa dela pentsatzea halako eskubide edo interes zilegizkoak dauzkan batek derrigorrez adi egon behar duela halako aldizkari ofizial batean edota dagokion udalaren iragarki-taulan zer agertuko (KAreñ 63/1982 eta 117/1983 epaiak).

Interpretazioei buruz egin dugun azalpen hau ez dator bat Administrazioaren sail batzuek egiten dutenarekin: lehenago esan bezala, horiek bidez-kotzat jotzen dute zigor-prozeduretako ekintza eta ebazpen administratiboak ediktu bidez jakinaraztea; horrela, sarri askotan, jakinarazpena egiten duenak (dagokion sailaren egitura administratiboaren barrukoa izan edo posta-zerbitzuko funtzionaria izan), saio bat baino gehiago eta ordu desberdinetan egin ondoren, jakinarazpena jaso behar duena bera, bere ordezkariaren bat edota beste inor dagokion helbidean ez badago, sail horrek betetzat ematen du azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan dioena, haren interpretazioaren araberaz jakinarazpena egiten saiatu delako, ondorioz gabe izan arren, eta horregatik ediktu bidezko jakinarazpena egiteari ekiten dio, besterik gabe.

Usadio hori aztertzeke orduan, kontu handiz neurtu behar ditugu zein diren kolokan dauden balioak eta zein diren kaltetuta gerta daitezkeen konstituzio-eskubideak. Esan dugu lehenago Espainiako Konstituzioaren 24.1. artikulua onartutako bermeak ezarri beharrekoak direla Administrazioaren zigor-prozeduretan. Adierazpen ugari egin ditu Konstituzio Auzitegiak babeserako oinarritzko eskubide horren norainokotasunaz, erabakien jakinarazpenen fenomeno orokorrari dagokionez, eta bereziki Justizia Administrazioaren esparruan.

Jurisprudentzia konstituzionalak zehaztu duen bezala, ediktuaz baliatu aurretik, dagokion sailak bere ahalegin guztiak egin behar ditu dagokionari jakinarazpena helarazteko, horretarako aukera gehiago ematen duten bidez guztiak edo, bestela esanda, babeserako eskubidea neurririk handienezan bermatzen duten bidez guztiak erabiliz (KAreñ 16/1987, 234/1988 eta 227/1994 epaiak); gainera, jakinarazpena egiteko posta-zerbitzua erabili eta

bide horrek porrot egiten duenean ere, ez du bidezkotzat jotzen besterik gabe ediktu bidezko jakinarazpena egitea, zeren eta bide hori bakar-bakarrik erabili behar baita dagokionaren helbidea ezezaguna denean edota helbidea aldatu duelako non aurkitu jakiten ez denean; bestela esanda, ediktu bidezko jakinarazpena azken-azkeneko aukera dela ulertu behar da (KAren 38/1987, 140/1988, 9/1991, 41/1994, 51/1994 eta 227/1994 epaiak). Horregatik, posta-zerbitzuek jakinarazpen bat atzera itzultzen dutenean "jasotzailea ez dago etxean" edota "jasotzailea ezezaguna da" dioten oharrekin, dagokion sailak urratu egingo du babesik eza ez jasateko eskubidea, baldin eta ez badu jakinarazpenetarako arauen funtsezko helburua behar bezala betetzen, hau da, kasu honetan, ez badu ziurtatzen jakinarazpena eskuratu behar zuenak egiaz jaso duela. Hori dela eta, dagokion sailak ezin du besterik gabe ediktua erabili jakinarazpen-bide pertsonalagoa egiteko gainerako aukera guztiez baliatu gabe, oso zaila delako dagokion pertsonak ediktuaren berri jakin ahal izatea (KAren 227/1994 epaia).

Espainiako Konstituzioa interpretatzen duenak emandako doktrina berez sail juridikzionalen jardueraren ondorioz gertatutako arazoei buruzkoa da, baina, halere, guztiz erabilgarria da Administrazioaren jakinarazpenen kasuan ere; hain zuzen ere, babestu nahi den balio juridikoa babeserako eta epaile-babes eraginkorrerako eskubidea da, aipatu administrazio-usadioak eskubide hori hautsi baitezake.

Esandako guztiaren ondorioa, bistan denez, honako hau izango da: zigor-prozedura administratiboetan burutzen diren ekintzak eta hartzen diren erabakiak norberari jakinarazteko ahaleginak ustel ateratzen badira, ohiko bideetatik egiteko inolako aukerarik ez dagoenean bakarrik egin ahal izango da 30/1992 Legearen 59.4. artikulua aipatzen duen ediktu bidezko jakinarazpena.

Gure ikuspegitik begiratuta, jakinarazpena helarazi behar duenak jasotzailea bere helbidean aurkitu ez arren, horregatik bakarrik ezin esan daiteke jakinarazpena egitea ezinezkoa izan dela. Horixe da gure iritzia, baita ahalegin bat baino gehiago egiten bada ere jakinarazpena bere jasotzaileari helarazteko, hainbat ordu ezberdinetan. Kasu bakoitzean, jasotzailea aurkitu ezinaren arrazoia zein den aztertu beharko du dagokion administrazioak, kasualitate hutsagatik izan ote den ala helbidea aldatu delako izan ote den argitzeko; horretarako, bere esku dituen bide guztiak erabili behar ditu. Hori guztia egin eta gero oraindik ere jasotzailea aurkitu gabe jarraitzen badu, orduan bai, bidezkoa da dagokion ekintza edo erabakia ediktu bidez jakinaraztea, baina beti ere irtenbide hori arrazoizkoa bada bakarrik, hau da, jakinarazpena egiteko beste inolako modurik ez dagoela gauza ziurra baldin bada (KAren 157/1987 eta 234/1988 epaiak).

Hemen aztertu dugun arazoa eta bere konponbideak teorikoki azaldu eta gero, komenigarria da esatea badagoela modu bat ziurtatu ahal izateko halako administrazio baten ekintzak Espainiako Konstituzioaren 24.1. artikuluan onartzen den babeserako eskubidearen aurkakoak ez direla, beti ere

zigor-prozeduretan emandako ekintza eta ebazpenen ediktu bidezko jakinarazpenari gagozkiolarik.

Auzi honi buruzko azterketan ez litzateke bidezkoa izango inolako aipamenik ez egitea gomendio hau luzatzera eramane gaituen kezka nagusiaz, nahiz eta egia izan kezka hori ikuspegi orokor batetik begiratu behar dela. Bidezaingoa, zirkulazioa eta errepedeetako segurtasunari buruzko arauak betetzen ez direnean ezartzen den zigor-erregimenaren inguruan gertatzen diren arazoak dira, hain zuzen ere, gure kezka horren eragile nagusi.

Erakunde honek Herrizaingo alorrean izan duen jarduerari buruzko hitzaurre orokorrean bertan aipatu ditugu arazo horiek, eta administrazio-sail eskudunek esparru horretan zigor-prozesu ugari bideratu behar izaten dituztela kontuan izanik, bereziki azpimarratu dugu zertzelada honek arazo haietan duen eragina. Bertan adierazten genuen, halaber, antolakuntzari buruzko alderdi batzuek bazutela eraginik kasu horietan, eragotzi egiten dutelako Administrazioaren ahalmen hori gestiorako egoera normalean bideratu ahal izatea. Horiek horrela izanik, gutxiagotzat jo ditugu kasu horretako sail ahaldunek beren betekizunak burura eramateko dauzkaten baliabideak. Orobat, gure iritziz, gutxiagotasun horrek eragin nabarmena dauka, lehenago esan dugunez, prozesuen berezko "kalitatean", eta horregatik ahalegin berezia eskatu dugu gabezia horiek konpondu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, ondorio bezala esan behar dugu egiturazko kontu horiek ez dutela inondik ere eragin okerrik eduki behar aipaturiko zigor-prozedurek eskaini behar dituzten bermeetan.

Orain arte azaldu ditugun doktrina mailako ideiak hau bezalako gomendio batera bildu nahi ditugularik, eta gure asmoa guztiz praktikoa denez gero, gure ustez derrigor eduki behar dira kontuan ez bakarrik aurreko arau-ikuspegia eta arau horiek erabiltzeko modua, baizik eta, orobat, era honetako administrazio-jarduera batek hiritarren eskubideak kalteku gabe bere lana aurrera eramateko dauden gainontzeko ahalbide guztiak. Jarraibide horretan oinarrituko gara hemendik aurrera eman nahi ditugun ondorioetan.

1) Zigor-espedienteetan egiten diren ekintza eta ebazpen administratioboer jakinarazpenak, lehen-lehenik, lege-jaurbidea osatzen duten arauak dioten lekuan egin behar dira, eta kontuan izan behar da beti ere, APLJ eta AJA Len 59.2. artikuluko bigarren lehen aldian jarraituz, gerta daitekeela dagokion jasotzailea ez egotea bertan une horretan, eta orduan beste inor egonez gero, beste pertsona horrek jaso ahal izango duela jakinarazpena, bera nor den argitu ondoren. Azken puntu hau guztiz garrantzizkoa da, horrela egindako jakinarazpena araukotzat hartu ahal izateko. Hori dela bide, eskaria egiten dugu jakinarazpen-egileek dagokion administrazioaren egituraren barrukoak izan, nahiz posta-zerbitzuko langile izan ahalik eta ganorarik handienaz bete dezaten jasotzailearen nor den argitzeko baldintza hori.

2) Jakinarazpena dagokion jasotzaileari eskuratzeko lehen ahaleginak porrot egin ondoren, beste saio bat egin behar da komenigarritzat jotzen den moduan, eta beste ordu batzuetan, kontuan izan behar baita gaur egun hiritarren ohiturengatik errazago dela pertsona hori edota bere ordezkoren bat ordu

batzuetan beste batzuetan baino errazago topatzea, jakinarazpena helarazi ahal izateko.

3) Bigarren ahalegin hori ere ustel ateratzen bada, jakinarazpen-egileak abisu bat utzi beharko du jasotzailearen esku egon daitekeen leku batean -buzoian, esate baterako-, bertan adieraziz, alde batetik, jakinarazpen bat egin nahi izan zaiola baina bera aurkitzeko modurik ez dela egon, eta, bestetik, zein den prozedura hori bideratzen ari den zerbitzu edo sail administratiboa, bai haren erreferentzia ere. Abisu hori behar bezala bete behar izango du jakinarazleak, argi eta garbi azalduz zeren abisua den, eta nork, non eta noiz egina den.

4) Jakinarazpena jasotzaileari bidaltzeko bigarren ahalegina posta zerbitzuaren bitartez egiten bada ohikoa den moduan, eta ahalegin horrek ere huts egiten badu, orduan aurreko zatian aipatu dugun abisua ohiko postabidez ere bidali ahal izango da.

5) Zuzeneko jakinarazpena egiteko bigarren ahaleginak huts egin duela ikusi eta gero, zigor-espeditentaren biderapenez arduratzen den zerbitzu edo sail administratiboak beharrezkotzat jotzen duen eran egiaztatu beharko du jasotzaileak lehenagoko helbidean bizitzen jarraitzen duen edo jakinarazpena egin behar den helbidea lehengo berbera den ala ez.

6) Aurreko puntuan esan duguna ikertu ondoren egiaztatzen bada jasotzaileak helbidea edota jakinarazpena egin behar den lekua aldatu duela, eta dagokion saila helbide berriaren jakinaren gainean badago, orduan horra bidali beharko ditu bere jakinarazpenak.

Aldiz, jasotzailearen helbidea edo jakinarazpena egin behar den lekua beste bat dela ziurtatu ondoren, dagokion sailak ez baldin badu helbide berria zein den jakiteko modurik, edo ez baldin badaki jakinarazpena beste zein lekutara bidal daitekeen jaso behar duenari helarazteko, orduan bai, Administrazioarentzat bidezkoa izango da ediktu bidezko jakinarazpena egitea.

7) Egindako ikerketen ondorioz egiaztatzen bada jasotzaileak lehenagoko helbide berebean jarraitzen duela, edota jakinarazpena egin behar den lekua lehengo berbera dela, orduan berriro egin beharko da ahalegina zuzeneko jakinarazpena dagokionari eskuratzeko, behar diren neurri guztiak hartuz saio horrek porrot egin ez dezan, batez ere hori egiteko eguneko unerik egokienari begira.

Baina ahalegin horiek guztiak egin eta gero, arrazoizkoa den moduan ikusten bada egiaz alferrik dela ohiko jakinarazpen-bideak erabiltzea, orduan ere dagokion sailak ediktu bidezko jakinarazpena egin ahal izango du.

8) Berez prozeduratik kanpoko gauza bada ere, bigarren ahalegina egin eta gero jakinarazpena dagokion jasotzaileari eskuratzetik egon ez bada, hemengo hirugarren puntuan esan bezala jokatu beharko da, bai abisua uzteko moduari dagokionez, bai abisu hori behar bezala egiteko moduari dagokionez.

9) Jakinarazpena jasotzaileari eskuratzeko ahalegin horiek porrot egiteko arrazoia erabilitako bide edo zerbitzuaren ohiko lan-ordutegia izan bada,

hurrengo saioak egiten direnean, bai dagokion sailaren aldetik, bai beste zerbitzu batzuen aldetik, jakinarazpena dagokionak jaso ahal izateko egokienak diren egun eta orduetan egiten saiatu beharko da.

10) Orain arte aipatu ditugun ekintzak ahalik eta ongien egin ahal izateko, administrazio publikoek behar adinako giza eta materiale baliabideez hornitu beharko lituzkete dagozkion administrazio-zerbitzuak, behar bezalako oreka egon dadin haien ahalmenen eta hiritarrek dauzkaten eskubide eta interesen artean.

7.7. IRISGARritasunaren ARAZOA INGURUNE FISIKOAN

(Zenbat eta hobeia izan herri bateko pertsona ezinduek edo baztertuek duten bizi-maila, hainbat eta hobeia herri horren bizi-maila)

7.7.1. Sarrera

Ingurune fisikoan irisgarritasunik ez izatea ondorio makurrak dituen arazo da gaur egun biztanle askorentzat, mugikortasuna urriturik duen pertsona multzoarentzat batez ere.

Ikuspegi horretatik, hain zuzen, kexa bat baino gehiago iritsi da erakunde honetara elkarte autonomo honetako elbarri elkarte aldetik, bai etxegintzako bai hirigintzako oztopo fisikoak kentzeari dagokionez indarrean dagoen araudia ustez betetzen ez diren egoerak salatuz.

Alde horretatik, hain zuzen, aurkeztu diren kexak banan-banan aztertu ditugunean, oztopo fisikoak kentzeari buruzko araudia ez betetzeko jokaera hori arras zabaldua dagoela ikusi ahal izan dugu bai sarrera publikoa izan behar duten eraikin berriak jasotzean, bai lehendik dauden eraikinak beritzean, bai hirigintzako egitasmoak burutu behar direnean ere.

Ikerketa honetan arau horiek ez betetzeko zein arrazoi nagusi izan diren, mugikortasuna urriturik duten pertsonentzat irtenbideak bilatzeko gaur egun zein joera berri dauden aztertzen ahaleginduko gara, eta azkenik etorkizun hurbilenerako jokabide-proposamen batzuk zehaztuko ditugu eta irarokizun bat egingo dugu etorkizunerako, arkitektura-oztopoak kentzeari dagokionez indarrean dauden arauak bateratu eta irisgarritasuna egiaz bultzatzeko.

7.7.2. Lege-jaurbidea

A) Konstituzio eremua

Konstituzioaren 49. artikulua honela dio:

"Botere publikoek aitzinamendu politika bat aurrera eramango dute, baita tratamendu, berrabiltze eta helbarri fisiko, zentzu eta sikikoen

integrakuntza, hauei behar duten arreta berezia eskainiz eta bereziki babestuko die, Titulu honek hiritargoei eskaintzen dien eskubidearen gozatzeko."

Xedapen hori Konstituzioaren I. izenburuko III. atalburuak gizarte eta ekonomi gaietarako gidari gisa ezartzen dituen irizpideen multzoan bertan bildurik dago. III. atalburuan biltzen diren eskubideak, beroriek aldarrikatzen dituen Konstituzioaren 9.2. artikulua agindu zehatzaren arabera, eskubide horien izaera sozialagatik beragatik berdintasun egiazko eta funtsezkoaren zerbitzutan daude, eta hori nahikoa arrazoi da eskubide sozialtzat har daitezen.

Horrela, Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua gomendio berezia egiten die agintari publikoei norbanakoaren eta norbanakoa barne hartzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko baldintzak jar ditzaten; baita askatasun eta berdintasun hori bete-beteak izan daitezen eragozten edo zailtzen duten oztupoak ken ditzaten eta herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kulturazko eta sozialean parte har dezaten bideak erraztu ditzaten ere.

Beste alde batetik esan beharrik ere ez dago eztabaidatu ezinezkoa dirudiela Konstituzioaren agindu guztiek arau balioa badutena, legezko arauak direla hain zuzen, eta ez aldarrikapen programatiko soilak. Hala eta guztiz ere, zalantzarik ez dago Konstituzioaren xedapen guzti-guztiek ere ez dutela legezko balio edo eraginkortasun berbera. Gogoeta hau eskubide sozialei dagokienez da batez ere baliagarria.

Konstituzioaren I. izenburuko III. atalburuan bildurik dauden aginduak, eskubide eta betebeharretara bihur daitekeen harreman juridikorik ez dakartenez gero, zuzenean ezartzeko arauak ez direla diotenen kontra, zuzentzari buruzko doktrinak oro har dio Konstituzioko agindu guztiak, III. atalburuan bilduak barne, direla zuzen-zuzenean ezargarri agintari publiko guztientzat. Ildo horretatik, García Enterría-k dio Konstituzioaren printzipioak arau programatiko soilak baino gehiago direla, tradizioaren arabera arau horiei auzietarako baliagarritasuna erabat ukatzen zitzaien zentzuan behintzat; eta horretarako Espainiako Konstituzioaren 53.3. artikuluan oinarritzen da, hartan baitio legeria positiboa, auzigintza eta agintari publikoen jokabidea guztiz eraentzen dituztela printzipio horiek; eta jaun horrek berak zehazten du ezen Konstituzioko zenbait aginduk bertan duen trataeragatik izan dezakeen eraginkortasun mugatuago edo zabalagoa gorabehera, ezin daitekeela horrenbestez inola ere ondorioz atera arau baliorik ez dutenik eta agintari publiko eta pribatu ororenzat lotura eraginkorrik ez dutenik.

Irizpide hauxe da, bestalde, Konstituzio Auzitegiak ere gehien baliatzen duena, eta halaxe islatzen da, islatu ere, apirilaren 28ko 16/1982 epaian, honela baitio:

"Konstituzioa ez da, ezta gutxiagorik ere, printzipio zerranda soil bat, berehalako loturarik ez duena eta bere arauak legez zehazten diren arte berehala bete beharrekoa ez dena, oso bestela baizik, arau juridikoa da, gure lege-antolamenduaren goreneko araua, eta alde horretatik herritar guztiak, agintari publiko guztiak (...) haren menpe daude."

Horrexegatik hain zuzen, zinez esan genezake Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua ez dela, bere izaeraz, gomendio edo aholku soila, aitzitik baikik, agindu zehatza duela agintari publikoentzat, pertsona ororentzat egiazko berdintasuna lortzen ahalegindu daitezten. Oso kontuan eduki behar dugu, gainera, agindu horrek berorrek etxebizitza duin edo egokia izateko eskubidea, urritasun fisiko, zentzumenezko eta psikikoak dituzten pertsonen arretoa eskubidea, zahartzarorako babes eskubidea, kulturara iristeko eta lana izateko eskubidea, osasunerako eskubidea eta beste hainbat aipatzen dizkigula.

B) Estatuko araudia oztopo fisikoak kentzeari buruz

- 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, elbarriak gizartean egokitzeari buruzkoa (EBO, 103. zk., apirilaren 30ekoa).

- 556/1989 Erret Dekretua, maiatzaren 19koa; horren bidez Herrilane-tarako eta Hirigintzarako Ministeritzak eraikinetara iritsi ahal izateko gutxienezko neurriak onartzen ditu (EBO, 122. zk., maiatzaren 23koa).

- 3/1990 Legea, ekainaren 21ekoa, 49/1960 Jabego Horizontalari buruzko Legea aldatzen duena, elbarriek beren etxebizitza duten eraikinean bizitzeko baldintza egokiak izan ditzaten akordioak onartzeko erraztasunak ematen dituena (EBO, 149. zk., ekainaren 22koa).

C) Euskal Elkarte Autonomoko araudia

- 59/81 Dekretua, martxoaren 23koa, hirigintza-oztopoak kentzeko araudiaz (EHAA, 19. zk., maiatzaren 21ekoa).

- 291/83 Dekretua, abenduaren 19koa, arkitektura-oztopoak kentzeko araudiaz (EHAA, 11. zk., 1984ko urtarrilekoa).

D) Beste komunitate autonomo batzuetako araudiak

Komunitate autonomoetan orain arte onartu diren araudiak ondoko zerrendan ageri dira, kontuan harturik, hala ere, zerrenda honetan lege maila duten xedapenak baikik ez direla sartzen:

Nafarroa: 4/1988 Foru Legea, uztailaren 11koa, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzkoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 86. zk., uztailaren 15ekoa).

Katalunia: 20/1991 Legea, azaroaren 25ekoa, irisgarritasuna bultzatu eta arkitekturako oztopoak kentzeari buruzkoa (Kataluniako Generalitateko Aldizkari Ofiziala, 1.526. zk., abenduaren 4koa).

Baleareak: 3/1993 Legea, maiatzaren 4koa, irisgarritasuna hobetu eta arkitekturako oztopoak kentzeari buruzkoa (Baleareetako Aldizkari Ofiziala, 62. zk., maiatzaren 20koa).

Madril: 8/1993 Legea, ekainaren 22koa, irisgarritasuna bultzatu eta arkitekturako oztopoak kentzeari buruzkoa (Madrileko Aldizkari Ofiziala, 152. zk., ekainaren 29koa).

Gaztela-Mantxa: 1/1994 Legea, maiatzaren 24koa, irisgarritasunari eta oztopoak kentzeari buruzkoa (Gaztela-Mantxako Aldizkari Ofiziala, 32. zk., ekainaren 24koa).

Errioxa: 5/1994 Legea, uztailaren 19koa, arkitekturako oztopoak kendu eta irisgarritasuna bultzatzeari buruzkoa (Errioxako Aldizkari Ofiziala, 91. zk., uztailaren 23koa).

7.7.3. Euskal Elkarte Autonomoko araudiari begirada berezia

A) Elkarte Autonomoko araudia

Eusko Jaurlaritzak, arauak emateko duen ahalaz baliatuz, martxoaren 23ko 59/81 Dekretua eman zuen, hirigintzako oztopoak kentzeari buruzko araudiaz (EHAA, 19. zk., 81-05-21).

Aurrez adierazi beharra dugu oztopo fisikoak kentzeari eta irisgarritasuna hobetzeari dagokion guztian arauak emateko ekimen honetan lehenetsuna ez dela komunitate autonomoena izan, tokian tokiko udalena baizik, ordenantza berezien bidez edo gai horiek hiri-antolaketakarako egitasmo orokorretan sartuz, zeregin handia bete baitute, eta garrantzi handiko ikerketa burutualdi berean, 1978-1982 bitarteko urteetan. Tokian tokiko udalek emandako arauak elkarren artean dituzten ezadostasunak adosteko asmoz elkarte autonomoen araudiak sortzen dira, eta alde horretatik, Espainiako Estatu osoan gai honi buruz argitaratzen den lehenengo araua Eusko Jaurlaritzaren 59/81 Dekretua da hain zuzen. Aipatu beharra dago, orobat, haren garrantzia, gai honetan lehenengo delako ez ezik, baita elbarriak gizarteratzeari buruzko 13/82 Legea, apirilaren 7koa, onartu aurretik emana delako ere.

Arau honek bere abiaburuan ez du irisgarritasunaren kontzeptu bateratu bat, hirigintza-oztopoei dagokien ikuspegia besterik ez baitu begiratzen, elbarriak gizarteratzeko oinarri-oinarrizkoak diren beste alderdi batzuk kontuan hartu gabe, arkitekturako oztopoak, garraioetako oztopoak eta zentzumenezkoak, adibidez. Hala eta guztiz ere, dekretu horren ekarriek berebiziko balioa dute, zalantzarik gabe. Horrexegatik, hain zuzen, ondoren xeheki azaldu eta aztertuko dugu arau hori.

Bere lehen artikulua honela dio:

"Dekreto honek zera du xede: Hirigintza-gaiak eta hiri-tresneria osatzen duten gauzek, gorputzeko ezein ezintasun iraunkor nahiz behin-behingo izan dezaten guztiek -haur, haurdun, zama-eramaile etabar- hirilurretan, hiritarakoetan, hirigintzarako gai direnetan eta leku zabalezko eta herribaliapidezko Guztizko Erapideetan, eta bai Dekreto honen I Eraskinean aipatzen diren hiri-baliapidetako baterako eraikintzetarako iriste-bidetarako utzitako eraikintzarik gabeko unetan ere, eraikintza hoiek herri nahiz norbanako-jabetzapeko izan, behar bezalako aietasunez ibili ahal dezaten moduan tajutzeko Araupideak finkatzea."

Honi dagokionez, esan daiteke zinez une honetatik bertatik gauza finkotzat jotzen dela dekretu horretan ematen diren neurriak ez direla elbarrien edo ezinduen mesedetan bakarrik izango, aitzitik beren bizitzako une jakin batean mugitzeko zailtasunen bat duten guztien mesedetan ere izango direla, testu honetara ekarri den aginduak argi uzten duen bezala. Puntu honetan beste gai bat ere zehaztu nahi dugu, alegia, gaur egun oso kontuan hartu behar dela biztanlegoa gero eta gehiago zahartzen ari delarik, era berean gero eta eragin handiagoa dutela beretzat oztopo fisikoek, hori horrela izateak zenbait ekimen abiaraztera behartuko gaituela, eta, azken finean, ekimen horiek guztiek gure hirien diseinurako kontzeptu berri bat ekarri behar digutela, hiri horiek erabil-tzaile guztientzat iristerraz izan daitezen.

Agindu honi dagokionez, hirigintzako oztopo fisikotzat hartzen dira elbarriek eraikinik gabeko eremuetan, dela hirigintzako elementuek berek sortue-tan, dela hiriko gai mugigarri direnetan, normal ibili eta mugitu ahal izateko eragozpen diren oztopoak. Orobat azaltzen da zer hartzen den hirigintzako elementutzat eta zer hiriko gai mugigarritzat. Halaxe, hirigintzako elementu-tzat hartzen da hirigintzako obretako osagai den edozein elementu, hala nola zoladura obrak, garbiketarakoak, estolderiakoak, argi-indarraren banaketa sis-temakoak, herriko argienak, uraren hornidura eta banaketarakoak, lorategie-takoak eta hirigintza planeamenduak zehazturik eta agindurik burutzen diren gainerako guztiak. Bestetik, berriz, kalean hirigintzako edo eraikuntzako gaien gainean edo aldamenen jarririk, egituraz edo lekuz aldatuko balira ere, eraikuntzan edo kalean funtsezko aldaketarik eragingo ez luketen gauzak hartzen dira hiriko gai mugigarritzat.

Araudi hau derrigor betetzekoa da planoak diseinatzean eta hirigintza-proiektuen osagarri diren obren zehazgarri diren zehazpen guztiak idaztera-koan: hau da, hirigintzaren osagarri den edozein elementuri dagozkion hiri-gintzako obra arrunten, eta dekretuan bertan definitzen ziren erabileretakoren bat hartzen duten eraikuntza eta instalazioetarako obren proiektua egitean eta burutzean (hala nola ikastetxeak, umezurtz etxeak, hotelak, zahar-egoitzak, e.a), obra horiek hirigintzakoak izan, eraikin berriak egiteko nahiz lehengoak berritzeko, zabaltzeko edo zaintzeko, berdin diolarik obra horiek Administra-zioak berak eginak izatea, ala bestelako erakundeek ala pertsona pribatuek, edozein delarik ere horretarako zilegiztatzen dituen titulua. Era berean, arau hau derrigor betetzekoa da udalaren antolaketarako egitasmo orokorren, pla-neamendurako ordezkio arauen eta hirilurra mugatzeko egitasmoen proiektu-planoak diseinatzerakoan eta gainerako zehazpenak idazterakoan, bai zatikako egitasmoetan, berezietan, xehetasun-azterketetan eta edozein eratako egitas-mo eta arauen hirigintza-arau eta ordenantzak idazterakoan ere.

Hirigintzako arau hauek zehazterakoan agindu honetako betekizunak kontuan hartzen diren ala ez ziurtatzeko daturik ez badugu ere, zinez ziurta genezake eskari hauxe egiten dutela, besteren artean, elbarri elkarteek. Garrantzi handiko gauza da, gure iritziz, neurri hau gogoan hartzea, hiri-anto-laketa ororen nahitaezko oinarria eta funtsa baita planeamendua.

Arau hau betetzekoa izango da, orobat, ahal denean bederen, osorik edo zati batez urbanizatuta dauden eremuetako eraikinak barne-eraberritzeko edota hirigintzako elementuen zein hiriko gai mugigarrien egokitze, eraberritze edo hobekuntza ekimenetarako obrak burutzean. Hala ere, arau hauek beteazearren zuzenak ez diren beste irtenbide batzuk eman behar badira, edo neurrizko ez diren ekonomi baliabideak bideratu, bestelako irtenbide bereziak bilatuko dira; hala ere zehazki adierazi beharko da obra bakoitzari dagokion egitasmo eta proiektuaren memorian emandako irtenbidearen egokitasunaren arrazoa eta dekretu honetan biltzen diren agindu teknikoak zergatik ezin diren bete edo zergatik ez den komeni betetzea, eta gainera, bete ez diren aginduak eta haien ordeaz eman diren irtenbideak zehaztu beharko dira.

Era berean, dekretu honetako arauetan jasotzen diren xedapenak ukitzen dituzten egitasmo, arau, xehetasun-azterketa eta bestelako edozein motatako proiektuen memoriarekin batera agiri osagarri bat jarri beharko da arau horiek egiaz betetzen diren argi eta xehetasunez adierazten duena, horretarako hartu diren neurriak ere azalduz.

Hirigintza-oztopoak kentzeari buruzko arau honen II. izenburuan hirigintzako elementuen eta hiriko elementu mugigarrien diseinuari buruzko xedapenak biltzen dira. Hala aipatzen dira, adibidez, bideak, zoladurak, espaloiak, oinezkoen pasabideak, eskailerak, aldapak, aparkalekuak, parkeak, lorategi eta plazak, komun publikoak, barandak, semaforoak, telefono kabinak, kale-sinaleak, e.a.

Azkenik, lehen xedapen gehigarriak zehazten duenaren arabera, araudi hau onartu aurretik burutuak diren hirigintzako ekimenak hartara egokitzeko, araudia betetzen zaila denean, irtenbide bereziak bilatuko dira, aurrez hirigintzako ekimen horiek kokaturik dauden ingurune berezietan ziharduten elbarri elkarteetan iritzia jasorik. Agindu hau guztiz azpimarratzekoa dela uste dugu, izan ere, ezinbestekoa da dauden hirigintza-oztopoetatik ahalik eta gehien kendu ahal izateko, ahal denean behintzat; norik egin dezake, izan ere, proposamen egokiagorik, gai horiek zuzenean dagozkienek baino, eraikinik gabeko eremuak, eremu zabalak edo herritar guztientzat libre utziak beraientzat ere iristerraz bihurtuko dituzten irtenbide berezi horiek proposatzeko.

Geroztik, 10/81 Legea, azaroaren 18koa, Kontsumitzailearen Estatutuari buruzkoa onartu zen; berorren hogeita hamabigarren artikulua oztopo fisikoak kentzeko araudia finkatu eta ezarri beharra aipatzen zuen; horregatik, eta martxoaren 23ko 59/81 Dekretuaren ezarpenak arau hori berori lehenbailehen arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudi batez osatu behar zela agerian jarri zuelarik, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 19ko 291/83 Dekretua onartu zuen, arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudiaz.

Dekretu horren helburua, hain zuzen, behar den araudia finkatzea da eraikin bakoitza osatzen duten arkitekturako osagaien diseinuak eragozpenik jar ez dezan era bateko edo besteko elbarritasuna (organikoa zein aldi batekoa) duten pertsonak -haurrak, emakume haurdunak, kargak darabiltzatenak, e.a.-egoki baliatu ahal daitezkeen eraikinaren barruan jendearentzat sarrera librekoak diren lekuetan, leku horien erabilera jabegoz publikoa ala pribatua izan.

Ondoko erabilera edo jarduera hauek zehazten dira aipatu dekretuan: ikastetxeak, umezurtz etxeak, zahar-egoitzak, burdinbideetako geltokiak, autobus geltokiak, aireportuak, itsas ibilgailuen geldiguneak, eremu handiko merkatuak, banketxeak, edozein motatako osasun zerbitzuak, sorospen zerbitzuak, Administrazio publikoaren zerbitzuak, maila guztietako hezkuntza zerbitzuak, erlijio zerbitzuak, kultura zerbitzuak, antzokiak, zinema-aretoak eta kirol zelaiak.

Ez dira herritarren erabilerarako jotzen, arkitekturako oztopoak kendu beharreko eremutat alegia, lantokiak, horrela elbarriek oro har lan munduan sar daitezen eragozten dugula alde batetik, eta bestetik, eraikin horietarako sarrera ere eragozten delarik. Irisgarritasuari buruzko arau berriak zehaztera-koan, oso kontuan hartzeko gaia izan behar du, inondik ere, honek.

Arkitekturako oztopotzat pertsona elbarriak eraikinaren barruko lekuetan egokitasunez mugitu ahal izateko traba izan daitezkeen oztopo fisikoak hartzen dira, dela eraikinaren egiturazko elementuak, dela eraikinaren beste osagai batzuk.

Dekretu honen xedapenen aplikazio eremuari dagokionez, bete beharrezkotzat ematen dira, Euskal Elkarte Autonomoaren lurralde barrutian, eraikuntza proiektuak osatzen dituzten obrak definitzen dituzten planoen diseinuan eta gainerako xedapen guztien idazketan.

Hirigintzako oztopoak kentzeari buruzko 51/81 Dekretuan bezalaxe, xedapen honetan ere adierazirik geratzen da ezen dekretu honetan xedatua ahal den neurrian bete beharra izango dela eraikinen barne-eraberritzeko obretan edo lehendik dauden eraikinen egokitze-obretan, eta obra horietarako proiektuen memorietan zehazki adierazi beharko direla eman diren irtenbideen egokitasunaren arazoak eta dekretu honetan biltzen diren agindu teknikoak zergatik ezin diren bete edo zergatik ez den komeni betetzea azalduko duten frogak, bete ez diren aginduak eta haien ordeztan eman diren irtenbideak zehaztuz.

Beste hau ere eskatzen da: dekretu honetan bilduriko xedapenak jasotzen dituzten edozein motatako aurreproiektu edo proiektuen memorian eranskin bat izan behar dela, xedapen hauek nola betetzen diren, horretarako hartu diren neurriak ongi zehazturik, argi eta xehetasunez jasoko duena. Aldi berean, hala ere, araudi honetan begiratzen ez diren bestelako irtenbide batzuk ematea ere baimentzen da, araudi honen xedea gordetzen bada, beti ere.

Batez ere berrikuntza bat jarri nahi dugu agerian: dekretu honetako 3.2. artikulua, izan ere, nork bere eskumenaren eremuan, arau honetan aurrakusten diren ekimenetako edozeinetan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko orori arau hau betetzearen erantzukizuna egotzen dio. Hartara erantzule egiten dira bai eraikinak jasotzeko proiektuak idazten dituzten profesionalak, bai proiektu horiei onspen teknikoa eman eta ikuskatzeko ardura, edo obra egiteko baimena ematekoa, edo hala behar denean, eraikina zabaldu eta martxan jartzeko baimena emateko ardura arauz duten erakunde eta udalak ere; eraikuntzan erabilitako materialeen egile eta hornitzaileak; eraikitzaileak

eta eraikuntza-lanak zuzentzen dituzten teknikoak; arauan aipaturiko saioak egiten dituzten laborategiak eta araua betearazteko ikusketa teknikoa burutzen duten erakundeak.

Aztertzen ari garen dekretu honen beronen II. izenburuan eraikinaren osagarri diren arkitekturako elementuak eta haien eranskin direnen diseinuari buruzko xedapenak begiratzen dira. Hala, adibidez, aparkalekuetan bereziki elbarriak eramaten dituzten ibilgailuentzako dauden gordetzeko leku kuotak aipatzen dira; sarrera publikoko eraikinetarako irispideak, barreneko igarobi-deak eta komunikazioak, eskailerak, aldapak, barneko ateak, esku-barandak, igogailuak, komunak, kirol jardueretarako erabilera publikoko instalazioetan dauden jatzeko gelak eta duxtak, e.a. diseinatzen dira.

Beste alde batetik aipatu beharra dago, orobat, dekretu honetan ere biltzen dela, berorren lehen xedapen gehigarrian hain zuzen, araudi hau onartua izan aurretik egindako eraikuntzetarako irtenbide bereziak bilatu behar diren guztietan elbarrien elkarteei beren iritzia eskatu beharra.

Gai honi dagokiona bukatzeko, aipatu beharra dugu lehendabizi, ordezeko araua denez, maiatzaren 19ko 556/1989 Erret Dekretua, Herrilantarako eta Hirigintzarako Ministeritzak hala proposaturik, eraikinek irisgarritasunari dagokionez bete behar dituzten gutxienezko neurriak onartzen dituen.

Arau hau eraikin jaso berriek bakarrik dute derrigor bete beharra; arau horretan, jendea bertaratan den eraikinetan erabiltzen diren zenbait ibilbidek ibilgarri izateko bete behar dituzten baldintzak, eta erabilera pribatuko eraikinetan arauz igogailua jarri behar denean bete behar direnak biltzen dira, horretarako horiek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak ere zehaztuz.

Azkenik ekainaren 21eko 3/1990 Legea ere aipatu behar dugu, uztailaren 21eko Jabego Horizontalari buruzko 46/1960 Legearen 16. artikulua aldatu duena, etxebizitzako eraikinean elbarrientzat sarrera eta mugikortasuna errazteko asmoz hartutako erabakiei begira. Arau horretan oinarriturik, jabeen batzordeak jabegoaren tituluari berari edo estatutuei dagozkien arauak onartu edo aldatzeko akordioak onartzen dituztenean, "akordioaren helburua elbarrien irispidea eta mugikortasuna zailtzen duten arkitektura-oztopoak kentzea denean, aski izango da jabego kuoten bostetik hiruren ordezkari diren jabeen bostetik hiruren botoa."

Aldaketa hori, ordea, gutxiegi kotzat jotzen da elbarrien babeserako arau bereziei dagokien ikuspegitik begiratuta.

Horrela, Estatu Defensor del Pueblo-k gomendio bat helarazi zion Justiziako Ministeritzari, 74/1993 zenbakiduna, 1993ko urteko txostenean jasoa (Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, Gorte Nagusiak, V. Legealdia, A Sails, 26. zk., 718. or.), 1960ko uztailaren 21eko Jabego Horizontalari buruzko Legea aldatzeko lege-proiektu bat presta zedin, jabego horizontaleko errejimena duten eraikinetan elbarriei irispidea eta mugikortasuna eragozten dieten arkitektura-oztopoak kentzeko asmoz obrak egin nahi direnean, akordioak onartzeko inolako quorum-ik beharrezko ez dadila izan erabakiz.

B-2) Araua hausteko bestelako zioak, arauditik beretik at daudenak

Atal honen hasieran ikusi ahal izan dugunez, gai honi dagokionez borondate politiko egiazkorik ez izatea eta herritarren artean oro har ardura gutxi egotea dira pertsona elbarrien elkarrekin egiten dituzten salaketa nagusiak. Abiaburu gisa, araudia izanda ere, berori ez da betetzen; eta elkarrekin batzuek araudi hori betearaz dadin eskatzen ari diren bitartean, gizarteari berari arrotz zaio bai araudia, bai bere ingurunea eta gizarte hori osatzen duten zenbait elkarrekin ere.

Gaur egun ezin daiteke zurrizko arrazoitzat eman ezartzeko den araudia ez ezagutu izana, araudi hori ahaztu izana edo ezartzeko interesik ez izatea baizik.

Alde batetik, askotan esan ohi da profesionalak ez dutela arazoa behar bezala ezagutzen. Zehatzago esateko, badirudi eztabaida luze eta zailak izan direla Unibertsitatearekin arkitektura-eskolen irakasgaien artean oztopo fisikoak kentzeari buruzkoa sartzeko orduan. Irisgarritasunaren gai hori arkitekto batek bere lanbideaz ezagutu behar dituen arau guztien artean zati txiki bat besterik ez dela izan da erantzuna.

Politikariek eta udaletako teknikariek irisgarritasunari dagokion guztian duten erantzukizunaz ere gogoeta egin beharra dago. Esate baterako, udal batek hiru une nagusi ditu araudi hau betetzen den ala ez ikuskatu eta begiratzeko: (1) obra egiteko baimena emateko orduan proiektua begiratzeko; (2) obraren ikusketak eta (3) obra bukatu ondoko ikusketak, eraikina hartzeko baimena eman aurretik egin behar direnak. Honi dagokionez, udal arduradunek diotenez, ez omen dute behar adinako baliabiderik, ez materialik ez jendezkorik, beren barrutietan onartzen diren proiektu guztietan oztopoak kentzeari buruzko arau guztiak behar bezala betetzen diren ala ez zorrozki ikuskatu ahal izateko.

B-3) Ekonomia kostuak

Lehenik eta behin esan beharra dugu gaur egun inolako zalantzarik ez dagoela araudi honetan oztopoak kentzeko jasotzen diren neurriak hartzeak, eraikinak jaso berriak direnean behintzat, ez duela eragiten gehiagoko kosturik eraikinen kostu osoari begira.

Bestelakoetan, lehendik dauden eraikinen eraberritze edo egokitze lanetan bai, oztopo fisikoak kentzeak eska dezake zenbaitetan neurritz gaineko ahalegin ekonomikoren bat.

Hala eta guztiz ere, erakunde publikoek ahaleginak egin behar dituzte beren eraikinen egokitze edo eraberritzeak egiten dituztenean, eraikin bat ezin egokituzkotzat joz oztopoak kentzeko araudia ez betetzea ez dadin izan arrazoi ekonomikoengatik, arrazoi teknikoengatik baizik.

Era berean, jabego pribatuko eraikinen egokitze eta eraberritze lanetan hori bera gerta ez dadin, agintari publikoek ahalegin guztiak egin behar dituzte gai honetan sustapen neurriak emateko, eta ahaleginak egin, orobat, obren sustatzaileei irispideak errazteko eta arkitektura-oztopoak kentzeko lanak egin ditzaten informazio gehiago emateko.

7.7.4. Irisgarritasun arazoa ulertzeko modu berri bat

Orain dela oso hamarraldi gutxirarte pertsona elbarriak ia ikustezinak ziren herriko gainerako biztanleentzat. Etxe barruan geratzen ziren, eskola berezietara joaten ziren, edo zentru berezietan bizi ziren.

Egoera hori gutxika-gutxika aldatuz joan da pertsona elbarrien elkartek gizartearen beren presentzia gero eta gehiago adieraziz joan diren neurrian, pertsona multzo hori egiaz gizarteratu ahal izateko aldatu beharrezkotzat jotzen zituzten neurriez, hasi lanari dagozkion arazoetatik eta gizarte-aurrikuspeneraino eta batez ere mugikortasun arazoetaraino, gizarteak arreta handiagoa har zezan lortuz joan diren heinean.

Beste alde batetik, oso kontuan hartzekoa da pertsona elbarrien multzoan bertan eta zerbitzu-eskaeran gertatzen ari den aldaketa nabarmena ere. Geroz eta gutxiago ageri dira jaiotzetiko gaisotasun heredatuak, gaztaroko gaisotasunak edo erditze unean laguntza faltagatik sortuak, eta aldiz, traumatismoen ondorioz sortutako elbarritasunak, alegia, pertsonaren adin nagusian zehar izandako istripuen ondorioz sortuak, nabari-nabari ari dira ugaltzen. Horrek berorrek arras aldatzen du elbarriak gizartearen duen eginkizun soziala, traumatismoak lanean diharduen gizarte parteari gertatzen baitzaizkio, bere bizitzako produkzio aldiñ lanean diharduenari batez ere. Gizartearen lan munduan ongi egokiturik dagoela, bat-batean bere ahalmen fisikoa urritu zaion pertsona izango da elbarri etorkizunean. Horrexegatik hain zuzen arreta handiagoa eta zerbitzu bereziak eskatuko ditu berriro gizartearen bere lekua izateko.

Ikuspegi horretatik begiratuta, bada, behar-beharrezkoa da maila guztietan irisgarritasuna areagotzeko neurriak hartzea, pertsona elbarria gizartearen eta lanean egiaz egokitu dadin. Begien bistan dago, horrenbestez, pertsona elbarri bat ez dagoela-osoki egokituta, etxebizitza egokitu bat eduki bai, baina gero kalera irten eta bere lanera joaterik ez badauka, edo libre duen astia nahi bezala erabili ezin badu, zinera joanez, kirolen bat eginez edo lagun bati bisita eginez.

Ingurune fisikorako irisgarritasunari dagokionez, zalantzarik ez dago alde guztietatik begiratuta, hots, garraio munduaren irisgarritasuna, eraikinen hirigintza- eta arkitektura-oztopoak kentzea, horiek guztiak batera harturik heldu behar zaiola gai horri, eremu desberdin horietako batean aurkitzen den oztopo bat aski baita gainerako guztian berebiziko eragina izateko.

Horregatik, arazoaren alorkako ikuspegi hori gainditu eta ikuspegi oso bat hartzeak egiazko erabiltzaileentzat irtenbide orokorrak ekarri behar ditu, baina aldi berean alor bakoitzerako behar diren hobekuntzak bazter utzi gabe eta haiek ere egiten ahaleginduz.

Ikuspegi honetatik oso kontuan hartzeko gauza da, eta maiz gertatzen dena, oztopoak kentzeko hartzen diren zenbait neurrik elbarrien mugitzeko gaitasuna areagotu eta erraztu egiten dutela, baina aldi berean itsuen mugitzeko gaitasuna urritu eta oztopatzen dutela. Horregatik, hain zuzen, oztopoak kentzeko asmoren bat burutzeko lanak bideratzen direnean mota

desberdinetako elbarritasunak dituzten pertsonen mugitzeko premiak hartu beharko dira kontuan.

Hitz gutxitan, beraz, gure hiriak eta herriak ikuspegi orokorrago batetik begiratuta planifikatzera jo behar dugu, orain arteko ekimen mugatuen ondorioak gaindituz, ez baitu ezertarako balio espaloi baten ertza apaldu eta beheratzeak haren aurrean elbarrientzat inolako irispiderik ez duen polikiroldegi bat edo zinema areto bat jasotzen baldin bada, edota espaloi berean pasabidea zailtzen duten hiriko gai mugikorren oztopoa aurkitzen badugu. Hortaz, adabaki-politika hori gaitzetsi egin behar da, eta ikuspegi oso orokor batez bideratutako ekimenak bultzatu, pertsona multzo horiek gizartean osoki egokitu ahal izan daitezen.

Beste alde batetik azpimarratu beharra dago gainera, jendearen mugikortasuna erraztu eta areagotzeko hartzen diren neurriak ez direla elbarrientzako bakarrik mesedegarri. Begien bistako gauza da ospitaletako larrialdietako kontsultetara iristeko eskailerak kentzeak, oinezkoentzako pasabide ziur-erosoak edukitzeak, autobus baten plataformara edo distantzia laburrerako tren batenera jauzi egin beharrik gabe iritsi ahal izateak, edo metrotik irten edo zentru publiko batean sartu berebiziko ahaleginik gabe egin ahal izateak, ez dakarkie mesede elbarriei bakarrik, herritar guztiei baizik.

Horregatik zinez esan daiteke pertsona multzo jakin baten eskari bezala jaio zen hura, eskari orokor bilakatua dela gaur egun, hiriaren eraikuntzarako kalitate eskakizun bat, alegia, hiria hiritar guztien gozagarri egiteko erantzukizun publiko horretan kalitate eskakizun bat.

Hiriko leku publikoak eroso eta ziur izan daitezela eskaria ez da elbarrien eskakizuna soilik, mugitzeko ahalmena urritua duten pertsona ororena baizik, izendatzeko modu horretan bere gaitasun fisiko edo zentzumenezkoak betiko edo aldi baterako urriturik dituzten pertsona guztiak hartzen direlarik. Gogora dezagun, besteren artean, 51/81 eta 291/83 dekretuek berek haurrak, haurdun dauden emakumeak, zamak daramatzaten pertsonak aipatzen dituztela araudi honen onuradunen artean. Ikuspegi horretatik berorretatik, oso kontuan hartzekoa da pertsona zaharren multzoa geroz eta handiagoa ari dela egiten, eta horretxen ondorioz ingurunerako irisgarritasuna geroz eta pertsona gehiagorentzat ari dela premiazko bihurtzen.

Gizarte osoak eta Administrazioak konturatu beharra dute, beraz, norentzat ari diren hirigintza egiten, norentzat ari diren eraikitzen, eta laburtzeko, norentzat ari diren diseinatzen hiria. Irisgarritasunaren gaia ez da azaldu behar bazterreko gutxiengo baten arazoa besterik ez balitz bezala, biztanle guztientzat beharrezko den hobekuntza bat bezala baizik, bizi-kalitatearen beste erakusgarri edo ezaugarri bat bezala alegia.

Zentzu hori dute beren baitan Espainiako Estatuko zenbait komunitate autonomotan lekuen irisgarritasuna bultzatzeko eta arkitektura-oztopoak kentzeko prestatuz eta onartuz joan diren lege berriek.

Kataluniako lekuen irisgarritasuna bultzatzeari eta arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko azaroaren 25eko 20/91 Legeak, gainerako komunitate autonomoentzat eredu izen denak, eta geroztik onartu diren gainerako arauak,

arrazoi adierazpenean, lehenasuna ematen diote guztientzako egokia izango den ingurune bat lortzeari, berdintasun irizpidearen adierazgarri nagusi bezala, biztanlegoaren zahartzea eta nolabaiteko mugak dituzten pertsonen ugaltzea kontuan harturik. Azken finean biztanle guztien bizi-kalitatea hobetu nahi da, eta mugikortasuna urritua duten edo bestelako mugak dituzten pertsonena bereziki.

Arau hauetan denak batera hartzen dira hirigintzan eta erabilera publiko-ko eraikinetan izan daitezkeen arkitektura-oztopoei, baita garraio-bide publikoetan eta zentzumen bidezko komunikazioan egon daitezkeen oztopoei ere dagozkien xedapenak.

Aipatzekoa da, orobat, lege horietako batzuetan epe jakinak jartzen direla era bateko edo besteko administrazioek programak zehaztu ditzaten, bai hirigintzari dagokionean, bai erabilera publikoa duten eraikinetan eta garraioetan egon daitezkeen oztopoak mailaz maila kentzeko eta horretarako aurrekontuetan izendatu behar diren partidak izendatzen hasteko. Eraikin pribatuetan arkitekturako oztopoak kenduz joan daitezken, sustapen neurriak hartzen dira gehienbat (adibidez, Madrilgo 8/1998 Legea, Gaztela-Mantxako 1/1994 Legea, Errioxako 5/94 Legea).

Ildo horretatik, bereziki aipagarria iruditzen zaigu Gaztela-Mantxako 1/1994 legearen 26.2. artikulua, beren lantegiak mugikortasuna betiko urriturik duten pertsonentzat irisgarri egiteko egokitze-lanak burutzen dituzten enpresariarentzat sustapen neurriak aurrikusten baititu. Gisa horretako neurri bat ez da aipatzen gure elkarte autonomoan indarrean dagoen araudian; eta guk oinarri-oinarrizkotzat jotzen dugu pertsona elbarrien multzoa gizartean eta lanean egiaz egokitzea lortu nahi bada.

Era berean, aipatzekoak iruditzen zaizkigu araudi horietan arauak beteko direla bermatu ahal izateko ezartzen diren xedapenak ere.

Horrela, esan daiteke, adibidez, baimendutako proiektua bete gabe burutu diren eta irisgarritasunari buruzko baldintzak betetzen ez dituzten obrei dagokienez, zigor-espedientea ireki eta horien instrukzioa hirigintzako legerian ezarrita dagoen prozeduraren arabera egiten da, interesdunari entzunik, eta obra horiek arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudira molda ezin daitezkeelako legezkotu ezinakin baldin badira, adostu ezin diren elementuak eraitsi behar direla iragarrita dago, legeriak horretarako aurrikusita daukan moduan (besteren artean Madrilgo 8/93 Legearen 25. artikulua; Errioxako 5/94 Legearen 8. artikulua).

Orobat lege horietako aginduak betetzeko baldintza eskatzen da nahitaezko diren baimen eta lizentziak eman ahal izateko, eta derrigorrezko egiten da lizentziak lortu ahal izateko beharrezko diren proiektu teknikoei onespina emateko eskua duten kolejio profesionalentzat, kolejio hauek irisgarritasunari dagokion xedapenen bat betetzen ez bada onspen txosten horietan zehazki aipatu behar dutelarik, proiektuen arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko arauen bat hausten dutenean.

Arau horiek guztiek badute zigor-jaurbidea oztopoak deusezteari buruzko xedapenak urratzen dituzten ekintza eta ez-egite edo hutsegiteetan ezartzeko.

Bereziki aipatzekoa da, alde honetatik, kontrol sistema bat ezartzen dela udalen beren geldokeriagatik gerta daitezkeen kasuetarako.

Horrela, adibide soil bat emateagatik, Errioxako Diputazio Nagusiaren 5/1994 Legearen 27. artikulua haxe aurrakusten du: "udalen batek, Errioxako Komunitate Autonomoko Administrazio publikoak lege honetan finkatzen diren lege-hausteetako edozein izan daitezkeen egintza bati buruz aurrez oharrazirik, zigorbideari hilabete bateko epean ekingo ez balio, Komunitate Autonomoak abiarazitako zigor-espeditentagatik ezarritako isuna udalak ez, baina Komunitate Autonomoak kobratuko du."

Kontuan hartu behar da alkatea zigorrak ezartzeko eskumena duen organo nagusia dela, eta aldi berean, hirigintzarako ematen dituen baimenen eta lizentzien bidez, oztopoak kentzeari buruzko arauak zorrozki betetzen diren ikuskatu behar duen administrazio-organoa ere badela.

Arau hauetan guztietan biltzen da orobat, Errioxako Diputazio Nagusiaren 5/1994 Legean izan ezik, iristerratasuna bultzatzeko eta oztopoak kentzeko helburua izango duten kontseilu edo departamentu arteko batzordeak sortzeko aurrakuspena, jendearen parte hartzeko eta kontsultarako organo izan daitezkeen.

Batzorde horiek komunitate autonomo bakoitzeko Gizarte Ongizate Sailko gobernu-sailari atxikirik daude, eta berorietan parte hartzen dute gobernu-sail guztietako ordezkariak, udaletakoek, udal federakuntzetakoek, mugikortasuna urriturik duten edo bestelako mugak dituzten pertsonen elkarteak biltzen diren erakundeetakoek.

Kontseilu horiek oro har izendaturik dituzten eginkizunen artean aipatzekoak dira: irisgarritasunari eta oztopoak kentzeari dagokien guztian aholku ematea, argibideak ematea, egitarauak prestatzea edo jarduera eta eskuharren irizpideak finkatzea.

Kataluniako Ganeraltateko Gizarte Ongizate Sailak onartua du, 1993ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez, irisgarritasuna bultzatu eta arkitektura-oztupoak kentzeaz diharduen Kontseiluaren barne-jaurbiderako araudia.

7.7.5. Proposamenak

Azkerketa honetan egin diren gogoeta guztiak kontuan hartuta, Ararteko honek uste osoa du ezen gure udaletan irisgarritasun bete-betea lortzeko eta arkitektura-oztupoak kentzeko, asmo horretan agintari publikoek partehartze handiagoa izan behar dutela lehendabizi; horregatik hain zuzen, Administrazioak jarrera erabakiorra hartu behar du honetan eta ahalegin handiagoa egin behar du ingurunea guztiontzat egokiagoa izan dadin, eta, azken finean, hartara era bateko edo besteko elbarritasunak edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizartean osokiago eta normaltasunez egokitu daitezkeen lortzeko.

Horregatik, bada, Ararteko honek ondoko neurriok har daitezkeen proposatzen du:

1) Gai honetan eskumena duten administrazioek, udalek batez ere, udalerrri bakoitzean egon daitezkeen oztopoak zein diren ezagutu eta zehazteko ikerketak eta proiektuak bultzatu behar dituzte, horrela oztopo horiek kentzeko egitasmoak egin ahal izan daitezzen, orografia, erabilgarritasuna (hiriaren erabilerak), eta arriskuan diren pertsona multzoak kontuan hartuz, eta lan horietarako diru-kostuak ere kalkulatu.

2) Gai honetan zerikusirik duten administrazioek zorroztasun handiagoz ikuskatu beharko dute gaur egun oztopo fisikoak kentzeari dagokion guztian indarrean dauden arauak betetzen diren ala ez eta zenbateraino betetzen diren, hau da, zorroztasun handiagoz ikuskatu beharko dute Eusko Jaurlaritzaren 51/81 eta 291/83 dekretuak betetzen diren eraikin jaso berrien proiektuei begira; horretarako udalek behar dituzten baliabide material eta jendezko guztiak izan beharko dituzte.

3) 25.000 biztanletik gora dituzten udalerriek, eta Bilboko Hirialdean eta Donostiako eginkizun-eremuan daudenek, Eusko Jaurlaritzaren 132/94 Dekretuaren arabera 1998ko apirilaren 8a baino lehen beren oinarritzko planeamendua aldatu eta/edo 1992ko Lurraren Legeari buruzko Testu Bateratu berriari egokitzera beharturik daude, eta horregatik, aldaketa eta egokitze horri ekiterakoan kontuan izan behar dituzte oztopo fisikoak kentzeari buruzko dekretuetan jasorik dauden xedapenak. Gomendio hau berau baliagarria da beren planeamendua oraindik behin-betiko onartu gabe duten udal guztientzat ere.

4) Arkitektura eskoletan proiektuen azterketa eta diseinua, araudi orokorraz gain, irisgarritasunari dagozkion irizpideak ere aintzat hartuz egin dadin ahalegindu beharra dago, eta orobat eginahal berezia egin behar da informazio teknikoa gai honetan erantzukizuna duten pertsona taldeetan zabaltzeko, hala nola arkitektoen, injineruen, etxegileen eta eraikuntza-proiektuak berrikusi nahiz aztertzekeo ardura duten udal teknikarien artean.

5) Erakunde publikoek jabego pribatuko eraikinetan ere oztopoak kentzen has daitezzen sustapen-neurriak hartu beharko dituzte.

6) Eraikinetan eraberritzeko obrak egiten direnean edo hirigintzako elementuak egokitu edo hobetzeko obrak egiten direnean, pertsona elbarrien elkarteei beren iritzia eskatu beharko zaie.

7) Kultur edukien artean herritar guztien premiak, mugikortasuna urriturik dutenenak eta ez dutenenak, ezagutzen eta antzematen jakitea txertatu beharko da, horixe baita bermerik hoberena arazo hau konpon dadin. Hiriko biztanle eta erabiltzaile orok, hiriaren eraikuntzan erantzukizuna izan ala ez izan, ondo jakinaren gainean egon behar du badirela bestelako jende multzoak eta ezagutu behar ditu haien ezaugarriak, hartara etorkizunean ez baita izango obra berriek sortutako arazoak konpontzen jardun beharrik izango.

8) Informazio eta heziketa kanpainak egin beharko dira, bai biztanleei oro har zuzenduak, eta bai, bereziki, haur eta gazteei zuzenduak, mugak dituzten pertsonen arazoei buruz jakitun eta sentibera izan daitezzen, pertsona hauek gizartean egiaz egokitu daitezzen bideak jartzeko.

9) Azkenik, ikerketa honetan adierazi diren gogoetak aintzat harturik, Ararteko honek beharrezko ikusten du arau berri bat onar dadin, lege mailako araua hain zuzen, oztopo mota guztiak, arkitekturakoak, hirigintzakoak, garraioarenak eta zentzumenezko komunikazioari dagozkionak, araudi berean batuko dituen. Arau horrek, betez joan dadin, epeak finkatu beharko ditu, eta aurrekontuetan behar diren erreserbak egitera behartu, kasu bakoitzean dagoen erakundeak oztopoak nola kendu planifika dezan, jabego publikoko zentru edo eraikinetakoak batez ere. Arau honek behar diren neurriak aurrikusi beharko ditu jabetza pribatuko eraikuntzetan ere, batik bat lantokietan, oztopoak kentzen has daitezen bultzatzeko; eta orobat behar diren neurriak aurrikusi beharko ditu araua egiaz betetzen den ikuskatzeko, eta zigorbidea zehaztu beharko du, bertan arau-hausteak tipifikatuz eta bakoitzari dagokion zigorra zehaztuz.

10) Arau horretan Kontseilu bat finkatu beharko da arauak bete daitezen bultzatzeko, arauak betezen diren jakiteko, eta irisgarritasuna sustatzeko laguntzak bideratzeko.

VIII. ATALA
AZKEN ONDORIOAK

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko Legeak bere 3.2. artikuluan dioenez, eskubideen babesa Euskal Elkarte Autonomoan oro har zein egoeratan dagoen aztertu behar da Legebiltzarrari urtero aurkezten zaion txostenean.

Berriro esango dugu azken ondorio hauen helburua ez dela Euskal Elkarte Autonomoan eskubideen egoera oro har nolakoa den azaltzea, aipatu gabe utzi beharko baititu norbanakoek edo Arartekoaren jarduera-esparrutik kanpo dauden herri-agintariak egindako eskubide-urratzeak.

Horregatik, Arartekoaren jarduera oinarritzat harturik, euskal herri-administrazioek, hiritarren eskubideei dagokienez, 1994. urtealdian izan duten jarreraren berri emango dugu.

Aurreko urtealdian, Arartekoaren eta Estatuko gainontzeko legebiltzar-ordezkarien jardueren arabera, agerian geratu zen, Zuzenbidezko Estatuan izan behar duen bezala, Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren bigarren kapituluko lehen sailean agertzen diren eskubideekin lotura duten oso kexa gutxi zeudela. Joera hori aurten ere antzeman da.

Era berean, gizarte-eskubideak deritzenak eta Espainiako Konstituzioaren 103.1. artikulua urratzeak eragin dute kexa gehien. Artikulu horrek eraginkortasun eta erabat Legearen eta Zuzenbidearen menpe jokatzeko irizpidearen arabera jardutera behartzen ditu herri-administrazioak, alderdikierarik gabe interes orokorren alde jokatzu.

Zorionez, jasotako kexei begira, osasun-eskubideari dagozkienak izugarri gutxitu dira; gure ustez hori aipagarria da, hiritarrek garrantzi handia ematen diotelako eskubide horren babesari.

Administrazioaren geldokeria salatzen duten kexak ere nabarmen gutxitu dira.

Araudietan izan diren aldaketei eta administrazioen ardura-hartzeari esker, Administrazioaren isiltasuna bezalako lege-irudiak (lehen gehiegitan erabiliak) oso gutxitan agertzen dira.

Prozeduran egiten diren legezkanpoko ekintzek askotan, zoritxarrez, babesik eza ekartzen dute, eta epaile-babes eraginkorra izateko eskubidea hausten dute.

Horrela, batez ere Administrazioaren zigor-ekintzekin zerikusia duten kexen kopurua igo da, eta horregatik beharrezkoa da babesik eza galarazteko neurriak sendotzea.

Egoera horiek zuzentzea da, hain zuzen, Administrazioaren zigor-prozeduretan ediktu bidez egiten diren jakinarazpenei buruz Arartekoak egindako gomendio orokorraren helburua.

Gizarte-laguntzari dagokionez, adinekoen egoitzetako laguntza aztertzean eta egoitzetatik kanpo ematen den laguntzari buruz orain egiten ari den ikerketan, hauxe antzeman da: Estatuko gainontzeko herriekin alderatuz egoera txarra ez bada ere, gure ustez onena den mailara iristeko asko falta dela. Horregatik, herri-agintarien aldetik konpromezu sendoagoa behar da askotan babesik gabe egon ohi den talde honi laguntzeko.

Etxebizitza publikoen eskaintza behar adinakoa ez denez, eta etxebizitzak eraikitzeko lurrak eskuratzen ez direnez, euskal hiritar askok ezin du etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatu, gehienetan euskal hiritarrek ezin baitute etxebizitzek merkatuan duten salneurria ordaindu.

Sailkatutako ekintzen inguruko kexa-kopuruak nabaria izaten jarraitzen du, batez ere hiriguneetan taberna eta ostalaritza-jarduerek eragindako zara-tengatik.

Zarata-kutsadura zoritzarrez oso zabaldua dago, baina horren aurkako jarrera gero eta gehiago hedatzen ari da, eta horrek erakusten du herritarrek gero eta gehiago arduratzen direla ingurugiroari egiten zaizkion erasoeraz.

Epailaritza-prozesuetan erabakiak hartzerakoan dauden atzerapenek kexa ugari eragin dute oraingoan ere; beraz, beharrezkoa da arazoak arazoizko epean konpontzeko aukera emango duten irtenbideak bilatzea. Hala ere, egia esan behar bada, euskal Administrazioak ahalegin handia egin du Justizi Administrazioako administrazio-zerbitzuei bitarteko materialak emateko, eta horren ondorioz prozeduren amaiera-epea laburtu egin da.

Azkenik, funtzio publikoarekin lotura duen kexa-kopuruak aurreko urtetako joerari eusten diola adierazi nahi dut.

Euskal hiritar askoren helburu nagusia lana aurkitzea den une honetan, herri-administrazioek gardentasuna erakutsi behar dute hautaketa-prozesuetan, eta deialdi-aginduetan bereiztailea izan daitekeen edozein baldintza kendu behar dute. Gainera, hautaketa-epaimahaietako kideak egokiak direla ziurtatu behar da, batez ere kide horiek, maila teknikoan, beren gogoko irizpidea aukeratzeko duten ahalmena kontuan izanda, horrek zenbait kasutan babesik eza sor baitezake.